

aurkibidea

<i>Zenbaki honetan</i>	3
<i>Gure erutziz</i>	5

Euskal Historiografiaz (1960-1988)

LOPEZ ATXURRA, R.: Euskal Historiaren historiografiaz	9
URRUTIKOETXEA, J.; ARTZAMENDI, A.: Euskal demografiaren histori- tariaz	39
AGIRREAZKUENAGA, J.: Historia ekonomikoaz: Eraberritzearen urratsak	49
MAJUELO GIL, E.: Euskal Herriko historia sozialaren garapenez	69
APALATEGI, J.: Bizitza politikoa eta abertzaletasuna euskal historio- grafian (1960-1988).....	81
Bibliografia	46, 62, 79, 125

Gaiak

MUJIKÁ, N.: Toponimiaren erabilera praktikoaz	133
ALBISTUR, I.; ORTIGOSA, K.; OIHARTZABAL, L.: Irakaslearen <i>rol</i> -eko gatazkak. Konponbide-proposamen	145
URRUTIA, A.: Euskararen erabilera herritarren arteko harreman juri- dikoak.....	163
AGIRRE, E.: Beste Latinamerika	185

Liburuak

Jaso ditugu	203
-------------------	-----

© **JAKIN**

JAKINEko idazlanean
inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria.

JAKIN

aldizkari irekia da eta
ez dator nahitaez
idazleen eritziekin bat.

Zuzendaria

joan mari torrealdei

Idazkaritza eta administrazioa

Ategorrieta hiribidea, 23, 1. esk.
20013 Donostia. Tel. (943) 27 17 13

1989ko prezioak

barruan		kanpoan	
harpideduna	ez-harpideduna	harpideduna	ez-harpideduna
harpidetza ...3.000 pta.	—	3.500 pta. (175 FF)	—
ale arrunta500 pta.	800 pta.	600 pta. (30 FF)	900 pta. (45 FF)

Jabegoa: Anaidia. Arantzazu. Lege-gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: 0211-495X.
Fotokonposaketa: Onena. Lasarte. Inprimaketa: Lizarra. Lizarra.

Eskuetan duzun hau, bigarren aldiko 55. zenbakia da eta 1989ko seigarrena. Hurrengo orrialdeetan esaten dugunez, orainarteko erakunde-barnean argitara ematen dugun azken zenbakia da hau. Bestalde, aurten eskaini ditugu lehenengo aldiz urteko sei ale. Bederatziehun orrialdeko lana burutzea zen gure asmoa, eta 1.044etara iritsi gara, lortu ahal izan den kalitateari, zegokion kopurua ere emanez.

Aurreko zenbakia bezalatsu, saiatu gara urteko azken hau ere monografiaren eta lan solteen artean erdibanatzen edo.

Atal monografikoak, aspaldixotik astindu nahi genuen azterkizuna hautatu du oraingoan: Azken urteetako Euskal Historiografia. Historiaz —bere historiaz, alegia— ongi arduratuta agertzen den euskal irakurlego eta euskaltzalego ez-espezializatuak estimatuko du, uste dugunez, saio laguntzaile hau. Asmoa, oso laburki esanda, hauxe da: Zorionez, gero eta zabalagoa den bibliografia historikoaren basoan bidezidor nagusi batzuk markatzea.

Horretarako, gaiari bi ikuspegitatik helduko diogu: oraingoan, analisi historikoaren oinarrizko abiapuntuetara jo dugu (ekonomia, demografia, bizitza politikoa...), alor horietan azken urteetan kaleratu den bibliografia aurkeztuz. Hurrengo batean, aukerarik baldin bada bederen (eta

espero dugu baietz), gure historiaren alde kulturalaz espreskiago mintzatu-
tuko gara, azken hamarkadetan izan ditugun ikerlan eta argitalpen ba-
litzkoenak azpimarratuz.

Lehenengo ekinaldi kritiko-bibliografiko honetara gatozela, aipa di-
tzagun hemen irakurleak ondoko orrietan aurkituko dituen lanak: Lehe-
nik, R. López-Atxurra-k sarrera orokor bat eskaintzen du, betidaniko
euskal bibliografiaren lerro orokorrenak emanaz. Ondoren datoz alor be-
reziagoak: Demografiako albisteak non idoro ditzakegun esaten zaigu
(J. Urrutikoetxea / A. Artzamendi); historia ekonomikoari leku zabala
eman zaio hurrengo lanean, hor ere azken liburu jakingarrienak komen-
tatuz (J. Agirreazkuenaga); E. Majuelo-k biltzen ditu historia sozialaz
bibliografian ispiatzen diren arazorik larrienak; azkenik, Euskal Herriko
bizitza politikoaz eta abertzaletasunaren gorabeherei buruzko historio-
grafia ikus daiteke (J. Apalategi). Oro har, lankide bakoitzak dituen
ñabardurekin, informazio bibliografiko argigarriak topatuko ditu lan
hauetan irakurleak.

Gaiak sailak, atalak ohi duen gai-hautapen, librearekin, askatasunez
elkarretaratzen ditu bereak: Euskal Herriak bere osoan aurre egin behar-
ko dion biderapen toponimastikoaz ari da N. Mujika; ikasle-irakasleen
arteko harremanen gatazkak dira hurrengo lanaren aztergaia (I. Albistur,
K. Ortigosa, L. Oihartzabal); A. Urrutiak, herritarrek zeregin juridikoe-
tan euskara erabiltzeko dituzten legezko eskubideak aztertzen ditu; eta,
azkenik, harreman juridikoetatik Itsasaraindira jauzi eginez, A. Agirre-k
Latinamerikaz ihardungo du.

Jaso ditugu azken sailean, gurera iritsi zaizkigun argitalpenen albis-
tea ematen da.

35 urte bete dira, eta bagoaz aurrera

Hogeitamabost urte bete dira: 1956-1989. Ikasle-multzozko batek, Euskaltzaindiaren gerraondoko lehenengo Bilerak irekiak zirela-eta, aldizkari xume bat atera zuen argitara Arantzazun: 1956. Geroztik, gisa batean nahiz bestean (aldizkari eta liburu) bidea bete da. Eta orain, 1989ko abenduan, bihurtune batera iritsi gara: Orainartean frantziskotarrek babestu duten aldizkaria, praktikan ezezik formalki ere bai, egoera juridiko guztiz beregain batera pasako da.

Orainarteko urte guzti hauetan, "Editorial Franciscana Aránzazu"ren (EFA) itzalpe juridikoan zaindu ahal izan ditugu aldizkariaren askatasuna eta pluralismoa. Frankismoan eta haren ondoko urteetan, gure lana errespeto guztiz begiratu dute frantziskotarrek, eta erraztasun pertsonalik onenak eman izan dizkigute taldea oso eta lanak buru geniztan. Geure eta irakurleen izenean, eskerrona baizik ez diegu zor erakutsi diguten euskaltzaletasunagatik, eta eskuza-balki ezagutu diguten libertateagatik.

Eliz erakundearen babesean jaiotako beste erakunde asko bezala, Jakin ere Elizaren beraren zerbitzuan eta probetxuan erabilia ere izan zitekeen. Inoiz horrelako beldurren bat sumatu ere egin dugu gure adiskide euskaltzale zenbaiten baitan. Adiskide horiek ordea, dagoeneko aitortu digute, zinez eta bestelako bitartekaririk gabe Euskal Herriaren —eta ez Erakunde aipatu horren— zerbitzuko lana burutzen ari zela Jakin hau. Jakin-en Redakzioko lagunok, aldakuntz une honetan, eskerrak eman nahi dizkiegu frantziskotarrei: bizi izan dugun politika ireki hori gabe ez genuen guk egindako lana burutu ahal izango. Kasu honetan, bederen, Ebanjelioari jarraiki, Elizak ez du boterea beretzat bilatu.

Jakin-en historiarako lehen datuak bilduta geratu ziren bigarren aldiko 21. alean; ez dago, beraz, albiste haiek errepikatu beharrik, eta gatozen 1989 honetara.

Inguruaren gero eta premia handiagoak ikusita, inguru euskaltzale berorrek dagoeneko eskaintzen digun lankidego zabalagoaz ohartuta, gure profesionaltasunean pauso berri bat eman nahi dugu Jakin-en. Horren beharra nabaria dela uste dugu. Bestalde, berehalako garapen berriek lankidetzamolde eraberrituak eska ditzakete, eta gaurdainoko lan-segidatasuna hobetzera jo beharko du aldizkariak. Segidatasuna segurtatu eta argitaragaien kalitatea gero eta gehiago zaindu: etorkizunean helburu horiek eskuratu ahal izateko, Jakin Taldeak bide berriari ekiteko erraztasunak eskatu dizkie aldizkariaren legezko jabeei.

Eta berriz ere erraztasun horiek erabatekoak izan dira EFAren aldetik: Jakin aldizkariak erakundeztapen juridiko osorik beregaina izango du, dagokion enpresaren kudeakuntzarako eta berrantolaketarako, praktikan ezezik baita bere legezko burujabetasunean ere. Esan bezala, oraingo ale hau da orainarteko bideetatik kaleratzen den azken zenbakia.

Horiek horrela, Redakzioak ez du berehalako aldakuntzarik izango: Lehengo Zuzendariarekin jarraitzen dugu, eta, urteko plangintza betiko gainerakoon eskuetan landuko da.

Hala ere, ohizko eginkizunak betez goazen bitartean ondoko urteetarako asmoak heldutasun jasoago batera eraman nahi ditugu 1990ean. Izango duzu, irakurle, bere garaian horren berririk. Idazle lankideekin eta gure ekonomiari ere lagun diezaieketenekin harremanetan, Euskal Herriko gizarte eta erakundeetara eraman nahi ditugu gure ametsak, guztion artean zerbait handiagorik egin ahal izan dezagun.

Beraz: Honaino iristen lagundu diguzuen guztioi eskererrak, bihotzez, esker mila, eta orobat eskerrak gure lanean gora egiten gerora ere lagunduko diguzuenoi.

Jose A. ADURIZ
Ana AGIRRE
Esteban AGIRRE
Sara AGIRRE
Paulo AGIRREBALTZATEGI
Jose A. AGIRRETXE
Nekane ANSOLA

Joxe AZURMENDI
Pello HUIZI
Joseba INTXAUSTI
Mila LARREA
Pili LARREA
Manolo PAGOLA
Joan M. TORREALDAI



Rafael López Atxurra
Jose txo Urrutikoetxea
Arantxa Artzamendi
Joseba Agirreazkuenaga
Emilio Majuelo Gil
Jokin Apalategi

EUSKAL HISTORIOGRAFIA

Historiografia klasikoa

Erdi Arotik hasita Euskal Herriko Lurraldeetan historiografiarik ezagutu da. Aro Modernotik hona ezagunagoak ditugu historiariak: Zaldibia, Garibai, Oihenart, Moret, Landazuri, Iturriza, etab.

Demografiaren historia

1970etik aurrera, erbestetik ekarritako metodologiaren itzalpean, Euskal Herrian ere agertu da eremu honetako bibliografia berririk. Azterkizun berrietarako artxibo-iturriak.

Ekonomiaren historia

Euskal egitura ekonomikoen historiarako bibliografia jakingarriaren aurkezpena. Makro- eta mikro-ekonomiaren eta eskualdekako ikerlanen osagarritasuna.

Gizartearen historia

Ikerkuntzarako eragozpenak. Produktzio bibliografiko mugatua. Berrikitan urratutako ildo sozialak. Lan berrien itxarokizunak.

Politikaren historia

Alderdi eta mugimendu politikoen historia. Erakundeena. Autore lekukoak. Botere politikoaren erro sozialak. Abertzaletasunaren historia: lehen pausoak, bilakaera (eskuina/ezkerra). Iker-iturriak. Edizio jakingarriak.

Euskal historiaren historiografiaz

Rafael López Atxurra

Euskaldunei buruzko idatzizko *lehen erreferentziak* Kristo aurreko lehen mendean egiten dira eta greziar/erromatar idazleak izango dira, hain zuzen ere, lehen aipamen horiek egingo dituztenak. Strabon, Ptolomeo, Plineo, etab. alegia. Ez dugu ahaztu behar historia greziarren artean (V. mendean K.a. Herodoto) sortu zenik.

Aipatu idazle horiei esker, bada erromatar garaiko euskal leinuak berri dakigu, hau da, non kokatzen ziren, zeintzuk ziren beraien ohiturak, bizimoduak, antolamendu soziala, etab.¹ Euskal leinuak erromatar zibilizazioaren ikuspegitik aztertuak zirenez gero barbari edo basatien munduan sartzen ziren.

Iberiar penintsulako iparraldean kokatzen den herri honetaz aritzen zirenean, goi-ertaroko visigotiar kronikek eta arabiar kronikek basatitasun hori azpimarratu egiten zuten eta beste hainbeste egin zuen XII. mendean Aimeric Picaud erromesak (Erromesen gidaliburua-Codex Calistinus)².

Erdi aroa

XI. mendetik aurrera hiriak eraikitzeko politika bultzatu bazen ere, ez zirudien kultura idatziarentzat egoera egokirik zenik oraindik, hau da, jaun, eliz eta erret boterearen inguruan sortzen ziren dokumentuek euskal jendearen berri ematen bazuten ere, Euskal Herriaren barnean sortutako produkzio historiografikorik ia XV. menderarte ez bait zen ezagutu. Leon, Gaztela, eta Aragoako erresumek eta Kataluniako printzerriak, alderantziz, tradizio historiografiko bat ezagutu zuten³ eta tradizio horren barnean kokatu behar da D. Rodrigo Ximenez Radakoa, nafarra (1170-1247), Toledoko artzapezpiku izan zena eta "Historia gothica"ren egilea⁴.

Annales edo Kronika izenarekin egiten ziren historiak, batez ere, erregeez aritzen ziren, ez da harritzekoa bada, euskal lurraldearen artean goren maila politikoa lortu zuena *Nafarroako erresuma* izan bazen, lehen erreferentzia historiografikoak han aurkitzea. Dena den, XIV. mendean, frai Garzia Eugikoa (Baionako apezpikua eta Nafarroako Carlos III.aren konfesoera izan zena) Nafarroako historiaz aritu zenean ez zuen berorretaz soilik idatzi «Chronica de las fechas subcedidas en España desde sus primeros señores hasta el rey Alfonso XI» izenburuak adierazten duenari buruz idatzi bait zuen batez ere.

Beraz, XV. menderarte Nafarroak ez du izango historiografia berezirik, Nafarroako erresuma (hasieran Iruñeko erresuma deritzana) IX. mendean sortua izan arren.

XV. mende horren hasierakoak dira "Genealogia regum Navarrae", Pedro Valentziakoak idatzitako Nafarroaren historia edo Garci Lopez Orreagakok idatzitako kronika, kristautasunaren sarerarekin hasten dena.

Aipatu datu labur hauetan zera ikus genezake: a) Nafarroako erresumari zegokion historia sortzen ari zela; b) histori gaiari ordena emateko lehen era, genealogia zela eta d) kristautasuna oinarritzko abiapuntua zela (erreferentzi kronologikoa ezarriz gain, kristautasunak historiari zentzua ematen zion).

Euskal Herriaren *mendebaldeko lurraldeak* berriz, XI. mendeaz gero jaur egiturak ezagu zituzten (Arabaren jadanik IX. mendetik aurrera); XII. mendetik XIV. menderarte, gorabehera handiekin Nafarroako eta Gaztelako erresumen eragin barrutian zi-

ren; XIV-XV. mendeetan zehar giro egongaitza ezagutu zuten (ahaide nagusien arteko borrokak), bazegoen beraz, kontatzeko gaia, produkzio historiografikoa, emaitza ordea berankorra izan zen.

Dena den, gertakizun eragingarriak edo adierazgarriak herriaren memoria kolektiboan gorde ziren eta ahozko tradizioaren bidez besterenganatu egin ziren.

Honela bada, hasiera batean, historiaren berri kantuek emango digute; historia itxura poetikoz agertuko da⁵. Horra hor, esate baterako, Beotibarko batailaren kantua (1321), Nafarroa eta Gipuzkoarren arteko tirabira azaltzen duena; Arrasate erretzearen kantuak (1448), ahaide nagusien arteko borroka agertzen duena, etab. gero XVI eta XVII. mendeetan idatziz jaso zirenak⁶.

XV. mendean Euskal Herriak giro egongaitza ezagutu bazuen ere (eta horren ispilu ahaide nagusien gerla dugu), ordenuaren ildotik ere egin ziren gauzak, horra hor, ahozko tradizioaren bidez gordetzen ziren herriaren usuario eta ohituren biltze-lana. Forueetan, hau da, prosa juridikoan gauzatu zena⁷.

Foruek, antolaketa publikoaz eta egunero sor zitezkeen arazo eta gatazken administrazioaz informazioa emateaz gain, eta herriak egunero errepikatzen zuen historia ispiatzten zuten heinean, historiaren erreferentzia egonkorra ematen digute, hau da, une luzetako estruktoretan oinarritzen dena (herentzi sistema kasu).

Foruek bada, historia kolektiboa, anonimoa jasotzen zuten, edo hobeki esanda, herriaren eguneroko portaerak arautzen zituen estruktura erreferentziala eskaintzen zuten. Dena den, argi dagoe-na zera da, prosa honetan asmo eta intentzio historikorik agertzen ez bada ere, errealitatea antolatzeko, arautzeko bidea izateaz gain, errealitate sozial hori era sistematiko batez azaltzeko modua izan zela badakigu, eguneroko problemen inguruan egin zena (ekonomia, giza harremanak, antolakuntzaren arazoak) eta ez kronologia jarraituz.

Izen propioa dutenen historia ere, hau da elitearen historia (erregeak, jauntxoak), mende honetan finkatu zen, errealitate honen azalpena eta antolaketa, era honetara egiten zelarik: prosa historikoa (narrazioa) eta kronologia erabiliz.

Historia idatziaren sortze-prozesuan data bat aipatzekotan, 1454. urtea mentatu beharko genuke, hain zuzen ere data honetan

agertzen bait dira aurreko esaldian aipatu elitearen lehen historiak. Horra hor, Bianako printzearen "Crónica de los Reyes de Navarra" edo Lope García de Salazarren "Crónica de las siete casas de Vizcaya y Castilla".

Historia eliteaz aritzen bada, Erdi Aroko historilariak ere, elite horren barnean koka ditzakegu: elizgizonak (fray García Eugiko, apezpikua), gorteko administrariak (García López Orreagako, erresumako diruzaina) eta propioki elitekoak direnak: printzeak (Bianakoa) eta leinukideak (Lope García de Salazar). Azken hauek, neurri handi batean, beraien historia garaikidearen lekuko eta, areago oraindik, protagonista direlarik.

Ildo honetatik jarraituz Lope GARCIA DE SALAZAREN *Las Bienandanzas e Fortunas* (1471-1475)⁸ liburuaren garrantzia azpimarratu beharra dago.

Lope García, ahaide nagusien arteko borrokaren lekuko eta partehartzaile izanez gain, kontzientzia historikoaz jokatu zuen idazlea dugu. Jauntxo hau memoria historikoak zuen garrantziaz ohartu zen. Hona hemen gai honetaz zer esaten zuen: «por este libro fallen memoria de todos estos fechos... porque no quedasen olvydadas por siempre». Honez gain, historiari erabilera praktikoa ikusten dio («porque sepan dar razón en estas fechas quando necesario les fuere»).

Bere filosofia hau bada, bere historilari egitekoan razionaltasun-zentzua ikusten zaio, informazio historikoen multzoan erizpide batzuren arabera egiten bait ditu bere hautaketak: «fare apartamiento de todas las cosas principales».

Bestalde, eskaintzen duen informazio historikoaren erakuntza kronologikoa ez bada ere (Euskal Herriaz ari den zatian behintzat) erakuntza hori, lurraldeen eta leinuen inguruan egiten da. Kontatzen duen historiaren haria berriz, ahaide nagusien arteko etsaikeria eta honek dakartzan ondorioen aipamena da.

Ahaideen arteko etsaikeria horretan partaide izan arren eta eragozpen honek idazlearengan duen eragina kontutan izanik (subjektibotasuna), bere asmoa errealitatea eta idatzi historikoaren arteko distantzia laburtzea izan zen, egia historikoa ardaztat erabiliz. Lope García de Salazar-ek zioenez: «De las menguas que en este libro se fallaren o de palabras mal puestas... sea dada la culpa a my negligencia e no a my voluntad»⁹. Honela bada, helmuga egia eta zehaztasuna lortzea zen, azken emaitzak, puntu honi dagokionez, bere gorabeherak eduki harren.

Ohizko historiografiaren ezaugarriak

Erdi Aroan hasi eta Antzinako Erregimena bitartean egiten den historiografian, gorabehera horiek, eta hain zuzen ere gertaerak benetakoak ziren ala ez jomugatzat harturik, era honetara sailka daitezke:

a) hurbileko gertaerak ezagunak ziren heinean, eta, sarritan zuzeneko esperientziatik jasoak, zehatz eta mehatz azaltzen ziren, baina ala ere subjektibotasunaren arazoa ezin da ahaztu.

b) gertaera historikoak zuzeneko esperientziatik ezagutu beharrean bitarteko mundu bati esker, hau da, dokumentuen bidez ezagutzuz gero, dokumentu-sorburu horien balioa frogatu egin behar zen, dokumentu horien barne- eta kanpo-kritika burutuz, horretarako analisi filologikoaren beharra nabaria zelarik, faltsukerrien egitekoa era honetara soilik lurrera bait zitekeen.

Dena den, analisi-mota hau historia lanetan, XVII-XVIII. menderarte finkatu ez zenez, sarritan izpiritu kritikoa arlo batzutan bakarrik aplikatzen zen, beste batzutan ordea, sineskortasuna ere nabaria izanik.

c) gertaerak urrunean kokatzen zirenean eta dokumentuen eskasia nabaria zenean errealitateak zuen hutsune hori betetzeko asmoz, istorioak eta mitoak sortzen ziren urruneko iluntasun hori honela argitu nahirik.

Hauek ziren bada, Lope García Salazar-en egitekoak zituen mugak, baina euskal historiografian aipatu ezaugarri hauen iraupena oso berandurarte helduko da.

Historilari honek bere ihardueran izan zituen akatsak aztertu ondoren ikus ditzagun orain zein gaiz aritu zen. Topikoetara jotzen badugu, errazena Lope Garcíaren aztergai nagusia gerren edo batailen historia kontatzea dela esatea litzateke. Baina, egia esan, historiaren azalean gertatzen ziren bataila horiek ispilatzen zutena, sustraituta zeuden indar sozialen kontrako interesen gatazka zen. Halaber, lehen argi gelditu da, informazio historikoa antolatzeke izan zuen era, ez zela kronologiaren ildotik abiatu, leinuen esparrutik baino.

Beraz, leinuen historiaz ari bada, erakuntza sozialaz idazten ari da, eta leinu horiek eliteak diren heinean, elitearen historia soziala¹⁰ eta boterearen historia egiten ari da eta aldi berean, nor gehia-

go izatearen ondorioz (“valer más”) gatazkak, gerra ekonomikoak, odol-loturak, portaera sozialak, kode etikoak, etab. isladatuko ditu.

Bestalde, Lope García de Salazar-ek erreferentziatzen duen esparru geografikoa kontutan hartzen badugu, zera esan genezake. Berak duen lurraldetasunaren kontzeptua erdi arokoa dela, hau da, guk gaur egun ezagutzen dugun Euskal Herriaz ez da arituko, bere erreferentziak beste batzuk bait dira. Esate baterako, bailarak (Mena, Losa, Valdegobia, Turtzioz, Karrantza, Somorrostro); kostaldea (Gaskuinatik Galizaraino heltzen dena); nortasun politikoa zuten lurraldeak (Bizkaiko jaurreria, Araba, Gipuzkoa)¹¹ eta, azkenik, ertaroko espazioaren antolamendurako hain garrantzi-ituak izan ziren leinuak eta beraien orubeak.

Bere geografi esparrua bada, hain ongi ezagutzen zuen hurbileko Enkarterri eta inguruko lurraldeetatik hasi eta urruneko Galizaraino heltzen zen.

Penintsulako historiari aritzen denean (13-19 libururarte) denboraren esparrua ere zabalduz joango da, bere azken asmoa munduaren sorreratik hasi eta historia unibertsala egitea delarik (lehenengo 12 liburuak). Beraz, Lope García de Salazar euskal historilarien artean lehen historia unibertsala burutu duen historilaria dugu.

Azken ildo honetatik jarraituko du ehun urte beranduago (1571) Esteban de GARIBAYk ere *Las XL libros del compendio historial de las chronicas y universal historia de todos los reinos de España* (Amberes, 1571) idazten duenean. Hasierako denborak mitoz eta istorioz betetzen baditu ere Garibayen garrantzia euskal historiografiaren barnean Erdi Aroko nafar historia aztertzean datza.

Aurreko lerroetan euskal historiografiaren hasierak azaltzerakoan eta Lope García de Salazar-i buruz aritzerakoan, euskal historiografiaren ezaugarriez ere ihardun dugu, gaingiroki baino ez bada ere. Eta azalpenari koherentzia emateko asmoz hari honi helduko diogu; historilarien lanen berri zehatza ematea astunegia izateaz aparte, ilunegi bihurtzeko arriskua bait dauka.

Beraz, lehenengo eta behin, zera esan dezakegu: euskal historiografiaren barnean, hiru etapa bereiz daitezkeela:

1) XV. mendetik XVIII. mendearen amaierarte hedatzen dena: garai aurrezientifiko-mitikoa.

2) XIX. mendetik XX. mendearen hasierarte (1936). Iragapen-garaia. Zientifikotasunaren ildotik doana.

3) XX. mendea: a) gerra zibiletik 1970. hamarkadararte doana. b) 1970etik gaur egunerartekoa.

Historia mitikoa (XVI-XVIII. mendeak)

Mende horietako historiografiari buruz, bi alde ukitu nahi ditugu batipat: berorren ezaugarriak eta lan-prozedurak. Ezaugarriak hauexek dira:

1) Euskal Historilariak Euskal Herria bere osotasunean ez zutela aztertzen, lurraldetasun-kontzeptua eta antolakuntza politikoa lurralde historikoetara mugatzen bait zen (Bizkaiko Jaurreria, Gipuzkoa, Nafarroako Erresuma). Dena den, erreferentzia orokorragoak ere erabiltzen zituzten, alegia, hizkuntz kontzientzia adierazten zuen euskal erkidetasuna¹², lurralde historikoen gainetik hedatzen ziren leinuen odol-loturak¹³, eta kantabriartasuna¹⁴.

2) Mende hauetan zehar planteatzen ziren problema historiografikoak, batez ere, hauek ziren: Euskal Herriaren eta euskararen jatorria ezagutzea¹⁵. Problema honen irtenbidea garai honetan tubalismoaren mitoa izan zen¹⁶.

3) Aurrekoarekin lotuta zeuden beste funtsezko arazoak hauek ziren:

a) Euskal lurraldeak inoiz inoren menpean ez direla egon. Baieztapen hau frogatzeko kantabriartasunaren mitoa aipatzen zen eta, halaber, euskararen iraupena¹⁷.

b) Kaparetasun kolektiboa euskal lurraldeen ezaugarria izan dela frogatzea. Azken finean baieztapen hauen azpitik adierazi edo frogatu nahi zena zera zen: Euskal Herria jatorrizko nortasun berezia duen herria dela.

4) Lan-prozeduraren ezugarriak adierazteko zera esan genezake: aurrean aipatu dugun guzti hori frogatzeko *historia mitikoa* egiten zela¹⁸, hau da, argudioei indarra emateko asmoz jatorrietaiko denboretara jotzen zen eta dokumentuen frogia faltan testigantza hutsune hori istorioz betetzen zen. Baina ez edonolako istorioak.

Garai honetako euskal historiografia kristau-tradizioaren barnean kokatzen denez, eta giza arrazoian oinarritzen den metodo zientifikoa oraindik finkatzeke zegoenez, agintea zuen sorburu sakratu batera jo beharra zegoen, hau da, Bibliara. Era honetan, Euskal historiaren kronologiak Bibliak dioenarekin elkartzuz, eta euskal leinuen eta euskararen jatorria Biblian agertzen den pertsonaia batengan (Tubalengan) oinarrituz, ohizko euskal historiografiak behar zuen ziurtasuna aurkitzen du. Zalantzan ipini ez daitekeen testu sakratu baten agintearengan.

Bestalde, eta lan-prozedurarekin jarraituz, garai hauetako historilariak aurreko historilariengandik jasotako datuak eta esanak kritikarik gabe onartzen zituzten. Alegia, greziar/erromatar garai-ko edo kristautasunaren tradizioan kokatzen diren historilarien berri jasotzerakoan, jatorrietako testuetara jotze honek zera adierazten digu: egia tradizioan eta lehenaldian oinarritzen zela eta ez analisi kritikoan.

5) Erdi Aroan finkatzen diren historia egiteko moldeek (kronika eta genealogia) XVI eta XVII. mendeetan ere iraun egiten dute¹⁹.

6) Historilariak erabiltzen dituzten gaien artean, errege, jaun eta leinuetako buruzagien inguruko gertaerak dira aztergai nagusienak.

7) Goian aipatu ezaugarri horiek (mitoen erabilera, tradizioaren eragina, Bibliak ematen zuen agintea, etab.) sistema koherente bat osatzen zuten eta historia eraikitzeke eta lantzeko paradigma bihurtu zenez gero, hau izan zen aro foralean zehar landu zen historiografiak segitu zuen bidea²⁰.

Dena den, joera historiografiko honen nagusitasuna nabaria izan arren, XVII. mendetik aurrera, astiro-astiro, beste bide batzuk ere jorratuak izan ziren.

Euskal historilariak Euskal Herria, bere osotasunean ez zutela aztertzen lehen esan badugu ere, XVII. mendean jadanik, OIHENARTEren *Notitia utriusque Vasconiae tum Ibericae quam Aquitanicae*, 1638an argitaratu zen lehen euskal historia aurkitzen dugu. Eta ez dugu ahaztu behar garai honetako hizkuntza kultoa latina zela eta Oihenarte bera ere hizkuntza honekin baliatu izan zela euskal historiaren berri emateko. Bestalde, izenburuak berak adierazten duenez Oihenarte-ren *Vasconia* ez da guk gaur egun ezagutzen dugun Euskal Herrira mugatzen, antzinako Basconia-

ren esparruan Akitania eta Pirinialdeko lurraldeak ere sartzen bait ziren.

Aipatu ildo honi jarraitu zioten Jean de BELAk (1748)²¹, Dom SARADOMek (1785)²², Juan Antonio de ZAMACOLAK (1818)²³, D'IHARCE BIDASSOUETek (1825)²⁴, Ernesto BOIS-LE-COMPTek (1836)²⁵, Joseph Agustin CHAHOK (1847)²⁶, BELSUNZEko Bizkondeak (1847)²⁷, CENAC MONCUCek (1853)²⁸, GARATEk (1869)²⁹, BLADEk (1869)³⁰ eta JAURGAI-Nek (1898-1902)³¹. Ikusten denez, autore gehienak iparraldekoak dira, Zamakola ezezik, eta berauek ematen duten baskoniar eta Pirinear ikuspegia, litekeena da berorien jatorrian oinarritzea.

Bestalde, Basconiari buruz aritzen ziren liburu hauek, batez ere, XIX. mendean argitaratzen dira, iparraldeko euskal lurraldeak Frantzia jakobinoan txertatuak daudenean, hegoaldeko foru-sistema gerla karlisten bidez eztabaidatzen ari den garaian eta Euskal Herrian, lehen aldiz, proiektu politiko autonomoak eta bateratuak burutzen ari diren unean (XVIII. mendean Larramendirekin hasita XIX. mendean Garat eta Eliorekin segitzen dutenak). Dena den, historiako liburu horietan, garaiko historiak baino garrantzi handiagoa dute jatorrietako arazoez, gehienetan ohizko mitoek (kantabriartasunak, etab.) irauten dutelarik. Beraz, Euskal Herriaren nortasun berezia defendatzea da lan hauen abiapuntua³².

Baina ez dezagun ohizko paradigmaten barnean gertatzen diren salbuespenen haria ahaztu. Paradigma horren ezaugarria kritikarik gabeko historia egitea bazen, XVI. mendean jadanik, Garibayrengan kasu, dokumentu-sorburuetara jotzeko joera ikusten dugu.

XVII. mendean Europan, *historia kritikoaren hastapenak* ezartzen dira, historiaren zientzi laguntzaileei esker (Diplomatika, Paleografia eta Kronologia). Era honetara, garai honetan oraindik artetzat jotzen den historia, zientziaren ildotik sartuko da, XIX. mendean finkatu zen historia erudituari hasiera emango diolarik.

Oraingo honetan ere, euskal historilarien artean Oihenarte idazlea dugu historia mitikoa kritikaren galbaheaz eralgitzen hasi zena. Oihenartek ez zituen aurreko historilarien esanak onartzen frogak aurkitu arte. Beraz, kantabriartasuna, basco-iberiartasuna, Jaun Zuriaren eta Arrigorriagako batailaren istorioak ez zituen onartu garai honetako historiografian lege izan arren. Dena den, garai honetako euskal historilarien artean kritika-salbuespena besterik ez zen izan³³.

Bestalde, historilariak historia egiterakoan erabiltzen zituzten gaiak gertaerak zirela eta gehien lantzen zen historia kronika eta genealogia zela esan badugu ere, XVIII. mendean beste era bateko historia egiten hasten da, historiako liburuetan gai berriak aztertzen direlarik: bizimoldeak, ohiturak, ekonomiaren deskribaketa, erakundeak, etab. Eta sarritan lana taiutzeko era, kronologia izan beharrean, gaia bera da. Hau, LARRAMENDIren *Corografía*-n (1756) eta ITURRIZAREN *Historia General de Vizcaya*-n (1793) argi ikus daiteke. Areago oraindik Larramendi-ren *Corografía de Guipúzcoa* izenburuan agertzen den *Corografía* hitza, deskribaketa esangura duena, historiarekin eta etnografiarekin harremanak dituen geografiaren atala da.

XVIII. mendean koiuntura politiko berri baten eraginez, Borboien politika zentralizatzailea hain zuzen ere, euskal historiografiak, giro berri horren ondorioz sortzen diren kezkek eta erantzunak jasotzen ditu. Ez dugu ahaztu behar bi matxinada eta Gipuzkoako independentziaren proiektua ezagutu ziren mende honetan erret boterea eta foru-sistemaren arteko tirabira eta distantzia, inoiz baino urrunago heldu zirela. Distantzia horren ondorioak aita Larramendik bere *Conferencias políticas*³⁴ idazlanean aztertu zituenean, Euskal Herriak zituen aukeren artean, euskal lurraldeen independentzia, "Provincias unidas del Pirineo" proiektu teorikoa, ere proposatzen du.

Honela bada, giro politiko honen ondorioz sortzen den historiografiak erabilera eta funtzioa politikoa eduki zituen. Sarritan, histori lanak erakunde foralen aginduz egin izan ziren³⁵ eta, halaber, gaztelako kontseiluaren zentsura zela medio debekatuak izan ziren³⁶. Honen ondorioz Historiako liburu batzuk argitaratzeko beste lurralde batera jo zen, LANDAZURIren *Historia del ilustre País vascongado* kasu edo bestela izen gabe argitaratu ziren FONTECHAREN *Escudo de la más constante fe y lealtad* (1747) adibidez.

Garai honetan egiten diren historiak bada, ez dira jauntxoek eta leinuen kronikak eta genealogiak izango, lan historiko juridikoak baino, garaiko gizartean zalantzan ipintzen ziren ohizko foru-sistemaren defentsan burutuz. Garaiko euskal erakunde publikoaren defentsa hori egiteko historiatic, lehenetik, ateratako datuz, argudioz eta arrazoiz baliatzen ziren, orainaldiaren funtsa lehenaldian kokatuz. Hona hemen bada, euskal historiografiaren barnean hain hedaturik dagoen historiaren zentzu historizista.

Iragan-garaia (XIX. m. - 1939)

Historiografia mitikotik lan-metodo zientifikoetarako jauzia ez zen bapatean burutu; iragan-belaunaldi batzuk izan zituen. Iragan-garai hau XIX. mendean eta XX.ean 1939raino luzatu zen.

Aurretik aipatu lan-prozedura horiek bada, segitu egingo dute. Bestalde, Borboi-ek praktikatu izan duten politikarekin XIX. mendean pilatu diren tentsioak, monarkia absolututik estatu jakobino liberalera dagoen iraganbidearen auzian gauzatzen direnak, gerra karlistetan erabakitzen dira.

Baina, tirabira horiek produkzio historiografikoaren bidez gertatu zen gerra ideologikoan ere burutu izan ziren. Honela bada, *Konbentzioko gerra* ondoren euskal lurraldeek monarkiarekiko duten fideltasuna zalantzan ipintzen denean Godoyr-en politika ez da izango Foruak zuzen-zuzenean kentzea, foruen oinarri teorikoak zulatzea baino. Hari honi jarraituz egingo dira "Real Academia de la Historia" delakoaren lanak *Diccionario Geográfico-Histórico de España* (1802)³⁷ kasu, baina euskal lurralde, eta Errioxakoari buruzkoak soilik argitaratu ziren. LLORENTE kanoni-goaren lana ere foruen aurkako ildo berean aurkitzen dugu: *Noticias históricas de las tres provincias vascongadas*, (1806-1808).

Foruen aurkako joera historiografikoaren aurrean, foruzaleak edo *foruen apologia* egiten dutenak ere aurkitzen ditugu. Hona hemen, eta Llorente-ren aurka bereziki doan Pedro NÓVIA DE SALCEDOren *Defensa histórica, legislativa y económica del Señorío de Vizcaya y Provincias de Alava y Guipúzcoa* deitu liburua 1829an burutua eta Bilbon 1854ean argitaratua, edo, historiariet kanpo, maila apalago batean, ASTARLOAren *Apología de la lengua vascongada* (Madrid, 1803) "Diccionario Geográfico-Histórico"aren euskarari buruzko eritziak zuzendu nahian egin zena.

Honela bada, foru-sistema krisi-garaian sartzen den une honek historiariek beren argudioak defendatzeko behar dituzten dokumentu-frogak bilatzen saiatzen dira, era honetara *historia eruditua*ren ildoan segitzen dutelarik³⁸. Polemika foralaren euskarri historiografiko bat erudizioa bada, bestea *lan historiko-juridikoak* lantzea izango da. Hala nola, ZUAZNABARren³⁹ eta MARI-CHALAR eta MANRIQUEren lanak⁴⁰.

Aipatu polemika foral hori, erakunde foral eta zentralaren artean hasi zena, polemika historiografikoarekin jarraitu zuena eta

karlistadetan zuzpertzua, gero Madrileko gorteek jaso izan zuten. Hemen, foruen kontra zeuden diputatuak Llorente-ren ideiak jasoz eta foruzaleek Novia de Salcedo-renei jarraituz burutu zituzten beren eztabaidak, sarritan, eztabaida horretan agertutako diskurtsu eta txostenak foileto gisa agitaratu emanaz⁴¹.

Karlistada beraiek ere mende honetan historiatuak izan ziren⁴², era honetara lehenaldiko argudioak alde batera utzirik, *garaiko historiak* bere lekua topatzen duelarik. XIX. mendea *bidaiariena* izan bada, ez zen Euskal Herria bidaiari horien asmoetatik kanpo gelditu, beharbada karlistadek Euskal Herriaren erakarkortasuna areagotu egin zuten. Horra hor, HUMBOLDT, CHAHO, HENNINGSEN, MAÑE Y FLAQUER eta abarren deskribaketak⁴³.

Bestalde, XIX. mendean zehar lurralde historiko bakoitzari buruz egiten diren historiak erudizioz beterik daude: YANGUAS Y MIRANDAren lana Nafarroan⁴⁴, BECERRO DE BENGONENAren Araban⁴⁵, GOROSABELena Gipuzkoan⁴⁶, LABAYRUrena Bizkaian⁴⁷ eta HARISTOYrena Ipar Euskal Herrian⁴⁸. Sarritan, historilari hauen lanak entziklopedikoak bihurtzen dira. Probintzietako historien alor honetan azpimarratzekoa da Juan Ignazio IZTUETAk 1847an idazten duen *Gipuzcoaco provincia-ren condaira* historia lanen artean euskaraz egiten den lehen saioa delako.

Orain arte histori lanen esparrua probintzia izan bada bereziki, XIX. mendean erreferentzi puntua herrietako historia edo *tokiko historia* izango da⁴⁹. Alor berri honek XX. mendean ere fruitu sakonak emango ditu: ikus GUIARDen lana⁵⁰.

Bestalde, XIX. mende honen azken aldetik aurrera ikerkuntz lanei ekiten zaie *monografia historikoak* burutuz eta *gai berriak* jorratuz⁵¹ (ekonomia, gizartea, etab.); *historiaurrearen arloa* agertzen da, denboraren esparrua hedatzen delarik⁵².

Ikerkuntz lanetan aritzen diren historilarien artean, Teofilo GUIARD, Fidel SAGARMINAGA (Bizkaian), Carmelo ETXEGARAY (Gipuzkoan), Arturo CAMPION (Nafarroan) eta DUBARAT, DARANATZ eta BALASQUE (Iparraldean) aipa genitzake; sarritan, historilari hauen lanak aldizkarietan agertzen direlarik⁵³.

Euskal historiaren azterketa egiterakoan hiru eratako joerak agertzen dira: a) *liberala*, b) *foralista*, eta c) *nazionalista*. Batzuk (lehenak) Espainiako Estatuarekin loturak aurkitzera doaz⁵⁴ bes-

teak, aldiz, euskal erakundeen autonomia edo jabetasuna frogatzera zihoazen⁵⁵; azken finean, joera hauen azpitik historizismoa da nagusitzen dena.

Aurrean aipatu ezaugarri eta ikuspuntu horiek errepublika-gairarte segitu zuten.

Errepublika-gairari dagokionez, Nazionalismoak indar berria hartzen duen heinean, berriro hasiko dira Euskal Herriari buruzko historiak idazten: Bernardino de ESTELLAREN *Historia Vasca* (1931) edo Estornes LASAREN *Historia del País Vasco* (1933) kasu; histori lan hauetan oraindik, erakundeen historia eta gertaeren kronika nagusitzen direlarik.

Dena den, errepublika-garaian, gaur eguneko histori lanen aitzindari diren bi erreferentzia aipatuko ditut. "Yakintza" aldizkarian (1933-36) Ildefonso GURRUTXAGAK idatzitako artikulua bat "La matxinada de 1766 en Azpeitia. Sus causas y desarrollo", ohizko historia politikitik urruntzen dena historia sozialera eta totalera hurbilduz, eta Theodoro LEFEBVREn *Les modes de vie dans les Pyrenees atlantiques orientales* (Paris, 1933) Annales eskolaren geohistoriatik hurbil dagoena.

Baina gerra zibilak eta Diktadurak, bide hauek eskain zitzaketen fruituak berandutu egin dituzte. Ikus dezagun, bada, Diktadura-garaian zer gertatzen den.

Diktadura-garaia

Hiru ataletan banatuta emango da, hemen, lan honen azken parteari dagokiona. Diktadura tarteko zela, argitalpenen edizio-lekuak izan zuen garrantzirik ikerlan historiografikoari zegozkionetan, eta gogoan hartuko dugu baldintza hori. Orobat, klandestinitatearen testuinguruak izan zuen zerikusirik historilarien lanetan. Alde ezberdin horiei begira egingo dugu, beraz, sailkapena.

Erbestean argitaratutako lanak

Epealdi honetan, abertzale ikuspegitik idazten diren lan gehienak, *erbestean* argitaratzen dira, bai EKIN argitaletxearen ingu-

ruan, eta baita *Boletín Americano del Instituto de Estudios Vascos* delakoaren barnean ere.

Denbora honetan erbestean egiten den historia definitzerakoan, historia sinbolikoa dela esan genezake.

Hau da, hautatzen ziren gaiek zerikusi handia zuten Euskal Herriaren batasun eta nortasun politikoarekin; adibidez: ORTUETAREN *Sancho el Mayor Rey de los vascos* (1963) edo ESTORNES LASAREN *Eneko "Arista". Fundador del Reino de Pamplona y su época* (1959).

Halaber, atzerrian dauden historilari hauek, eredutzat har daitezkeen pertsonaia eta gertaerarik ospetsuenak erabiltzen dituzte, euskal gizarteari jarraibide historikoa eman nahian. Honen adierazgarriak dira, esate baterako, ARALAREK idatzitako liburu batzuren izenburuak, hala nola *Victoria de Munguía y reconciliación de oñacinos y gamboinos* (1949) etsaiaren aurka euskaldunen batasun politikoaren beharra adierazten duena, eta *El conde de Peñaflores y los caballeros de Azkoitia* (1942), "Ilustrazio"-garaiko loraldi kulturala eredutzat ipintzen duena, edo ESTORNES LASAREN *La Real Compañía Guipuzcoana de Navegación de Caracas* (1948). Kasu honek une ekonomiko loralditsu bat erreferentziatzen hartzen du. Azken liburu honen eskaintzan, esaldi adierazgarri hau agertzen da: "A los que marcan la senda del renacimiento vasco, dedica este trabajo"⁵⁶.

Euskal historia egiteko orduan, ez da barne-historiaren ikuspuntutik bakarrik egingo, kanpoko etsai edo kontrarioen arabera egiten den historiak ere garrantzi handia edukiko du. Hona hemen, esate baterako, José ARALAREN *Los adversarios de la libertad vasca (1794-1829)*, 1944ean idatzi zena. Kasu honetan ikus daitekeenez, historilariak historiarekiko duten harremana, alderdikoia da. Ikus, Menéndez y Pelayo-ren hitzak erabiliz Aralar-ek esaten duena aipatutako azken liburuaren sarreran: «El historiador clásico no aparta nunca los ojos de su patria, su raza y su partido, y esculpe a sus héroes predilectos en actitudes épicas y sublimes, y a sus enemigos y émulos los rebaja y los ennegrece a lo sumo les da la grandeza del mal»⁵⁷. Dena den, jarrera hau ulertzeko, kontutan eduki behar dugu gerra zibila amaitu zenetik bost urte besterik ez zirela pasatu.

IRUJOREN *Inglaterra y los Vascos* (1945) liburuak, berriz, zera erakusten digu: batetik, atzerritarren (ingelesen) eritzia euskal instituzioei buruz, Ingalaterrako eta Euskal Herriko sistema demo-

kratikoan antzekotasunak azpimarratuz, eta bestetik, nazioarteko testuinguruaren eta euskal arazoaren arteko loturak (ikus karlistadak).

Bestalde, gogora dezagun EKIN argialetxearen inguruan argitaratzen diren liburuak, historia politikoarekin batera, erakundeen eta euskal zuzenbide foralaren historia ere lantzen dutela. Liburu hauen bidez, ohizko euskal gizarteak ezagutu zuen sistema politiko demokratikoa azpimarratu nahi da. Azken finean, diktadura, amaitzen denerako eskaini nahi den eredu demokratikoa⁵⁸. ARIZTIMUÑOrentzat kasu, eredu hau, demokrazia organikoaren antzekoa izango litzateke, euskal tradizioari jarraituz subjektu politikoa, gizabanakoaren ordez, familia baita⁵⁹.

Diktadura-garaiko histori arloa definitzerakoan, ikuspegi aberzalea duten historiariek beren histori lanak, batez ere atzerrian argitaratzen dituztela, eta halaber, helburu *historizista* betetzen dutela esan genezake⁶⁰.

Euskal Herrian burututako historiografia

Eta Euskal Herriaren barnean zer gertatzen da? Histori lanak, zein ildotatik doaz? Nolabait hasteko, gogora ditzagun historiografia ofiziala, erudikzioa eta mezenasgoa.

Frankismoak bere intelektualak eta erudituak ditu eta Euskal Herriaren historia ere, berauek aztertuko dute. Nazionalismoa bizitza publikoan zanpatua dagoen une horretan, historiaren aztergai bihurtuko da. Bazirudien iragan eta gaingidutako arazotzat jotzen zutela. Euskal nazionalismoaren historilari ofiziala Maximiano GARCIA VENERO izango da. Autore honek nazionalismoaren historia egiteaz gain, gai honi buruz idazten duen liburuaren hasierako bi ataletan zehar, euskal historiaren sintesia egingo du⁶¹.

Bestalde, garaileen substratu kontserbadorearen historia Javier de IBARRAK (1948)⁶² egingo du. "A todos los que defendieran la unidad española en Vizcaya" eskaintzarekin hasten den liburu honek, berak ongi ezagutzen zuen oligarkiaren historia politiko, ekonomiko eta soziala azaltzen digu.

Korrante historiografiko ofizial honen helburua, Euskal Herriaren espainoltasuna frogatzean datza. Ildo honetatik joango dira

Francisco ELIAS DE TEJADAren lanak *El Señorío de Vizcaya* (1963) eta *La Provincia de Guipúzcoa* (1965). Liburu hauetan, historia instituzionalaren eta ideia politikoaren haria jarraituz, Forusistema Espainiako ohizko egitura politikoaren euskarriztat eta ardaztatzat joko du. Autore honen eritziz, Euskal Herrian bertan gertatu bait zen Europatik ekarritako zentralismoaren eta liberalismoaren aurkako borrokarik gogorrena.

Dena den, hemen ez da amaitzen histori lanen arloa. *Historia ideologizatu* honetatik kanpo, historilari eruditu eta lokalen mundua aurkitzen dugu, herrialde bakoitzean argitaratzen diren aldizkarien inguruan biltzen direlarik.

Aldizkarien artean, *Príncipe de Viana* (1940an sortutakoa) Nafarroan eta *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País* (1945) Gipuzkoan izango dira garrantzitsuenak. Halaber, kontutan hartu behar dira. *Zumarraga, Revista de Estudios Vascos* (1953-56) (Bilbo), *Boletín de la Institución Sancho el Sabio* (Gasteiz, 1957) eta *Estudios Vizcaínos* (Bilbo, 1970).

Iparraldeari dagokionez *Bulletin de la Société de Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* (1873), *Gure Herria* (1921), *Bulletin du Musée Basque* (1924) eta *Eusko Jakintza* (1947-1957) aurkitzen ditugu.

Aldizkari hauek direla medio, produkzio historiografikoa plazaratu egin zen eta euskal histori gaiak aniztu egiten dira, baina sarritan, anekdotetan eta aspektu lokaletan erortzen dira. Dena den, produkzio historiografikoa plazaratu arren, ez zen populuzaren barreiatu, kultura, minoria baten eskuetan zegoen eta.

Euskal Herrria ez da bere osotasunean aintzakotzat hartzen, sintesi lanak ez dira ugariak, hobeto esanda salbuespenak dira. Iparraldeko euskal munduaren sintesia Philippe VEYRINEk (1943)⁶³ egingo du. Ikuspegi askoz ere zabalago eta sakonagoz aurkeztuko du euskal etnia CARO BAROJAK bere *Los Vascos* liburuan (1949); horretarako metodo historiko-antropologikoa erabili zuen.

Unibertsitatearik gabeko une honetan historilarien lanen kalera-teea, hainbat inizatiba kulturalen esparru-barnean gertatuko da. Aipatzekoak dira 40 eta 50. hamarkadetatik hasita, *RSBAP*en inizatiba eragileak eta hauen artean *Monografías Vascongadas* bilduma kasu, CIRIQUIAIN GAIZTARRO⁶⁴, ETXEGARAY⁶⁵, CHURRUC⁶⁶, eta abarren lan monografikoak jaso zituena. Real

Sociedad Bascongada de Amigos del País erakundearen inizatibean artean, Grupo Dr. Camino de Historia Donostiarra aipatu behar dago, 1967tik aurrera bere *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián* ateratzen duena. Talde honen barnean J. Ignacio TELLETXEA historilariaren garrantzia nabaria da.

Iniziatiba eragileen artean, Aurrezki-Kutxen mezenasgoa ez dugu ahaztu behar. Esate baterako, RSBAP eta Donostiako Aurrezki-Kutxa Munizipalaren artean eraikitako Sociedad Guipuzcoana de Ediciones delakoaren barnean sortutako bildumen bidez, historiako hainbat arloren inguruan egin da lan: biografiak, ikerketa historikoak, tokiko historiak, eta Larramendiren lanen berreskuratzea⁶⁷. Baina dena den, histori gaien artean eta Aurrezki-Kutxaren eraginez, batez ere, *tokiko historiaz* idatzi da. Honela bada, 1969 eta 1971 artean idatzitako lanei esker Gipuzkoako herri eta herrixka guztiek dute beren historia idatzia.

Urte batzuk geroago, Gasteizko Aurrezki-Kutxa Munizipalak, Sancho el Sabio erakundearen barnean, *Biblioteca alavesa "Luis de Ajuria"* (1971) sortuko du, Arabako histori gaiak plazaratuz. Halaber, Bizkaian, Bizkaiko Aurrezki-Kutxak *Temas vizcainos* bilduma (1975) sortzen du eta histori lanak, bereziki, sail gorrian (Historia y Tradición) argitaratuko dira.

Erakunde akademikoen faltan, Kutxak bihurtu ziren kulturaren dibulgatzaile, baina bakoitza bere probintziara mugatuz. Ildo honetatik abiatu ziren Diputazio batzuk, bereziki Nafarroakoa, *Temas de Cultura Popular* (1968) delakoaren bidez.

Maila sakonago batean, Nafarroako Diputazioaren erakunde kulturala den *Principe de Viana*-ren zerbitzu editorialean hainbat ikerlan historiko izan dira argitaratuak. Nafarroako lurraldea ardaztat, dutelarik bere lehen historiaz, protohistoriaz, erromatarkuntzaz, erdi aroaz eta karlistadez aritu izan dira, baina historiarentzat geografiari buruz egin diren lanak duten garrantzia ahaztu gabe. Maila apalago batean, baina ikerlanen ildotik abiatuz, Bizkaiko diputazioaren babesean ere argitaratu izan dira histori lanak.

Astiro-astiro, finantz erakunde eta instituzio publikoetatik at inizatiba pribatuak, hau da, *argitaletxeak* ere agertuko dira. Azpimarratzekoa da hirurogeigarrengo hamarkadan *Auñamendi* argitaletxeak hartzen duen bidea. Euskal Kulturaren berri emateko asmo nagusiaren barnean (Auñamendi bilduma), euskal historiak bere esparrua edukiko du eta inizatiba editorial honen sortzailea den

Bernardo Estornes Lasaren lanak, asmo hau betetzen saiatuko dira (Aralar saila eta *Historia General del País Vasco*).

La Gran Enciclopedia Vasca-ri dagokionez bere eginkizun editoriala, gerra-aurreko euskal historilari tradizionalen lanak berreskuratzea izan da batez ere, nahiz eta ikerlanen batzuk argitaratzera eman.

Euskal Herriko unibertsitaterik gabeko une honetan, histori lanak (ikerlanak) Unibertsitate pribatuetan (Deustu, Iruñea) eta Euskal lurraldetik kanpo dauden unibertsitateetan (Valladolid, Zaragoza, Pabe, Bordele) egingo dira.

Iruñeko Unibertsitatean kasu, historiaurreaz, foru-erakundeaz eta Nafarroako geografiaz (historia ekonomikoa sartuz), eta aro garaikideaz arituko dira. Deustuko Unibertsitatean berriz historiaurrea (Apellaniz), kristautasunaren sarrera, Bizkaiko historiografia eta Bizkaiko Jaureria (Mañaricua) eta historia demografikoa eta ekonomikoa (Basas) izan dira gai nagusienak.

Kanpoko Unibertsitateetan ere ikertzen da Euskal historiaz, horra hor, Mercedes MAULEONen lana Bilboko populazioari buruz egindakoa⁶⁸ edo Iparraldean erakundeei buruz egiten direnak⁶⁹.

Garai honetako historilarien artean, hiru kasu seinagarri aipatuko ditugu: José Miguel BARANDIARAN, J. CARO BAROJA eta José María LACARRA.

J.M. Barandiaranek⁷⁰, kasu, *historiaurrea*-ren ikerkuntz arloari jarraipena ematen dio, gerra-aurreko eta osteko munduaren arteko giltzarria bera izan bait da. 1953an Iparraldetik hegoaldera etortzen denean historiaurreaz aritzen ziren taldeak bere maisutza edukiko dute. Beraz, tradizio jarraikor bati esker eta erakunde (Sociedad de Ciencias Aranzadi, Donostia, 1947 eta Príncipe de Viana, Iruñea, 1940) eta aldzikari batzuren inguruan (Munibe, 1949, Estudios de Arqueología Alavesa, 1966) egin den lanagatik, historiaurre edo lehen histori arloa modu sistematikoan eta enpirikoan aztertua izan da⁷¹.

Kasu seinagarri eta apartak aipatzerakoan, ezin dugu CARO BAROJA ahaztu. Aranzadi, Barandiaran eta Eguren-en taldean hezia, bere aztergai-mundua etengabe hedatzen joan da. Honela bada, bere ikerkuntza etnologiko, antropologiko, linguistiko eta historia sozialeko eta abarretako lanei esker, euskal gizartea askoz

ere hobeto ezagutzen dugu. Gerra-ostean hasitako lan emankor honen metodologia gaur egun "*Nouvelle histoire*" en inguruan mugitzen diren historiariek segitu egiten dute. (Le Goff) (*Historia antropologikoa*).

Hirugarren pertsonaia seinalagarria J.M. LACARRA du. Barandiaranen lanek historiaurre arloari bultzada eman badiote eta C. Barojarenek Euskal Herriaren historia antropologikoa ezagutzarazten badute, Lacarraren lanek *ertaroa* argitzen digute. Historilari honetaz zera esan genezake, errepublika-garaian foruen inguruan hasi zen lana mamitzen eta hedatzen joan dela erdi aro osoko nafar historia burutu arte⁷².

Beste belaunaldi batekoa den GARCIA DE CORTAZAR José Angelek beste hainbeste egin du Bizkaiko erdi aroari dagokionez. 1966an argitaratu zuen lanarekin XV. mendea aztertu ondoren, azken urte hauetan, talde baten laguntzaz, Bizkaiko erdi aroko historia orokorra burutu du⁷³.

Klandestinitatea: praxi politikoa eta eztabaida historiografikoa

Orain arte zera ikusi dugu idatzitako historiaren esparrua, nahiz eta egoera kulturala tamalgarria izan, neurri batean nahikoa zabala izan dela. Hau ikusita, galdera hauek bururatzen zaizkigu. Euskal historiaz idatzi den guzti hori herriak nola bereganatzen du edo produkzio historiografiko horren artean eta herriaren artean etena al dago? Hau da, ez ote da herria bera historiaren jabe?

Lehen, *idatzitako historiaz* mintzatu gara, baina historia bakarra hau ote? Ez dut uste. Euskal Herrian ahozko komunikazioaren bidez besterenganatu izan da *herri-memoria* eta hau, batez ere, famili barnean gertatu izan da. Eta bazen zer kontatu: oraindik memorian biziki zeuden gerra zibila eta gerra-osteko giro larria eta honez gain, bizimodu edo tradizio batzuk; atzerantz jota nazionalismoaren sorrera eta bere fundatzailearen bizitza, karlismoaren gorabeherak, etab., XIX. mendeko baino lehenagoko gaiak historia eta istorioen arteko mugetan kokatzen zirelarik.

Historilarien historiaz, hau da, dokumentuen azterketa zientifikoaren ondorioz egiten den garai baten birkreazioaz eta idazlan batean jasotzen denaz aritu gara batez ere. Baina, diktadura-garaian, adierazpide publikoak guztiz murriztuak egon arren, herriak historia herri-memoriaren bidez gordetzeaz gain, esperien-

tzian bertan eta protagonista gisa ere bizi izan du, gaur egun historiartzten ari dena alegia. Esperientzi eta asmo hauen berri, ezkutuan (klandestinoki) argitaratzen ziren dokumentuek ematen digute.

Historia, praxi politiko bilakatzen da. Praxi horren euskarri ideologikoak, etorkizuenan ipinitako helburu utopikoak eta lehenaldian errotutako helburu historikoak ziren. Honela bada, klandestinitatean sortzen diren taldeek, Euskal Herriaren historiari bere garrantzia eta lekua emango diote militante edo ekintzaileen formazioan. Halaber, irakaskuntz arloan ukatua zegoen historia hori, klandestinitatean zabaldu egingo da eta elite akademiko mailan argitaratu eta ezagutzen zen produkzio historigrafikoaren zati bat bide honen bidez zabalduko da⁷⁴.

Klandestinitatean argitaratzen diren materialen ezaugarriak hauexek dira:

a) Dibulgazio-mailako Euskal Herriaren historiaren sintesiak egiten dira eta egoerak beharturik, sarritan, anonimoak izaten dira. Dena den, izen, talde eta aldizkari eragile batzuk aipa ditzakegu: *Arragoa* aldizkaria P.C. de Euzkadi (1964-1967) inguruan argitaratzen zena; Federico ZABALA, hitzaldien bidez euskal historiaren sintesia dibulgatzen aritu zena⁷⁵; Emilio LOPEZ ADAN "Beltza" *Gathazka* aldizkariaren partaidea, eta *Saioak* taldekoa⁷⁷. Beste talde batzuk gogoratzekoan Herri Gaztedi, J.O.C., etab. ezin ditugu ahaztu, talde hauen barnean euskal historiari hainbat material erabili bait zen⁷⁸.

b) 1968tik 1970-71rarte sortzen diren idazlan historikoak, praktikotasun politikoari begiratuz egindakoak dira. Lan hauen helburua, bada, ez da «para ensimismarnos en el pasado, sino para tratar a la historia como un banco de experiencias del que se pueden sacar leyes científicas válidas y de aplicación actual. Sencillamente no queremos la historia para probar algo, sino para que nos sirva»⁷⁹. Bestalde, herri-nortasuna agertu nahiaz egindako materialak dira.

c) Bataila eta gerren historia gainditu nahi dute bilakaera ekonomiko eta sozialaren historia eginez, baina bibliografiaren eskasiarekin topo egiten dute⁸⁰. Dena den sarritan, helburu horiek asmotan besterik ez ziren gelditzen eta historia datuen bilduma bihurtzen zen.

d) Helburuei dagokienez berriz, kontzientzia nazionala finkatzeko asmoz eginak daude. «Todo pueblo que toma una conciencia

nacional escribe su propia historia, original, rompe así con los moldes que le describen un sitio en la historia de la o de las metrópolis colonizadoras».

Baina kontzientzia nazional horren zentzuak erabat ezberdina izan nahi du, batez ere ezkerren ikuspegitik idazten direnetan: «hay historias vascas escritas, pero pertenecen a la época del nacionalismo burgués y se nos han quedado estrechas» diote. Beraz, *materialismo historikoaz* baliatuko dira, baina ikuspegi abertzaleari eutsiz eta idazten den historia neurri handi batean ideologizatua izango da.

e) Euskal Historiaren kronologian, bi etapa nagusi bereizten dituzte: 1) historiaurretik karlistaden amaierararte doana (1876) eta 2) 1876tik gaur egunerartekoa.

Honela bada, une honetan euskal historiak dituen aztergaiak ikusten baditugu honetaz ohartuko gara: Euskal Herriaren jatorriak baino garrantzi gehiago duela azken 100 urteotan galdu den historia berreskuratzeak eta historiaren "Guadiana" edo eten horri jarraipenaren bidez irteera emateak.

Azken urteotan euskal gizarteak asmoz eta ekintzez historia bat burutu du, trinkoa eta bizia dena. Hainbeste galera, hondamen eta eraldakuntza jasan ondoren, bada, guzti horren ondorioak eta norabideak aztertu beharra zegoen. Beraz, garaikidetasunak edukiko du histori gaien artean lekurik garantzitsuenak.

Historia hurbil horien artean karlistada-garaia dugu. Karlistadak lege zahar eta berriaren arteko etena suposatzen zuenez gero, konotazio ideologikoez beterik aztertuak zeuden. Mugimendu karlista lege zaharraren defentsan atera zenez historiografia liberalean erreakzionariorat jotzen zen. Beraz historilari nazionalisten zeregina karlisten zilegitasun historikoa eta, areago oraindik, aurrerakoitasuna frogatzea izan zen. Horretarako, zilegitasun hori lortzeko, zer hoberik Marx bera aipatzea baino⁸¹. Era honetara, klandestinitateko testu hauek borroka nazionalaren gidaritza hasiera-hasieratik ikusten dute herri xehearengan⁸².

Baina diktadura-garaiko polemika historiografiko eta politiko biziena, kolonikuntz gaiaren inguruan gertatu zen (Beltza, 1969)⁸³. Hau da, karlistaden ondoren Espainiako egitura-barnean sartzea, kanpoko indarren gainezarpenaren ondorioa izango litzateke, Beltzaren hipotesiaren arabera, baina Saioak taldearen eritiziz, arrazoi nagusia euskal indar produktiboek kapital-pilatzearen bidez eraman duten itzulezinezko bidea izango litzateke⁸⁴.

Nolabait hipotesi hauek frogatzeko aztertu behar izan ziren gaiak produkzio-modu kapitalistaren ezarkuntzarekin zerikusia zuten. Honekin batera, aztergai hauek aurkitzen ditugu: industrializazioa eta bere ondorioak, hau da, langile-mugimendua eta nazionalismoa.

Gai hauen azterketak zientifikoa izan nahi du, baina ez historiariaren metodo zientifikoa oinarritzen dena, materialismo historiakoan baino. Honela bada, datu enpirikoak ikuspuntu politikoen arabera erabiliko dira, praxi politikoa bideratzeko asmoz.

Helburu nagusia askatasun nazionala zela kontutan izanik, historiaren maisutza eta ildo jarraituz, askatasun hori burutuko zuen talde gidaria nor izan behar zuen eztabaidatzea izan zen gai garrantzitsuenetarikoa bat.

Euskal Herria eraiki eta defendatuko zuen burgesia nazionalaren hutsunea ikusten zen. Beraz, protagonismo historikoa eta iraultza nazionalaren gidaritza, proletargoaren eskuetan zegoela azpimarratzen zuten⁸⁵.

Arazo eta kezka hauen inguruan, gutxiengo batek 1970. hamarkadaren hasieran klandestinitatean eztabaidatzen zuen bitartean, historia akademikoaren arloan ere, gaiak, metodoak eta ikuspuntu teorikoak eraldatuz doaz. Annales eskola frantziarra, marxismoaren kontzeptu eta teoriak eta historia kuantitatiboa izango dira erreferentzia garrantzitsuenak historiografiaren eraberritze-prozesuan. Ikerketa-arloan, halaber une laburreko gertaera politikoen historia egin ordez une luzean irauten duten erakundeen historia burutuko da⁸⁶.

Une luzearen ildoari jarraituz azpiegitura ekonomikoa eta berorren inguruan sortzen den erakuntza soziala aztertuko dira. Gizabanakoaren ordez, historiaren subjektua gizaki anonimoa izango da. Beraz, talde sozialak, giza multzoak, adin-taldeak, famili egiturak izango dira aztergai. Gizakia zenbaki bihurtuko da, datu historikoak ez dira izango batailak eta gerrateak. Berauen ordez, prezioek, lur-errentek, hamarrenek, kapitalek, eta abarrek osatuko dute narrazio historiko berria. Bestalde, historiak, beste disziplina sozialetatik (ekonomia, soziologia, etab.) jasoko ditu hainbat kontzeptu eta arazo teoriko. Arazo historiografikoen artean, garapen ekonomikoa eta beronen mugak eta kosteak aztertuko dira. Produkzio-modu batetik bestera dagoen iraganbidea edo krisialdia, sistema feudaletik kapitalismora dagoena hain zuzen ere, izango da

historilarien artean eztabaida zuzpertzuko duen gaia. Krisialdiek, gatazka sozialek, iraultzek historiari beste zentzu bat emango diote. Jarraikortasunaren ordez, eten historikoak azpimarratuko dira.

Historilariak, bere garaiko semea den heinean garai bakoitzeko gizarteak dituen kezka eta asmoak jasotzen ditu. Urrunean gelditzen dira lehenaldian kokatzen ziren ereduak, hau da, tubalismoaren eta kantabriartasunaren mitoak. Hauen ordez, etorkizunearn itxuratuko den gizarte berri baten mitoa da, gaur egun, aldaketa historikoari zentzua ematen dion gakoa, eta azken honi jarraituko diote 70eko hamarkadako historilariak. Azken bi hamarkada hauetako historia akademikoa (1970-1989) izango da hain zuzen ere *Jakin?*-eko zenbaki honetan sakonduko den gaia.

- ¹ CARO BAROJA, J. (1943): *Los pueblos del Norte*. San Sebastián, 1977³. MANRÍCUA, A.E. (1971): "Los vascos vistos en dos momentos de su historia", in: *Primera Semana internacional de Antropología Vasca*, Bilbao, 263-304 orr.
- ² *Ibidem*.
- ³ CASTRO ALAVA, J.R. (1971): *Historiografía. Los cronistas Moret y Alesón*, T. C. P., 118, Pamplona. 3-4 orr.
- ⁴ CASTRO ALAVA, J.R. (1968): *D. Rodrigo Ximenez de Rada*, T.C.P. 30, Pamplona.
- ⁵ Greziarren artean ere, Homeroren *Iliadak* antzinako greziarren berri ematen digu era poetikoan. Troia hiriaren kasuak, berriz, istorioa eta historiaren arteko muga zein etereoa den agertzen digu.
- ⁶ Erdi Aroko kantu hauen berri jakiteko ikus MITXELENA, L. (1964): *Textos arcaicos vascos*. Madrid: Minotauro.
- ⁷ Araban: Cuaderno de Ordenanzas (1417, 1467); Gipuzkoan: Cuaderno de 1457, 1463; Bizkaian: Fuero Viejo (1452).
- ⁸ GARCIA DE SALAZAR, Lope (1955): *Las Bienandanzas e Fortunas*. Edición por Angel Rodríguez Herrero, Bilbao. Ikus halaber CARO BAROJA, J. (1956): *Linajes y Bandos* (A propósito de la nueva edición de Las Bienandanzas e Fortunas). Bilbao: Diputación de Vizcaya.
- ⁹ GARCIA DE SALAZAR, Lope: *l.a.*, XXI orr.
- ¹⁰ Lehen historilariak egin zituzten lanetan narrazio belikoa nagusitzen bada ere, eta gaur eguneko historilariak honetaz ironiaz hitz egiten badute ere, CARO BAROJAk bataillen historiak duen esangura bere neurrian ipintzen du: "Las luchas de los hombres son algo tan trágicamente constante que se puede afirmar que no hay Historia sin guerra ni guerra sin Historia". Eta Garibayren lana aztertzerakoan zera esaten du: "¿Por qué, en el siglo XVI Garibay iba a escribir una historia en que las luchas no tuvieran un especial relieve?... ¿Y cómo se tramaría la narración sino es contando con el tupido sistema de linajes reales que era la base de toda organización social? CARO BAROJA, J. (1972): *Los Vascos*

- y la Historia a través de Garibay. San Sebastián. 108-199 orrk. Caro Barojak Garibayez esaten duena, Lope García de Salazarrez ere berdin esan daiteke.
- 11 Gogora dezagun lurralde hauek, ez zeudela gaur egun ezagutzen ditugun eran eraturik.
 - 12 «Háblese esta lengua en Guipúzcoa, Vizcaya y Encartaciones, Alava, lo más interior de Navarra, y en Labort y vascos, y donde más perfectamente y con menos mestura de otras lenguas se habla es en Vascos». MARTINEZ DE ZALDIVIA, J. (1945): *Suma de las cosas cantábricas y guipuzcoanas* (1560?). Introducción de F. Arocena, San Sebastián. 12 orr.
 - 13 Ahaide nagusiez aritzen direnean.
 - 14 Ikus, esate baterako, lehen aipatu dugun *Suma de las cosas cantábricas y guipuzcoanas*.
 - 15 *Ikus POZA, A. de: Antigua lengua de las Españas*. (XVI. mendean argitaratua). ECHAVE, Baltasar de (1607): *Discursos de la antigüedad de la lengua cantábrica*, México, 1607.
 - 16 Arazo historiografiko honek ez du izan konponbiderik XX. menderarte, hau da, Aranzadi, Barandiaran eta Mitxelenaen lanak burutu izan diren arte. Gogoratu, halaber, Ramón MENENDEZ PIDALen lanak: (1962): *En torno a la lengua vasca*, Col. Austral, Buenos Aires, 1962. Liburu honetan 1918tik aurrera argitaratutako lanak eskaintzen dira. TOVAR, A. (1950): *La Lengua Vasca*, San Sebastián.
 - 17 Kanpotarren eragin-eza defendatu bada ere XX. menderarte, azken mende honetan Bosch Ginpera, C. Baroja etab.en lanei esker, Euskal Herri hertsi baten aurrean Euskal Herri ireki bat aurkitzen dugu.
 - 18 Euskararen inguruan joera bateko eta besteko historilariek landu dituzten mitoz ikus TOVAR, A. (1980): *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*. Madrid: Alianza.
 - 19 MAÑARICUA, A.E. (1973): *Historiografía de Vizcaya*, Bilbao. 17-193 orr.
 - 20 1895. urtean Labayru-k *Historia General del Señorío de Vizcaya* idazten duenean ohizko mitoak uzteko bidean da, baina bere historia idazteko era guztiz tradizionala da, anales eran egiten bait du.
 - 21 BELA, J.P. (maulearra, 1709-1796): *Historia de los vascos desde su origen hasta 1748*, (12 liburu).
 - 22 DOM SARADOM (1785): *Essai sur la noblesse des basques. Pour servir d'introduction a l'histoire generale de ces peuples*. Pau.
 - 23 ZAMACOLA, J.M. (1818): *Historia de las naciones vascas*. Auch. LAZURTEGUI, J. de (1828): *Las provincias de Vizcaya, Guipúzcoa, Alava y Navarra ante el hemisferio de occidente*. Bilbao.
 - 24 D'IHARCE BIDASSOUET (1825): *Histoire des Cantabres ou des premiers colons de toute l'Europe, avec celle des basques leurs descendets directs, qui existent encore et leur langue asiatique basque. Traduite y reduite aux principes de la langue française*. Paris.
 - 25 BOIS-I.E-COMPTE, E. (1836): *Ensayo histórico sobre las Provincias Vascongadas (Alava, Guipúzcoa, Vizcaya y Navarra) y sobre la guerra que actualmente sostienen*. Burdeos.

- ²⁶ CHAHO, J.A. (1847): *Histoire primitive des Euskariens-Basques. Langue, poésie, Mœurs et caractère de ce peuple. Introduction a son histoire ancienne et moderne*, Madrid, Bayona.
- ²⁷ BELSUNZEko Bizkondea (1847): *Histoire des basques depuis leur établissement dans les Pyrénées occidentales jusqu'à nos jours*. Bayonne.
- ²⁸ CENAC MONCAUC, J. (1853-55): *Histoire des Pyrénées et des rapports internationaux de la France avec l'Espagne*. 5 vols. Paris; (1860) *Histoire des peuples et des états Pyreneens (France et Espagne)*. Paris.
- ²⁹ GARAT, J. (1869): *Origines des basques de France et d'Espagne*. Paris.
- ³⁰ BLADE, J.F. (1869): *Etude sur les origines des basques*. Paris.
- ³¹ JAURGAIN, J. (1898-1902): *La Vasconie. Etude historique et critique sur les origines du royaume de Navarre, du duché de Gascogne, Comtes de Comminges, d'Aragon, de Foix, de Bigorre, d'Alava, et de Biscaye, de la vicomté de Bearn et des grands fiefs du duché de Gascogne*. Pau.
- ³² Honez gain beste abiapuntua arazo historiografikoen inguruan gertatzen den historiarrien arteko polemika izango litzateke, Blade eta Jaurgain-en artean burutzen dena kasu.
- ³³ Gogora ditzagun XVII. mendeko historilari kritiko eta eruditoen artean Josep de Moret eta Francisco de ALESON kronistak eta, halaber, beraien lanak: *Investigaciones históricas de las antigüedades del Reino de Navarra* eta *Anales del Reino de Navarra*.
- ³⁴ *Sobre los Fueros de Guipúzcoa. Conferencias curiosas, políticas, legales y morales sobre los Fueros de la M.N. y M.L. provincia de Guipúzcoa*. Edición, introducción, notas y apéndices por J. Ignacio Tellechea Idigoras, Donostiako A.K.M., 1983.
- ³⁵ Esate baterako, HENAOk idatzitako (1702) *Defensa Histórica de Guipúzcoa*.
- ³⁶ LANDAZURIk idatzitako. *Historia del ilustre pais vascongado comprendiendo sus tres muy nobles Provincias*.
- ³⁷ XIX. mendean zehar Euskal Herriaz eta bere historiari informazioa jasotzeko bide bat hiztegiaren izan zen. Horra hor, esate baterako, MIÑANO, S. de (1826-1829): *Diccionario Geográfico estadístico de España y Portugal*. Madrid. (11 bol.). MADDOZ, P. (1846-1850): *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de ultramar*. Madrid (10 bol).
- ³⁸ Ikus GONZALEZ, T. (1829): *Colección de cédulas, cartas patentes, provisiones. Reales órdenes y otros documentos concernientes a las tres Provincias Vascongadas*. Madrid.
- ³⁹ ZUAZNABAR, J.M. (1827-29): *Ensayo histórico crítico sobre la legislación de Navarra*. San Sebastián.
- ⁴⁰ MARICHALAR, A. eta MANRIQUE, A. (1851-1872): *Historia de la legislación y recitaciones del Derecho Civil en España*. Madrid.
- ⁴¹ Horra hor Mateo Benigno de MORAZA, Pedro de EGAÑA, BARROETA ALDAMAR, Camilo VILLABASO etab.en lanak.
- ⁴² Gogora dezagun batez ere, PIRALA, S. (1852): *Historia de la guerra civil y de los partidos liberal y carlista*. Madrid.

- ⁴³ HUMBOLDT, W. F. (1975): *Los Vascos. Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en primavera del año 1801*. Donostia: Auñamendi, CHAHO, J.A. (1836): *Voyage au Navarre pendant l'insurrection des basques (1830-1835)*, Paris. HENNINGSSEN, G.F. (1836): *Campana de doce meses en navarra y las Provincias Vascongadas con el general Zumalacarregrui*, (1836). Edizio espainola: (1935): Madrid. MAÑE Y FLAQUER (1878-1880): *El oasis. Viaje al País de los Fueros*. Barcelona. Euskal idazleen artean gogora ditzagun ildo honi jarraituz Juan E. DELMASek burututako lanak: (1846): *Viaje Pintoresco por las Provincias Vascongadas*. Bilbao. (1864): *Guía Histórico-Descriptiva del viajero en el Señorío de Vizcaya*. Bilbao.
- ⁴⁴ YANGUAS Y MIRANDA, J. (1832): *Compendio de la Historia de Navarra*. San Sebastián.
- ⁴⁵ BECERRO DE BENGOA, R. (1877): *El libro de Alava*.
- ⁴⁶ GOROSABEL, P. (1899): *Noticias de las cosas memorables de Gupúzcoa*. SORALUCE, N. (1870): *Historia General de Guipúzcoa*. Vitoria.
- ⁴⁷ LABAYRU, E. (1895): *Historia General del Señorío de Vizcaya*. Halaber, gorrora ditzagun beste lan batzuk: ARTINANO, A. (1885): *El Señorío de Vizcaya histórico y foral*; TRUEBA, S. (1872): *Resumen descriptivo e histórico del M.N. y M.L. Señorío de Vizcaya*. Bilbao.
- ⁴⁸ (1883): *Recherches Historiques sur le Pays Basque*. Bayonne-Paris. (Marseille, 1977).
- ⁴⁹ Adibide gisa ikus HEROS, M. de los (1848): *Historia de Valmaseda*. CAVANILLES, A. (1858): *Lequeitio en 1857*, Madrid; GOROSABEL, P. (1853): *Antigüedades de Tolosa*. Tolosa. VILLAVASO, C. (1868): *Historia de Durango y de sus más ilustres hijos*. Bilbao. BELASQUE, J. (1862-1875): *Etudes historiques sur la ville de Bayonne*, Bayonne. NADAL DE GUERRA, J. (1866): *Glorias navarras... historia detallada de Pamplona desde sus primeros tiempos*. Pamplona. DIAZ DE ARCAÑA, B.J. (1850): *Vitoria y los 43 pueblos de su antigua jurisdicción*. Vitoria. RUIZ DE OGARRIO, T. (1857): *Manual descriptivo e histórico de la ciudad de San Sebastián, con un apéndice sobre los baños de mar*. San Sebastián. GOYHETCHE, L. (1883): *Saint-Jean-de-Luz. Historique et pittoresque. Annales et chronique*, Paris. CAMINO, J.A. (1892): *Historia civil diplomática-eclésiástica de San Sebastián*. San Sebastián.
- ⁵⁰ GUIARD, T. (1908): *Historia de la Noble Villa de Bilbao*. Bilbao.
- ⁵¹ TRUEBA, A. (1870): *Bosquejo de la organización social de Vizcaya*. Bilbao. BASTERRA, M. de (1894): *Vizcaya minera. Su historia, legislación foral y derecho vigente*. San Sebastián. ECHEGARAY, C. (1895): *Las provincias vascongadas a fines de la Edad Media*. San Sebastián. GUIARD, T. (1913-1914): *Hª del Consulado y la Casa de Contratación de Bilbao y del comercio de la Villa*. 2 vols. Bilbo. ALZOLA, P. (1898): *Monografía de los caminos y ferrocarriles de Vizcaya. Régimen económico y administrativo de Vizcaya y Guipúzcoa*. Bilbao.
- ⁵² Ikus Aranzadi, Eguren eta Barandiaran-en lanak.
- ⁵³ *Euskal Erria* aldizkaria Donostia 1880-1918. *Euskal Erriaren alde* 1911-1831. *Bulletin de la Société de Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* (1873tik aurrera), *Gure Herria* (1921etik aurrera). *Bulletin du Musée Basque* (1924etik aurrera), *Eusko Ikaskuntzaren aldizkaria* izatera (1922an) heldu zen *Revista Internacional de Estudios Vascos* (1907-1936), eta aipatu erakunde horren inguruan egin-

- dako "Congresos de Estudios Vascos" delakoak eta *Yakintza* aldizkaria (1933-36). Honez gain aipatzekoa da Carreras Candi-ren zuzendaritzapean burututako lan kolektiboa: *Geografía General del País Vasco-Navarro* (1911).
- ⁵⁴ Ikus LASALA, F. (1924): *Ultima etapa de la unidad nacional. Los Fueros Vascongados en 1876*. Madrid. Autore honen eritziz Foruak ez dira galdu eraberritu baino. Joera liberal berdinekoa dugu BALPARDA, G. (1925): *Historia crítica de Vizcaya y sus fueros*. Madrid.
- ⁵⁵ Liberal foruzale ikuspegitik SAGARMINAGA, F. (1880): *Memorias históricas de Vizcaya*. Bilbao. (1892): *El gobierno y régimen foral del Señorío de Vizcaya*. (8 bol.). Bilbao. Ikuspegi nazionalistatik, ZABALA OTZAMIZ-TREMOYA (1909): *Historia de Bizkaya, 1793-1807*. Bilbao.
- ⁵⁶ EKINen argitaratzen diren liburuek, salbuespen batzuk ezik, batez ere historia politikoa lantzen dute. Hauen artean gogora dezagun SORALUZE, A. (1945): *Riqueza y economía del País Vasco*. Ekin. Buenos Aires.
- ⁵⁷ ARALARen aipatutako liburuan 8. orrialdean jasotzen den esaldi hau MENENDEZ PELAYOren liburu honetan agertzen da: *Estudios de Crítica literaria*, Madrid, 1915, I, 109-110 orr.
- ⁵⁸ ARIZTIMUÑO, J. (1942): *La democracia en Euzkadi*. Ekin. Buenos Aires. GALINDEZ, J. (1947): *El Derecho Vasco*. Ekin. Buenos Aires IRUJO, M. (1945): *Instituciones Jurídicas Vascas*. Ekin. Buenos Aires.
- ⁵⁹ ARIZTIMUÑO, *l. a.*, 264-270 orr.
- ⁶⁰ Ikuspuntu hau GALINDEZek honela azaltzen digu "La labor que nos toca realizar a los hombres de nuestra generación es precisamente tamizar el pasado, extraer lo esencial, y eterno, para fundirlo con aquello que de bueno aprendamos en otros países, en el crisol de nuestra libertad recobrada". "Quiero sintetizar el pasado, señalando sus líneas generales, para extraer las instituciones eternas, las que son consustanciales con la vida de nuestra raza; y soñar su proyección hacia el futuro inmediato", *l. a.* pág. 12.
- ⁶¹ GARCIA VENERO, M. (1945): *Historia del Nacionalismo Vasco 1793-1936*, Ed. Nacional. Madrid. Hirugarren edizioan (1969) aipatu ditugun bi ataletan zehar (235 orrialde) erromatarkuntzatik XIX. menderarteko historia lantzen du. Gai bera baina ETArek jatorrietaraino luzatuz ikus PAYNE, S. G. (1974): *El nacionalismo vascu. De sus orígenes a la ETA*. Barcelona: DOPESA.
- ⁶² (1948): *Política Nacional en Vizcaya*. Madrid: Instituto de Estudios políticos.
- ⁶³ (1943): *Les Basques de Labourd, de Soule et de Basse Navarre. Leur Histoire et leurs traditions*. Bayonne: Musée Basque. (Arthaud, 1975). Halaber, BERNOVILLE, G.; ETCHEVERRY, M.; ITHURRIAGUE, J.; VEYRIN, Ph. (1956): *Visages du Pays Basque*. Paris.
- ⁶⁴ (1951): *Los puertos marítimos vascongados*. (M.V. nº 7-8). San Sebastián.
- ⁶⁵ ETXEGARAY, B. (1950): *El Derecho foral privado*. (M.V. nº 3) San Sebastián.
- ⁶⁶ (1951): *Minería, Industria y comercio del País Vasco*. (M.V. nº 6). San Sebastián.
- ⁶⁷ Ikus 34. oharra.
- ⁶⁸ (1961): *La población de Bilbao en el siglo XVIII*. Valladolid.
- ⁶⁹ DRAVASSA, E. (1950): *Les privileges des Basques du Labourd sous l'Ancien Régime*. Burdeos. DESTREE, A. (1950): *La Basse Navarre et ses institutions de*

1620 a la Revolución. Zaragoza. NUSSY SAINT SAENS, M. (1942): *Contribución a un essai sur la coutume de Soule*. Bayonne.

- 70 Gogora dezagun autore emankor honen lanen artean euskal historiaurrearen berri ematen duten eta sintesi-lan ezagunak diren: (1934): *El Hombre primitivo en el País Vasco*. San Sebastián. (1953): *El hombre prehistórico en el País Vasco*. Buenos Aires: Ekin.
- 71 Euskal Historiaurrearen historiografiaz gehiago jakiteko ikus izenburu honekin J.A. MUJIKAK argitaratutako artikulua ondorengo liburu honetan: (1985) *Euskal Herriaren Historiaz, II, Historiaurrea*. Bilbo: EHU 19-39 orr. Halaber ikus J. A. AZKARATEk liburu honetan egindako aurkezpena, 7-11 orr.
- 72 LACARRA, J.M. (1975): *Historia del Reino de Navarra en la Edad Media*. Pamplona: Ed. Caja Ahorros de Navarra.
- 73 (1966): *Vizcaya en el Siglo XV*. Bilbao. GARCIA DE CORTAZAR, J.A.; ARIZAGA, B.; RIOS RÓDRIGUEZ, M.L.; DEL VAL, I. (1985): *Bizcaya en la Edad Media*. (IV bol). San Sebastián: Haranburu.
- 74 Ikus BELTZAREN lanetan ematen diren aipamen bibliografikoak. ¿Acumulación primitiva o colonización? izenburua duen lanean honako autoreen lanak aipatzen ditu: Tortella, Sanchez Ramos, Tuñon de Lara, Sarda, R. Anes, G. Anes, Vicens Vives, Tamames, Nadal, Larraz. Euskal bibliografia aipatzerakoan autore hauek agertzen dira: J. A. de Zamacola, C. Etxegaray, S. Mujica, Gorosabel, Alzola, Caro Baroja eta EKIN argitaletxeko liburuak.
- 75 ZABALAREN lana Añamendi argitaletxeak argitaratu zuen, (1971): *Historia del Pueblo Vasco*. (2 t.). San Sebastián. *Jakin, Etor* eta *Gero* argitaletxeen inguruan euskaraz argitaratu zen (1971-1975).
- 76 1970eko Otsailaren 26 eta 27an Donostiako Injineru-Eskolan AYESTARANek eskaintako hitzaldiaren transkribaketa mekanografikoak bere zabalkundea izan zuen euskal kulturgintzan zebilen jendearen artean. Bere izenburuak ("Historia de la lucha social en el País Vasco") zera adierazten digu: euskal historia aztertzeko orduan, beste kontzeptu eta ikuspuntu berrien erabilera hasia dela, historia sozial eta ekonomikoaren ikuspuntuak hain zuzen ere. Neurri batean, ildo honetatik joko du C. CABALLERO BASAÑEZek: (1973): *Introducción a la Historia de Euskal Herria* (apuntes privados), Escuelas Profesionales "Jesús Obrero". Vitoria.
- 77 Talde honen partaideak hauexek ziren: Jose Maria Agirre, Mikel Azurmendi, Jose Mari Eskubi, Mikel Etxebarria, M^a Ascensión Goenaga, Jabi Gorostiaga, Gutí, Jose Angel Iturbe, Jose Mari Matxain eta Fermin Lizarraga.
- 78 Garai honetan erabili ziren materialak Koldo Tapia-ri esker eskuratu ditut.
- 79 "Breve síntesis de la Historia del Pueblo Vasco" makinaz idatzitako testu anonimoen lehen orrialdean. Testu honen azalpena, batetik, 1964ean amaitzen denez eta bestetik eskaintzen duen bibliografia berriena 60. hamarkadako izaenez, 1965-1970, urteen artean idatzita dagoela suposatzen dut.
- 80 "A pesar de la abundancia bibliográfica existente sobre temas históricos vascos, son poquísimos los textos científicos, es decir aprovechables, porque muchos están escritos con el específico propósito de demostrar algo "a priori" lo que le lleva al autor a forzar los hechos según su imaginación. Además resulta que existen grandes lagunas en el conocimiento de la Historia del Pueblo Vasco, sobre todo en lo que se refiere al desarrollo económico y social" Régimen de la propiedad y estructuración social en la edad media, el desarrollo de la burguesía

a finales de la edad moderna, etc. Estos vacíos llegan a ser tan oscuros, que hoy día conocemos mejor la Prehistoria del Pueblo Vasco que muchas partes de su Historia". *Breve síntesis de la Historia del Pueblo Vasco*.

- ⁸¹ Marx-en hitzak karlistadari buruz AYESTARANek jasotzen ditu bere hitzaldian: "El carlismo no es un mero movimiento dinástico y regresivo como se empeñaron en decir y mentir los bien pagados historiadores liberales; es un movimiento libre y popular en defensa de tradiciones mucho más liberales... que el absorbente liberalismo oficial", 12 orr.
- ⁸² "Los vascos se resisten a esta revolución burguesa, porque para ellos toma el carácter de colonización: los defensores de los Fueros ya no serán los burgueses, sino los campesinos y los artesanos que defienden su peculiaridad nacional", BELTZA (1969): "*A los revolucionarios vascos*".
- ⁸³ BELTZAren tesia testu honetan agertzen da, "*A los revolucionarios Vascos*", 1969.
- ⁸⁴ "Sobre el problema nacional vasco", *Saioak*, 2, abendua, 1970.
- ⁸⁵ Ikus 80. oharra.
- ⁸⁶ HUICI GOÑI, M.P. (1963): *Las Cortes de Navarra durante la Edad Moderna*. Madrid: Rialp. SALCEDO IZU, J. (1969): *La Diputación del Reino de Navarra*. Pamplona. MONREAL, G. (1974): *Las Instituciones públicas del Señorío de Vizcaya (hasta el siglo XVIII)*. Bilbao.

HISTORIOGRAFIA DE LA HISTORIA VASCA

HISTORIOGRAPHIE DE L'HISTOIRE BASQUE

Como introducción general a la Historiografía más reciente, el profesor López Atxura presenta una historia resumida de la Historiografía vasca desde la Edad Media hasta los años sesenta.

Desde la Baja Edad Media se constata la existencia de la misma, más tempranamente en Navarra (Ximénez de Rada, García de Euguí, Valencia, López de Orreaga, Príncipe de Viana) que en los otros Territorios Históricos (García de Salazar). Se describen los rasgos fundamentales de esta Historiografía medieval.

La Historiografía de la Edad Moderna (s. XVI-XVIII) es descrita como mítica, en razón de sus características particulares, por la temática abordada y por los procedimientos de trabajo seguidos. Figuras de indudable relieve y resonancia en la época se sucederán a lo largo de las generaciones modernas de historiadores vascos: Zaldivia, Garibay, Poza, Oihenart, Moret, Alesón, Bela, Larramendi, Zamacola, Iturriza, Landazuri, Fontecha, etc.

En el período de transición que va de comienzos del s. XIX a la Guerra Civil (1936), la Historiografía hará el camino que media entre aquella primera mitologizante y las posteriores obras de carácter científico. En las crisis del Antiguo Régimen no faltan publicaciones que inciden en el debate político (Llorente, Novia de Salcedo, Zuaznabar, etc.). El s. XIX ofrece un elenco importante de historiadores:

Yanguas, Becerro de Bengoa, Gorosabel, Labayru, Haristoy, Izueta; y en una generación posterior Guiard, Sagarminaga, Echegaray, Campión, etc. El nacimiento del nacionalismo vasco estimulará también la producción historiográfica, con suerte variada (Estella, Lasa, Gurruchaga).

En la época de la Dictadura franquista las publicaciones provienen lo mismo del exilio, de la clandestinidad interna que de la producción estimulada o tolerada por el régimen vigente. La relación sería amplia, y en todo caso nos sitúa en el pórtico de la mejor producción de los años 70 y 80.

Comme introduction générale à l'historiographie plus récente, le professeur López Atxura présente une histoire résumée de l'historiographie basque du Moyen Age jusqu'aux années soixante.

Depuis le Bas Moyen Age, on constate l'existence de celle-ci, plus tôt en Navarre (Ximénez de Rada, García de Eugui, Valencia, López de Orreaga, Príncipe de Viana) que dans les autres Territoires Historiques (García de Salazar) les traits fondamentaux de cette Historiographie médiévale sont décrits.

L'Historiographie de l'Age Moderne (XVI-XVIII siècles) est décrite comme *mythique*, en raison de ses caractéristiques particulières dues à la thématique abordée et aux procédés de travail suivis. Des personnages indéniablement renommés de l'époque se sont succédés tout au long des générations modernes d'historiens basques tels que: Zaldivia, Garibay, Poza, Oihenart, Moret, Alesón, Bela, Larramendi, Zamacola, Iturriza, Landazuri, Fontecha, etc.

Dans la période de transition qui va du début du XIX siècle à la Guerre Civile (1936), l'historiographie fera le chemin existant entre cette première "mythologisante" et les autres travaux postérieurs à caractère scientifique. Pendant les Crises de l'Ancien Régime, les publications qui incitent au débat politique (Llorente, Novia de Salcedo, Zuaznabar, etc.) n'ont pas manqué. Le XIX siècle offre un éventail important d'historiens tels que: Yanguas, Becerro de Bengoa, Gorosabel, Labayru, Haristoy, Izueta; et dans une génération postérieure: Guiard, Sagarminaga, Echegaray, Campión, etc. La naissance du nationalisme basque stimulera aussi la production historiographique avec plus ou moins de succès (Estella, Lasa, Gurruchaga).

Pendant l'époque de la Dictature franquiste, les publications proviennent aussi bien de l'exil, de la clandestinité interne, que de la production tolérée par le régime en vigueur. La relation sera grande en tout état de cause et nous place à l'orée des meilleures productions des années 70 et 80.

Euskal demografiaren historiaz

Josetxo Urrutikoetxea
Arantxa Artzamendi

Populazioa eta familia: analisi historikoaren barnean betetzen duen funtzioa (*)

“Historia bere garaiaren haurra da. Aro bakoitzak bere beharrei erantzungo dien historia osatuko du” (P. Chaunu)

Gizarteak Historiaren aurrean izan duen jarrera aztertzerakoan, hiru jokabide bereiz daitezke: zenbaitek, Historiak herriaren kontzientzia kolektiboa ahaztu erazten duela pentsatzen du, edo historia “entretengarri kultural” bezala ulertzen du. Beste batzuentzat berriz, Historia interes jakinak defendatzeko erabilia izan da, historia mitifikatuz. Eta azkenik, hirugarren talde batentzat, historia elementu kritiko bat izango litzateke, gaurko arazoan aurrean. Honekin lotuta, Historia zehar, demografiari buruzko kezak gorabehera handiak ezagutu ditu. Historia demografikoaren sorrera, 1929ko krisialdiarekin lotua agertzen da, mendebaldeko kapitalismoak ezagutu zuen lehendabizikoarekin hain zuzen ere. Kontestu honetan, “Hazkuntza eta Garapenaren” problematika

osoaren zerbitzutan mugituko da, Historia kuantitatibo delakoa-ren barnean. "Historia berri" honen jaiotzak, analisi historikoaren funtsezko kategorien erabateko aldaketa ekarriko du berarekin. Alde batetik, protagonista indibidualek edo talde txikiek pixkanaka-pixkanaka lehentasuna galduko dute, eta hauen ordez, gizatalde osoa izango da nabarmentzen hasiko dena.

Chaunu-k dioenez, demografia historikoa zientzia bezala Mauvret-ek idatzitako "Les crises de subsistence et la démographie de la France d'Ancien Régime", 1946an Frantzian argitaratutako artikuluekin sortu zen. Gaur egun, historigile gehienak ados daude, historia demografikoak bere lehen gailurra artikuluhonekin irabazi zuela baieztatzerakoan. Bide hori jarraituz azterketa demografikoa egiterakoan, eskola desberdinak sortu dira. Hauen artean Frantziako eskolak, Henry-ren aitzindaritzapean, arrakasta handiz garatu du "Familiaren Berreraikuntz metodoa". Funtsean zera da: familia osoen berreraikuntza, banakako fitxak, eginez, non jaiotz eguna, senitartekotasuna, senar-emazteen erreferentzia, seme-alaben kopurua —izanez gero—, bakoitzaren jaiotz eguna, etab. adierazten diren. Estatistika-aldetik metodo honen akatsak gainditzearren, bi eskola berri sortuko dira, bata Ingalaterran "sistema agregatibo" izenarekin, eta bestea Frantzian INED (Azterlan Demografikoen Institutu Nazionala) delakoak zabaldu duena. Azken honek "Familiaren Berreraikuntza"ren abantailak hartu eta aurretik aukeratutako muestra batzuetara aplikatzen ditu, erizpide zabalago eta orokorragoak jarraituz. Herri-mailako galdekizun baten mugak gainditu egiten ditu eta 1960. urte inguruan, demografiarekiko zaletasunak beste bide bat hartuko du, pertsonak familiaren barnean aztertuz, era honetan familiaren protagonismoa nagusituko delarik.

Euskal Herri mailan, demografia historikoaren aldetik izandako atzerapena gainditzeko bidean gaudela esan dezakegu, bereziki azken urteotan egindako ikerketak direla medio. Aitzindari bezala, Gomez eta Mauleon Isla aipa ditzakegu, eta 70. hamarkadan eman zen lehendabiziko aurre-pausua, azterketa demografikoa ikerketa zabalagoen oinarri izatera pasa zenean, bereziki Fernandez de Pinedo eta Fernandez Albadalejo-ren eskutik.

Ondoren, 1980tik aurrera, azterketa demografikoen leherketa antzeko bat hasi zen. Arabatik hasita, Hernández Markok eta Piquerok, biak Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak, egin dituzten lanak aipatu behar ditugu. Bizkaian berriz, Andoni Iturbe eta Rafael Ortega-ren inguruan sortutako ikerketak, eta Deustuko

Unibertsitatean, demografiari buruz aurkeztutako zenbait tesina argitaratu gabeak. Gipuzkoan Josetxo Urrutikoetxea dugu eredu, eta azkenik Nafarroan, Floristán, García-Sanz Marcotegui, Orta Rubio eta Miranda izango dira gehienbat nabarmenduko zaizkigunak.

Baina familiarekiko azterketa egiterakoan, beste ikuspuntu batetik ere abia gaitzke. Bide hau jarraitu du hain zuzen ere, Alvaro de Navajas-ek, *La ordenación consuetudinaria del caserío en Guipúzcoa*, 1975ean argitaratutako liburuarekin, non familia zuzenbide-mailan aztertzen den. Beste abiapuntu bat bezala, Jesus Arpal Poblador-ek egindako lanak ditugu, *Los Garagarza en Elgoibar* eta *La sociedad tradicional en el País Vasco*, familia, soziologi alde-tik aztertzen dutelarik. Bi ikuspuntu berri hauei esker, lehen aipatutakoak osatu egiten dira, azterketa demografiko hutsa erabat gainditu eta "disziplinarteko" deritzon maila zabalagoa lortu arte.

Populazioa eta familia Euskal Herrian

Atal honetan gure historiografiak eman dituen pausuak aztertzen dira, hau da, lorpenak, hutsuneak, beharrak eta norabidea. Gai hauek aztertzerakoan hiru erizpide ezberdin jarraitu ditugu: gaia nagusiki, eta honen menpean denbora eta lurraldeak.

Bestalde, gaien zatiketak, bi ardatzen inguruan bilduko du informazioa:

- a) Demografiari buruzko kezka hutsa.
- b) Familiari buruzko kezka.

Demografiari buruzko kezka

Gure historiografiaren barnean, demografiari buruzko kezka ez da oso berandu arte azalduko. 80. hamarkada arte ez dira nabarmenduko demografiari lehentasuna ematen dioten azterketak. Hala ere, orain arte egin diren lanetan, gure demografiaren zatikako ikuspegiak bakarrik ematen dira. Salbuespen batzuk ezezik (Hernández Marco, Piquero, Urrutikoetxea) ez dugu ezagutzen gure biztanleriari buruz ikuspegi sintetikiko bat eskaintzen dugun ikerketan-lanik. Gehientsuenei ikuspegi orokorra falta zaie, bai denboran

zehar eta baita geografia edo gaiekiko loturaren arloan ere. Oso ezagupen urria dugu XVI. mende-aurreko gure populazioari buruz. Alor honetan aipagarriak dira Carrasco Pérez-ek XIV. mendeko Nafarroari (1973) eskainitako lana, edo "Euskal Herriko Populazioa Erdi Aroan" (Bilbo, L.M.-Fernández Pinedo, 1978) izeneko ikerketa monografikoa, beste batzuren artean.

Aro Modernoan berriz (XVI-XVIII) aberastasun handiagoa dugu, bai lanen kantitate, nola kalitate aldetik ere. Nahiz eta mende eta alor guztiek tratamendu berdina ez jaso, XVIII. mendeari buruz daukagu informaziorik osoena, baina honek ez du esan nahi aurreko beste bi mendeei buruz berririk ez dugunik. Bilbo, Fernández Albadalejo (1975) eta Fernández de Pinedo-ri (1974) esker, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko populazioaren hiru mende hauek bilakaera orokorra ezagutzen dugu. Piquero eta Urrutikoetxeak (1985) Gipuzkoan, eta Ortegak Bizkaian, bilakaera honen barne-zaugarriak zehaztasun gehiagorekin ematen dizkigute.

Nafarroari buruz berriz lan sakonagoak egin dira. Izurrite eta "despopulatu" direlakoak aztertzen dituzten lan monografikoez gain, Nafarroako erresumak baditu beste lan aipagarri batzuk ere, bata García-Sanz Marcoteguik XVIII. mendeko Sakanari eskainia; eta bestea, Floristán Imizcoz Lizarrako Merinaldea Aro Modernoan edo XVIII. mendeko Nafarroa; eta azkenik Miranda F. eta E. Ortak egindako zenbait lan.

Harrigarri badirudi ere, XIX. mendeak ez du hain azterketa serioerik ezagutu. Baina arrazoia ez da mende honi buruzko lanak orain sortu berriak izatea. Lehenengo industrializazioak berarekin ekar zitzakeen ondorioen kezka, Gómez-en (1896) *Cómo se vive y cómo se muere en Bilbao* bezalako lanak sorterazi zituen, izenburu nahikoa adierazkorrekin.

Baina bestalde urte asko pasa behar izan zuten, era honetako lanak berriro azaldu arte. Iparraldetik hasita Labatut, Ph.ek eta Laborde, P.k (1971-1973) egindako lanak azpimarratu beharko genituzke. XVIII. mendeko demografiari buruz Poussou, J.P. eta Sax-en ikerketak aitzindaritzat dutelarik.

Gainontzeko lurraldeetan egin diren lanak, bi taldetan banatuko ditugu:

1) Alde batetik, gure eguneroko errealitatearekin hain harreman estua duten zenbait fenomeno aztertzerakoan, industrializazioa, langile-mugimendua edo abertzaletasuna, demografiara jo

izan da, nahiz eta kasu hauetan demografia ez izan gure ikerketarako gai nagusia. Baina hala ere, metodologi aldetik lorpen handia izan da azken hau. Talde honetan Corcuera (1979), Solozabal (1975), Castells (1986), Fernández Pinedo, Hernández Marco (1987), etab.en lanetan agertzen diren aipamen demografikoak azpimarratuko genituzke.

2) Demografi alorrean berriz, egin dira zenbait ikerketa monografiko, adibidez García-Sanz Marcotequik (1985), Urrutikoe-txeak (1985). Bestalde M.A. Larreak zuzentzen duen lantaldea dugu, Ortega eta Iturberen aitzindaritzapean *Ernao* aldizkariaren inguruan mugitzen dena.

Familiari buruzko kezka

Hasieran esan dugun bezala, atal hau oso gutxitan aztertu da gure historiografian. Nahiz eta egoera hau aldaeraz zezaketen aitzindari eta elementu eragingarriak ez falta izan. Historiografia jakin batek, bai europarra eta baita euskalduna ere, "familia hedatua"ren (*familia extensa*) eredu, desagertzeko arriskuan zegoen gizarte tradizionalaren eredu bezala hartuko zuen. Era honetan gure nekazal familiaren irudi mitifikatua azaldu zen. Adibide bezala Le Play eta Areitiok ematen duten irudia aipa dezakegu.

Beranduago, Europa aldean, familiari buruzko azterketa sako-nagoak egiten hasi ziren, Antzinako Errejimenaren aldaketa nagusiak ardatz honen inguruan agertzen direla kontutan izanik. Hain-ek bere "European marriage patterns in perspective", egitura familiarraren eredu bikoitza formulatu zuen, europar errealitate orokorraren mugatzaile bezala. Gehiegizko eskematismo honen arabera, europarrak mediterraneo eta ez-mediterraneo artean bereizten ziren, baina ondorengo historiografiak ikuspegi hau aberastu egin zuen.

1975 eta 1979.ean gai hauekin lotura handia duten bi lan¹ azaldu ziren Euskal Herrian, gure artean "famili" kezka sorteraz zezaketanak, baina ez zen hala gertatu. Agian ikuspegi juridikoa eta soziologikoa izatean, historiografia ez zen arduratu lan hauen garrantziak, are gutxiago gainera, une hartako kezka alor instituzionalista edo ekonomizista tankerakoak zirela kontutan izanik. Beste horrenbeste gertatu zitzaion Julio Caro Baroja-ri ere, *Los Vascos* liburuarekin. Egoera honetan, 80. hamarkadan sartuko gara ia esku

hutsik. Orduan hasiko zaizkigu agertzen ikuspegi berri batekin egindako lanak, europar historiografia eta euskal ikerketak kontutan hartuko dituztenak. Azaldu berri diren lanen artean, bi artikulua nagusi aipatuko ditugu: A. Iturberena (1985) eta behin eta berriro adierazi dugun A. García-Sanz Marcotequirena (1988). Bien artean piztu duten kriseilua ez dadila denbora luzean itzal.

Iturrien urritasuna

Gure artean askotan aipatu izan da iturrien urritasuna, historia egiteko orduan dagoen oztoporik handien bezala. Baina gure kasuan, ederki asko azal dezakegu urritasun eza, eta are gehiago, iturriak non aurki daitezkeen. Alor honetan lehentasuna dute Protokolo-Artxiboek, bertan biltzen bait dira notarioak XVI. mendetik luzatu dituzten agiri edo dokumentu guztiak, hau da, testamentuak, salerosketa kontratuak, ezkontzakoak, maileguak, etab. Dokumentazio guzti honek, garrantzi handia du, familiari buruzko lanak egiteko, bai kapitularioak edo "ezkontz kontratuak" direlakoen bitartez, familiaren osaketa ezagutzeko eta baita familiaren ondasunak edo ondarea, hau da, jabegoa, abereak, etxea, base-rria, lurrak, etab. ezagutzeko ere.

Udal-Artxiboetan berriz, era ezberdinetako dokumentazioa gordetzen da. Alde batetik, agiri ekonomikoak, hau da, bai Udala-ren eta baita norberaren ondasunei buruzkoak ere, "lurralde-aberastasunaren egoerak" eta "industri aberastasunaren egoerak" deitzen bitartez alegia. Bestetik, familia eta demografiari buruzko dokumentazioa, batez ere "zentsu"etan, "auzotarren" agirietan, etab. Arlo fiskaleko informazioa, eta azkenik, "auziak" direla medio, gizarte- eta pentsamolde-mailakoa ere bai. Beraz, Udal-Artxiboetan gordetzen den dokumentazio honi esker, informazio guztiz interesgarria jaso dezakegu familiari buruz, ekonomi eta demografi alderdietatik.

Hirugarren iturri-mota, Parrokietako liburuetan (Sakramentu-Liburuetan) dugu. Aurrekoekin konparatuz, dokumentazio-mota honen abantaila nagusia, zera da, emandako ikuspuntua, kronologikoki jarraia dela, etenik gabekoa. Protokolo eta Udal-Artxiboetan berriz, informazioa ez da urtez urtekoa, saltokakoa baizik. Parrokietako liburuetan, Trentoko Kontziliotik hasi eta gaur arteko informazioa dugu, egunez egun, eta elizkizun nagusienei dago-

kiena, hau da: bataioak, ezkontzak eta hiletak. Era honetan, dokumentazio-mota hau, guztiz interesgarria bilakatzen zaigu, populazioaren bilakaera orokorra ezagutu nahi baldin badugu. Honela, bilakaera demografiko honen barnean, hiru maila bereiz ahal izango ditugu: joerak (tendencias), zikloak eta koiuntura. Bestalde gertakizun bakoitzari buruzko azterketa zehatza ere egin ahal izango dugu: jaiotz tasa, ugalkortasuna, hilkortasuna.

Azkenik famili artxiboak aipatu behar ditugu, zenbait oztupo izan arren. Alde batetik, dokumentazioa elite batera mugatua izatea, eta bestetik, kontsulta-momentuan sor daitezkeen arazoengatik.

Amaiera

Orain arte esandakoa kontutan izanik, historiografi mailan gaur egun hutsune handi bat topatzen dugu. Bestalde, denok dakigu alor honetan lanean aritzeko iturri historikoak nahikoa aberatsak direla. Baina aurrera jarraitu aurretik, zenbait ideia argitu beharrean gaude. Alde batetik historiografi alor hauetan murgildu nahi duenak, zehazki jakin beharko du non dabilen eta zeintzuk diren argitu beharreko kezkek. Historia demografikoa eta familiaren historiaren oinarria, historiaren sozializazioa da, edo beste era batean esanda, historiaren protagonista nagusia, talde kolektiboan aurkitzen da.

Gainera, aldagarri nagusi eta bigarren mailakoen artean bereizketa bat egitea komeni da. Lehenengoen artean: joera, populazioaren egitura orokorra, erakuntza eta egitura familiarra, hilkortasuna, etab. izango genituzke.

Ondoren aztertu beharreko gaien aukera egoki bat egin beharko genuke, esparru zabalago baten ordezkari izatea kontutan harturik.

Azkenik, hemen aipatutako guztiak zerbaitetarako balioko luke; ikerketen helburua, gure gaurko gizarteko kezken sustraia iraganeko historian aurkitzeko laguntza eskaini baleza.

Aipatutako bibliografia

- ARPAL POBLADOR, J. (1979): *La Sociedad Tradicional en el País Vasco*, Donostia, Haranburu.
- FLORISTAN IMIZCOZ, A. (1982): *La Merindad de Estella en la Edad Moderna: los bombres y la tierra*, Iruñea.
- GARCIA-SANZ MARCOTEGUI, A. (1985): *Demografía y sociedad de la Barranca de Navarra (1760-1850)*, Iruñea.
- HAJNAL, J. (1965): "European marriage patterns in perspective". GLASS, D.V. - EVERSOLEY, D.E.G. edit.: *Population in History*, London, 101-143 orrialdeetan.
- HENRY, L. (1980): *Manual de la demografía histórica*, Barcelona.
- HERNANDEZ MARCO, J.L. eta PIQUERO, S. (1988): "Demografía e Industrialización en el País Vasco". FERNANDEZ DE PINEDO, E. - HERNANDEZ MARCO, J.L. edit.: *La industrialización del norte de España*, Barcelona, 206-221 orrialdeetan.
- LASLEIT, P. (1978): "Characteristics of the western family considered over time". *Family life and illicit love in earlier generations*, Cambridge University Press.
- (1972): *Household and family in Past Time*, Cambridge University Press.
- (1972): "La famille et le ménage: approches historiques", *ANNALES*, E.S.C., 847-872 orrialdeetan.
- LE PLAY, F. (1871): *L'Organisation de la famille selon le vrai modèle signalé par l'Histoire de toutes les races et de tous les temps*, Paris.
- MEUVRET, J. (1948): "Les crises de subsistences et la démographie de la France d'Ancien Régime", *Population*, I, 643-650 orrialdeetan.
- NAVAJAS LAPORTE, A. (1975): *La ordenación consuetudinaria del caserío en Guipúzcoa*, Donostia.
- ORTEGA BERRUGUETE, A. (1989): "Matrimonio, fecundidad y la familia en el País Vasco a fines de la Edad Moderna", *Boletín de la Asociación de Demografía histórica*, Madrilen (VII. urtea. 1 zenb.), 47-74 orrialdeetan.
- (1986): "Un modelo de población socialmente autofrenada: la Vizcaya Oriental en el siglo XVIII", *ERNARROA*, Bilbo, 3.zenb, 47-93 orrialdeetan.
- URRUTIKOETXEA, J. (1985): "Demografía vasca en el siglo XVIII". AA.EE.: *Historia del País Vasco. Siglo XVIII*, Bilbo, 93-128 orrialdeetan.

* Idazlan hau ez da izenburu-zerrenda soil batera mugatzen. Ikus horretarako: *Euskal Herriko geografia bibliografikoa*. Andrés de Urdaneta Euskal Geografi Elkargoa. Donostia, 1986. 307-331 or.

¹ Jesus Arpal (1979) eta Alvaro Navajas-en (1975) lanak hain zuzen.

ACERCA DE LA HISTORIA DE LA DEMOGRAFIA VASCA À PROPOS DE L'HISTOIRE DE LA DÉMOGRAPHIE BASQUE

De acuerdo con la idea más generalizada, el nacimiento de la historia demográfica, como ciencia, hay que situarla en el año 1946, fecha en que Mauvret publicó su artículo "Les crises de subsistance et la démographie de la France sous l'Ancien Régime".

En el campo de la Historiografía vasca, la historia de nuestra demografía debe establecerse mucho más tarde, en torno a 1970; son los profesores Fernández de Pinedo y Albadalejo quienes abren el camino a las nuevas tareas.

En la década de los 80 los trabajos de historia demográfica ofrecen una más extensa presencia en nuestra Historiografía, aunque debe constatarse que de ordinario revisten más bien un carácter fragmentario, siempre con algunas salvedades.

De cara a futuras investigaciones hay que consignar la existencia de abundantes fuentes histórico-demográficas, particularmente en los Archivos de Protocolos y Municipales, en los libros Parroquiales y Archivos Familiares. No puede menos de subrayarse el interés informativo de todos estos fondos que, sin duda, contribuirán en manos de los investigadores a dibujar con precisión el pasado demográfico del País Vasco.

En accord avec l'idée plus généralisée, la naissance de l'histoire démographique en tant que science doit se situer en 1946 date à laquelle Mauvret publia son article: "Les crises de subsistance et la démographie de la France sous l'Ancien Régime".

En ce qui concerne l'historiographie basque, l'historic de notre démographie doit s'établir beaucoup plus tard vers 1970; ce sont les professeurs Fernández de Pinedo et Albadalejo qui ouvrirent le chemin vers de nouveaux travaux.

Dans les décennies des années 80, les travaux d'histoire démographique offrent une plus large présence dans notre historiographie, bien qu'il faille constater que d'ordinaire ils revêtent plutôt un caractère fragmenté toujours avec quelques exceptions.

Face à de futures recherches, il faut signaler l'existence abondante de sources historico-démographiques, particulièrement dans les Archives de Protocoles et les Municipales ainsi que dans les livres Paroissiaux et les Archives Familiales. Il ne faut pas oublier de souligner l'intérêt d'information de tous ces fonds qui permettront sans aucun doute aux chercheurs de dessiner avec précision le passé démographique du Pays Basque.

Historia ekonomikoaz: Eraberritzearen urratsak

Joseba Agirreazkuenaga

Historiografiaz buruturiko gogoetak urriak ditugu. Salbuespen gisa, eta historia ekonomikoari atxekirik, horra adibidez P. Fernandez Albaladejok (1985) edo A. Arizcunek (1988) argitaratu dituzten balorazioak, XVIII. mendekoaz lehenak eta XIX-XX. mendeko Nafarroari mugaturik besteak. Ikuspegi orokorretik abiatuz, ikuspegi ekonomikoak barne, Erdi Arorako Jose Angel Garcia de Cortazar-ek burutu dituenak, J. Extramianarena (1980) edo V. Vazquez de Prada - I. Olabarrarena ditugu aipagarrienak. Historiaren historia arakatzea, lan bikain bihurtu zaigu, historiografiaren kezka eta ikerkuntz programen helburuak nabarmentzeko, aukera eragiten bait digu. Edozein ikerkuntzatan ere, gai zehatzaren inguruko eztabaida zientifikoa zertan datzan ezagutzea, nahitaezko lehendabiziko urratsa bait dugu. Bestalde, historiaren denari buruzkoez gogoetak egiteak, gure uste eta ikerkuntzen epistemologia agirian uzten digu eta ekintza txalagarria bezain eragingarria dugu berau, ikusirik hainbat ikerkuntzetan edo saiakeretan, aurreritziak izugarrizko indarra dutela eta gure eskal gizartean oraindik orain historiaren ikuspegi berezian oinarriturik,

hainbat ekintza edo politikabide oinarritzen dela. Adibidez egunotan Bergarako ituna dela eta, azken 150 urtetan bada interpretabide-andana eta ondoren, Nafarroan sortu zen erakundetze eta status politiko berriak, erabateko eragina sortu du gaur egunerarte. Beste kasu batzuetan, ondoko lagunaren bizitza, heriotzaren mugetara eramaten da berau arazo instrumentaltzat harturik. Delako heriotz zigorra, mundu-ikuskerak, hobekiago euskal historiaren ikuspegi bitxian, hots kontrasterako edo ezbai hipotetikorako ahalmenik gabeko sisteman sostengatuz burutzen da, zeinaren bidez, ezinbestekotzat egiten omen da *homo homini lupus* edo hiltzailea, bestelakorik gizartean iradokitzerik ez balego legez. Beraz historiografiaren gogoeta ez da txantxetako zeregin erudito edo arrunta. Herrigintzaren azpiegituraren zutabea agian, gure uste apalean behintzat. Historia ez bait da subjektibismo eta erlatibismoaren erresuma, nahiz eta historilari inozenterik onartu ez dagoela eta produkzio historikoa bere garaiko kezka eta ikuspegien menpe eta seme dela jakinekoa izan. Baina bada, jakintza kontrastatuaren esparrua, hau da, hipotesi egiaztatuen esparrua; eremu hau, gero eta zabalagoa da, zeinaren ignorantzia inoiz ere justifikagarria ez den. Historiografia bera arlo zientifiko autonomo bihurtzen ari da. Ikus adibidez A. Niñoren artikulua: "La historia de la historiografía una disciplina en construcción", in: *Hispania* aldizkarian (1983), edo R. López Atxurraren *Historia, zientzia sozialak eta hezkuntza* liburuan historiari buruzko atala, edo François Dosseren *L'histoire en miettes. Des "Annales" à la "nouvelle histoire"* (1987). Egia esan historiografiaren arloan, 1970ean Nouvelle histoire eta Annales eskolaren inguruan, P. Vilar-en ustetan Annales eskola egun desargetutzat edo irentsitzat eman behar den arren, izugarritzko optimismoa zegoen, historia zientzia finkatu legez garatzeko itxaropena alegia. Baina 1980an berriz, zalantzak. Ikus adibidez G.G. Iggersen *New directions in European historiography* (1984).

Begibistakoa dugu azken urteotan gertatu den historiako ikerkuntzaren produkzioa euskal historiografian eta nolabait ere, eraberritzea edo gure inguruko herrialdeetan sortu diren kezka historiografikoen parekatze nahia behintzat badugu. Ikusi besterik ez dago, nola ugaldu diren mota guztietako Kongresu eta Ihardunaldiak. Baina beharbada, garrantzitsuenak aipatuz, gogoratu IX. Eusko Ikaskuntzaren Kongresuan 1983.ean Bilbon, edo 1987.ean Bigarren Mundu-Biltzarraren baitan Histori Sailak argitaratu dituen 7 liburukiak edo Euskal Herriko Unibertsitatean antolatu

diren ihardunaldi eta mintegiak. Guzti hauetan, giro berria ageri da, bai interesguneetan eta baita ikerkuntzaren abiadan ere.

Gaia zehaztuz

Historia ekonomikoak, halako lehen mailako protagonismoa hartu du. Sarritan eraberritzea, historia ekonomikoaren aurrerakadarekin neurtzen da, besterik ez balego bezala. Baina ikuspegi hau zuzena ez izan arren, usteak baino ez digu erakusten, jadanik, eraberrikuntzaren abiadan eta protagonismo berezia lortuz historia ekonomikoaren eragina eta lehentasuna zenbateraino indartu den. Baina eraberritze honen gunea zertan datzan nabarmentzeko, gutxienez ere aurreko urteetan ikertu den mailaren berri, labur-labur bada ere, erakutsi behar dugu, zeren azken batean, Unibertsitate gabeko herria izan arren, izan dira izan gure historiaz go-goeta jakingarriak egin dituztenak.

Kronologiari dagokionez, XVI. mendez geroztiko historiografian oinarrituko gara, azken bostehun urtetako historiaren ezagumenduan burutu bait dira historia ekonomikoaren ikuspegitik eraberritzerik nabarmenenak.

Dena dela, Erdi Aroan ere, ezin genezake uka aldakuntza sakonak gertatu zirenik, baina dinamika ekonomikoaren ikuspegi orokorren hutsean gaude beharbada, eduki dezakegun informazioaren gabeziak eraginik. Aipatu behar J.A. Garcia de Cortazar-ek 1866.ean argitaratu zuela Bizkaiko egoera ekonomikoari buruzko eraberrizko liburua eta oraintsu, 1865.ean, beste laburpen jakingarri bat atera duela *Bizkaya en la edad media* izenburupean. Gipuzkoan M.R. Ayerbek gatzaren industria arakatu du eta L.M. Diez de Salazar-ek fiskalitatea. Nafarroan besteak beste, Carrascoren ikerlanak, juduen diru-mailegutzari buruzkoa eta Nafarroako Kongresuan emandakoez. Araban J.R. Diaz de Duranaren lana. Iparraldeaz, batez ere Baionaren inguruan, E. Goihenetxeren ikerketak ditugu.

Bestalde, autoreen zerrenda luze bat eman ordez, azken urteotan historia ekonomikoaren arloan planteatu, eztabaidatu eta ikertu diren arazoak zeintzuk izan diren labur-labur erakusten saiatuko gara. Jakina, historia ekonomikoa esaten dugunean, badirudi gure esparrua aski definiturik gelditzen dela. Baina ez da erraza,

historia ekonomikoak bere baitan, abiapuntu desberdinak, erakusten bait ditu eta aurretiaz argitu egin beharko genituzke: Historia ekonomikoa ez da mugatu behar estatistika edo protoestatistikak emandako datu kuantitatiboen interpretaziora, edo bilakaerara ez eta gaur egungo makroekonomiaren kategoria edo erreferente neurtzaileen proiektzio historikora, besteak beste, estatistikaren historia berez laburra dugulako ehun urtekoa gutxi gorabehera eta produkzio-molde kapitalista garatuan eta lege zaharrear adibidez, mekanismoak, gizartean eta ekonomian, desberdinak direlako. Hala ere, ahalegin oparoak egin dira garai protoestatistikoaz, hurbilketa zehatzak burutzeko asmoz, baina joera honek, eraberrikuntzaren mamia ez du ahitzen, ezta gutxiagorik ere.

Garrantzitsuagoa dena gure ustez, ekonomiaren eta bereziki produkzioaren antolakuntza dugu eta arlo honetan ekonomiaren dimentsio sozialean murgiltzen gara, hau da ekonomiaren gune zehatzean, nolabait ere mikroekonomian. Ikuspegi kualitatiboa esango genuke. Esparru honetan, teknologiaren garrantzia azaltzen zaigu, premiazko aldagaia edo bariabla edozein interpretabidetan ere, izan ere, ekonomia baten efizientzia, hein handi batean, teknologi mailak baldintzatzen bait du. Sail ekonomiko bakoitzak eta bere-berezko arazoak eta berezitasunak ditu: Laborantza, baso eta mendiko ekonomia, arrantza, mea-erazketa, industrigintza, salerosketa eta gainontzeko zerbitzuak, Historia ekonomikoaren bilakaeran, pentsamendu ekonomikoak, hau da doktrina ekonomikoen nondik norakoa, interesgune baliagarria bezain jakingarria ere bada. Bestalde, delako "udal-ekonomiak" edo eta Diputazio-mailako finantza publikoen bilakaera, hau da erakunde publikoen ekonomi plangintzak eta ekintzabideak ere, mendeak igaro ahala, gero eta eragin nabarmenagoa irabazten joan ohi ziren eta dira. Horra bada, historia ekonomikoaren izenpean hainbat interesgune. Alde batetik sail ekonomiko bakoitzean burutu diren ikerketen eta jakinduriaren maila zertan deneko eztabaida laburtzen saiatuko gara, azkenean, historia ekonomikoaz ulertzen denaren ezagupidea lortuko dugulakoan.

Historia ekonomikoaren interesguneak eta arazoak

Lehendabizikoz, guk gaur egun Euskal Herriko historia ekonomikoaren ikuspegi nagusiaren edo lerro nagusi orokorren sor-

kuntz lana nola eta noiz asmatuz joan den ikusten saiatuko gara. Ikuspegi zehatz eta orokor hau, ikerkuntzaren bidez burutzen joan da.

Aitzindariak

Historia ekonomikoaz aritzean, gure ustez, aintzakotzat hartu behar da, *Geografia general del Pais Vasco-Navarro*-k, mendearen bigarren hamarkadan burutu zuena. Bertan, laborantza, merkataritza, eta industriaren bilakaeraren ikuspegia zabaldu zen, bereziki azken mendetakoa. Ondoren Th. Lefebvre-ren *Les modes de vie dans les Pyrenees Atlantiques orientales*, da aro berriaren oinarritzeko ikerkuntza. Berez, ikuspegi geografikoan oinarriturik abiatu bada ere, lan honetan, laborantza, artzantza, arrantza industrigintza eta merkataritza azken 1.000 urtetako norabidean, ezin hobeto azaltzen zaizkigu. Gogoratu 1933.ean argitaratu zela, *Annales* Eskolako historilariak eraberritzearen abiada hastear zedenean, H. Berr-en Sintesiaren aldeko Zentruaren ahaleginen fruitua hein batean eta Frantziako giza geografiaren ondorioa alegia. Lefebvre-ren lanean lehendabizikoz, Euskal Herriko ekonomiaren abiada eta bilakaera, paradigma jakin baten arabera, anekdotismo "eventuentziala" gaindituz ageri zaigu, baina bestalde eruditismoz jantzirik, modu sistematiko eta arautu batez, historian zehar nola garatu zen arakutzen da. Iraultza industrialia da muga giltzarria eta sektore guztietan ere, egundoko eragina izan zuen fenomeno honek. Abelazkuntzaren azterketan, Lefebvre-rena, gainditu gabeko obra dugula esango genuke. Euskal Lurraldetasunari dagokionez, ia Euskal Herri osoa aztergai bihurtzen du, Iparraldea zein Hegoaldea, Erribera eta Enkarterrietako eskualdeak izan ezik. Thalamas Labandibarrek 1936.ean, ikerketa honetan oinarriturik, sintesi orokorra burutu zuen gaztelaniaz. Dena dela, Lefebvre-ren lana, nahikoa ezezaguna izan da euskal historiografian eta gutxi irakurria, sarritan apatua izan arren.

1948.ean J. Caro Barojak, *Los Vascos* izeneko liburuan eskaintzen digu beste ikuspegi orokor bat, bukaeran sintesi jakingarria emanez. Bertan, zikloka antolatzen ditu aldi desberdinak eta ekonomiari dagokionez ikuspegi orokorraren nondik norakoa argitzen zaigu. Handik hamar urtera, Banco de Bilbaok (1957) burutu zuen liburuan eta gerora *Vasconiana*-n interpretazio ekologikoa eta teknikoa egiten du, marrazki jakingarri batez hornituz eta ber-

tan laburtzen ditu, itsasaldeko herrialdeentzat behintzat, XVI. mendean geroztik XIX. mendera bitarteko dinamika ekonomikoaren espazio bakoitzean zeuden elementu definitzaileak eta guneak.

Aipagarria da ere, J. Leizaolak 1962.ean Caracasen argitaratu zuen ikuspegi orokorra eta euskal ekonomiaren konstante eta aldagai historikoez egiten dituen gogoetak.

Kuantitatibismo-ereduak: Laborantza, arrantza, meatzaritza

1970.ean, kuantitatibismoa ikertzaileen interesgune berezi bihurtzen dela esango genuke, hau da, sorburu protoestatistikoen bilaketa sistematikoari ekiten zaiola, hauetan, interpretabide finkoak ezartzeko asmoz oinarrituz. Bestalde, Frantzian II. Mundu-Gerratearen ostean, *Annales* deritzon eskolakoek, herrialde-mailan, ikerketa demografiko eta ekonomikoak eurrez ikertzen saiatu ziren. Pierre Vilar-ek, geografi eremutik abiatuz, lan eredugarria idatzi zuen Kataluniari buruz eta berau izango da nahietaezko abiapuntu ikerketa berrietan. Gure artean, atzerakuntzaz jasotzen ditugu oro har, *Annales*-en joerako kezka eta ikerketa-joerak. Ezbairik gabe, erakunde unibertsitario gabeziak, eragin zuzena izango bide zuen. Hala ere, Bilboko Ekonomi Fakultatean, Felipe Ruizen zuzendaritzapean, Barcelonan edo Salamankan, besteak beste, joera berrien oihartzuna nabari da. Fernandez Albaladejo eta Fernandez de Pinedoren ikerketak, *Annales*-eko paradigmapean koka genitzake, beraien ikerketetan laborantzaren azterketa kapitulurik interesgarrienetakoa bihurtu zelarik. Dena dela, ezin ditugu ahantzi, 1960.eko hamarkadan, Nafarroan, geografoen eraginez burutu ziren merinaldeetako ikerketak, Floristan-en *La ribera Tudelana* aitzindari dugula (1953). Gero S. Mensua, (1960) edo Torres de Luna (1971) edo Bielza de Ory-ren (1972) ikerketetan, Ekialdeko Nafarroaz, mendebaldeko mendiskaz edo Lizarrako lurraldeaz, laborantza eta abelazkuntzaren bilakaera orokorra arakutzen da. Historia ekonomikoaren ikuspegitik, kezkarik garrantzitsuenak honako hauek dira: lur landuaren hedapena, zilegi lurren labakitzea eta kultibo desberdinen oreka. Lurraren jabetzaren bilakaera ere aztertzen da.

1970.eko hamarkadan mendebaldeko euskal probintzietako XVIII. mendeko laborantzaren arazo aztertzen hasten da eta ikertzaileen hastapeneko helburua industrigintzaren sorreraz azterketan aritzea edo karlismoaren oinarriak arakatzeta da, Fer-

nandez de Pinedo eta Fernandez Albaladejoren asmoak alegia. Gerora L.M. Bilbao eta Fernandez de Pinedok, XVI. mendetik XIX. menderdira, laborantzaren bilakaera orokorra eskaintzen digute ekarpen kuantitatiboak eta zabalkunde espazialak kultiboen araberara, azpimarratuz. Bertan bereizgarri bihurtzen dira, Euskal Herriko laborantzaren mota desberdinak, itsasaldekoa eta barrualdekoa eta erdialdea Gasteizaldera mugatuz. Itsasaldeko herrialdeetan, XVII. mendean geroztik, ahantzi ezinekoa dugu XVII. mendeko krisialdi ekonomikoaz egindako L.M. Bilbaoren azterketa, artoaren zabalkundeaz, inoiz ez bezalako laborarien zibilizazioa hedatu zen XVIII. mendean zehar, XIX. mendean gailur hori gainditu ezinik gertatzen delarik, ez bait zegoen ez *saltus* ez basorik labakitzeko, eta luberrietan produktibitate edo etekin etengabeak lortzeko. Ikusgarria da XVIII. mendeko bilakaeraz aritu diren autoreengan, garaian garaiko arazo eta dinamika historikoa azaltzeko orduan, Malthusianismoaren teoriak, besterik ez balego bezala, duen eragina. Jatorriz ekonomistak diren ikertzaileen artean, teoria ekonomikoaz aukera gehiago ageri da eta malthusianismoak ez du horrenbesteko eraginik. XIX. mendean bigarren erdirarte, bere hartan jarraitzen du laborantzak, XIX. mende-bukaeran jadanik polikultibozko laboraria espezializatzen joan behar duelarik. Laborarien lur-jabetzarekiko harremana, zehatz-mehatz ageri zaigu eta etxekojaunen gizartearen, garai bateko etxekojaunak, maizter nola bilakatu ziren ere bai; baina beharbada prozesu hau Europako beste herrialdeetan laborariak ezagutu zituzten baldintzak eta jasan zuten bilakaeraz ez da parekatzen behar den heinean. XIX. mendean bizi zituzten estualdiak eta bizimodu-kalitatearen galera ere ageri dira. Ez dugu ikerketarik XX. mendeko lehen zatia laborantzaz, Miren Etxezarretaren euskal baserriari buruzko ikerketa ere, azken boladakoan kokatua da eta.

Beharbada, ikerketa hauetan, basoko ekonomien ebaluazioa ez da ageri ez eta abelazkuntzarena ere neurri sakonean. Azken kezka eta arazo hauek, Th Lefebvre-ren liburuan luze-sakon arakutzen dira, eta oraintsu A. Ormaecheak eta A. Zabalak (1988) hutsune hau bete asmoz argitaratu dituzte ohar jakingarriak. Arizkunek (1989) Baztango ikerketan ere azpimarratzen du basoaren garrantzia. Besteak beste Nafarroan ere burutu dira laborantzaren historiaz ikerketa sakonak hala nola, A. Floristan Imizcozena (1982) adibidez, Lizarrako merinaldeari atxekirik edo aipaturiko Arizkunena Baztani buruz. Mendi- eta erdialdean, aro berrian edo modernoan gertatu zen bilakaeraren eredu antzeko zerbait sortzeko bidean daude ikerketa hauek.

Zilegi lurren banakuntza edo desamortizazioak, ikerketa batzuk izan ditu, hala nola Donezarrena Nafarroan (1975) Mutiloa Pozarena Nafarroan (1972), Bizkaian (1984), Ortiz de Orruñorena (1984) Gasteizaldean, A. Otaegirena (1984) Gipuzkoarako edo eta ikuspegi orokor batetik, Fernandez de Pinedoren (1972) eta A. Arizkunen (1988) ezagunenak alegia. Baina esango genuke, gai honen ibilbide handia ezagutu behar duela oraindik ere, zeren, nahiz eta lerro nagusien joera ezagutu eta XIX. mende-hasieran jadanik salmenta ugariak eman zirela jakin, nola eta nortzuk atera ziren irabazle eta zeintzuk izan ziren ondorio sozialak eta ekonomikoak, ponderatu gabe dago.

Iparraldeari dagokionez eta azken urteotako bibliografian, laborantzaren arazoa eta ekonomiaren bilakaera, ikuspegi orokor batez, E. Goihenetxek (1979), baina XVIII.- XIX.- mendekoa zehazki P. Bidartek, Biagorri atxekirik eta E. López Adan-ek Iparralde osoa hartuz, aztertu dute eta ikuspegi soziala azpimarratuz, aztertu ere hau da, etxetiarren desagerketa eta baserri produktiboren agerkundea mendixka aldean abelazkuntz mota berrian oinarrituz eta lautadetan, laborantza zabalean, mendialdean ohizko abelazkuntzak jarraitzen zuen bitartean, herri-lurren kudeaketa, Syndikat delakoen esku egonik. XX. mendeko egoera aldiz, ikerlari gehiagok aztertu du, hauen artean G. Viersen lana aipatu behar edo eta azkenaldean P. Laborderena.

Arrantzaren sektorean, baleari buruzko Ciriquiain Gaiztarrok buruturikoak betetzen du esparru bat. Baina oro har, ez dakigu jakin zehatz-mehatz, euskal ekonomian arrantzak izandako eragina eta bere bilakaera historikoa, azken mendeotakoa bederen. Hala ere aipatu beharra dago J. Graciak Bizkaiarako burutu dituen ikerketak, bereziki XVIII.-XIX. mendeko arrantzuaz edo A. Aguirrek eta F. Arrizabalagak XIX. mendeko arrantzaren bilakaeraz, baina aipatu bezala, egiteke dago oraindik sektore honen aro garaikideko ikerketa.

Bestalde, Euskal Herriko ohizko ekonomian, meategiek eta bereziki burdin meategiek, garrantzia izan badute ere, egindako ikerketak ez dira hain ugariak. XVIII.-XIX. mendeko meategien ustiapenez hau da igaroaldi-garaikoez, Oiartzun aldeko meategiez, J.C. Jimenez Aberasturi arduratu da eta Bizkaiko meategiez J. Agirreazkuenaga eta R. Uriarte. Dena dela, azterketa ahitu gabe dago, igaroaldiaren garai iluna argiago ezagutu arren eta Bizkaiko kasuan geroko ustiapen masiboa ezagunagoa bada ere; Baigorri edo Lesaka Bera aldeko ez adibidez ezer gutxi dakigu.

Industriagintza

Industriagintzaren arazoak, beti erakargarritasun haundia izan du ikerlarion artean eta XX. mende-hasieratik (Julio Lazurtegik planteatua jadanik) arazo batzuk eztabaidagarri izan dira. Adibidez, kapitalaren lehen metatzea non lortu zen, industriagintzaren abiadaren koska nagusia berau balitz bezala; eztabaida honen solaskideak, besteak beste, M. Gonzalez Portilla eta E. Fernandez de Pinedo izan dira. Lehendabizikoak, burdin mearen esportaketak sortu zuen kapital izugarria, labe garaietako industriagintzaren abiadaren oinarri-oinarrian aurkitzen zela dio, atzerriko merkatuaren eraginak labe garaietako garapen azkarraren abiadura izan zuen eragina azpimarratuz eta untzigintzako enpresen gorakada mearen itsasuntzizko garraioak eragin zuela defendatuz, baina birtartean, E. Fernandez de Pinedok, ostera laborantzaren bidez, barneko euskal merkatuan ateratako kapital metatzeari ematen dio, garrantzia industriagintzari buruz aldiz, batzuetan Espainiako barne-merkatuak izan zuen eragina azpimarratuz eta besteetan atzerrikoarena, bere lanetan arazo honetaz zenbait kontraesan nabarmen azalduz. Honi Bilbo inguruan zegoen merkataritzaren bidezko finantz kapitala erantsi behar zaio, Bilbo batez ere, finantz plaza garrantzitsua, izan bait da, agian, Estatu iparraldeko eta Duero aldeko Gaztelako garrantzitsuena, XVIII. mendez geroztik. Gutxitan azpimarratu da *human capital* delakoaren garrantzia eta beraren osokuntza edo zergatik Nafarroan eta Lapurdin adibidez, lehen abiadako ahaleginak iraultza industrialaren jomugara hurbildu ordez, desindustrializazio-giroan ito ziren. Estatu-mailan zer nolako papera jokatzen duten, oraindik ere erabat argitu gabe dago, adibidez, euskal ekonomiak Espainiako ekonomiaren barnean zuen harremana eta indarra baloratuz. Iparraldeko kasua berriz, benetan berezia dugu, zeren, XVIII. mende-bukaeran, Bizkaia Gipuzkoako herrialdeen antzeko maila protoindustrialak bazuen, XIX.-XX. mendeetan oro har desindustrializazioko amildegian txokoraturiko lurraldea izan bait dugu.

Ohizko burdinolen historiak ikerlarien begirune berezia jaso du eta gaur egun burdingintzaren sektorea nahikoa ondo ezagutzen dugula esan dezakegu. XV. mendean, Europa-arloan garrantzitsua zen produkzio eta kalitate-mailan. XVI. mendekoaz L.M. Diezen (1979) lana dugu aipagarria eta garai honetaz, L.M. Bilbaok ere azterketak burutu ditu, baina bereziki ohizko burdinolatik labe garaietarako industriagintzaren igaroaldia L.M. Bilbaok (1983) argi eta garbi erakutsi du: Faktore naturalek, teknologia zaharkituak

eta nazioarteko abagadunek izan duten unean uneko eragin eta orekaren arabera, produkzioaren bilakabidea baldintzatu zutela; XVII. mendeko gainbeheraren ostean, berriz gorakada nabarmendu zen, baina XIX. bigarren menderdian azkenik porrota heldu, ohizko burdingintzaren paradigmaten azkena eta labe garaietakoa-ren sorrera gertatuz. Ohizko burdinolen efizientzia ekonomiko eta bilakaerazko kalkulu zehatzak, bereziki XVIII. mendean, R. Uriartek (1989), egin ditu eta beste sektore industrialen egoeraz, Bizkaian eta Euskal Herrian XIX. menderdiko krisialdiaren garai-koak edo igaroaldikoak berriz, J. Agirreazkuenagak zenbait artikulutan (1985), eta M. Soraunek, Nafarroaz bereziki (1984).

Industriagintzaren abiadaz esan bezala, M. Gonzalez Portillak (1981) burutu ditu bere ikerketa garrantzitsuenak eta lehendabizikoak, XVIII. mendean verlagssystemaren funtzionamendu erakusten duena: merkatarik nola bihurtzen diren industri gizon. Azkenik berriz, Bizkaiko labe garaietako industriagintza eta metalurgia-ren bilakabideak arakatzeko dituzte. Datu makroekonomikoak erabiltzen dituzte, serie estadistikoetan finkaturik. II. Mundu-Biltzarreko hitzaldian horren laburpena dago, baina bestalde, azterketa mikroekonomikoetan ere murgildu da, Altos hornos de Vizcaya enpresaren azterketa zehatza burutuz. Edo Euskal Herriko industriagintzaren egoera Estatu espainiarreko beste herrialdeetako dinamikarekin parekatuz, Andalusiarekin adibidez. Gipuzkoako industriagintza L. Castellsek (1987) aztertzen du eta industriako enpresa-gizonen elkarte nagusia, I. Aranek (1988). XX. mende-hasieran Euskal Herrian, ekonomiaren eredu bikoitza ageri zaigu: Itsasalde industrializatua eta barnealde laboraria. Lege zaharreko ekonomiaren hondamendiak, ondorio desberdinak sortu zituen eta haren zergatien funtsa barne-kontraesanetan edo kanpotik eragindako baldintzapenetan ote dagoen eztabaidatzen da oraindik ere, datu eta eritzi desberdinen ponderazioa gero eta zorrotzagoa delarik. 1970.eko hamarkadan, talde politiko klandestinoen baitan, historiak eman zen eztabaida erabat gairatuz gertatu da, egungo kezkek beste eremu batzuetan murgilduz. Hala ere, hastapeneko uste eta hipotesiak, beharbada beste modu batez ageri zaizkigu. XX. mendeko industriagintzaren abiada, ez dago hain aztertua eta ikerketak premiazko bihurtu dira. Errepublikara garaietako krisialdi ekonomikoa R. Mirallosek (1988) azaldu du eta Gonzalez Portillak gerra zibileko ekonomi egiturak eta gerraondoa (1986), bereziki, 1940.eko hamarkadako ekarpen berriak burutu ditu. Frankismo-garaiak badu beste ikuspegi orokor bat R. Velasco, Garcia Crespok eta A. Mendizabalek egina (1981), Euskal Herria proiektua eta

egitasmoa liburuan (1985), orohar frankismo-garaiko ikuspegi orokorra izateko nahietazkoa gertatzen da, seguru asko ere, etorkizunean ikerketa zehatzagoak iristen zaizkigun bitartean behintzat. Oro har esan dezakegu, industrigintzaren abiadaren lerro nagusiak batez ere sorrera eta lehen ekinaldiaz ari direnak, argiturik eta nahikoa finkaturik ageri direla Bizkaia eta Gipuzkoan, baina ez horrenbeste Araban, Homobonoren lan bikaina izan arren eta gutxiago Nafarroan, Iparraldeaz industrigintzaren eza edo porrotaren zergatiak oraindik planteiatu ere egin gabe dagoelarik, gaur eguneko ikerkuntzen arabera. Baina gune produktibo zehatzen bilabideaz eta problematikaz ezer gutxi dakigu, hau da, enpresa industrialaren giza-sareaz eta antolakuntzaz etabar ikerketak egiteko premia dugu. Hala ere enpresen zenbait historia burutu da, Bizkaiko labe garaiei buruz, González Portillak egina edo XIX. mendeko lehenengo saiakera industrialei buruzkoa, Artunduagakoa alegia, J. Agirreazkuenagak (1987) eginda.

Bestalde aipatu egin behar dira halaber, burutu berri diren arkeologia industrialari buruzko ikerketak. 1982.ean Ondare industrialaren babes eta birbalorapenari buruzko I. Jardunaldiak zirela-eta, hasi ziren M. Gonzalez Portilla eta R. Aracil txosten nagusiak aurkeztuz, beste askoren artean. Gerora, Bizkaiko arkeologia industrialaz lan bikaina burutu dute M. Ibañezek, A. Santana, M. Zabalak (1988) orain, Gipuzkoakoa egiten ari dira.

Teknologiaren arazoa aipatu dugu behin eta berriz. Gogoratu arlo honetan J. Caro Barojaren zuzendaritzapean Bilbon antolatuta zen Euskal Antropologiari buruzko III. astea. Bertan, bai teknologiaren bilakaera, nahiz K. Larrañagak egindako untzigintzakoa, edo burdingintzakoa edo buztingintzakoa, ekarpen nabarmenak gertatu ziren. Dena dela, egiteke dago Euskal Herriko teknologiaren historia eta guk munduko historiari ezertan ekarpenik egin badiogu, batez ere itsasungintzaren teknologian egin diogu eta tradizio hauek ez dira hain errez eten. A. Zabalak XVIII.-XIX. mendeetako untzigintzaz, lan ederra argitaratu zuen 1984.ean.

Merkataritza

Merkataritzaren arloan, Baionako portuari buruz Jaupartena lan dugu, beharbada deskriptiboegia bada ere. Bilboko portuak eta bere inguruneak, ondoko ikerlan berriak izan ditu, T. Guiarren lan klasikoak ahaztu ezinekoak ditugularik ere. XVII. mendean P. Ezkiagaren litzentziaturako tesia eta A. Zabalaren lan batzuk dira

aipagarriak. J. Labordarena XVIII. mende-hasierako egoera emanenez edo A. Zabalaren artikulua eta liburuak XVIII. mendeko merkataritza, kantauri osoko giroan kokatuz eta bere eragina ponderatuz funtzio finantzariak tarteko direla. R. Basurtok merkataritzamota desberdinak eta bere gizarteko sarea aztertzen ditu. Gipuzkoako XVIII. eta XIX. mendeko merkataritza Fernandez Albaldajoren aipatu liburuan eta M. Garateren artikuluetan azaltzen zaigu, bertan bereziki, Caracasko Konpainiak eta haren ondorengoak izan dituzten aldaketak arakaten dira. Baina barnealdeko merkataritza gutxi arakatu da, euskal merkatuaren eraketaren kezka ageri zuen Fernandez de Pinedok. Hala ere, ezer gutxi dakigu, lehorreko merkatal harremani buruz, edo eskualde/herrialde-mailan sortzen diren merkatu gainjarri eta osoei buruz. XX. mendeko merkataritzaz aldiz, ez dago azterketa orokorrik.

Prezioen historia ia ezezaguna da gure historiografian. Baina oraintsu argitaratu berri da A. Arizkunen liburua (1989), lege zaharren zeharreko garaietako Iruñeko merkaturko prezioen zenda luzea dakarrena.

Komunikabideak aipatu behar noski eta burdinbidegintzaz M. Monterok eta A. Hormaecheak egindako lanak dira berrienak. Errepidegintzaz berriz, Leoncio Urabayenen lan klasikoa Nafarroako errepideetat, M.A. Larrearena XVIII. mendekoez eta J. Agirreazkunagarenak egin XIX. mendekoez; azken bi hauek, Bizkaiko lurraldeari atxekirik, gainontzekoetan ez dugu eta antzeko lanik aurkitzen.

Bilbo inguruan bestalde, Quadra de Salcedok idatzi zuen bezala, XVIII. mende-bukaeran nabaria zen ekonomisten eskola edo joera bezalako bat eta bertan teoriko batzuk, ekonomiaren arazoaz kezkatutik, liburu batzuk idatzi zituzten. Pentsakera ekonomikoaren bilakabideak, ez du ezagutzen ikerketa askorik, baina salbuespen-gisa gogoratu behar dira, A. Elorzarena (1965) eta batez ere Barrenetxeak (1984) Forondari buruz egindako ikerlan mardula. Astigarraga eta Barrenetxearen eskutik, Arriquirarren lanen azterketa eta argitalpena egin da.

Udal-ekonomiak eta Diputazioen finantza publikoak

Azkenik, lege zaharrean garrantzitsua zen udal-ekonomia, erakunde arautzaile legez jokatzeko zuelako, prezioak kontrolatuz eta nolabaiteko plangintza ezarritik. Beraz familien ekonomian, herrilur

eta basoen aukera, beraz, udalaren aginduek eragin zuzena zuten. Azterketa gutxi burutu dira udal-finantzei buruz. Eusko Ikaskuntzako Histori sailak antolatu berri duen tokiko historiari buruzko lehen ihardunaldian aldiz, ageri dira bai ikerketa zehatzak udalen ekonomia publikoaz baina oraindik, ikuspegi orokorra emateko, oinarrizko lanen gabezia gaudela. Soriak Hernaniri buruzkoa landu du eta J. Agirreazkuenagak (1988). Bizkaiko herri eta hiri guztiak lege zaharraren kinka larrian, aipatu ihardunaldian.

Herialde-mailako finantza publikoak, oraintsu arte erabat ezezagunak izan badira ere, salbuespen bakarra P. Altzolak 1910.ean argitaratu zuen liburuak eskaintzen du agian, oraingoan zenbait ikerlanen bidez, M. Artolak Nafarroako lege zaharreko haziendaz, J. Ortiz de Orruñok Arabakoaz edo J. Agirreazkuenagak (1988) Bizkaikoaz eginei esker ezagutzen da, kontzertu ekonomikoak baino lehenago herrialde bakoitzeko foru-hazienda nola zegoen antolatuta. Kontzertu ekonomikoaz aldiz, maila ekonomikoan ez da lan berririk asmatu.

Laburbilduz esan dezakegu, historia ekonomikoak, ikerlarion begirada erakarri duela eta XVIII. eta XIX. mendeko ekonomiak izan direla sakonkien landu direnak. Baditugu XVI. mendean geroztik euskal ekonomiaren bilakaera makroekonomikoaren abiapuntu nahikoa garbi finkatuak. Baina, orain, Euskal Herriko ugartitasun eta aberastasunaren kontrasteak gogoan hartuz, beharrezkoak ditugu azterketa mikroekonomikoak, eskualdekakoak eta herriak helburutzat hartuz eginak. Seguru gaudela, ekonomiak gizartean izandako bilakaerari, hobeto heltzeko aukera irekiko digula joera honek, ezen, ekonomia gizarte-mailan kokatu gabe, baliagarria izan bait daiteke saiakera teorikoak egiteko, baina inola ere ez gure bizimodua konprenigarri egiteko.

Aipatutako bibliografia

- AGIRREAZKUENAGA, J. (1987): *Bizkaiko errepidegintza: Hazkunde ekonomikorako azpiegitura lanak. (1818-1876)* Bilbao, Giltz liburruak.
- (1988): "Burdinagintzaren berrikuntza Bizkaian: Lehen enpresa industrial berriaren historia. Artunduaga. 1807-1832", in: *II Euskal Mundu Biltzarra, V Alea, Ekonomia eta gizarte arazoak*, San Sebastian, 1988, orr. 21-37.
- (1987): *Vizcaya en el siglo XIX: Las finanzas públicas de un Estado emergente*. Bilbao, UPV-EHU.
- AGIRREAZKUENAGA, J.; LOPEZ ATXURRA, R. (ed.) (1985): *Euskal Herriaren historiaz I*. Bilbao, UPV-EHU.
- AGUIRRE, M.A.; ARRIZABALAGA, F. (1986-1987): "Aproximación al sector pesquero vizcaino en el siglo XIX. Producción y comercialización", in: *Bermeo*, 6, pp 219-300.
- ALZOLA, P. (1910): *Régimen económico administrativo antiguo y moderno de Vizcaya y de Guipúzcoa*. Bilbao.
- ARIZCUN, A. (1988): "Economía y Sociedad en un valle Pirenaico del Antiguo Régimen. Baztán 1600-1841". Pamplona, in: *Príncipe de Viana*.
- (1989): *Serries navarras de precios de cereales 1589-1841*. Madrid, Banco de España.
- ARTOLA, M. (1978): "La Hacienda real de Navarra en el Antiguo Régimen", in: *Hacienda pública española*, 55 zenb.
- ASKOREN ARTEAN (1980): *Ferrerías de Legazpia*. San Sebastián. C.A.P.G.
- AYERBE, M.R. (1981): "La industria de la sal en Salina de Leniz y Gaviria (Siglos XIV-XVI)", in: *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, XXXVII, San Sebastián, 245-269 orr.
- BARRENECHEA-ASTIGARRAGA, J. (Edic.) (1987): *N. Arriquirbar: Recreación política. Reflexiones sobre el amigo de los hombres en su tratado de población, considerado con respecto a nuestros intereses*. Bilbao, Universidad de Deusto.
- BARRENECHEA, J.M. (1984): *Valentín de Foronda, reformador y economista ilustrado*. Vitoria, Diputación Foral de Alava.
- BASURTO, R. (1983): *Comercio y burguesía mercantil de Bilbao en la segunda mitad del siglo XVIII*. Bilbao UPV-EHU.
- BIELZA DE ORY, V. (1972): *Tierra de Estella. Estudio Geográfico*. Pamplona, Príncipe de Viana.
- BILBAO, L.M.-FERNANDEZ DE PINEDO, E. (1984): "La producción agrícola en el País Vasco peninsular. 1537-1850. Tendencia general y contrastes comarcales. Una aproximación", in: *Cuadernos de Sección. Historia-Geográfica*. 2, San Sebastián, Eusko Ikaskuntza, orr. 83-196.
- BILBAO, L.M. (1979): "Transformaciones económicas en el País Vasco durante los siglos XVI y XVII", in: *Historia del Pueblo Vasco*. San Sebastián, Erein.
- (1977): "Crisis y reconstrucción de la economía vascongada en el siglo XVII", in: *Saioak*, 1, Donostia, orr. 157-180.
- BILBAO, L.M.; FERNANDEZ DE PINEDO, E. (1982): "Auge y crisis de la siderometalurgia tradicional en el País Vasco (1700-1850)", in: *La economía española al final del Antiguo Régimen*. Madrid, II, 135-228. orr.

- CARO BAROJA, J. (Zuzendaria) (1978): *III semana de Antropología vasca*. Bilbao.
- (1969): *La hora navarra del siglo XVIII*. Pamplona, Príncipe de Viana.
- CARRASCO, J. (1982): "Acerca del préstamo judío en Tudela a fines del siglo XIV según registro de sello de 1383", in: *Príncipe de Viana*, 166-167, Pamplona, 909-948 orr.
- CASTELLS, L. (1987): *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración. 1876-1915*. Madrid, S. XXI-UPV-EHU.
- DIAZ DE DURANA, J.R. (1986): *Alava en la baja edad media. Crisis, recuperación y transformaciones socioeconómicas. 1250-1525*. Vitoria.
- DIEZ DE SALAZAR, L.M. (1983): *El diezmo viejo y seco o diezmo de la mar de Castilla. Siglos XIII-XVI. Aportación al estudio de la fiscalidad guipuzcoana*. San Sebastián.
- (1983): *Ferrerías de Guipúzcoa. Siglos XIV-XVI*. II liburuki, San Sebastián, Haranburu.
- DONEZAR, J.M. (1975): *La desamortización de Mendizabal en Navarra. 1836-1851*. Madrid, CSIC.
- ELORZA, A. (1965): "El pensamiento financiero de los Amigos del país", in: *BRSVAP*, Orr. 275-228.
- ETXEZARRETA, M. (1977): *El caserío vasco*. Bilbao.
- EXTRAMIANA, J. (1980): "Historiografía vasca reciente", in: *Historiografía española contemporánea. X coloquio del Centro de Investigaciones hispánicas de la universidad de Pau. Balance y Resumen*. TUNON DE LARA M. (dir.) Madrid. Siglo XXI, orr. 398-428.
- EZKIAGA, P. (1977): *Bilboko merkatalgoa XVII. mendean*. Deustuko Unibertsitateko litzentziaturarako tesia.
- FERNANDEZ ALBADALEJO, P. (1976): "Algunos textos sobre la polémica entre libre comercio y fueros hacia 1780", in: *RSBAP*, orr. 229-269.
- (1975): *La crisis del Antiguo Régimen en Guipúzcoa. Cambio económico e historia*. Madrid, Akal.
- FERNANDEZ DE PINEDO, E. (1974): *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco. 1100-1850*. Madrid, Siglo XXI.
- (1972): "La desamortización en Vascongadas", in: *I Congreso de Historia económica*, Barcelona, Ariel.
- FLORISTAN IMIZCOZ, A. (1982): *La Merindad de Estella en la Edad Moderna: Los hombres y la tierra*. Pamplona, Príncipe de Viana.
- FLORISTAN SAMANES, A. (1953): *La Ribera tudelana de Navarra*. Zaragoza.
- GARATE, M. (1983): *Comercio directo a América y Fueros. 1778-1780*. Estudio documenta de B.R.S.B.A.P.
- (1976): *El proceso de desarrollo económico en Guipúzcoa*. San Sebastián, Cámara de Comercio.
- GARCIA DE CORTAZAR, J.A.; BERMEJO, M.; PEÑA, E.; SALAS, D. (1988): "Los estudios históricos de tema medieval (1975-1986): Cantabria-País Vasco-Navarra-Rioja", in: *Studia histórica. Historia Medieval*, vol. VI, Salamanca, Ediciones Unibersidad de Salamanca, orr. 27-56.

- GARCIA DE CORTAZAR, J.A. (1966): *Vizcaya en el siglo XV. Aspectos económicos y sociales*. Bilbao, Caja de Ahorros Vizcaina.
- GARCIA DE CORTAZAR, J.A.; ARIZAGA, B.; RIOS RODRIGUEZ, M.L.; DEL VALL II (1985): *Bizcaya en la Edad Media*. I-IV. San Sebastián, Haranburu.
- GARCIA DE CORTAZAR, J.A. (1977): "Los estudios de tema medieval vascongado: un balance de las aportaciones de los últimos años", in: *Saioak I*, San Sebastián, orr 181-201.
- GOIHENETXE, E. (1979): *Le pays basque, Labourd, Baxenabarre, Soule*. Pau.
- GOMEZ CHAPARRO, R. (1967): "La desamortización civil en Navarra". Pamplona, Eunsa-Príncipe de Viana.
- GONZALEZ PORTILLA, M.; MALUQUER MOTES, J.; Riquer Permany, B. (1985): *Industrialización y nacionalismo. Análisis comparativos*. Barcelona, Universitat Autònoma de Barcelona.
- GONZALEZ PORTILLA, M. (1985): *Estado, capitalismo y desequilibrios regionales (1845-1900)*. Donostia, Haranburu.
- (1981): *La formación de la sociedad capitalista en el País Vasco. 1876-1913*. Donostia, Haranburu, Bi liburuki.
- (1988): "La modernización de la economía en el País Vasco (1876-1973)", in: *II. Euskal Mundu Biltzarra. V. alea, Ekonomia eta gizarte-arazoak*, San Sebastián, orr. 3-19.
- (1985): *La siderurgia vasca (1880-1901) Nuevas tecnologías, empresarios y política económica*. Leioa UPV-EHU.
- GRACIA, J.A. (1979-1980): "La crisis de la pesca vizcaina en el final del antiguo régimen", in: *Instituto de Estudios Marítimos Juan de la Cosa*. Santander.
- GUIAR, T. (1972): *Historia del Consulado de Bilbao*. 3 liburuki. Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca.
- HEERS, J. (1955): "Le commerce des basques en Méditerranée au XV siècle", in: *Bulletin Hispanique*, LVII.
- HOMOBONO, J.I. (1980): "Estancamiento y atraso de la economía alavesa en el siglo XIX", in: *Boletín Sancho e Sabio, t. XXIV*. Vitoria, orr. 235-334.
- II. *Mundu-Biltzarra III. alea, Ekonomia, gizartea eta kultura antzinako erregimenean*. San Sebastián, 1988.
- II. *Mundu-Biltzarra. V. alea, Ekonomia eta gizarte arazoak (XIX.-XX. mendeak)* San Sebastián, 1988.
- IKEI: *Euskal Herriaren informazio sozioekonomikoa (1929-1978). Katalogo bibliografikoa. Información socio-económica sobre el país Vasco. (1929-1978)*. Donostia.
- INTXAUSTI, J. (Zuzendaria) (1985): *Euskal Herria Historia eta Gizartea. Historia y Sociedad*. San Sebastián, Caja Laboral Popular.
- (1985): *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmo. Realidad y proyecto*. San Sebastián, Caja Laboral Popular.
- IX. *Euskal Ikaskuntzen Kongresua*. Bilbao. 1983.
- JIMENEZ DE ABERASTURI, J.C. (1973): "Agricultura y minería en el Valle de Oyarzun a principios del siglo XIX", in: *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, pp 205-233.

- "La Economía vasca a través de la historia", in: *Ekonomiaz*, 9-10, Gasteiz, Eusko Jaurilaritza.
- LABORDA, J.J. (1978): "El arranque de un largo protagonismo: La recuperación comercial de Vizcaya a comienzos del siglo XVIII", in: *Saioak*, 2, Donostia, orr. 136-181.
- LABORDE, P. (1983): *Le Pays Basque d'hier et d'aujourd'hui*. Donostia, Elkar.
- LARREA, M.A. (1974): *Caminos de Vizcaya en la segunda mitad del siglo XVIII*. Bilbao.
- LAZURTEGI, J. (1915?): "El comercio, la industria y la navegación en el País Vasco", in: *Geografía General del País Vasco-Navarro*. Barcelona.
- LEFEBVRE, TH. (1933): *Les modes de vie ans les Pyrénées Atlantiques Orientales*. Paris, A. Colin.
- LEIZAOLA, J.M. (1962): *Líneas generales de la formación de la economía vasca en la historia hasta hoy. Constantes y variables para la economía vasca*. Caracas.
- LOPEZ ATXURRA, R. (1987): *Historia, zientzia sozialak eta hezkuntza*. Bilbao, UPV/EHU.
- MARIN DE LA SALUD, J. (1975): *La moneda navarra y su documentación (15613-1838)*. Madrid.
- MENSUA, S. (1960): *La Navarra media oriental*. Zaragoza, CSIC.
- MERINO, L.V. (1987): *La formación de una ciudad industrial El despegue urbano de Bilbao*. Oñati, HAEE-IVAP.
- MIRALLES, R. (1988): *El socialismo vasco durante la II República*. Bilbao, UPV-EHU.
- MONTERO, M. (1981): *Los ferrocarriles vascos en el siglo XIX. Homenaje a Tuñón de Lara*. Guadalajara.
- (1989): *Mineros, banqueros, navieros*. Donostia, Haranburu, (argitaratzeko bidean).
- MUTILOA POZA, J.M. (1972): *La Desamortización eclesiástica en Navarra. Aspectos de la Desamortización previo al estudio de la Constitución del patrimonio de la Iglesia en Navarra*. Pamplona, Eunsa.
- (1984): *La Desamortización en Vizcaya*. Bilbao, Caja de Ahorros Vizcaina.
- OLABARRI, I.; VAZQUEZ DE PRADA, V. (1984): "La sociedad vasca en los siglos XVIII y XIX: Estado de la cuestión", in: *Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresoa*. Donostia.
- ORMAECHEA, A.; ZABALA, A. (1988): "Espacios ganaderos en la Vizcaya del Antiguo Régimen", in: *Estudios de Geografía e Historia*. Bilbao, Universidad de Deusto, pp 401-428.
- ORMAECHEA, A. (1987): "Sistemas de transporte en la cuenca minera", in: *Letras de Deusto*, orr. 21-40.
- ORTIZ DE ORRUÑO, J. (1984): *Alava durante la invasión napoleónica. Reconversión fiscal y desamortización*. Vitoria.
- SORAUREN, M. (1984): "Navarra ¿Revolución industrial frustrada?", in: *Lan-gaiak*, 5 zenb. Pamplona.

- THALAMAS LABANDIBAR, J. (1935): *Aspectos de la vida profesional vasca*. Donostia, Euskaltzaleak.
- TORRES DE LUNA, M.P. (1971): *La Navarra húmeda del Noroeste. (Estudio geográfico de la ganadería)*. Madrid, CSIC.
- URIARTE, R. (1989): *Estructura, desarrollo y crisis de la siderurgia tradicional vizcaína. (1700-1840)*. Bilbao, UPV-EHU.
- VELASCO, R., GARCIA CRESPO, M., MENDIZABAL, A. (1981): *La economía vasca durante el franquismo. Crecimiento y crisis de la economía vasca. 1936-1980*. Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca.
- VIERS, G. (1975): *Le pays basque*. Toulouse, Privat.
- ZABALA, A. (1984): *Arquitectura naval en el País Vasco*. Gasteiz.
- (1983): *La función comercial del País Vasco en el siglo XVIII*, II lib. San Sebastián, Haranburu.

HISTORIA DE LA ECONOMIA

HISTOIRE DE L'ÉCONOMIE

Durante los últimos 25 años una profunda renovación ha atravesado la historiografía vasca en general y la economía en particular. Sin embargo hemos de reconocer que la historia económica partía de una tradición impulsada por especialistas en otras ramas de las ciencias sociales, tales como P. Alzola, J. Lazurtegui, T. Guiard, Th. Lefebvre, o Julio Caro Baroja. La renovación se ha producido preferentemente en los estudios del siglo XVIII y XIX, en los que se ha buscado la aplicación a la investigación de Vasconia, de los esquemas interpretativos de la historia de la Europa occidental siguiendo preferentemente los estudios regionales de Francia, inspirados en el paradigma de los Annales y la obra de P. Vilar. La verificación de las afirmaciones mediante la cuantificación ha sido uno de los objetivos que con más ahínco se ha perseguido. La economía del Antiguo Régimen, su crisis y la primera fase de la revolución industrial, han sido dos de los temas más debatidos. Se puede afirmar que en estos momentos se conocen las grandes líneas de la evolución económica, la macroeconomía vasca de los últimos 500 años, si bien es cierto que la intensidad de su conocimiento varía de unos territorios a otros. Sin embargo, restan por elaborar estudios microeconómicos comarcales, de acuerdo con la comarcalización vigente, que ponderen las afirmaciones generales, integrando hipótesis y variables colaterales al sistema de producción e intercambio de bienes.

Durant les 25 dernières années, une profonde rénovation a affecté l'historiographie basque en général et l'économie en particulier. En revanche, nous devons reconnaître que l'histoire économique était issue d'une tradition dont l'essor avait été donné par des spécialistes de différentes sciences sociales. Parmi eux: P. Alzola, J. Lazurtegui, T. Guiard, Th. Lefebvre, ou Julio Caro Baroja. Un renouveau s'est produit surtout dans les études des XVIII et XIX siècles, où l'on a cherché une application à la recherche du Pays Basque, des schémas qui interprètent l'histoire de l'Europe occidentale en suivant de préférence les études régionales françaises inspirées dans le paradigme des Annales et de l'oeuvre de P. Vilar. La vérification des affirmations au moyen de la quantification a été un des objectifs poursuivis avec le plus d'acharnement. L'économie de l'Ancien Régime, sa crise et la première phase de la révolution industrielle ont été deux des thèmes les plus débattus. Nous pouvons affirmer qu'actuellement, les grandes lignes de l'évolution économique et la macroéconomie basque des 500 dernières années sont connues et que l'intensité de sa connaissance varie d'un territoire à un autre. Cependant, il reste à élaborer les études microéconomiques régionales, en accord avec la régionalisation en vigueur, qui équilibrent les affirmations générales incluant les hypothèses et variations collatérales au système de production et échange de biens.

Euskal Herriko historia sozialari buruzko gogoetak

Emilio Majuelo

Artikulu hau, *Jakin*-en ale berezi honetarako erizpide bereziekin landua, erizpide subjektiboetatik abiatuta eginda dago aukeratutako obra eta egileei dagokienean. Honek esplikatzen du hain zuzen ere, korrante historiografiko edo historigintzako modu jakin baten izenpean azal litezkeen ordezkari desberdinen ordezkari, artikulua egileak hautatutakoak bakarrik azaltzea.

Euskal Herriko Historia Soziala, ez da izan noski azkeneko hiru hamarkada hauetako ekoizpen historiografikoaren barruan historilarien aldetiko arreta berezien eragile. Hirurogeigarrenean eta hirurogeitamargarrenaren hasieran, guztiok ezagutzen ditugun arrazoiengatik egon zen landu gabe (herri honen barnealdetik beretik lan hau bultzatuko zuten egitura akademikoen gabezia, eta ikerkuntza historikoari dagokionez egindako edozein gizarte-lan kritiko ere zigortzeko moduko sistema politikoa), hain zuzen ere hirurogeitamargarren hamarkadaren azkenaldea izan zelarik, sorkuntz antzutasunaren kristal opakoa hautsi zuten lan batzuk azaldu zirena.

Gaici begiratuta, egungo atzerabegiradarekin, begibistakoa da noski, historia garaikidean finkatutako historia sozialarekin zerikusia zuten arloak edo zehatzago esanda, XVIII. mendearen bigarren erdialditik aurrerakoak, lehenagoko garaietakoak baino gehiago landu izan direla. Hau noski, ez da harritzekoa, izan ere, historia presentetik egiten bait da eta landu ere, gure eguneroko ihardueran aurrez aurre dauzkagun arazoez eraginda lantzen bait dugu, beraz, ulergarria da, egun oraindik beren ezaugarriak eta ondorioak bizirik ditugun prozesu historikoei heltzeko ekimen handiagoa izatea.

Honek zera esan nahi du, alegia, kopuruz gaur egun, duela hamabost urte zegoena baino ekoizpen historiografiko handiagoa dagoela, baina berau ordea inolaz ere ezin dezakegula eman, ez behar adinakotzat ez eta nahi genukeen bezain ontzat ere. Badaude halaber halako arrazoi soil-soil batzuk, gure asegabeko egarri hau esplikatzen dutenak. Kasu batzutan, iturri-falta da lan historikoe-tan gaien aniztasun handiagoa izatea eragotzi duena eta zinez, maiz gertatzen da hau, antzinako garaietan eta Erdi Aroaren zati on batean zentratutako ikerkuntzetan.

Hala ere ordea, nire eritziz, gure historiografia osoaren barruan historia sozialak pisu gutxi izatearen arrazoiak, batez ere mota politikoko historia egiteko korronteez izan duten eragin eta usuario handiak bultzatuta dago nagusiki.

Edozein modutan ere, aurreratu beharra dago noski, aipatuberrri dugun historia politiko honek, esaten ari garen garaietarako, metodologia fina eta lan-teknika onak dituela eta ez dela noski egintza handi eta pertsonaia ospetsuez arduratutako ohizko historia politikoa (jadanik zabalkiro kritikatu eta Annales-en eskolako lehenengo ordezkariak berek ere gainditua izan den historia egiteko modua bestalde).

Langile-mugimenduaz atarikoak

Historiografia liberal anglosaxoiaren modura historia politiko garbiaren garapeneko adibiderik argienetakoa, J. P. Fusik (1975) pertsonifikatua da, bere obra, hiru Euskal probintzien arloko langile-mugimenduen historia politikoari eskainia izanik. Estudio enpiriko zabal batean funtsatuta dago eta arlo politikorantz mota

sozialeko beste arlo batzuetarantz baino gehiago bideratua, nahiz eta obran zehar hauek ere presente aurkitu.

Fusiren ekimen honek ziurraski, ezker espainiarraren militantzia politikoari lotutako langile-mugimenduaren historiarekiko kritikoa izaki, beste bi egilerengan ere izan zuen eraginik, Jose Andres Gallego eta Inazio Olabarrirengan alegia, langile-mugimenduaren historiarekin erlazionatutako formulazio eta ikuspegi berrien aurkikuntza gisako lan bati ekiteko, eta horrek, 1978an lan bikainak argitaratzea ekarri zuen.

J. Andres Gallegoren artikulua, geografikoki Nafarroan kokatua zegoen eta lehen esanagatik esanguratsua zen. "Sobre el inicio de la política obrera contemporánea en Navarra, 1855-1916" izenburua zeraman eta aipatzen ari garen lehenengo lan hauetan ohizkoa denez, informazio- eta iturri-erabilpen handien aipuak egiten zituen, nahiz eta langile-antolamendu desberdinen agerpen eta garapenaren nahiz korrante ideologiko handietan zuten kokapenaz ikerkuntzan jardun.

Utz dezagun argi eta garbi azterlan hauek gogoeta historikoa egiteko duten garrantzia, bai eskaintzen duten lehen eskuko material aberatsarengatik eta baita oinarri enpirikoetan funtsatu gabe egindako planteamenduak birkokatzeke ere, baina bistakoa da gaur egun gu ez asetzeari, hain zuzen ere ikuspegi sozialetik zalan-tzan jarri diren gaiengatik, militante, kotizatzaile, araudi eta zuzendaritza-batzordeen zenbakizko itsasoak hartuak izaki eta bestalde, metodologia hori historiaren teoria bera ere gainditzen duena bezala aurkezten bait da¹.

Baina, histori arloko edozein ikerlanetan ere, ideologia, pentsamendua, baloreak, presente daudelazkotik abiatuak, presentzia hau zalantzan jartzen ahalegintzen den formulazio hark, aztergai den obraren lausenguzko interpretazioa sustatzen du, egilearen eskuhartzerik kontuan hartzen ez duen obraren irakurketa proposatzean, ezen eragotzi egiten bait du berorren irispenekoa den neurri bat zehaztasun handiagoz ezarri ahal izatea eta garrantzitsuagoa dena, obra historikoaren azpian dagoen interpretazio-teoriaren eztabaida, izan ere, teoriarik gabe ez dago eta esplikaziorik, deskribapen diskurtsiboa baizik².

Inazio Olabarriren obrari dagokionez, zeinaren doktorego-tesia 1978an liburu-moduan azaldu zen, egileak, Bizkaiko probintzian gizarte-eraldaketa handien unean produkzio-erlazio sozialak izendatzeko ideologiaz itxuraz neutroa den laneko harremanen

izendapen formalista aipatzen du behin eta berriz. Onartutako planteamendu hau, murriztailea da langabetuak bezalako gizarteko talde garrantzitsuak ahazten dituen heinean (nahiz eta Olabarri horretaz jabetuta egon) eta sistema batean funtzionatzen duelako beren analisia ulertua gertatzen den sekuentziaz gehiago saritzen du historia bat, sistema berorren elementu dinamikoez baino. Planteamendu teoriko berau izan da garatua geroago Euskal Herriko lan-harremanei buruzko artikulu batean, non susmagarria bada ere, gatazka honetaz lerro urri batzutan baino ez den hitz egiten³.

Maiz deskribatzailea izan den langile-mugimenduaren historia honek, oinarrikko ikerkuntzan eta orain arteko lantze-prozesuan maila altua mantendu izan du. Berorreganantz biltzen joan dira langile-klasearen hauteskunde-portaerari buruzko azterlanak, antolamendu sindikalaren zabalkuntzaren oinarri geografikoak, antolamendu sindikalei buruzko monografiak eta baita gatazka sozialak ere⁴.

Hala ere ordea, ez da sobera izango historiografia hau maiz sartua izan den arriskuen gogoramena egitea: langile-mugimenduaren historiaren ikerkuntza borroka politiko zehatzera murriztea, Kongresu, Zuzendaritza-Batzorde, eta buruzagiei buruzko informazioaren behapuntu estuetarantz berori instituzionalizatzea, ikerkuntz ekoizpena gertaeren historia irainduaren maila beretan mugiezirik gelditzea, etab.⁵.

Zentzu horretan, berria izateagatik gertatzen da susmagarria, M. Tuñon de Lara-k, R. Miralles-en Euskal Sozialismoa bigarren Errepublikan⁶ gaiari buruzko liburuaren hitzaurrean, J. Alvarez Juncok eta M. Perez Ledesmak (1982) adieraziari aipamen garbia eginez, "modernitate-ondorengo moda intelektualtzat" kalifikatzea, berez, birplanteaketa kritiko eta eraikitzaile bai, baina zalan-tzan jarritako historiografiaren merituak inolako moduz ere deuseztatzen ez zituena baino ez zen bitartean, bai metodologian eta baita langile-mugimenduaren histori gaitan ere.

Gai eta metodologiaz beste perspektiba batzuk

Baldin eta historilariiek ikerkuntz gaiak aukeratzekoan, langile-mugimendua gai pribilegiatua gertatu baldin bada, ez da gauza bera gertatu gizarteko mugimenduen ulermenerako beste arlo ga-

rrantzitsu batzurekin. Hauxe da hain zuzen ere Euskal Herriko nekazalgoari dagozkion azterlanen kasua, desamortizazio-arazo, iraultza liberal, borroka zibil, aldaketa ekonomiko eta gisako arazoak tratatzen dituzten gizarte-arlo zabalaren ikuspegitik, ia obra guztietan derrigorrez aipatua gertatzen dena, baina orokorki bederen, ikerkuntza sistematikorik ez daukagu eta merezi duen arretarik ere ez zaio eskaini⁷.

Guztiarekin ere, badaude berriki egindako ahaleginak eta horiek kontuan hartzeak merezi du. Honela bada, historiografia garaiidearen ikerkuntzako basamortu nafarrean, laurogeigarren hamarkadaren hasieran, interesa biztu zuen, 1980ko udaberrietik *Deia* egunkarian astero azaltzen joan ziren berrogeitamabi artikuluen sortak. Beren egile ziren J. J. Virto Ibañez eta V. M. Arbeloa, emanaldi txikitian, Nafarroan mende honen lehen hereneko nekazalgoaren errealtate sozialak zituen gai handi eta nagusiak zehaztuz joan ziren⁸.

Herri-arloko ikuspegitik eta laburki esateko, jabego handiak eta jabe handiak, ugazaberiaren antolamenduak eta langile-sindikatuak, gatazka sozialak, herrilurren arazoa, Elizaren papera, etab. azalduz joan ziren. Logikoa denez, ez zegoen nekazal gizarte nafarraren tratamendu sistematikorik, ikerkuntzaren helburua ere ez zen hori eta, baina aztertzaileentzat lan-eremu zabala irekitzen zuen eta ez eskainitako informazioarengatik bakarrik, beronek suposatzen zuen kontsultatutako iturrien aberastasunarengatik baidik. Urte batzuk geroago Príncipe de Viana aldizkarian "Historia de la Economía" bezalako titulu ez-zehatza zuen atal batean bildutako artikulua hauen izaera dramatikoak, erabilitako erreferentzia bibliografiko eta artxiboetako gabezia orokorra da, horrek historilaria, datu horiek mesfidantza-printzipio batekin erabiltzera daramalarik, jadanik berez edozein material historikok izan ohi duenari gehituz.

Gertuagokoa izan zen denborari dagokionez, R. Del Rio Al-dazen obraren argitarapena, funtsezkoa da Nafarroako hirurteko liberalaren ulermenerako eta bere merituek zorionez, ez dira lausotuak gertatu lagun duen sarrera harro eta presatiaz⁹.

Bere lanean giltzari ziren elementuak, erregezaleen altxamenduak Nafarroan izan zuela esaten den herritarren laguntza suposatuen ukamenean eta informazio ugari baten sostenguan biltzen dira eta horrek, beste obra batzutan gaiari buruz zabalduko akats eta ustezkoak desegiteko parada ematen dio, aro hartako gertakarien deskribapen zehatzaren bidez.

Erregezaleen aldeko foru-motibaziorik ezean, M. C. Mina-ren (1981) planteamenduarekin bat dator, nahiz eta azkeneko honen obra ez bezala, eremu politikoan kokaturik, Del Rio Aldazek, kapitulu luzea eskaini erregezaleen talde eta nekazalgo iraultzailearen harremani. Azkeneko hauen muineko ardatza, gehiago dago erregezaleen altxamenduarekiko edo talde liberalarekiko aldeko ala aurkako jarrera ahalengan eraikita, XIX. mendeko lehen hamarkadetan zehar erregimen politiko mota desberdinei gainjarri zitzairen funtsezko gaiak eragindako nekazalgoaren iraultzan ikusitako elementuen garapenean baino.

R. Del Rio Aldazen obran arlo politikoaren funtzioan deskribaturik, diskurtsoaren funtsezko elementu gisa, nekazalgoa etengabe ageri den era berean agertzen da halaber argitaratutako edo argitaratzeaz dauden beste lan garrantzitsu batzutan. Joseba de la Torrek, zeinaren doktorego-tesi oraindik argitara gabeak Nafarroako kontzejutako hazienden zorpetzea 1808tik 1820ra gaiari buruz diharduen, zenbait artikuluren bidez, zera aurreratu digu, alegia, nekazalgoa, Nafarroa Independentzi Gerra deituan okupatu zuten hurrenez hurreneko armadek derrigortutako zerga-karga hazkor ezarriak, kontzejuko ondasunen salmenta derrigortuak, krisi ekonomikoak, emariaren ordainketak nahiz herritarren deskontentua zela bide izandako altxamendu eta desordenuak ugaltzen lagundu zuten beste faktore batzuek, itzulezinezko pobretze-egoeran sartu zutela¹⁰.

Baina azkeneko kasu honetan, hein batetan bederen, XIX. mendearen hasieran lehenengo desamortizazio zibil honek sortutako krisiaren muineko gunea, nekazal gizartea bada, XX. mendean zeharreko Nafarroako nekazal mugimendu katolikoari buruzko azterlanean, beronekiko azaltzen duen lotura, funtsean, antolamendukoa, Nafarroako Federazio Katoliko-Sozialaren¹¹ organo adierazleetatik ateratako ideologikoa eta Nafarroan bigarren Errepublikara garaietan izandako borroka sozialei buruzko azterlanean azaltzen den klase-arloko gatazka soziala dira¹².

Ikerkuntza guzti hauen izendatzaile komuna, nekazal gizartearen ikuspegi partzialen azterketa da, osotasunezko multzoan gehiengo duen elementua hain zuzen ere; baina, XIX. mendearen hasierako kontzeju- eta famili ekonomiaren krisiaren zergatiak jakiteak dakarren aurrerapena gorabehera, mende-amaierako krisialdiaren irteeran nekazal giroan sortzen diren erantzunak, landa-lurraren ustiapen kapitalistaren intentsitatea arago garatuz eta zeinu katolikodun masa-mugimendua sortuz edo eta azkenik, ja-

begoaren egitura, krisi ekonomikoa eta erregimen demokratikoak irekitako itxaropenak bezalako arazo historikoak nahasten diren aro errepublikar konplexuan zehar nekazal gatazkakortasunaren interpretazioa saiaturaz, ezin gaitezke oraindik ere asebeteta gelditu, azterlanaren hurrenez hurreneko garaietan zeharreko nekazal klaseen egitura, balore eta interesez dugun ezagutza eskasarekin.

Premiazkoa litzateke, nekazalgora, bere lorratz bizienetan, pensamoldeetan eta kultur adierazpenetan, une jakin batean erregezaileen aldeotasuna kojunturalki bultzatzera eta geroago liberalismora, jauntxo menderatzailea bere giroan mantentzera edo eta klase-sindikatu batean afiliatzera eraman dezaketen talde-motibazioak ezagutzea. Zentzu honetan, nekazalgora eta mugimendu politiko-soziala, hots, karlismo eta nazionalismoa, jauntxokeria, kojuntura ekonomikoa, iraultza liberala eta auzo- edo herri-komunitatearen deuseztapena, industrializazioa, etabar bezalako arloen birplanteaketak, historilariak mugimendu sozialen eremu ikertugabearen aurrean duen ikusmoldearentzat, aurrerabide garrantzitsua egiteko bide emango luke.

Baldin eta landu zen modua kontuan hartzen badugu, ezohizko obra dena eta historiografia garaikidean tabu zen gaietako bati heldu ziona, Altaffaylla Kultur Talde tafallarrak koordinatu eta argitaratutako gerra zibileko errepresio odoltsuarena izan da. Taldeko obra baina ez horratio desberdina bere garapenean, errazki irakurtzeko modukoa (historia kontatzailea irakurtzeko zaletasuna dutenentzat), baina eskura zeukan informazio ugaria zorroztasun goresgarritz tratatu zuena eta gainera kideko azterlanik ez zegoen uanean burutua (Cordoba eta Catalunya kasu susmagarriarako salbu), baldintza material zailetan eta egitura akademikoetatik kanpora. Bere ondorio argiek, arazo sozialik ez zegoela aurrerizten zen probintzia batean izandako izugarritzko errepresioak, Nafarroako duela gutxiko historiaren irakurketa politikoa errazten dute, ikerkuntzaren pisu handian funtsatuta¹³.

Hala ere ordea, ahazkortasuna da Euskal Herriko egungo historiografia garaikidean ia aztertu gabe dauden beste gai handi batzuk estaltzen dituen, hala nola eta zehatzegiak izan gabe, emakumezkoak prozesu sozial desberdinetan jokatutako papera, izan ere, ohizko historia politikoaren eskemak jenero berri bati txertatzea baino zerbait gehiago bait da¹⁴, edo eta jabego-klasea osatzen duten talde desberdinen azterketa eta ez beren hauteskunde-portaerari dagokionez bakarrik, baizik eta baita halako hezkuntza sozial jakin batek dakarren egitura osoan sartutako beren iharduerari

dagokionean ere; edo eta lehenagoko gai batera itzuliz, langile-klaseari buruzko azterlanak sakontzea, historiografia marxista anglosaxoi klasikoak eskainitakoak bezalako planteamendu metodologiko berritzailetatik abiatuta¹⁵.

Honek noski, beste gai interesgarri eta eztabaidatu baterantz garamatza, hala nola disziplina historikoarekin beste zientzia sozial batzuren laguntza erabiltzera. Eztabaida hau osatzen duten arlo nagusietan orain bete-betean sartu gabe ere, interesgarria da arlo material bat azpimarratzea, hots, historiarien prestakuntzaren arduradun diren estamentu akademikoetatik, soziologia, antropologia edo eta pentsamendu soziala edo eta metodologi erako beste bat, bezalako gaietarantz nahiz beste disziplina batzutatik jaurtitako kontzeptuen erabilpen akritikoaren aurreko prebentzioa bezalakoetarantz, hain zuzen ere, prozesu sozialak gehiago argitzeko lagunduko ez zutenetarantz, guztiz alderantzira baizik, izan den ardura-eskasia.

Soziologiatik jaurtitako kontzeptuetatik abiatuta eta bertan historiako subjektua desagertu eta ontologizazio semantiko berri batean bukatuak norabidea nola gal daitekeenaren adibidea, modernizazio-kontzeptuaren gehiegizko erabilpena izan daiteke, izan ere, bere enuntziatu adierazlea osatzen duten elementuak ziurtatuko dituen kontestu historikorik gabe, bere buruaren inolako kalterik gabe bait dabil prozesu ekonomiko, politiko edo sozialetan zehar¹⁶. Ez da noski hau Luis Castells-en kasua bere Errestaurazio-aldiko gizarte gipuzkoarrari buruzko azterlanean¹⁷. Aldaketa ekonomiko, politiko eta sozialen harian zentratutako obra izaki, gogoetarako marko teorikoa eskaintzen du eta bertan, ikerkuntza sartuta egonik, terminoa funtzionalismoaz erabiltzea nahiz abusatzea mugatzen du, materialismo historikoaren funtsezko ikuspuntu teorikoa galdu gabe.

Azken arlo hau, historilaria bera bere ikerkuntzan gidatuko duen eskema teorikoa lantzea alegia, funtsezkoa da ezagupen historikoaren aurrerakada neurtzean eta zentzua damaie gure arloan historia soziala berritzeko orain arte seinalatutako beste elementuei: gure gai-eskaintza zabaldu beharra, metodologi berrikuntza, prentsak eskaintzen dituen informazio-multzo garrantzitsuak gaindituko dituzten informazio-iturrien erabilpena eta historiatik bertatik beste disziplina batzuekin egin beharreko lankidetzak. Teoriaren giltzarri den gai honek, bere irispen eta sakontasunarengatik, gainditu egiten ditu noski artikulua honen helburuak.

Euskaratzailea: Andoni Sarriegi

E. M. G.

- ¹ E.H. Carr-ek bere *¿Qué es Historia?* lan ezagunecan gogorarazi zuen bezala, Ariel, Barcelona, 1983, datuen doitasuna zorrotzasunez ezartzea, historilariaren betebeharra da eta horretatik ez da libratzen, interes-, aurreritzi-, edo gurari-multzoko baten barruan sartuta egoteagatik. Ideologia zientzi ezagupidearengandik urrun mantentzeko nahia, positibismo logikoak eta berorren jarraitzaileek beren kutuna duten gaia, ezin lortua gertatzen da jadanik metodo-hautapenak berak balore-gaiak berarengan biltzen dituen unetik. Honek ez du abalatzten langile-mugimenduari historiako obren funtsaketa empiriko eskasa, Fusik berak kritikoki eta bete-betean asmatuz bere "Algunas publicaciones recientes sobre la historia del movimiento obrero español", *Revista de Occidente*, 123. zk., 1973, 358-368 orrialdeetan aipatua.
- ² Jurgen Kocka, "Theories and Quantification in History", *Social Science History* 8. bol., 2 zk., 1984eko Apirila, 169-177 orr.
- ³ I. Olabarri Gortazar, *Relaciones laborales en Vizcaya (1890-1936)*, Leopoldo Zugaza, Durango, 1978; eta "Las relaciones laborales (1841-1936), "Balances y perspectivas de investigación en Euskal Herria". *Historia eta Gizartea / Historia y Sociedad*, Lan Kide Aurrezkia, Oiartzun, 1985, 279-297 orr.
- ⁴ Laurogeigarren hamarkadaren erdialdetik, ugari dira historia sozial honen bizitasuna egiaztatzen duten adibideak. Zerbi bezate horretarako, XVIII-XIX-XX. mendeetako Nafarroako Historiari buruzko I. Kongresuan aurkeztutako komunikazio ugariak, Príncipe de Viana, IV-V. Eranskina, 1986; *Primer Congreso General de Historia de Navarra*, Príncipe de Viana, 9-10. Eranskina, 1988 eta *Bigarren Euskal Mundu-Biltzarra*, Bilbo, 1985.
- ⁵ G. Haupt, *El Historiador y el movimiento social*, Siglo XXI, Madrid, 1986, 9-34 orr.; J. Alvarez Junco eta M. Pérez Ledesma, "Historia del movimiento obrero, ¿una segunda ruptura?", *Revista de Occidente* 12 zk., 1982ko Apirila, 19-41 orr.
- ⁶ Ricardo Miralles, *El socialismo vasco durante la II.ª República. Organización, ideología, política y elecciones. 1931-1936*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1988. M. Tuñón de Lara-k hitzaurrean, 13-17 orr., Alvarez Junco eta Pérez Ledesma-ren artikuluko honen meritua ukatu egiten du: "langile-mugimenduari buruz ohizkoa den historiografiaren ulermena erraztu eta ikerkuntzako bide berriak ireki...; modernitatearen ondorengo moda intelektualean ahokatzten dena, langile-mugimenduari historiaren "bigarren etendura" da, edo hobeki esanda, antropologia sozial eta langilezkoaz bere likidazioa eta bere ordezkape-na (...) egitea".
- ⁷ Emiliano Fernández de Pinedo-ren *Crecimiento económico y transformaciones sociales en el País Vasco, 1100-1850*, Siglo XXI, Madrid, 1974, obrako 34-77 orrialdeetan eta XI. kapituluaren bereziki, 350-478 orr., aurkitzen diren gizarte-egitura eta gatazkei eskainitako kapituluak so egin beharra dago hain azalpen goiztiararengatik, merituzko eta salbuespenezko kasua da eta.
- ⁸ J. J. Virto eta V. M. Arbeloa, "La cuestión agraria navarra", (I) *Príncipe de Viana*. 271. zk. 1984eko Urtarrila-Apirila; (II) 173. zk., 1984eko Abuztua-Abendua; (III) 174. zk. 1985eko Urtarrila-Apirila.
- ⁹ Ramón Del Río Aldaz, *Orígenes de la guerra carlista en Navarra, 1820-1824*, Gobierno de Navarra, Estella, 1987.

- ¹⁰ Joseba de la Torre, "Venta de bienes concejiles y crisis del Antiguo Régimen en Navarra", *Príncipe de Viana*, 183. zk., 1988ko Urtarrila-Apirila.
- ¹¹ E. Majuelo Gil eta A. Pascual Bonis, "Del catolicismo agrario al cooperativismo empresarial, 75 años de la Federación de Cooperativas. 1910-1985" (prentsan).
- ¹² E. Majuelo Gil, *Lucha de clases en Navarra (1931-1936)*, Gobierno de Navarra, Burlada, 1989.
- ¹³ Altaffaylla Kultur Taldea, *Navarra 1936. De la esperanza al terror*. Gráficas Lizarra, Estella, 1986, 2 bol.
- ¹⁴ Honi dagokionez, Mertxe Ugaldere doktorego-tesiaren emaitzei itxaron beharko zaie, emakume abertzalea politika-munduan sartzeari dagokionean eta zentzu berean beste emakumezko historilari batzuek hasiei ere bai, hala nola Idoia Estornes Zubizarretarenei.
- ¹⁵ Berorietako berriena, Gareth Stedman Jones-ena, *Lenguajes de clase. Estudios sobre la historia de la clase obrera inglesa*. Siglo XXI, Madrid, 1989.
- ¹⁶ Gareth Stedman Jones-en "From historical sociology to theoretical history", *British Journal of Sociology*, 27. bol., 3. zk. 1976ko iraila, 295-305 orr.
- ¹⁷ Luis Castells, *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración. 1876-1915*. Universidad del País Vasco. Siglo XXI, Madrid, 1987.

Aipatutako bibliografia

- ALTAFFAYLLA KULTUR TALDEA (1986): *Navarra 1936. De la esperanza al terror*. Estella: Gráficas Lizarra.
- Bigarren Euskal Mundu-Biltzarra. Bilbo, 1985.
- CATELLS, Luis (1987): *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración. 1876-1915*. Madrid: Siglo XXI/UPV.
- FERNANDEZ DE PINEDO, Emiliano (1974): *Crecimiento económico y transformaciones sociales en el País Vasco, 1100-1850*. Madrid: Siglo XXI.
- MAJUELO GIL, E.; PASCUAL BONIS, A.: "Del catolicismo agrario al cooperativismo empresarial, 75 años de la Federación de Cooperativas. 1910-1985" (prentsan).
- (1989): *Lucha de clases en Navarra (1931-1936)*. Burlada: Gobierno de Navarra.
- MIRALLES, R. (1988): *El socialismo vasco durante la II.ª República. Organización, ideología, política y elecciones. 1931-1936*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- OLABARRI GORTAZAR, I. (1978): *Relaciones laborales en Vizcaya*. Durango: Leopoldo Zugaza.
- (1985): "Las relaciones laborales (1841-1936). Balance y perspectivas de investigación", in: INTXAUSTI, J. (ed.) (1985): *Euskal Herria. Historia eta Gizartea / Historia y Sociedad*. Oiartzun: Lan Kide Aurrezkia.
- Primer Congreso General de Historia de Navarra*. Príncipe de Viana, 9-10. Eran-skina, 1988.
- RIO ALDAZ, R. del (1987): *Orígenes de la guerra carlista en Navarra, 1820-1824*. Estella: Gobierno de Navarra.
- TORRE, J. de la (1988): "Venta de bienes concejiles y crisis del Antiguo Régimen de Navarra", in: *Príncipe de Viana*, 183. zk., 1988ko Urtarrila-Apirila.
- VIRTO, J.J.; ARBELOA, V.M. (1984-85): "La cuestión agraria navarra", in: *Príncipe de Viana* (I). 271. zk. 1984eko Urtarrila-Apirila; (II) 173. zk. 1984eko Abuztua-Abendua; (III) 174. zk. 1985eko Urtarrila-Apirila.
-

REFLEXIONES SOBRE EL DESARROLLO DE LA HISTORIA SOCIAL EN EUSKAL HERRIA

REFLEXIONS SUR LE DEVELOPPEMENT DE L'HISTOIRE SOCIALE EN EUSKAL HERRIA

En este artículo se abordan las propuestas de algunas obras, no todas ni siquiera las más importantes, que afectan a una parte de la historia, en concreto la que hace referencia a la historia social.

En el desarrollo de las investigaciones históricas, la historia social no ha contado con un gran número de monografías ni artículos especializados debido a razones político-académicas hasta hace pocos años. Los inicios pueden fijarse hacia mediados de los años 70, y su desarrollo en la segunda mitad de los 80, en el que influyeron, sin duda alguna, el establecimiento de estructuras universitarias de carácter público y el dinamismo del Instituto de historia social y contemporánea "Gerónimo de Uztariz" en Navarra, entre otros factores.

Particularmente se hace hincapié en las obras más representativas del sector de la historia social que más interés ha merecido al colectivo de historiadores, en concreto la historia del movimiento obrero, y la necesidad de ahondar en el estudio de nuevos movimientos vinculados al campesinado, la mujer, los propietarios, dentro de una renovación metodológica en la que la teoría es elemento fundamental.

Dans cet article, les propos de certaines oeuvres qui influent sur une partie de l'histoire, en particulier celle qui se réfère à l'histoire sociale sont abordés.

Dans le développement des recherches historiques, l'histoire sociale n'a pas disposé d'un grand nombre de monographies et d'articles spécialisés pour des raisons politico-académiques jusqu'à ces dernières années. On peut fixer leurs apparitions vers le milieu des années 70 et leur développement dans la seconde moitié des années 80. Ce fut le résultat de divers facteurs, parmi ceux que l'on peut signaler sans aucun doute comme les nouvelles institutions universitaires de caractère public ainsi que le dynamisme de l'Institut d'Histoire sociale et contemporaine "Gerónimo de Uztariz" en Navarre.

L'accent sera particulièrement mis sur les oeuvres les plus représentatives du secteur de l'histoire sociale qui a présenté le plus d'intérêt aux yeux des historiens, en somme l'histoire du mouvement ouvrier et le besoin d'un approfondissement de l'étude des nouveaux mouvements liés à la paysannerie, la femme, les propriétaires dans une rénovation méthodologique où la théorie est un élément fondamental.

Bizitza politikoa eta abertzaletasuna euskal historiografian (1960-1988)

Jokin Apalategi

Bizitza politiko eta abertzaletasunaren alorrak jorratuz azkeneko bizpahiru hamarkadetan Euskal Herrian produkzio idatziak emandako fruiturik umoenen argibide bibliografikoak aipatzeko eskakizuna jaso dut. Nola euskaraz hala frantsesez edo gaztelaniaz (oraingoz hauek bait dira gehienetan, edo ia beti, gaurko euskaldunek beren produkzio idatzia egiterakoan darabiltzaten hizkuntzak) egin den produkzio idatziaren berri emango dut. Berdin emango diet toki nire aipamenean, gai hauek gure eremura mugatuz atzerritarrek egindako jorratei ere.

Lehen lerro hauetan esan dezadan ere, aipamen hauetatik jalgiko denak, orekazo kritzi izatea atzematen duelarik ere, hots, aurre-erizpide arrazoitu batzuen arabera langintza zientifiko baten xedea duelarik ere, ohartun naizela, arras zaila gertatuko dela norberaren balore-epaiketa alboratzea. Honela bada, lan honen irakurleak, ematen zaion informazioa jasorik, egin beza bere balore-epaiketaz egiaztatzeko eginahala: obra edo obrak eskuratuz gero, irakurketa on batez bere galbahe intelektuala aplikatzea, alegia.

Gure erizpide arrazoituaren bila

Gure egunetan Euskal Herriko produkzio idatzian, bizitza politiko eta abertzaletasunaren gaiak aipatzean bereziki, oinarritzko erizpide ezberdinez landutako obren aitzinean aurkitzen gara. Gure lan honek erizpide arrazoitu baten zedarria izan dezan, beharrezko deritzogu, laburpen handienez bada ere, erizpide horien funtsaren funtsa hemen isladatzeari. Euskal gaia orokorki, eta bizitza politiko eta abertzaletasunarena bereziki, edozein alorretan hartzen direlarik ere, bi analisi-jarrera kontrastatu eta gatazkatu agertzen zaizkigu.

Bata, Euskal Herriak, duen garaian garaiko *erakundetzea* statu quo bezala onarturik, horren jatorriaz, aukeraz, eta errepresentazioaz inolako kezkarik izan gabe, areago beste batzuegan horrenik sumatu orduko eta horrela jarduteko dominatzaile-egoera ego-teak ematen dion *eramangarritasun* osoz, nola psikologikoaz hala legalez, irri-mirriz eta laidoz bestearena irrigarri bihurtzen entseiatzen direnena da. Horrelakoentzat, Euskal Herria, Erreinu Absolutuen menpean erori zelarik, sorturiko Foru-erakunde konpartitua, antzinagoko erakunde-egoera autoktonoa baino egokiagoa litzateke, gero Estatu modernoaren bidean Euskal Herriari eman zaion probintziako edo departamentuzko erakunde aurrerape-naren ildoan gailurragoko seinalatuko luketenez eta gaur egun Euskal Herriaren alde bat bi autonomia bereizitan erakundetu digutenean sorturiko egoera, emaitza demokratiko baztertu ezinez-kotzat eta paregabetzat apologizatzen digute. Egoera demokratiko horrek kutsaturik, hain demokratikoak dira beren jokabideetan, non ez bait da baimenik onartzeko beste erakundetze posible batzuk beste batzuek imajina ditzaten, are gutxiago horietarik bat, publikoki arrazoituz gero adieraz dezaten eta beti ere, ezinezko-tzat da obran jartzen entseia daitezen.

Edozein gizartetan ere jarraituki ematen den erakundetze so-zialaren eta aldaketa sozialaren arteko dialektika, garaian garaiko irabazleen komenentziara agertzen eta defenditzen dutenak dira. Baina, noizbehinka, kontradikzioen pilaketak sortzen dituen egoera gatazkatsuen txinpartak, su ikusgarri bilakatzen direnean, zer? Beste behin ere, horrelako egoera batean murgildurik bizi bait da egungo Euskal Herria! Beren analisisetan aldagai sozialak anpu-loski sartzen dituztelarik ere, Herri-sistema bortxatu eta urkatua- ren aldagaiak inoiz ez du justifikaziorik. Gaur egungo beren iker- lanetan edo antzekoetan beren sentsibilitate ezberdinen arabera,

aldagai-aukera egiten dute. Batezbeste darabiltzaten aldagai nagusiak, ondoko hauek dira: erregimena, ideologia eta gobernu-mota (azken hau, portaeraz autoritario ala demokratikoa den), gizarte-bizitza dominatzailean, tradizioak ala aurrerapenak giderrak hartzearena, ekonomia nagusiki lurlangintzatik ala bizimolde industrial-hiritarretik aritzearena, kultur orientabidea arkaismoaren seinalez ala eta modernitatez bideratzearena, etab. Guzti honek, Euskal Herriak gaur egun bizi duen gatazka-egoeraren aldagai nagusia ezkutatu nahi luke, hots, Herri-sistemaren agoniak eragindako zalaparten aitzinean gaudela gorde nahi da, eta zalaparta horiek Euskal Herriari bere kontzientzia kolektiboaren arabera erakundetzen ez uzteetik edo Estatuak Herri-sistemari dagozkion aukerak libreki egiteko baimenik ez ematetik datozela ukatzea du xedetzat.

Bigarren analisi-jarrera, aldiz, aipaturiko aldagaiak, eta gizarte-jakintzen ekarri berrien arabera operatibo bihur daitezkeen beste batzuk kontutan izanik ere, euskal gaia ikertzean, aldagai nagusitzat, Estatuaren ukoen aurka barne-hitzarmenaren bila urduriki agitatzen ari den nazio bat garela nabarmentzen dutenena da. Errealitate-epaiketak egunero konstatatzen duen datua da, Mendebaldeko Europako Estatu-Nazioek, badutela oraino nazio zapalduak beren baitan, hots, kolektibo nazional zenbaitek duen erakundetzea, bere herri-kontzientziarekin distorsionaturik bizi duela, Estatu-Arrazoia harmonizatzea oztopatzen duelako. Honela, nazio zapalduen partetik egungo Estatu-Arrazoia kontestatuz etorri dator, gizarte-portaeraren printzipio bat oroiteraziz: nazio bakoitzak, beste gainerakoekin ezinbestean lotzen duen zilborreste-loturaren solidaritatea errespetatuz gero, norberaren oraina eta geroa bere kontzientzia kolektiboaren arabera hautatzeko eta erabakitzeko aukera legeztatua behar duela.

Seinalaturiko bi jarrera nagusi hauen parametroak argi eta garbi ageriko badira ere, ikerlari eta idazle bakoitzak, edozein jarreratakoa izanik ere, bere aldagai-moldaketa propioa duela adierazi behar dugu. Zenbait aldiz, gainera, alor berean kokatzen diren beste batzuekin kontraesan gogorak izan ditzake, bigarren, hirugarren edo eta areagoko aldagaien aukeran eta balorapenean oso ezberdin ari direlako. Autore eta obrak zehazki aurkeztu ahala, guzti honen berri ematen entseiatuko gara.

Bizitza politikoaz

Azpitarratu berri dugun erizpide-diferentzia hau euskal bizitza politikoaz ari diren obretan konstata daitekeena dela erakutsiko dugu adibide zehatzen bidez. Horren adierazgarritzat eman liteke, azken urteetan alderdi abertzale eta estatalen artean dagoen diferentzia seinatuz idatzi den obra osoa. Gai hau jorratzen duten lanik aipagarrienak aipatuz emango diogu hasiera obra konkretuak aurkezteari.

Abertzaletasuna

- 1977an, Alberto Pérez Calvo-k, *Los partidos políticos en el País Vasco*, Ed. Haranburu, Donostia.

Liburuaren hitzaurrea, Oscar Alzaga Villamail-ek egiten du. Obra bi zatitan banaturik dago. Lehenean, Euskal Herriaren bizitza politikoan dagoen *polarizazio* berezia aipatzen zaigu. Sarrera gisa, Euskal Herriak geografiazko marko bati buruz gaur egun oraino bizi duen egoera polemikoa nabarmentzen zaigu. Ondotik, frankismoaren azken hamarkadetan sorturiko alderdi berrien ugaritasuna seinatzen zaigu. Autorea, ez dute gehiegi kezkatzen alor estatalean ezker/eskuin parametroetan emandako berrikuntzek. Aldiz, euskal nazionalismoaren barnean egon den aldaketak, bere ardua guztia biltzen du. Gaur geroz euskal nazionalismoak, osotasun bezala, bere ezker, eskuin eta erdi propioak dituela jabetzen da. Esan gabe doa, guzti honek nazio bat konfiguratzeko duela. Halere, autoreak, abertzaletasuna mugatzerakoan, Euskal Herriko *geografi esparruari* buruz alderdi ezberdinek hartzen duten *egitura organikoaren* adierazpenarekin egiten duela. Bigarren zatian, Euskal Herrian gaur egun bizia duten alderdi ezberdinen fitxa egiten da: ezkerrea, eskuina, sorrera, erakundetzea, egitaraua, inplantazioa, eta bakoitzaren arduradun nagusiak aldagaitzat harturik. Liburua sigladuren esanahiak agertuz amaitzen da.

- 1977an, Idoia Estornes Zubizarretak, *¿Qué son los partidos abertzales?*, Ed. Itxaropena, Zarautz.

Obra honetan alderdi abertzale ezberdinak noiz eta nola sortu izan diren erakusten zaigu. Garrantzi handia hartzen du bakoitzaren eraikuntza ideologikoak. Alderdien esaldi eta testu labur bartzuez guzti horren berri ematen zaigu. Abertzaletasuna ez da soilik

geografiazko esparruari buruzko diferentzia bat. Abertzaletasuna mezu bat ere bada: euskaldunek beren aberri propio eta berezia dute.

- 1979an, Joxe Azurmendik, *PSOE eta euskal abertzaletasuna*, Hordago, Donostia.

Estatu espainolean sozialismo klasikoa, edo hobeto, PSOEn sozialismoa euskaldunon eta Euskal Herriaren etsaitzat eman dituztela euskaldun zaharrek adieraziz hasten da obra. Horren arrazoia, noski, sozialismo horrek euskal nazioa ukatzen zuela da. Areago, aintzat hartzea merezi duen euskal berezitasunik ere ez legokeela aitortzetik letorke. Atalez atal, ondoko hauek agertzen zaizkigu sozialismo horren euskal joera bezala: abertzaletasuna atzerakoia da; abertzaletasuna burgeskeria da. Ihardespen bezala, euskal abertzaleek, sozial-inperialismo espainolizatatzat nola eman izan duten agertzen zaigu. Areago, PSOEn espainolismoa nondik eta zergatik sortu den, kausa-pare bat aipatuz, aurkezten zaigu: euskal sozialismoa etorkinen sozialismoa da batetik eta ideologia sozialistaren tankera bera du, bestetik. Azken honi dagokionean zera frogatzen zaigu: ideologia proletario marxista klasikoa ez dela abertzale, ez duela biderik irekitzen ere abertzaletasun sozialista baterako. Azken parte, estatutu-arazoak, alderdia eta alderdikeria, sozialismo zaharraren ondarea, eta independentzia atalek osatzen dute.

- 1982an, Alfonso Pérez Agote eta beste batzuek, *Abertzales y vascos*, Ed. Akal, Madrid.

Ikerketa soziologikoaren itxuran aurkezten zaigun obra hone-tan, Euskal Herrian bizi den oro "vasco" adierazpen generikoz izendatzen zaigu. Euskal Herria den geografi guneak edozeini errazki ematen dion nolakotasuna da. Hain irekia denez, baikortasunez beteriko deituratzat agertzen zaigu. Gaineragotik ezarriko zaion edozein deitura estatali, bera asimilatzeko ate guztiak zabal-tzen bait zaizkio. Aldiz, "abertzale" deitura murriztailea litzateke. "Vasco" guztiak ez bait dira "abertzale". Funtsean, politikazko produkzio bat besterik ez da. Alderdikeriei eta partikularismoei lotua, noski. "Vasco" aire eta ahal unibertsalez betea ageri denean, "abertzale" norberekoikeriaz eta bereizkeriaz margotzen da. Ebo-luzio-legez garaille izatekoz begiztatzen da. Liburuaren hitzaurrea, Julio Caro Barojak egina dago. Autoreen ondorioak baikorregi epaitzen ditu. Berari ez omen zaio hain ondorio baikorretara aile-gatzerik suertatzen. Baina, hala izan dadila desiratzen die idazleei.

Liburuak, bi atal nagusi, ondorioak eta apendizera ditu. Baita bibliografiari dedikaturiko atala ere. Lehen atala, ikasketarako mar-ko teoriko-historikoa seinatzera mugatzen da. Bigarrena, analisi argitzailea deitzen da. Apendizean, Euskadin etorkinek edukiriko portaera berezia aipatzen dute: ezker abertzaleak etorkinen artean edukiriko arrakastaren arrazoiak ikasten entseiatzen dira. Sei atale-tan osaturiko apendizean, arazo ezberdinak jorratzen dira, ikaske-taren deskribapen teorikoraino, hain zuzen.

- 1988an, Jokin Apalategik, *Herria: sistema eta teoriak*, Kri-selu, Donostia.

Herri-sistema kontzeptuarekin euskal nazioaren defentsarako abertzaleek baliaturiko ideologia eta errepresentazio ezberdinak bildumatzaren dira. Horiek giza eta gizarte-jakintzek erakusten di-gutenaren arabera neurtuz gero, denek ez dutela baliabide bera eta zilegitasun-aukera berdina, esaten zaigu. Gaiak berak duen filosofi kutsuak entseiuari aire berezia ematen dio. Abertzaletasuna, berez, edozein jarrera politikorekin uztarturik joan daitekeela ere erakus-ten da. Abertzaletasuna, kontzeptu bezala, historian funtsezko eta hedadura unibertsaleko eman daitekeela adierazten da.

Organismo politikoak

Alderdien, organismoen eta erakundeen biziaz historiografia egiten entseiatzen direnen obrek, sail berezi bat egiten dute. Ho-relakoen artetik zenbait agertuko dugu.

- 1974ean, M. Artolak, *Partidos y programas políticos*, Ed. Aguilar, Madrid.

Sail hau izendatzean, klasiko bezala agertzen zaigun obra dugu. Bereziki Estatuko aipamenean artean, beti lehentasuna ohi du. Ber-tako ikuspuntutik egina izateaz gain, bereziki alderdi estatualisten zerbitzuko bait da. Bi aletan argitaraturik dago. Egin zen urteaz gero gaian eman diren aldakuntzak medio ez da fenomeno berri askoren emate. Honela bada, dituen muga historikoen pean kon-sideratu behar da.

- 1975ean, Juan Pablo Fusi-k, *Política obrera en el País Vasco (1880-1923)*, Ed. Turner, Madrid.

Hitzaurrearen orrietatik autoreak berak esaten digu bere iker-ketaren mugak zeintzuk izan diren, ez du klase baten edo egitura

sozial batzuen jarraipen-ikasketarik egin nahi izan, organismo politiko bat, hots, orain eta hemen alderdi bat bere beharretan, bere arrangura hauteskuntetiarretan jarraitu nahi izan du. Historia sozial bat muntatu ordez, politikaren historia tradizional bat eraiki nahi izan da. Sarreran, Bizkaia industrial eta meategitsua aipatzen da. Lehen atalean, Bizkaian sozialismoak izandako sorkunde-giroa ikertzen da. Bigarrenean, lehen uherduretatik ofentsiba hauteskuntetiarrerainoko ibilbidea seinalatzen da. Hirugarrenean, indar berrien sorrera seinalatzen da. Laugarrenean, isolatzearen kritika egiten da. Bostgarrenean, Errepublikazale eta Sozialisten arteko elkartzea aipatzen da. Seigarrenean, Indalecio Prietoren figura taxutzen da. Zazpigarrenean, Bilbo, sozialisten hauteskunde-gune bihurtzearen berri ematen da. Zortzigarrenean, industri munduaren krisia eta sozialismoaren zatiketa aztertzen dira. Ondorioak. Apendizeak. Bibliografia.

- 1989an, Juan Carlos Jiménez de Aberasturi Corta eta Emilio López Adan-ek, *Organizaciones, sindicatos y partidos políticos ante la transición: Euskadi 1976*, Ed. Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Aurkezpenean adierazten zaigunez, liburua, 1976an, argitaratzeko asmoz, Madrilgo Kultur Ministraritzara igorri zen "zentsurari baimen" eske. Baina ez zuen lortu. Hainbat urte geroago, aurtengo honetan gauzaturik gelditu da. Liburua lau zatitan banakatua dator: alderdi politikoei buruzkoa, sindikatuena, instantzia elkartzaileena eta dokumentuen appendizearena.

Autoreek galdekizun bat prestatuz gero, erakunde ezberdinei erantzunak eskatu omen zizkieten: nazio-arazoari zegokionean erakunde bakoitzak zuen oinarri politiko eta ideologikoa ager zezaten, edo eta garaiko koiantura politikoaz zuten aburua eta hurbilerako proposatzen zituzten aterabideak aipa zituzten.

Geroztik emandako aldakuntzak, ugariak eta sakonak badira ere, balio handiko materiala eskaintzen zaigu.

Aktore politikoaren lekukotasunak

Bizitza politikoaren atal ezberdinak aztertzeraz igaroz, lehenik eta behin *autore/aktore* izan diren batzuen memoria edo kronika bezala argitaratu zaigunaren berri emanez hasiko gara.

- 1962an, Dolores Ibarrurik, *El único camino*, Ed. Sociales, Paris.

“Pasionaria” famatuak, bere autobiografiaren bidez, hogeigarren mendearen lehen erdian langileriak bizitako kontzientzi hartzea eta emandako urratsak agertzen dizkigu. Bizkaiak bereziki eta Euskal Herriak osoki toki garrantzizkoa dute idatzi horren luzean.

- 1977an, Sancho de Beurko-k, *Gudaris, recuerdos de la guerra*, Ed. Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.

Nahiz eta testu hau lehen aldiz 1956an argitara eman zen Buenos Airesen, Euskal Herrian egindako bigarren argitalpena, berria kontsidera daiteke. Ameriketara egiten ziren liburu haiek atzerrietan zebiltzan euskaldunek ezagutzen bazituzten ere, Euskal Herrikoentzat ezezagun gelditzen bait ziren frankismoak ezarritako kontrola medio. Obrak, gerrateko euskal gudalosteen eta hauek edukitako materialen berri ematen digu. Eusko Abertzale Ekintzako militantearen lekukotasuna ere bada.

- 1978an, Jose Antonio Agirrek, *Veinte años de gestión del Gobierno Vasco (1936-1956)*, Ed. Leopoldo Zugaza, Durango.

Euskal Gobernuako Lehen Lehendakari izanak 1956an Parisen ospatu zen Euskal Mundu-Biltzarrean irakurri eta inprobisatutako diskurtsua da. Euskadiko Gobernuaren kudeakuntzan 1936tik 1956ra egindako lanik handienen berri ematen zaigu. Ordena publikoaz, udaletako bizitzaz, justiziako administrazioaz, euskal unibertsitateaz, bizibideez, dirugintzaz, estatuko kontuez, Gernikaren suntsiduraz, 1947 eta 1951ko grebez, etab. zehaztasun baliagarriak ematen dizkigu.

- 1978an, Eugenio Ibarzabalek, *50 años de nacionalismo vasco, 1928-1978*, Ed. Vascas, Donostia.

Liburuaren autoreak euskal abertzale bizitzan zerikusi politiko nabarmena eduki izan duten gizon-emakume zenbaitzuren bidez, aipaturiko urte horietako bizitza politikoa isladatzen digu. Ezaguna denez, bizitza zaila eta askotan arriskuz betearen protagonistena, noski. Halere, ez ditu politiko profesionalak bakarrik hautatu: artistak, etxeoandreak, sindikalistak, etab., ikuspegi aberats baten lekuko dira.

- 1985ean, Luis María Jiménez de Aberasturik, *Casilda miliciana, historia de un sentimiento*, Ed. Txertoa, Donostia.

Protagonista libertario, ideia eta idealetan irmo izanik, 1936ko gerraren erdian mugitzen da. Sentimenduek lehentasuna hartzen duten kontaketa aberatsa da. Autobiografia kontatua eta historia gurutzatzen dira.

- 1982an, Koldo San Sebastianek, *Crónicas de postguerra*, Ed. Ekin, Bilbo.

1937ko ekainean "Turtziozko Agerpena" bezala ezagutzen denetik hasi eta 1951 arteko bizitza politikoaren berri emanez, Euskadiko Gobernuaren inguruko dokumentu aberatsak biltzen dira. Baita Jose Maria Areilzaren diskurtsu famatutik hasi eta Prietorekin eta Juan Astigarrabiarekin gertatutako tirabiren inguruko az ere.

Hauteskunde-emaitzak

Bestalde, *bizitza politikoa hauteskunde-emaitzen bidez* komentatzen diguten obrak dauzkagu. Komentaketa, aurre-aukeraz neurgailu bezala hartzen diren balore-sistema edo ideologiaren arabera egiten da gehienetan, nahiz eta neutralitate-itxurak azaldu aurretik anitzetan. Azken honen lekukotasunik egokiena, estatistika-jakintzak eragindako hauteskunde-soziologian datza. Emaitza kuantitatiboak, gainerako izaera oro estaltzen du. Emaitzen nolakotasuna ez da aztertzen, edo gutxituz gero bortxatu egiten da.

- 1948-1973en artean, René Cuzacq-ek, *Les élections législatives à Bayonne et au Pays Basque (de 1948 à 1969)*, Bayonne et Mont de Marsan, 7 vol.

Euskal Herriaren iparraldeko hauteskunde-emaitzak komentatuz egindako lana dugu. Jenero berean bada besterik. Batezbeste, sistema frantses estatalaren arabera, beste inolako salbuespen-kontsideraziorik gabe, aritzeak alegia, karakterizatzen du. Halere, Jean Claude Larronde, bere zenbait lanetan aldagai abertzaleari toki bat eskainiz iparraldean arlo hori lantzen entseiatu izan zaigu: *Être basque* liburu kolektiboan, 1983an, Idoia Estornes Zubizarretarekin batera idatzirik "Esquisse d'un tableau social et électoral" dugu horren lekuko. Pierre Bidartek berriz, "Les élections présidentielles de mai 1974 au Pays Basque", in: *Bulletin du Musée*

Basque, 1974ean, soziologia orokorrak eskaintzen dizkigun aldagai zenbaitekin sistema frantsesaren arabera aztertu izan du gaia. Hauteskunde bidezko ikerketa politikoa, bakarka ere I. Estornes Zubizarretak emana du: "Aproximación a un estudio de elecciones y partidos políticos en Euskadi (1808-1923)", in: *Historia del Pueblo Vasco*, Erein, Donostia, 1979, III, 154-187 orr.

- 1975ean, Antonio Cillan Apalateguik, *Sociología electoral de Guipúzcoa, (1900-1936)*. Ed. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S. A., Donostia.

Liburu gotor baten aitzinean gaude. Mendearen hastapenetik 1936ko gerra arteko politikaren berri ematen zaigu estatistika hauteskuntietarren bidez. Errepresentazio kuantitatiboetara emanik dagoenarentzat, bada azkurrik. Sistema estatalaren arabera eramana dago.

- 1980an, Luis Nuñez-ek, *Euskadi Sur Electoral*, Ed. Vascas, Donostia.

Jeneroan egin den libururik jakitunena eta aberatsena dugu. Gainera, azterketarako hartzen den epea, arras hurbilekoa izatean, gaurkotasuna du. 1977tik 1980ra artean emandako hauteskunde-emaitzak soziologiako aldagaiez neurtzen dira. Hauteskunde-aukera bakoitzak urte horietan eduki izan duen bilakaera aztertzen da. Hauteskunde-aukera bakoitza sostengatzen duten sektoreak deskribatzen dira aldagai sozial eta nazionalen arabera. Hauteskunde-interpretazio kuantitatibo hutsaren erroreak seinalatzen dira. Hauteskunde-estatistikaren gibelean gordetzen den nolakotasunaren zenbait eite aipatzen da. Hauteskunde-emaitzetara bizitza politikoa murriztearen iruzurra salatzen da. Bidenabar, adieraz dezagun ere, autore berak, *Egin* urtekarietan ondoko hauteskunde-emaitzekin analisi berak egiten jarraitu duela. Urtekari horiek azken urteetako bizitza politikoaz iturri paregabeak gertatzen dira, bestalde.

Liburuaren laugarren eta bostgarren atalak bereziki azpimarragarriak dira. Laugarrenean, hauteskunde-analisen mitologia aipatzen da. Ondoko honetan laburbilduko dugu atala. Bat, alderdi batek ez duela osoki bere hautesleria ordezkatzeko, esaten zaigu. Bi, alderdi baten indar politikoa ez da bere hauteskunde-pisuaren arabera. Hiru, alderdi baten klase-izaera ez da ondorioztatzen bere hautesleriaren konposizioaren arabera.

Bostgarrenean, berriz, elektoralismoaren mitologia adierazten zaigu. Hona hemen bere esanahi nagusiak: hauteskunde-emaitzak

ez du isladatzen borondate herritarra. Lehenik, horren gainetik bait daude determinazio ideologikoa, militarra, ekonomikoa eta gobernutarra. Bigarrenik, izendaturiko ordezkariak ere ez dute isladatzen hauteskunde-emaitza. Hirugarrenik, gainera, ordezkari izendatuei ere ez zaie boteretik ematen.

Ondorio zehatz eta sendo batera ailegatzen da autoreak: hauteskunde-sistema bat demokratikoa izan dadin, ezinbesteko baldintza da botere errealak —finantzak, armada, eta komunikabide nagusiak— herritarren kontrolpean aurkitzea. Areago, dio, edozein hauteskunde-sistema burges, antidemokratikoa da, hauteskunde-prozesuan determinatzaile diren botere errealak herritarren kontrolpetik at aurkitzen direlako.

Botere politikoa

Areago oraino, *botere politikoaren* gauzatzea herriska batean nola ematen den eta zein legeren arabera bilakatzen den ikasten duen soziologiazko lan mardul bat ere badugu. Egia da halere, jeneroan egin den lan bakarra dugula. Ondoko urteetan, giza eta gizarte-jakintzek gure artean erakundetze unibertsitaria lortu dutenez, horrelako lanak ugaritzen joango diren itxaropena dugu.

- 1977an, Pierre Bidartek, *Le pouvoir politique à Baigorri*, Editions Ipar, Baiona.

Doktoratuko tesi-gai izan zen lan honek Georges Viers irakaslearen hitzaurre bat darama bere argitarapen-orduan. Baigorri herriskan hogeitamar urtez bizitakoaren lekukotasuna ematen digu. Berak ezagutu zuenean, Baigorri, gainerako gizartearekiko mende bateko atzerapena bizi zuela diosku (frantziar iraultzako gizartearekiko esan nahi du autoreak, noski). Baserri-artzantzan oinarrituriko ekonomi egitura zuela, sozialki eta erlijiosoki kontserbatzaile zela, demografikoki aberatsegi izatean, emigrazio-eragile zela, alegia. Ni izan naiz noski, lokaturik zegoen egoera hura, Goi-ikasketa-gai bihurtzen azkena, diosku autoreak. Aldiz, Pierre Bidart, herriskaren beraren lozorro hartatiko esnatzea deskribatzen eta Goi-ikasketen gai eginez aipatzen, lehena dugu, esaten digu autoreak. Nahiz eta Georges Viers-en balorazio hauek eztabaidagarriak izan, beude oraingoz honetan! Eztabaidaren orientabiderako giltza bezala, esan dezadan, frantziar iraultzaren aurreko gizarte feudalak, ez duela inolako zerikusirik Baigorriko gizarte kolektibo eta biltzarpeko jokoarekin.

Pierre Bidartek, hain zuzen, sarrera baten bidez, bere eginkizunaren zailtasunak, mugak eta teoriatzko aurrepuntuk argituz gero, lehen atal batean, Baigorriko haranean botere politikoaren barruan izandako degradazioaren berri ematen digu. Aldizka, euskal komunitatearen funtsezko eiteak (*etxearen* erakundean oinarriturik zegoen funtsezko batasunak eta jabego kolektiboak modelatua), izaerazko kontraesanak (baserritarren zuzeneko demokraziak eta sozialki nahiz sendikoiki desberdintzaile zen egiturak osotua), degradazioaren prozeduran emandako kausak (*barneko faktoreak*, zuzeneko demokraziaren eta sozialki eta sendikoiki desberdintzaile zen egituraren arteko kontraesanak, Biltzar Orokorren baitan sortzen joan zen "gorputz politikoa", usariozko eskubidearen galera, erakundetzen joan zen saldukeria, eta *kanpotiko faktoreak*, Estatu monarkikoaren zuzeneko partehartzea, intendenteen rolarren zalantzagarritasuna) eta feudalizazioaren aurkako erresistentzia deskribatzen ditu, eta guzti horren ondoriotzat, lurraren mugimendua, diferentzia sozialak, indibidualismoa eta komunitatearen integrazioa azpimarratzen ditu.

Bigarren atalean, kontraesan berriak eta haustura politiko definitiboa aipatzen dizkigu. Ondoko gisa honetan bilakatzen digu gai hau: lehenik, demografiatzko igoera larria seinatzen da (ondorioz Haranaren Hegoaldearen kolonizazioa, krisi politiko baterako elementuen agerpena, ageri dira), bigarrenik, taxukera industrialeko kapitalismoaren sarrera aipatzen da (ondorioz ekonomiatzko jokatibidea, oihanezko espazioaren degradazioa eta industrialtzearen aurkako mobilizazio herritarra, erakusten dira), hirugarrenik, behin-behineko ondorioak azpimarratzen dira (espazioan zegoen ekonomiatzko eta politikatzko sistemen artikulazio bereziaren aldaketa, espekulazio ideologikoaren osatze eta bilakaera, herrilurren zatiketa, Biltzar Orokorra gobernu erdirakoi eraldatzea, feudal erako erreakzioa, kexa-koadernoen agerpena: lekuko partikularismoz eta eskabide independentistaz osotuak) eta laugarrenik, Iraultzaren (frantsesaren) erakarpina (adierazpen politiko bezala, komunitatea udalaz ordezkatzeta).

Hirugarren atalean, jarraipen eta desjarraipen historikoak eta immobilismo politikoa ikasten dira. Bi zatitan egina dago agerpena. Lehenean, aldaketaren interpretazioko terminoak aztertzen dira (desjarraipena, jarraipena, lekuko arazoen papurtzea, Haranaren itzala, Baigorriko Haraneko sindikatua edo antzinako Haranaren betikortzea), eta bigarrenean, immobilismo politikoen finkapeneko eta betikortasuneko arauak ikasten dira (egitura soziala eta

erakunde espaziala, burgesiaren pisu soziala, anti-langilekeria eta baserri-lanaren idealizazioa, ideologia totalitarioaren elementuak).

Laugarren atalean, egungo politikaren eszena-tokia diseinatzen da. Teoriazko alorra mugatuz gero, ideologiazko krisia eta bere sorrerak aztertzen dira (baserriar kontsumitzailearengandik baserriar produzitzailearenganako bilakaera, eskola- eta gizarte-harremanak ikasten direlarik), alderdikeriak errepresentazioak datoz gero (oposizioen izaera, eta "gazte" eta "zaharren" nahiz lanaren ideologiaren bidez), boterearen lapurketa edo 1971, eta ezinezko demokrazi gaiekin amaitzeko.

Bostgarren atalean, botere politiko eta jokabideen gaia aipatzen da. Lanabes teorikoak jorratzen dira hasteko (jokabideen kontzeptua, eta jokabidearen produkzio soziala) udal-erakundea jokabide garrantzizkoenez dator (udal-erakundearen izaera eta rola, udal-erakundea boterearen "erdigune" eta borrokaren "erdigune" bezala), bigarren mailako jokabideak ere aipatzen dira (lekuko eszena ideologikoa, bigarren mailako jokabideak eta lekuko eszena politikoan horren artikulazioa), finean laiktasuna, baserriar korporatibismoa eta nazionalismoa seinalatzeko.

Lan osoaren amaierako laburbilduma gisa, lanaren esperimentaltasuna azpimarratzen zaigu. Gehigarriak, dokumentuz osotuak eta bibliografia espezifikoz apainduak, ematen zaizkigu.

Gatazka politikoa

Euskal Herria bere bizitzako arlo guzietan (gainerako Herrietan ere plano orokorrean ez da gutxiago) eta batipat bere bizitza politikoan (honetan gainerako Herri gehienak baino egoera nahastuagoa dugu, Estatuaren inposamendua bitarteko, barren-hitzarmenik baimentzen ez zaigulako) isuria gatazkatik bortxara dagoela agertzen zaigu. Gatazkari buruz soziologiak landutako ezagutza berriak medio, hots, gatazka-aldaketa sozialak elikatzen dituen iturriariko bat egiten duena, aurrez fenomeno honetaz zegoen ikuspegi manikeoak eragindako mamutzar kontsiderazioa gaintuz doa. Halere, gatazkaren gaia aztertzen duen soziologoaren kriterio arrazoitua garaian garaiko erakundetzea *statu quo* bezala onartzekoa denean, hots, erakunde nagusia den Estatu guztia asimilatzekeo lain bilakatzekoa denean, gatazkaturiko elementuen artean domeinu eta zapalkuntzaren desagertzea kriteriotzat erabili

ordez, bere finkapena eta iraupena sendotzen dira. Honela, gatazkaren soziologia askatzaile eta solidaritate berrien lortzaile izan zitekeena, bere aurkako gerta daiteke. Beharrezko sarrera honen ondotik, aipa dezagun zenbait obra.

- 1985ean, Jose Ignacio Ruiz Olabuenaga eta bestek, *Violencia y ansiedad en el País Vasco*, Ed. Tarttalo, S. A., Bilbo.

Liburua, sarrera labur baten ondotik, bortxaren izateari helduz hasten da. Gaur egun inpresio orokorra, bortxaren aro berezi batean bizi garela omen da, hots, munduan zehar eta orotan bortxazko portaeren aparteko leherketa bizi dugunarena. Halere, ez omen da ondoriotu behar gure mendea, aurrekoak baino bortxa gehiagokoa denik. Honela ari direnak, ikerle-eginkizuna dutenez, arlo honetako erizpideak finkatzera igarotzen dira berehala: bortxa, ezin ikasizkoa da, soilki fenomeno ukakor bezala kontsideratzen bada, ez hain ikuskor den beste bortxa ukakor baten aitzinean ematen den erantzun baikorra ere izan omen daiteke eta.

Jadanik esandakoaz ikus daitekeenez, bortxa kontzeptu bera mugatuz hasi beharra inposatzen da. Gaurko Euskal Herrian garrantzi handieneko galderatzat ondoko hauek ematen dira: Euskadi gizarte bortxatua ote da? Nolako bortxa-taxukerak ageri dira Euskadin? Nolako da bortxa-mota horietariko bakoitzaren hedadura soziala? Bortxa zilegitua al da? Nola, zer taxukera, zenbateraino, nortzuegatik da bortxa zilegitua?

Bigarren atalean, Euskadi zenbateraino gizarte bortxatua den aztertzen da. Horretarako diferentzia sakon bat seinalatzen da: biktima gabeko bortxa antzu bat pairatzen duen gizartea ez da arazo sozial kontsideratzen, esaten zaigu. Aldiz, biktimak egiten dituen hori da gizarte bat bortxadun egiten duena. Bestalde, biktimazioaren ardura pertsonala izenda daitekeen egoera eta hori horrela ez denekoa bereizten dira.

Adierazpen erreflexibo hauen ondotik estatistikazko emankizunak aurreratzen dira. Arlo gehienak ilustratzen dira. Baina, bi arlotakoak ezin eman izan dituztela aitortzen da: zerga iraultzaileari eta laneko bortxari dagozkionak, alegia.

Hirugarren atalean, Euskadin beldur-egoerak duen presentzia neurtzen da. Azterketa gauzatzerakoan kezka sortzaile edo gordetzailerik daitezkeen hamasei dimentsio aukeratzen dituzte beren ikasketarako. Zortzi sail handitan banatuak eramaten dituzte: Izadiaren kontrola eta katastrofeak pairatzeko arriskua aurrikuste-

ko aurrikuspen sozialen falta; ekonomiazko azpiegituraren ezarkuntza; delinkuentzia, subertsioa eta errepresio polizialarena; gerra hotzaren egoerarena; drogaren erasoarena; aldaketa politikoak ukatzearena; osasun-kontrolarena; eta ekologiazko narriadurarena.

Laugarren atalean, karrikaren segurtasunik ezaren inpresioa aztertzen da alde batetik, eta bestetik, plazaren segurtasun-irudia. Bigarren hau, agintaritzaren tokizat emateak dakarren adierazpen simbolikoa eta xedetsua azpimarratzen da.

Bostgarren atalean, kolektiboaren hauskortasuna eta pribatuaren segurtasuna aztertzen dira.

Seigarren atalean, bortxaren zilegitasuna ikasten da.

Zazpigarren atalean, eta amaitzeko, euskal segurtasuna eta bor-txa aztertzen dira.

– 1986an, J. Linz-ek, *Conflicto en Euskadi*, Ed. Espasa-Calpe, Madrid.

Liburu gotor eta sendo baten aitzinean gaude. Sarrera, hamaika atal, ondorioak eta epilogoak ditu osagaitzat. Hitzaurre edo sarre-ran, lanaren baldintzak, xedeak, erizpideak, eta egin daitekeen kri-tika baten beldurrari zenbait erantzun, ematen dira. Lana, 1975etik 1980ra arteko hauteskunde eta erreferendunen analisiak (Euskadi eta Nafarroako Komunitate Autonomoetakoak), eta Euskadi eta Nafarroako Komunitate Autonomoetan eta Ipar Euskal Herrian inkesten bidez portaera politikoak eta aburu publikoa aztertzeko egindako ikerketa soziologikoei osatzen dute. Lanaren objektibotasunari buruz esaten zaiguna ere adierazgarria da: objektibotasun handinez egindako lana omen da, honela “gauzak beren izenez deituz” beste batzuek “patriotas” deituko lituzketenak eurek *terroristatzat* izendatuz deskribatu omen dituzte. Argi eta garbi, liburuaren xedea, Estatuak Euskal Herrian gatatzaturik dituenak nola tratatu behar dituen erakustea da, ondorioz, *asimilazioa* aha-lezko gerta dakion.

Laburbilduz, atalez atal hara nola eramana den aipatzen dugun lana. Lehen atala, “espainolak, euskal espainolak eta euskaldunak: identitate arazoa”, izenburutzen zaigu. Euskalduna izateko beharrezko diren baldintzak. Euskadi Komunitate Autonomoan bere bizilagunak nola identifikatzen diren, identitatearen perspektiba konparatua, identitatea eta faktore sozialak, identitatea eta portae-

ra politikoa, identitatea eta estatutuaren erreferenduna, identitatea eta autonomia eta independentziaren ondorio ekonomikoen sumaketa, identitatea eta gatazkaren lerroak etorkizunean (1979), dira gaiaren osagarriak. Bigarren atalean, erdirakoikeriaren amaiera, autonomiaren ahalezkotasuna eta independentziaren utopia abor datzen dira. Xehetasunez hara nola eramaten den gaia: autonomia eta utopiazko independentismoaren artean; erdirakoikeria, autonomia, federalismoa eta independentzia; independentzia jomuga eta utopia bezala, autonomia errealtate bezala independentziaren utopiaren aurka; identitatea eta sentimendu independentista; erdirakoikeria, autonomia, independentzia eta identitate nazionala Euskadin eta Katalunian, autonomia eta independentzia eta Euskadiren etorkizun ekonomikoa; hizkuntz politika eskolan eta independentismoa.

Hirugarren atalean, zilegitasunaren porrotak (ezarrিতাকo sistema politikoarekiko onarketak eta arbuioak daude). Ondoko gidoiaz osatzen da: ikuspegi panoramikoa; zilegitasunaren eta leialtasunen tipologia; 1976ko erreforma politikoaren aldeko erreferenduna, demokraziarako ate-irekitzea ote?; arbuaturiko konstituzioa; estatua, autonomiaren finkapena ala eta eskari handiagoe tarako urratsa ote?

Laugarren atalari, Alderdien euskal sistema deitzen zaio. Bere osagarriak berriz, alderdi garrantzizkoen bozkaren aurrehistoriazko zenbait testuinguru; alderdien sistemaren tipifikazio-en tseiua; 1977ko sistema; eta 1979ko sistema, dira.

Bostgarren atalean, periferiaren barneko periferiak aipatzen zaizkigu. Frantses Euskal Herria edo Ipar Euskadi; Nafarroa: eskualde autonomo baten bihotza ala eta Euskadiren zati osagarria; Bilbo: Euskadiren erdi ala periferia, dira zehaztasunak.

Seigarren atalean, etorkinak eta bertan sortuak gaia aipatzen da. Naturalak, euskal etorrikoak, etorkinen ondorengoak eta etorkinak; ezaugarri sozialak, etorria eta inmigrazioa, dira bere he dadurak.

Zazpigarren atalean, hizkuntza eta politika aztertzen dira.

Zortzigarren atalean, garrantzi gehieneko alderdien bozkaren oinarritzko testuingurua agertzen da. Parlamentuan ordezkaritza duten alderdiak bakarrik ikasten dira.

Bederatzigarren atalean, Euskadiko alderdien funts sozialak ikasten dira. Sexua, adina, erlijiosotasuna, klasea, ekonomiazko jarrera, lanbidea eta ikasketak erabiltzen dira aldagaitzat.

Hamargarren atalean, euskal hautesleriarengan euskal alderdiek duten irudia aztertzen da. Nazio-identitatea eta alderdien irudia da gaiaren mamia.

Hamaikagarren atalean, bortxa Euskal Herriko aburu publikoan aipatzen da. Metodologiari buruzko ohar bat, terroristen irudiak, ezaugarri sozialak eta terrorismoaren sumaketa, bortxaren arduradunak, amnistia bat gehiago?, igaroa ahantziz etorkizuna pentsatu, dira azterketaren adierazpen erreferentzialak eta bere mugarriak.

Ondorioak. Hau da ikerketaren ondoko ataltxoak.

Amaitzeko epilogoak deitu ikaşagia dator etorri. Bertan, probintzien arteko jarraitasuna ala desjarraitasuna, Nafarroa eta bozka Bilboko metropoligunean, tratatzen dira.

Gure aldetik, esan dezagun azken hitz bat liburu honekiko: Estatuaren arrazoia justifikatzen duen zola hitzarmena izanik, azken hau ezean, inposatzen den Estatuaren arrazoia zilegitu nahirik egiten den malabarismo intelektual aberats bezain zapaltzaile den hitzezko muntaia baten aitzinean gaudela.

– 1987an, Jokin Apalategik, *Gatazka eta bortxa, Euskal Herriaren ereduak*, Kriselu, Donostia.

Liburu honek, sarrera, hiru atal eta amaiera ditu. Sarreran, gatazkaren soziologiak dakarren filosofia berria azpimarratzen zaigu. Gaur gaurkoz munduan zutik ditugun sistema sozialek ez dute zapalkuntza eta domeinu gabeko egoerarik lortu, nahiz eta zenbait zapalkuntza eta domeinuaren zutabe nagusietarikoak alden erazi baditu ere. Ondorioz, gatazka gabeko sistemarik ez dago. Gatazka, bizitzaren kontraizanen fruitutzat agertzen zaigu. Beraz, gatazka ez daiteke inoiz gaitz bat bezala ulertu. Horrela egingo bagenu, bizitzarekin aurkatzera hel bait gintezke. Bizitza, aldiz, iraupenerako eman behar dugu. Horretarako, zapalkuntzaren eta domeinuaren neurria, geroz eta hertsiago egin behar da.

Lehen atalean, soziologia orokorraren oinarrizko planoak gogorarazten dira: azpiegituraren planoaz dugun egungo ezagutza, ekintza sozialaren erakundetzea, mugimendu sozialen presentzia eta egitekoa, alegia.

Bigarren atalean, gatazka sozialen soziologia aztertzen da bereziki: zer ulertu behar da gatazka sozialaz?, gatazka sozialen sailkapena, gatazka sozialaz gizarte-jakintzetan landurik plazaratu izan

diren irudi kontrastatu batzuk, gatazken jatorria eta alde erakar-tzaileak, gatazken kausak eta zergatiak, eraso eta oldarkortasuna, gatazken egiturazko zola, gatazken askapenerako legeak, gatazken erregulazioa eta gatazka sozialaren teoriaren aplikaziorako alorrak deitu sailek osatzen dute atal nagusi hau.

Hirugarren atalak, euskal nazioa gatazka izatetik bortxaz defenditzera deituak, ondoko osagarriak ditu: 1959tik bortxaren aukera, bortxa-aukeraren aldeko arrazoiak baloratzerakoan kontutan eduki behar liratekeenak, alegia.

Amaileran, oraino Euskal Herriko bortxa politikoaren irtenbi-dea arrazoitzerakoan ezpaika dabilenik gelditzen bada, ziurtasun-erantzukizunaren eginahaletan laguntzaile izan dakizkiokeen lanabes teoriko batzuk eskaintzen dira.

Abertzaletasunaz

Beti garrantzizkoak badira ere, orain hautaturik izenburutzat eman dugu hitzarekin, euskal nazioari eta nazionalismocoi doazkie-nak aipatzera goazelarik, bere esanahia mugatzeko, beharrezko gertatzen zaizkigu sarrerako gogoeta batzuk.

1871tik 1914era artean, munduan zehar "nazionalismo" hitza, esanahi ilun eta ukakorrez jantzi ondoren, arbuiagarri bilakatu zen, hots, nazioa giza historiak eman duen gertakizun funtsezkoen eta xede gailurren elementua kontsideratuko bait du, nola norbanakoa bere menpeko eginik berari sakrifikatuzko prest jarriz, hala kolektiboen eta klaseen interesak elkar kontrajarriz.

Areago doana, aipaturiko historiaren epe horretan, nola antzi-nateko nazio-estatueta eta aldi berrikoagoko Estatu-nazioetan, hala kolektibo nazional izanik beren independentzia aldeko borrokan sarturik daudenetan ere, "nazionalismo" ikuspegi hori txertatu egiten da.

"Nazionalismo" ikuspegi horrek gidaturiko nazio-estatu eta estatu-nazioen jokabideak, ezin ustelagoak gauzatuko dira ondoko urteetan. Ondorioz, "nazionalismo" hitza, bere aipamen tradizio-nalean atzerakoi, idolatra, zapaltzaile etab. bihurtuko da. Estatu bat duten nazioentzat "internazionalista" joerako ideologiak at-erabide erraz suertatuko dira. Nahiz eta "internazionalismo" ho-

rrren pean neokolonialismo-joera berriak gorpuztu, nazio zapalduen interesak hankaperatu eta gizabanakoaren eskubideak Estatuaren arrazoiori opaldu.

“Nazionalismo” hitza horrela bortxatuta, arazo larriagoak sortuko zaizkie zapaldurik eta beren aukerak egiteko beharrezko diren erakunde gabe aurkiturik, nazioaren defentsan mugimendu bat izendatu beharra dutenei. “Nazionalismo” hitzaren degradazioko urte horietan, ordezkoko izan zitekeen hitz berri bat sortua zen, hots, 1896an “Les sélections sociales” argitaratzean, Vacher de Lapouge-k forjaturiko “etnia” eta “etnismo” hitzak. Baina, autorea inguratzen zuen kultur ingurune eta joera politiko tradizionalistak, beste ertzean zeudenentzat susmagarri eta onartu ezinezkotzat egiten zuen hizkuntza berri hori. Jakintza bera ere inoiz neutro ez delako froga.

Azkenean, traba horiek gaindituz nazio zapalduen defentsarako mugimendua ikuspegi aurrelariz eta mezu mamitsuz ahalbidetuko duen kontzeptu berria gauzatuko zen: nazio-askapenerako mugimenduaren nozioa, hain zuzen ere. Baina, bere erabilerako arloen ezberdintasun eta aberastasunak xehetasunetan sartu beharra dakarkigute. Zenbaitek, kontzeptu horren erabilera, “hirugarren munduko nazio zapalduen mugimenduak” aipatzeko mugatu nahi izan du. Baina, ez dago inolako arrazoirik, beharrezko salbuespenekin, “lehen eta bigarren munduan nazio zapaldu direntan sorturiko mugimendu askatzaile aurrelariei” aplikatzeko ere. Oraino, aurrelaritasun hori, objektibo ezberdinetara muga liteke: zenbait aldiz askatasun-bereizketa denean, beste batzuetan, askatasun-iraultza izan daiteke.

Euskal Herriko kasuan, nazioaren aldeko defentsan eman daitekeen txaubinismo eta gorroto guztia uxatu nahirik, eta beste gabe, nazioaren defentsan egon litezkeen balore sozialen sistema ezberdinen presentzia balore-epaiketaz jorratzera igaro aitzinetik, *abertzale eta abertzaletasunaz* izendatzen dira euskal nazioaren aldeko estrategia eta taktikara mugatuz ari diren jokabide politiko guztiak. Guk, lan honetan, euskal historiografia aurkezteko atalen artean emana aurkitu dugun *abertzaletasunaren* aukera, azken zentzu honetan interpretatzen dugu.

Abertzaletasunaren aitzindariak

Abertzaletasunaren aitzineko ikuspegi abertzaleak eman direlakoaz ez dago inolako ezpairik. Euskal Erdi Aroaz gero, nola

iparraldeko autoreen idatzietan, hala hegoaldekoenetan, abertzale-deiak eta arrazoitzeak aurki daitezke. Beste lan batean horren berri emana dugu, hots, *Los vascos de la autonomía a la independencia* obran, hain zuzen ere. Orain, gure lan honen neurriekin jarraituz, azken hogeitamar urteotako argitarapenetan eta obrarik berezietan bakarrik honetaz esan dena, seinalatzeraz igaroko gara.

- 1983an, Manuel Larramendik, *Sobre los fueros de Guipúzcoa*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia.

Nahiz eta aipatzen dugun liburua 1756-1758 urteetan idatzi, bere autoreak, inoiz ez zuen argitalpenaren zorionik ezagutu. Are gehiago, erregetzak zuzentzen zituen Estatuko instantzietatik jasotako debeku batek eta urte haietan Jesuiten Konpainiak pairatutako jazarpenek gaurdaino zokoratuta egon izana esplikatzen dute. Dena dela, berrehun eta piko urte geroago lanaren mezuak eta tratatzen duen arazoaren mamiak ez du interesik galdu: "Espainiak hitzarmenez ala indarrez bereganaturik gauzka, lehena ezinezkoa dela erakusten badigute, bigarrenez loturik gaudela ondorioitu besterik ez dago", esango digu. Gainera, inolako mihiko herdoilik gabe, Gipuzkoa "nazio baskongandoa" izendatzen du. Eta askatasun formalen aipatzaileei askatasun zehatzak gogoraraziko die. Gipuzkoako Probintziari eta bere Junta eta Aldundiari (eta guzti hau beste instantzietara heda daitekeena da) zera gogoraraziko die, ez dela nor askatasunaren eta Foruen aurka agintzeko.

Esan dezagun irakurgai sakona eta ezinbestekoa gertatzen dela, hitzaurre gisa, Jose Ignacio Tellechea Idigoras-ek lehen argitalpenari ezarri diona.

- 1973an, Alfonso de Otazu y Llana-k, *El "igualitarismo" vasco: mito y realidad*, Ed. Txertoa, Donostia.

Liburu polemiko eta apologista aldi berean. Polemikoa, euskal gizartearen demokratizazio primitiboak bere menditarren zibilizazioan iraunez feudalismoari hesiak jarri zizkiola agertzen entseiatu diren autoreei irriz, mirriz eta laidoz erantzuten dielako. Apologista, euskal berdintasuna ukatzen ahalegintzen den hein berean, espainiar herrien *berdintasuna* defendatzen duelako. Euskal berdintasunak bere mugak baditu, eta klase-berdintasunari dagokionean argi bada, behin ere ez dela horrenik eman, espainiar herrien berdintasuna anitzez ezezkorragoa da, iluntasun zerraldoena izanik, hots, behin ere eman ez dena, begi-bistakotzat ematen bait du.

Euskal Herriaren historian desberdintasunak, gatazkak, borroak, eta abar datu historikoak badira, aldi berean, eta ezin ukatuzkoak dira ere bere formakerako originaltasuna, konposaketako elementu zenbaiten ezberdintasuna, beste batzuek bidean gurutzatu izan zaizkionean ezarritako erresistentzia, eta abar luze eta irmoak. Azken hauekiko, autoreak, bere lana "desmitifikatzaile" izendatu eta gero, lehen joeraren mitifikatzaile bihurtzeraino eramatzen du. Karlismoaren sorrera ideologikoan dagoen klase-aliantzen sarea taxutzeraino ailegatzen da.

- 1978an, Beltzak, *Del Carlismo al Nacionalismo burgués*, Ed. Txertoa, Donostia.

Obraren mamia lau ataletan hedaturik dago. Sarreran, jadanik, obraren metodoa eta autorearen xedeak gogotik agertzen zaizkigu. Euskal nazionalismoaren baitan betidanik historiaren ajea eman dela esanez, nazionalismoaren politika bi motibakuntzari loturik dirudiela arrazoitzen du: batetik, identitatea errekuperatu beharra, eta bestetik, tradizio eta arrazaren izpiritu betikorraz aukera politiko batzuk bultzatzen dituzten egungo klaseen interesen adierazle direnak, zilegitzeko borondatea, alegia. Bigarren eite honek bati-pat, mila faltsukeriatara eraman gaituela, baieztatzen da. Autoreak, lan honen bidez, nazionalismoaren sorreraz aurreko lan batean hasiriko ikerketa, hots, "El nacionalismo vasco" obran, amaitutzat eman nahi du. Frogatu nahi duena zera da: euskal herritar nazionalismoa zenbateraino ez ote den egon tokiko burgesiaren aldetik mediatizatua 1904etik 1923ra. Horretarako, jarrera karlistaren eta Antzinako Erregimenaren krisi sozio-ekonomiko artean egon izan den harremana ikertzen da aurrez. Argi deritzo lur-jabegoaz eta bere ustiapenez burgesiarekin sarturiko mentalitate berriari, eta gero, lege desamortizatzaileekin osaturikoa, liberalismoaren eta politika erdirakoizalearen ofentsiba euskal bizitzaren egitura tradizionala haustera bideratutzat ikustera ailegatu izana. Hori horrela, bada ordea, ikertzaileak neurtu beharrezko intzidentzia bat: matxinada karlistan, eta bereziki, klase nagusiko sektore tradizionalistetatik egondako mugimenduarekiko zuzendaritza eskuratzean dagoen *forma-arazoa*, alegia. Baserritarrena, klase zatikatua da, eta gurea bezalako erresistentzi borroketan tokiko nobleziaren parte hartzea, ezaguna da. Izan ere, baserritar gizartea beste gizarte estaltzaile batez inguratua agertzen da (Estatua, Eliza, Hiria, Jauntxoak). Honela, baserritar txiroen eta gizarte estaltzailearen artean, ararteko talde sozial batzuk aurkitzen dira. Azken hauek, borroka-egoera berezietan baserritar txiroen buruzagitza hartzera aile-

gutzen dira, hots, mediazio edo bitartekotza lortzen dute. Baina gero, irteera emateko uneetan, errazki pasatzen diote beren faktura herritar mugimenduari; eurak naturalki partaide diren klase nagusiarekin hitzarmen faboragarri bat lortuz. Behin honela definituz gero, mediazio hori lehen nazionalismoari ere luzatzen ahalegintzen da autorea. Obraren lau atalak, ondoko moldean banatzen ditu: Karlismoaren izaeraz; kapital-pilaketaz eta oligarkia espainolistaz; aranismoetik nazionalismo burgeserako ibilbideaz; eta proletaltzako nazionalistaren sorreraz.

- 1981ean, M.C. Mina Apat-ek, *Fueros y Revolución liberal en Navarra*, Ed. Alianza Editorial, S.A., Madrid.

Orain arte aipaturiko gure bibliografiako obra zenbaitetan, lan honen berri eman zaigu eta berri-kutsuz beteriko tesidun bezala eman ere: hots, liberalek ere Foruen defentsarako egitarau bat bazutela, alegia. Anitzetan, foruen defentsa eskusiboki karlismoaren gauza bezala eman bada ere, ez da gezurra, Foralitatearen ikuspegi oso ezberdinak daudela. Gerra gorrian, Muñagorrik ireki zuen "Foruak eta Bakea" frontearen eraginez, zenbait liberal "Foru" eskabidearen errekonstrukzioa ahalezko zelakoaz jabetu zen. Nafarroan jokabide horrek egindako historia errekonstruatu digu M.C. Minak.

Lehen euskal nazionalismoaz obra anitz produzitu da azken hiru hamarkadetan. Lehenik eta behin, bere lehen sistematizatzaileaz, eta ondorioz sortzaile izan zen Sabino Arana Goiriz, eta baita berak sorturiko Euzko Alderdi Jeltzaileaz ere. Halere, alboan bazen horretara bideratzen zen beste girorik eta sorkari kulturalik. Ideien arloan ezer ez bait da aurrekoarekin eta ingurukoarekin zerikusirik gabe sortzen eta bilakatzen. Honela, euskal nazionalismoaz ari diren obretan, bi joera hauek bereiziko ditugu. Batetik, euskal nazionalismoaren inguruko giroan edo gero Euzko Alderdi Jeltzailean lotu ez denari buruz ari diren obrak, eta bestetik, propioki lehen euskal nazionalismoari buruz ari direnak.

- Huici Urmeneta Vicente-k, "Ideología y política de Arturo Campión", in: *Príncipe de Viana*, XLII, nº 163, 1981eko Maiatza-Abuztua. Lan bera separata bezala ere argitaratu zen.

Lan honen bidez autoreak defenditzen duen ideia, zera da: Arturo Campión ere, euskal nazionalismoaren sortzaile dela. Sabino Aranaren ikuspegia nazionalista izan bada ere, historikoki gorpuztu dena, eta euskal nazionalismoaren errekonstrukzioa luzaro

bereganatu duena, beharbada garaiko euskal gizartean garaile zen pentsaera tradizionalista izateak faboraturik, aldiz Arturo Campanionek, aldi berean, euskal nazionalismoaren bertsio liberal bat produzitzen zuela, erakusten digu. Areago, mezua ere luzatu nahi luke: gaur egun pentsaera liberalak dominaturiko gizarte-egoeran, euskal nazionalismoaren beste bertsio honi so egiteko deia lizateke.

- 1989an, Araceli Martínez-Peñuela Viserda-k, *Antecedentes y primeros pasos del nacionalismo vasco en Navarra*, Ed. Gobierno de Navarra, Iruñea.

Liburuak Ignacio Olabarri Cortazar-en hitzaurre batekin hasten da. Ez dakar inolako aportazio berezirik. Autoreak, berriz, 1878tik 1918rako epea hartzen du bere ikerketarako epe mugatu bezala. Autoreak, sistematizatzen duen gaia, hiru tesi garrantzizkok gidatua dago: batetik, nafartar nazionalismoa, politikoa bezain kulturala izan zela erakusten zaigu. Baina izaera hau ez ote da gero euskal nazionalismo guztiaren ezaugarri bat? Besterik da Nafarroan nazionalismoaren proiektzio politikoa ahulagoa gertatu zela, bertan, artean alderdi karlistak zuen errotze sozial sendoagatik. Bigarren tesiak zera diosku: nafartarren euskal nazionalismoak "ofizialki" ez zuela separatismorik. Baina, autoreak aztertzen duen epean beste hainbeste ez al zen gertatzen gainerako euskal nazionalismo "ofizialean" ere? Hirugarrenik, nafartar nazionalismoak lehen mailako elkarte politiko bilakatzerik ez zuela lortu diosku. Historikoki arrazoi du.

Liburuak hiru atal nagusi ditu. Lehena, Euskara elkartetik Fray Evangelista de Ibero-ra luzatzen du. Bigarrenean, euskal alderdi nazionalistak Nafarroan edukiriko errotzea ikertzen du. Barne-erakundetzea ere, noski. Hirugarrenean, Nafarroako euskal alderdi nazionalistak sorturiko *Napartarra* astekariaren sorrera eta bere proiektzio ideologikoa aztertzen dira. Hamar urteko iraupena izan zuen aldizkariaren berri zehatzak eta zabalak ematen dira. Amaieran, apendize interesgarri bat ematen zaigu. Bibliografian, halere, gaiaz aritu den obraren bat edo beste aipatzea ahantzi zaiola konstatatzen dugu. Zergatik?

Lehen euskal abertzaletasuna

Sabino Arana Goirik eta Euzko Alderdi Jeltzaileak bideratutako nazionalismoari buruzko obrak dira nagusi, euskal nazionalis-

moa aipatzean. Gainera, denboran ere lehentasuna duen nazionalismoa berau dugu, 1936ko gerraren ondoren, gai horri buruzko aipamenak eta ikerketak denbora luzez agorturik egon baziren ere. Frankismoaren azken urteetan, bapatean, ikuspuntu ezberdinetakoak jalgiko dira. Hor, bitartean, izendatzea merezi duen obra gotor bat dago: M. Garcia Venero-ren *Historia del nacionalismo vasco*, Editora Nacional, 1945, Madrid. Baina, gure lanaren muge-tara murgilduz, ikus dezagun egindako obren ibilbidea nondik-norokoa izan den.

- 1974ean, Beltza-k, *El nacionalismo vasco (de 1876 a 1936)*, Mugalde, Hendaia.

Ikerketa-sail berri bat inauguratzen duen obra dugu. Mardula eta trinkoa arrazoiketaren arabera. Hogeitamazazpi atal, gibelso-las, eta bibliografiaz osoturik dago. Euskal lehen nazionalismoaren sorreran, bertako klase sozialek edukitako portaera aztertzen da zorroztasun handiz. Euskal oligarkiak betidanik Estatuaren alde apustu egin izan duela erakusten digu. Euzko Alderdi Jeltzailearen nazionalismoaz, aldiz, euskal gizarte prekapitalista industrialtzearekin eta Estatuaren erdirakoitzearekin gurutzatzean, bazterturik aurkitu diren klase-interesen amalgamatzat ematen da. Nazionalismoa, herriaren arazoa izanik ere, bere zuzendaritza politikoa epe historikoen arabera klase ezberdinen eskuetan aurkitzen zela, 1937 aitzinetik, EAJ burgesia ez-monopolistak eta burgesia hiritar txikiak zuzendua egon zela. Nazionalismo horri loturik eman diren zenbait jokabide ere salatzen ditu: arrazakeria abizenzalea, katolikotasun jasangaitza edo konfesionalismo katolikoa, eredu patriarkaleko sendiaren eta propietate pribatuaren derrigorrezko defentsa, etab. Estatuak Euskal Herriari inposatutako integrazioari ihardespren bezala, euskal abertzaletasuna deitu dezakegun erresistentzia sortzen da; eta horretan partaide dira, nazionalismo sabin-darraren adar ezberdinez gain, lurlangintzako zenbait sektoreen karlismo herritarra edo Euskadiko Alderdi Komunistaren aukera bera. Euskal Herri bakar bat badago ere, ez dago aukera nazionalista bakarrik; herri honetako klase ezberdinen interesek, epe historiko bakoitzean aterabide politiko bereziak eman dituzte.

- 1975ean, Juan Jose Solozabalek, *El primer nacionalismo vasco*, Ed. Tucur, Madrid.

Nazionalismoa, sentimendu xurgakari izanik, errealitate nazio-nalean komunitate baten ongizate sozial eta politikoa, independentziarako beren bokazioan ezartzen dituen fenomeno omen da.

(Esan dezagun hemen, jadanik aipatu dugun nazionalismo historiko baten irudia unibertsalizatzen zaigula). Bestalde, nazionalismoa ez duela faktore zehatz batzuen konkurrentziak egiten, are beharrezkoa dela talde sozial batek une berezi batean politikoki ezberdintzeko ohi duen sentimendu behartzailea, esango zaigu. Nazioa eta nazionalismoa ez dira bereizten. Hirugarrenik, gizarte batean klase-egiturak eta sentimendu nazionalak duten harremana azpimarratzen zaigu. Horrela, aldian aldizka klase batek ikurriña nazionala altxatuko omen du, baina, gainerako gizarteak nolabaiteko inplikazioa eduki behar omen du fenomeno nazionalismo bilakarazteko. Euskal nazionalismoaren kasuan, argi eta garbi omen dago, bere sorrera Euskal Herriaren industrialitze-prozesuari loturik ematen dela. Sabino Arana Goirik, hain zuzen ere, arazo hau eskuetan harturik, euskaldunen independentzia aterabidetzat bideratuko omen du. Lehen aldi batean, bere nazionalismoa industrialitzearen aurkakoa izango omen da, horren lekuko langileriarekiko duen (arrotzarekiko, esan behar luke) herria, aipatzen zaigu. Hala ere, bigarren aldi batean industrialitzearen baloreez jabetzen omen da, honela, euskaldunen nagusitasunaren adierazletzat erabiltzeko. Obra honetan nagusi den tesiaren inguragarri, euskal industrialismoaren demografiatzko eta sozio-ekonomiazko plataformaren ikasketa interesgarria egiten da. Baita, langileriarena, foralitate-krisiarena, eta aranismoaren egitarauena ere.

- 1977an, Jean Claude Larronde-ek, *El nacionalismo vasco, su origen y su ideología en la obra de Sabino Arana Goiri*, Ed. Txertoa, Donostia.

Iparraldetik so egiztatuz egindako ikerketa dugu. 1972an Bordeleko Unibertsitatean doktoratuko tesi bat balio izan zuen. Bi atalez osoturiko sarrera luze batean hemeretzigarren mendeko nazionalismoaren funtsak, alde batetik, eta Euskal Herriaren egoera politikoa bestetik, mende berean historikoki biltzen zaizkigu. Obraren sakonera igaroz, lehen atalean, nazionalismoa eta tradizionalismoa deituan, karlismoaren ondarea, euskal nazionalismoaren doktrina, eta 1893tik 1898ra egindako propaganda nazionalista aztertzen ditu. Bigarren atalean, nazionalismoa eta liberalismoa deituan, Euskal Herriak (bereziki Bizkaiak) lehen nazionalismoa sortzeko orduan zuen egoera sozio-ekonomikoa, liberalismoaren aurrerapenak eta 1889az gero nazionalismoak eramandako ihar-duera aipatzen dira. Ondorio modura, zera azpimarratzen zaigu: Sabino Arana hil ondoren nazionalismoaren barnean borroka bat dager, tradizionalismoak ala liberalismoak ukituriko nazionalisten

artean. Lehenak, hots, nazionalista tradizionalistak, burgesia txiki-ko anti-espainolistak omen ziren, euskal zilegitasunaren izenean, nazionalismo jasangaitza bultzatzen omen zuten: arrazaren, hizkuntzaren eta eskubide historikoen izenean euskaldunentzat Estatu independente bat eskatuz, alegia. Espainiar indarrekin aliantza oro baztertzen zuten. Bigarrenak, berriz, nazionalista liberalak, erdiko burgesiako izanik, industri eta komertzio-alorretan kokatuak omen ziren, erreformen eta ekintza progresiboen bidez Euskal Herriarentzat Estatutu abantailatsu bat ezmatzen omen zutenak. Azken hauek izan dira historikoki irabazle. Apendizean sei dokumentu dakartza. Eta amaieran, bibliografia aberatsa.

- 1978an, A. Elorzak, *Ideologías del nacionalismo vasco*, Ed. Haranburu, Donostia.

Autorea Antzinako Erregimenaren amaierak Euskal Herrian daukan intzidentzia berezia aipatuz hasiko da. Lehenik eta behin, gerra karlistak bortxaren zigilua eta liberalen Espainiarenkiko haustura dutela erakutsiko du. Nahiz eta Kontzertu Ekonomikoek foralitatearen emaitzak bete, Euskal Herriaren iraupenerako foralitate-erregimenak duen imajinarioak dirau, eta hori ez da ahantzi nahi. Guzti honen supiztaile Bizkaiaren industrialtzea dator. Orain foruen galerarekin, hor euskara bera, eta gizarte tradizionalan oinarritzko ziren kultur eta erlijiozko baloreak betiko galtzera doazela jabetzen dira. Eta nola ez, guzti honetan, klase sozial berrien sarrera eta eragina tartekatzen da. 1878tik 1901era Bizkaian monopoliozko burgesia eta proletalgo sozialista ditugu berri-tasunak.

Euskal lurrian, aspaldidanik bizi ziren elementu diferentzia-tzaileak, eta orain industrialtzeak eta klase nagusi berriaren eraketak egiten dituzten berriek, EAJren forma ideologikoen ulermena omen dakarkigute. Modernizazio-gatazken fruitu izango omen litzateke euskal fenomeno nazionalista. Honela ageri da industrialdu diren herrialdeetan nazionalismoa aurrera joatea eta, aldiz, lurlangintzako egituren nagusitasuna dagoenetan ez itsatsi izatea.

Euskal nazionalismoa, etorkizun gabe gelditu den burgesiaren defentsa eta, ondorioz, gizarte atzerakoiaeren malenkonia litzateke; aldiz, aurrelari izanik historiaren norabidean leudeke Estatu modernizatuaren onartzaileak.

- 1979an, Javier Corcuera Atienza-k, *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)*, Ed. Siglo XXI, Madrid.

Hitzaurre gomendatua Manuel Tuñon de Lara-ren eskutik doa. Nazionalismoaren gaiari, ikuspegi politista batetik heldu ordez, historia globalaren metodologiarekin egitearen abantailak azpimarratzen dira. Autoreak, sarrera labor batean, obraren hastapenak nola izan ziren agertzen digu: galdera bikoitz batez hasi nuen lan hau, diosku, hots, ideologiaren munduaren eta klase sozialaren arteko harremanak teorikoki nola elkartzten ziren jakin nahirik, alde batetik, eta ingurune batean nola sortzen den ideologia nazionalista bat hegemoniko bilakatzeraino, nahiz eta bertako klase ekonomiko eta politiko nagusia beste ideologia batekin ari, bestetik. Liburuak sei atal nagusi ditu. Lehenean, baldintzaile historikokak deituan, bandoen arteko gerraren amaiera eta aiton-semetasun unibertsalaren kontzeptua jorratzen dira. Baita karlistaden aurrebaldintzak eta gibeletiko ondorioak ere. Bigarrenean, forutasuna eta industrialtzearen pean, aldakuntza sozio-ekonomiko, aldakuntza juridiko-politikoak, aldakuntza politikoak, eta hauteskunde-mundua Bizkaian eta Bilbon, aztertzen dira. Hirugarrenean, Sabino Arana Goiriren figura ikasten da. Laugarrenean, Aranaren ekintza politikoaren marko politikoa erakusten da, alderdiak eta hauteskundeak nola igarotzen ziren Bizkaian azpimarratuz. Bosgarrenean, Sabino Arana Goiriren ideologia politikoa taxutzen da. Seigarrenean, EAJren eraketa eta ideia nazionalistaren hedakuntza Bizkaian zehar seinatzen da. Azkenik, ondorioak ateratzen entseiatzen da: hogeit hamar proposamen edo ataletan banatzen dizkigu. Bat baino gehiago eztabaidagarriak dira. Funtsean, nazionalismoa onar daiteke, baina horretarako Estatuaren ardatzean itsatsia beharko lukeelako mezua ageri da. Euskal nazionalismoan horri buruz da goen desbideraketa, lehen formulazioan tradizionalista izateari aitzakitzen dio.

– 1979an, Joxe Azurmendik, *Arana Goiriren pentsakera politikoa*, Hordaga, Donostia.

Autoreak liburuaren sorrera nola gertatu zen argitzen digu lehen bost orrialdeetan. Interesik badu deskribapenak, garai hartan euskal produkzio politikoa nolako eragozpenekin aurkitzen zen jakiteko. Lekukotasun ximplea bezain zorrotza da. Ondotik, hamar ataletan Arana Goiriz eta bere ondareaz mende honen hirurogeitamar/laurogeigarren arteko hamarkadan esan direnak bereziki harrotzen ditu, nahiz eta antzinagoko belaunaldiak esandakoak ere tartekatatu. Historia, filosofia, teologia, literatura, hizkuntzalaritza, politika, etab. gurutzatzen ditu bere arrazoitze luzean. Inolaz ere, Sabin Arana Goiri ez dauka baztertzeke. Bere ondoko esaldi honi

aski deritzagu autorearen egiteko moldea seinatzeko: "tripako min eman duena ez da Sabin, oraingo abertzaletasuna baizik. Oraingo abertzaletasunari ozka egin nahi liokete, Aranari zaunga ari diren zakur horiek. Oharkabe-oharkabeen omenaldi egiten diote Aranari, nolana ere..."

Dena den, Aranaren arrazismoa ala "arrazismoa" gorabehera, egungo abertzale sozialistak buruan duena euskal nazio berria bait da, eginahal guztiz enplegatu beharra dauka integrazioaren alde xenofobia txoro gabe. Azkenean hori da kontu. Aranaren ikuspegi horiekin ez herririk eta ez aberirik egin liteke".

- 1981ean, Mauro Elizondo-k, *Sabino Arana, padre de las nacionalidades*, Ed. Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.

Autoreak Engracio Aranzadiren "paper-sorten" artean aurkitutako dokumentu batzuk argitaratzen ditu. Sabino Aranaren eta bere anaia Luisen gutunak, besteak beste. Halere, nire aburuan, argitalpenak garrantzi berezia hartzen du, autoreak, horietan oinarrituz, edo hobe esan, okasio horrekin, abertzaletasunaz jaurtitzeko duen zenbait eritzirengatik. Funtsean, gisa honetan adieraziko digu bere mezua: lehen formulazio abertzalean, autoreak garbi dauka, Sabino Arana independentista izan zela. Halere, bigarren aldi batean, politika praktikoarenean, Sabino gauza honetaz ohartu omen zen, gure Herria independentziara eramateko giza bizitza anitz eskaini beharko zela, baina, horren gainetik, beste balore gailurragorik bazegoela jabetu omen zen, eta balore-hierarkia bat egitean, independentziarena sakrifikatzea erabaki omen zuen. Ondorioz, arrazoizkoa omen da Euskal Nazionalismoa Independentistatik Penintsulako Herrien Interdependentziari so joeratzeko. Aldaketa honetan, garrantzi handikoa izan omen da "erbeste-ko euskaldunek" Kristau-Demokraziaren Internazionallean egin-dako partaidetza.

ETAko abertzaletasuna: gauzatzea eta historia

Lehen euskal nazionalistatik ETAREN abertzaletasunera emandako urratsak inspiratzen dituen ikerle eta idazle politikoak ere ugari ditugu. Gai hau jorratuz, azken atala irekiko dugu. Idatzizko ugari direnez, sailkatuta aipatuko ditugu. Lehen atal batean, abertzaletasun berriaren teorizazioa, deskribapena eta historia landu dituzten obrak sartuko dira. Bigarren atal batean, abertzaleta-

sun berriak marxismoarekin edukitako harremanetan probokaturiko eztabaidaren berri ematen duten obrak joango dira. Hirugarrenean, aberriaren defentsa eta klase-portaera gaiaren inguruko idatziak etorriko dira. Laugarrenean, gaurko giza eta gizarte-jakintzetatik euskal nazio-arazoaz esaten direnak aztertuko ditugu. Finean, bilduma garrantzitsu batzuk eta euskal nazionalismoan pertsonaia historiko izandakoen obra osoak aipatuko ditugu.

- 1962an, Fernando Sarrailh de Ihartzak, *Vasconia*, Ed. Norbait, Buenos Aires.

Liburu hau dugu lehena euskal lehen nazionalismoaren eta ETAren abertzaletasunaren artean gauzatzen hasten diren diferentzien mezua gorpuzten. Liburua, garaiko EAJren jokabidearen kritika zorrotza eta itsumustuko eraso ere bada. Etnologia, hizkuntzalaritza, soziologia, filosofia, politika, etab. sailen ezagutzak, euskal nazioaren superbibentziaren alde erabiltzen dira. 1979an, autore berak, *La nueva Vasconia* izenburuarekin, bertsio berri bat eman zuen. Berritasun nabarmena, sarrera gisa aurrekoari erantsi dizkion ehun orrialdeak dira. Ez da ozpinik eta biperrik falta! Hein berean, autorearen *La Cuestión Vasca* liburuskara ere aipatu behar da. Bere lehen argitalpena, 1965ean, Espainiako Alderdi Komunistak marxista-leninistaren eskutik egon zen. Lau atal ditu. Lehenean, nazionalitatearen teoria agertzen da. Bigarrenean, herrien autodeterminaziorako eskubidea aipatzen da. Hirugarrenean, euskal nazionalismoaren ideologoak baloratzen dira. Laugarrenean, euskal arazoaren eta iraultza sozialistaren harremanak lantzen.

- 1971n, Gisèle Malimi-k, *Le procès de Burgos*, Ed. Gallimard, Paris.

Hitzaurrea, Jean Paul Sartre filosofo ospetsuak egiten du. Gainera, ez da txantxetako. Bertan, ETAren V. Biltzarrak harturiko orientabidea arrazoizkotzat korfirmatzen da. Nazio-Askapeneko borrokak, kezka soziala bere bihurtzen duelarik, munduko zapalduen askapen-katean arrazoizko tokia hartzen du. Bestalde, liburuaren autoreak, bere ikuspegi juridikotik, gertakizun haien analisi zorrotza egiten du. Balio intelektual handieneko lekukotasuna gertatzen da. Mundu osoa zirrarratu zuen prozesu haren ezagutza nahi duenarentzat, ez dago obra errekomentagarriagorik.

- 1972an, Ricardo Kerman Ortiz de Zarate-k, *El problema revolucionario vasco*, Ed. La Pléyade, Buenos Aires.

Hitzaurrea Miguel de Amilibiarena da. Beraren eta liburuaren autorearen artean dauden diferentziak seinalatuz hasten da: bera liberalismo porrokatuan hezia izan den bitartean, autorea aldiz, gurtza sabindarra praktikatzen zen sendi batetik datorrela, guzti honek suposatzen dituen ezberdintasunekin, adierazten zaigu. Elkartu dituen, ETArek ibilbideak Burgosko prozesuaren bidez irradiatutako euskal arazoaren ikuspegi berria da. Autorearen obra, hamabi ataletan zatitzen da. Gaurko euskal "pentsaera" ikuspegi ireki eta desmitifikatzaile batez aurkezten da. Euskal nazionalismoaren historia, berriz, Azkoitiko Zaldunetatik abiatzen du. Amaiera-aitzin, hiru apendiz dakartza: bata, orokorra (Vasconia Dukerriko Euskal Herriaz); biga, ekonomikoa (gaurko potentzia ekonomikoaren bilakaeraz eta etorkizunaz); hirua, Burgosko prozesuko epaituek ETArek Biltzar Ttipiari igorritako idatzia. Bibliografia laburrez amaitzen da.

- 1974ean, Payne Stanley G.-k, *El nacionalismo vasco, de sus orígenes a ETA*, Ed. Dopesa, Madrid.

"Basque nationalism" bezala Renon, University of Nevadak argitaratua da. Euskal nazionalismoaren sorrerak antz aurreratzen ditu. "Konbentzio-Gerra" deituan, jadanik, entseu separatistak antzematen bait ditu. Ez da bakarrik antzeko estrapolazioak egiten. Euskal nazionalismoa aztertzerakoan, "amerikar ikuspegia" nabarmen da.

- 1975ean, Ortizik, *Historia de Euskadi: el nacionalismo vasco y ETA*, Ed. Ruedo Ibérico, Paris.

Ezker abertzalearen ideologia lantzen eta adierazten entseiatuko den pentsalari garrantziko baten obra dugu. Abertzale sozialista batek egin ditzakeen irakurketetarik bat da Ortizik liburu honen bidez euskal historia laburtuz egiten duena. Sintesi erraldoiegia agertzen bazaigu ere, ikuspegi baten logika zorrotza aplikatzen du. Sei atal nagusi eta gibelsolesa ditu. Lehenean, Euskadi konprenitzeko historiaurreaz eta Erdi Aroaz ohar batzuk eskaintzen dira. Bigarrean, Erdi Aroa eta Euskal Foruak agertzen dira. Hirugarrenean, Karlistak eta foralistak: euskal herritar antijakobinismoa XIX. mendean, aipatzen zaigu. Laugarrenean, 1874eko Errestaurazioa eta euskal nazionalismoaren sorrera: independentistak eta kolaborazionistak, aurkezten zaizkigu. Bostgarrenean, Faxismoa euskal nazionalismoaren aurka. Autonomi Estatutua eta Euskadiko Gobernu gerrate zibilean eta erbestealdian, seinalatzen da. Seigarrenean, frankismoaren krisia eta euskal arazoa: ETA, nazio-

-askapenerako euskal mugimendua, ikasten da. Gibelsolasean, berri, euskal abertzaletasunaz eta sozialismoaz gogoetak egiten dira.

- 1977an, Jokin Apalategik, *Nationalisme et question nationale au Pays Basque*, Ed. Elkar, Baiona.

Obra beretsua, 1979an, *Los vascos de la nación al Estado* bezala gaztelaniaz argitara eman zuen Elkar-ek Donostian. Beretsua diogu, zeren eta gaztelaniazko argitalpenak eranskin zenbait bai bait du. Euskal nazioaren defentsan historian zehar Euskal Herriko zazpi herrialdeetan emandako alderdi, organismo, edo mugimendu nazionalisten berri ematen da. Euskal nazioaren aldeko mugimenducel buruz ikuspegi sistematizatu bat lortzen da. Oinarrian, doktoratuko tesi baten gaia izan zen. Obraren konposizioa ondoko molde honetan egina dago. Hitzaurrean, Argalak idatzia, ETAko militante batek bere arrazoiketa bizitzaren prozesuan nola eraikitzen duen erakusten da. Autorearen sarreran, berri, euskal nazioaren aldeko mugimenduak nola eta zergatik ikasteari ekin zion seinalatzen zaigu. Obraren muina hiru zatitan banatzen da. Lehenan, Euskal Herriaz informazio orokorra eskaintzen da. Bigarrenan, egun euskal klase sozialek nazio-arazoaren aitzinean duten portaera agertzen da. Hirugarrenean, nazionalismoa bere ideologia eta mugimendu ezberdinetan aztertzen da: hegoaldean eta iparraldean, alegia. Ondorioak. Bibliografia.

- 1980an, Patrick Busquet eta Claude Vidal-ek, *Le Pays Basque et sa liberté*, Ed. Sycomore, Paris.

Kazetari-estiloan idatzia, ETAren historia kontatzen zaigu. Mugimenduaren ideologia eta estrategia/taktika arazoak nondik nora joan izan diren aski zehatz adierazten da. Metodologiatzat politikazko historia tradizionala hautatzen da.

- Jose Mari Garmendiak, *Historia de ETA*, Ed. Haranburu, Donostia.

Bi tomotan argitaraturiko obra dugu: 1979ko urrian lehena, eta 1980ko maiatzean bigarrena. ETA hastapenetik 1977 arte bere ibilbidean agertzen zaigu. Historialdi horretan gurutzatzen diren datuak ordenatzen entseiatzen da. Halere, autoreak zenbait bidegurutzetan aukera pertsonalak egiten ditu.

- 1981ean, Gurutz Jaureguik, *Ideología y estrategia política de ETA. Análisis de su evolución entre 1959 y 1968*, Ed. Siglo XXI, Madrid. Autore berak, *Contra el estado-nación*, Ed. Siglo XXI, Madrid ere argitaratu du 1988an.

Doktoratuko tesia da. Sarreran, deigarri gertatzen da autoreak *razionalizatze hutsez* Euskal Herrian dagoen gatazka gainditzeko daukan itxaropen inozoa. Sarrera berean ere jadanik agerian jarzen da, gero liburuaren ardatz egingo duen tesia, hots, ETAREN aktibismo armatua eta estrategia, hirugarren munduko ikuspegi batek dominaturik daudela. Gainerakoan, liburuaren parte handi bat ETAN emandako ideologiazko bilakaeraren ikasketaz eta bere estrategiazko eta politikazko gaiez osoturik dago. 1968 arteko ETAREN historia hartzen du ikerketaren mugatzat autoreak. Hori justifikatzerakoan, data horretan ikerketa gelditzea, alegia, autoreak dio, analisi objektibo batek inposaturiko distantzia dela. Arau honen arabera, ezinezkoa litzateke subjektuetan zabaldurik dabilen edozein errealtate ere ikerketa, zientifikoz heltzea. Hainbat giza eta gizarte-jakintza, zientziatik at kokaturik legoke. Zehazkiago eta urraska agerturik, hara nola egitaratua dagoen liburua: Lehen atala, 1936 arteko euskal nazionalismoaren ideologiazko bilakaeraz eta gerraondoko euskal errealtate orokorraraz ari da. Bigarren atala, ETAREN sorreratik bere lehen Biltzar Orokorreraino luzatzen da. Hastapenean, Sabinoren nazionalismoaren berraurrikuntza eta errekupeazioa egiten direla esaten zaigu. Halere, ondotik berehala, lehen aportazio ideologikoak aurkitzen ditu. Hirugarren atala, Sabinoren nazionalismotik gerra iraultzailea izendatzen du. Eskakizun nazionalen funtsa agertzen zaigu. Langileriarengana hurbiltzea. Eredu iraultzailearen aurkikuntza. Bortxari buruzko eztabaida. Hirugarren munduko eredu iraultzailea egokitzea. Laugarren atala, Euskadiren okupazioari ihardespene bezala, hirugarren mundutiar erako askatasunerako gerra deitzen da. ETAREN sendotzea eta hastapenak. Ideologiazko ikuspegi ezberdinen eztanda. ETA berriaren ideologiazko eta politikazko planteamenduak. Euskadiko langileria Euskal Herriarekin parekatzea. *Brankaren* ideologiazko eta politikazko planteamenduak. Euskal Herriaren eta euskal komunitate nazionalistaren arteko nahasketa. V. Biltzarra, tesi kolonialisten sendokuntza eta hirugarren mundutiar strategiaren ezarketa. Bibliografiako eskaintza batekin burutzen da.

- 1987an, Pedro Ibarra Güell-ek, *La evolución estratégica de ETA (1963-1987)*, Ed. Kriselu, Donostia.

Bere xedeari buruzko ibilaldian ETAk helburuak eta bitartekoak nola elkartzen dituen jakin nahi omen du. Zehazki, adierazpen bera formulatuz, gaurko bortxazko praktikak zergatik eta nola biharko Euskadi autodeterminatura eramaten duen jakin gura

omen du. Liburu osoa, bada, borroka armatuaren estrategia autonomoa eztabaidatzera bideratzen da. Bederatzi atal ditu. Gibelso-lasa eta Bibliografia labor bat.

- 1987an, Pierre Letamendiak, *Nationalismes au Pays Basque*, Ed. Presses Universitaires de Bordeaux, Bordele.

Euskal Herrian euskal, frantses eta espainol nazionalismoak elkarri aurre eman eta elkarrekin bizi egiten direla baieztatuz gero, Euskal Herriko nazionalismoak pluralean aipatzea justifikaturik dagoela esanez ematen dio hasiera obrari. Harrigarria deritzo, Hegoaldeari dagokionean, euskara eta euskal kultur berezitasunak beheraka eta desagertzera bideratu diren beran, nazionalismoa gora egiten joan dela konstatatzeari. Iparraldean, aldiz, euskara aski gora atxiki denean, nazionalismoak ez duela garrantzirik diosku. Azken aipamen honek desio bat gehiago dirudi bere analisisian. Zeren, gaur-gaurkoz, oraino bozketan % 15 igarotzera ailegatu ez bada ere, horretarako beharrezko diren erroak emanak dituela frogatu daitekeena bait da. Dimitri Georges Lavroff-en ohikeriazko hitzaurrearen ondotik, autoreak bere hitzaurrea dakar. Gainerako obra, lau ataletan zatiturik dator. Lehenean, euskal arazoa eta Euskal Herria aipatzen dira. Bigarrean, euskal mugimendu nazionalistaren oinarri historiko, sozial eta kulturali heltzen zaie. Hirugarrenean, polaritateen gainjarpena seinatzen du. Baita erdigunearen eta periferiaren arteko gatazka ere. Eta azken finean, periferiko/barneko bitasuna aztertzen da. Laugarrenean, euskal nazionalismoaren bilakaera, hausketa eta bere dinamika soziala ikertzen dira. Bibliografiako aipamenekin amaitzen da.

Abertzaletasuna eta marxismoa

Abertzaletasuna eta marxismoa deitu gaia, garrantzi handiko debateen inspiratzaile izan da. Gainera, obrarik sendoenak eta landuenak euskaraz sortu izan dira eztabaida honen inguruan. Haue-tariko zenbait aurkeztuko dugu.

- 1971n, Joxe Azurmendik, *Hizkuntza, etnia eta marxismoa*, Euskal Elkargoa, Baiona.

Abertzaletasuna, nazioaren defentsa denez, ez al dago marxismoaren, internazionalismoaren politika denez, aurka jarririk? Erantzunak, modu ezberdinetakoak eman izan dira. Baita Euskal Herrian ere. Marxismoa abertzaletasunaren ukoa da, esan izan zai-

gu alde batetik, baina, bestetik ere, marxismoa izan da abertzaletasunaren defendatzaile suharrena eta sakonena. Liburu honek filosofia sozial dialektikoaren ikuspuntutik so egiaztatzen du arazoa. Xedetzat, berriz, binomioaren terminoak elkarri doitzea du. Liburua, hiru ataletan plangintzatua da. Lehenean, *klaseak eta herriak* aztertzen dira. Bigarrenean, *Hizkuntza eta gizarte-gauzaren basia* miatzen dira. Hirugarrenean, *Hiru adibide* aipatzen dira, Txekoslovakia, Suomi eta Viet-Nam, hain zuzen ere. Gainera, liburuak hitzaurre-kapitulu luze eta sakon bat ere badu: liburuaren sorrerako arrazoiak ematen dira; euskal arazo deitua zerk egiten duen agertzen da; herri-arazoaren inportantzia pentsaera sozialistan azpimarratzen zaigu; euskal arazoaren testuinguruak gogorarazten zaizkigu; azkenik, *azkeneko zera batzuk aipatzeko*, "liburu honek ez dihardu marxismoaz erabat, problema bati buruzko zenbait uste-mota marxistaz baino", "guk marxismoa printzipio kritiko bezala erabili dugu batez ere, hipotesi bezala eta ez tesi bezala", etab., alegia.

– 1972an, Gotzon M. Garatek, *Marx eta nazioa*, Etor, Bilbo.

Autoreak, hemen aipatzen dugun obra honetaz gain, besterik ere argitaratu digu gai beraz; gogora ditzagun: 1971n *Marxen marxismoa*; 1974ean, *Marxen ondoko errebisionismoa*. Rosa Luxemburg, *Leninen bizitza*; 1974ean, eta gaztelaniaz, *Marx y los nacionalismos separatistas*, eta 1977an, *Marxen marxismoa; maoismoa*, alegia. Lehen eta behin, bere metodoak gure atentzioa bereganatzen du. Marxen pentsaera zorroztarri batetik igaro erazten du: bere psikologiazko egiturarenetik, hain zuzen. Marx aberri gabe bat agertzen digu. Ondorioz, Marx aberriarekin topatzean, oztopo batekin aurkitzen da. Aldiz, Marxentzat gizarteko mailak (klaseak) dira garrantzitsuenak esango zaigu. Nazioaren esanahia, Marxentzat, gizadiaren kondairazko prozesuarekin ezinbestean loturik dago. Nazioa, giza talde berezi baten komunismorako bidearen tarte bakan bat da. Areago, esango zaigu, proletalgoaren diktadura estatu-nazio erdirakoien nazionalismo-mota bat besterik ez dela.

– 1974ean, Paulo Iztueta eta Jokin Apalategik, *Marxismoa eta nazional arazoa Euskal Herrian*, Zabal, Baiona.

Obra bera 1977an gaztelaniaz argitaratu zen. Euskal politikagintza marxismoaren metodoarekin gidatu nahi izan zen egunetik, auzitan sartu zen abertzaletasuna, esango zaigu. Marxismoaren nazio-arazoiari buruzko analisisa bere osotasunean eman nahi bada, politikagintza konkretu batean beharko dira aztertu, nola teoriza-

tze-alderdia hala honen itzulpen praktikoa, gehituko da. Eskaintza baten ondotik, aitzin-solasean, Euskal Herrian ordurarte arazoaz idatzi denaren laburbilduma egiten da lehenik, eta ondotik, erabilitako metodoaren berri ematen da, atal guztietan aldagai berdinak erabiltzen ditugu. Aldagai hauek lau dira: kontzeptualizazioa; eta-paka, estrategia eta taktika eta soluziobideak. Liburuak lau atal ditu: lehenean, lehenengo lehendakari errusiarrak, III. Internazionala eta bere euskaldun jarraitzaileak agertzen dira. Bigarrenean, kolonialismoa eta inperialismoaren menpeko iraultza nazionalak eta beren euskaldun jarraitzaileak ikasten dira. Hirugarrenean, Burgosko epaituen eta beste zenbait militante marxista-leninistaren tesiak aztertzen dira. Laugarrenean, gogoetaren ondorioak zehazki ateratzen dira. Nazionalismoaren edukinean hiru alderdi bereiziz amaitzen da saiakera: 1) Herritasuna (hizkuntza, folklorea, tradizioa, historia, arbasoen ondare material eta izpiritual oro); 2) Botere politikoa. Nazioek beren nortasuna eta autonomia gorde eta aurrerabidean ikusteko, aginte-maila ezberdinak behar izaten dituzte historian zehar. Gaur egun, Estatuaren epean gaudenez gero, nazio baten jitea bilakatzeko, nahitanahiezko gertatzen da Estatu autonomo eta independentearen beharra; 3) Sistema soziala. Mugimendu nazionalak bera zuzentzen eta kontrolatzen duen klasearen neurriko sistema soziala hartzen du. Nazionalismoa, berez, ez burgesa ez langiletiarra da. Hori bai, errealizatzean, burgesa ala langiletiarra izango da. Bietarik bat, nahitanahiez.

Abertzaletasuna eta klase-borroka

Aurreko atalaren jarraipen bezala eman dezakegu orain bertan abordatuko dugun berri hau, hots, *aberria eta klasea* helburuen arteko harremanak aztertuz egindako eztabaida. Zenbakietan obra gehiegi ez bada ere, gai berezi honetaz, euskal produkzioan daude-nak, sendoak eta aberatsak dira.

- 1976an, Beltzak, *Nacionalismo vasco y clases sociales*, Txertoa, Donostia.

Soziologiako metodoz atonduriko obra aberats baten aitzinean gaude. Sail honetan egin den libururik mardulena dugu oraingoz. Arazo nazionalaren eta nazionalismoaren artean dauden harremanak ikasten dira, alde batetik, eta guzti horrek Euskal Herriko klase ezberdinekin duen zerikusia, bestetik. Halere, nahiz eta Euskal Herriaz hitz egin, bereziki eta partikularzki arazo naziona-

laren koadro orokorraz eginikako gogoeta dugu. Euskal Herria, sistema kapitalistaren zati aurreratua barnean kokaturik aurkitzen denez, konparaketa-erreferentziak Britainia Haundian, Frantzia, Espainian eta Quebec-en atzematen dira. Sei atal nagusi izanik, ondoko moldean banaturik daude. Lehena, etnozentrismoaren krisiaz ari da. Bigarrena, burges-ttiki zatikiaz, klase klabea deitzen delarik. Hirugarrena, gizarte internazionalaz, kapitalismoa eta arazo nazionala aipatuz. Laugarrena, burgesia nazionalaz, bere existentzia eta mugak aztertzen direlarik. Bostgarrenean, langile-riarekin zerikusian dauden arazoak ikertzen dira. Seigarrenean, kontzientzia nazionalaren osaketan parte hartzen duten faktore kolektiboak seinatzen dira. Testu osoa, ohar eta bibliografi erreferentzia ugari jositako ageri da.

– 1977an, J. L. Davant-ek, *Aberri eta klase-burruka euskal mugimenduan*, Elkar, Baiona.

Hamar atalen luzean irekiriko obra dugu. Hitzaurrea, Paulo Iztuetak labur-labur egiten dio: autoreak ETAREN eta Enbataren ezagutza aparta ageri duela, azpimarratzen du. Autoreak, aitzin-solasean, galdera baten bidez liburuaren gidoia edo tesia laburtzen du: “gure burruka, aberriaren aldekoa ote da bakarrik, ala klase-burruka bat ahal da ber denboran?”. Lehen atalean, “euskal mugimenduaren etorkia” deituan, Nafarroako Erreina, Euskal Estatu bat, beregaintasun osoarekin, esaten zaigu. Eta jarraipenean, euskal askatasunaren hondatzea, karlistadak, Sabinen “euzkotarren aberria Euzkadi da”, eta sozial-inperialkeria espainola, datoz. Historiako apunte batzuen itxura dute. Bigarrenean, Euzko Alderdi Jeltzalea aztertzen da: masa-borroka eta bozkak, Euskadiko Gobernuaren erbestean, abertzale-elkarteen oztupoa, lehengokeriaren astuna, gaien bidez. Hirugarrenean, Euskadiko Langile-Klasearen elkartasun isilkariak deituan, Euskal Langileen Elkartasuna, eta Langile Batzordeak, beren adierazpenetan eta jokabidean aztertzen dira. Laugarrenean, ETA: Euskadi Ta Askatasuna, izenburupean, ETAREN lehenbiziko zatiketa (1966), V. Biltzarra (1966-1967), kapitalismo orobiltzailea eta iraultza herrikoia, ETAKO bigarren zatiketa (1970), Burgosen ondotik ETAKO ikuspidean egin duen aurrerapena, ETAREN Seigarren Biltzar Nagusia eta ETAKO hilak deskribatzen dira. Bostgarrenean, Ukatzailen, bereizleen eta balatzaileen erasoaren izenez, abertzaleen arteko eztabaidak, eta *Temps Modernes* agerkariak aberri zapalduen idatziak gogorazten ditu. Seigarrenean, Enbata oldea du gaitzat eta euskal demokrazia baten alde, politikazko federalismotik federalismo

osora, sozialismo bat da Enbataren federalismoa, Frantziako gobernuak Enbata debekatu du eta batasunari buruz, deitu atalez osaturik dago. Zazpigarrenean, ezker abertzale baten beharra seinaturik, Alderdi Jeltzalea berriz gobernurako bidean?, ETaren nekeak, Indar berriak, eta Herriko Alderdi Sozialista (H.A.S.) aipatzen dira. Zortzigarrenean, geroari begira ari da. Bederatzigarrenean, "azken berri" izendatuan, ezker abertzalea, beste ezkerria, eta 36ko estatutuaren inguruko indarrak aipatzen dira. Hamargarrenean, bilduma eginez, euskal indarrak aipatzen dira. Irakurleari azken hitza, euskal indarren zerrenda eta bibliografia dira amaierako gaiak.

– 1979an, M. Onaindiak, *La lucha de clases en Euskadi*, Ed. Hordago, Donostia.

Hitzaurrean, obraren xedea zehazki mugatzen zaigu, autoreak zera dioenean, "Euskadiren historia bat egiteko ahalegina dela", hori bai, kapitalismo internazionalaren berri, inperialismoak azken berrogei urte hauetan egindakoarena, eta guzti horrek zer moldean klase-borroka soziologikoki bezala politikoki aldatzen duen jakin nahi da, ordea. Historia horren funtsean, gogoeta-ardatz bat ere ageri da: gure egunetan, 1930ean ez bezala, "askatasun demokratikoak" aldaketa sozial sakonik gabe heldu zaizkigula, eta horren kausa, ibilbide horretan langileriarri ezarritako manupeko rola egiten da. Guzti hau III. Internazionalak utzitako ondarea omen da. European, ordea, ezin konprenituzkoa omen da iraultza sozialista bat funtsean sozialismoa ez badakarkigu; aldiz, periferian (Errusian, Txinan, eta abar) besterik omen da. Halere, azken urtetan Euskal Herriari Estatuaren barnean emandako aldakuntzen ondorioz tokatu zaiona garrantzi handienekoa omen da: Euskadiren forma lortzean, autoemanzipazio planteamendurako beharrezko ziren lanabesak erdietsi omen dira. Obra egiten duten atal nagusiak, honela izendatzen dira: autarkia; katea inperialistan ekonomia integratuzko iragapena; bilakaera ekonomikoa; ekonomiazko gibeleraketa; krisi orokorra, 1973an; Iragapen politikoaren hastapenak; 1977ko ekainak 15; epe konstituziogilea; agintekeriazko estatukeria; Nafarroa, Gobernu berriaren sorturiko egoeraren analisia; eta finean, bibliografia labur bat.

Abertzaletasuna eta giza eta gizarte-jakintzak

Giza eta gizarte-jakintzen sarrera oso nabarmena da Euskal Herriko ikerketen munduan. Uhin eta molde berri horrek euskal

abertzaletasunaren gaia ere ukitu du. Dagoeneko, gainera, obra ederrik ere gauzatu da euskal arazoaren hurbiltze berri honi esker. Gaur-gaurkoz, bibliografia nagusienaren berri ematera mugatzen dugu sail honi buruzko gure aipamena, lan honek duen mugaren barnean jarraituz.

- 1981ean, Juan Aranzadik, *Milenarismo vasco*, Taurus, Madrid.

Saiakera hau, giza eta gizarte-jakintzen sailean kokatzea jadanik arazo bazaigu ere, filosofia, erlijioen historia, antropologia, politika, eta abarren gurutzatetik dabilela esan dezakegu. Eta nagusiki autorearen baitan ageri den taxukera zientifikorako jokabide-faltak konbaraketarako gai ez diren terminoak gurutzatzea eta neurtzera daramala baieztatzen dugu. Aitzin-solasean, liburuaren ideia nola sortu zen, eta bertan aurkezten diren lanak nola gauzatu ziren agertzen zaigu. Nazionalismoak salatzen dituenean, hots, espainola eta euskalduna, gaurko Euskal Herriko gatazkan, halere, euskal nazionalismoa gorrotatu egiten du; aldiz, egoki deritzo, Espainiak nazio izatea arriskuan jarriz, Euskadi irentsirik, benetako nazio moderno bilakatzeari. Sarrera deitu atalean, euskal milenarismoa eta antisemitismo demokratikoa aipatzen ditu. Lehen atalean, milenarismoa, erlijioa eta gizartea gurutzatzen dira. Bigarrenean, Bizkaiko Erdi Aroko milenarismoa, Durangoko hereseetan gauzatzen du. Hirugarrenean, euskal urrezko aroaren eta milenioaren arteko harremanak artekatzen dira.

- 1983an, José Ramón Recalde, *La construcción de las naciones, Siglo XXI*, Madrid.

Politika-ikasketen saileko lana dugu. Gaur bizirik eta bilakaturik ezagutzen dugun nazio-mota bakarra, "Estatu-nazioarena" dela, esango zaigu. Ondorioz euskal nazioaz dagoen diskurtsu oro mitifikatzaile litzateke. Frantziar Iraultzak dakarkigun "borondatearen" baitako nazioaren ikasketa egiten da. Etorkizuneko gizarte razionalizatuan antzinateko nazioaren ikuspegi esentzialista eta historizistak ez luteke justifikaziorik.

- 1983an, Francis Jaureguiberri, *Question nationale et mouvements sociaux en Pays Basque Sud*, E.H.E.S.S., Paris.

Parisen aurkezturiko doktoratuko tesia da. Soziologi sailean kokatzen da. Oraino ez da inprentatzerik egin. Ezagutzen dugun argitalpena roneoz egina da. Lanaren sarreran, euskal arazoaz dau den klitxe ezberdinen berri ematen zaigu. Banan-banan klitxe ho-

rien ahuleziak seinalatuz gero, baztertu egiten zaizkigu. Gisa honetan, autoreak, bere lana besterik dela agertzeko oina hartzen du: euskal mugimendu nazionalaren eta gainerako mugimendu sozialaren harremanak analisatzea dela xede adierazten zaigu. Horretarako akzionalismo soziologikoaren barnean kokatzen da, hots, euskal mugimendu nazionalaren azalpen esentzialista eta histori-zistaren aurka, harreman sozial eta historikoez osaturiko *egitura* ikertzera doa. Mugimendu nazionala, mugimendu sozialen kategorian barne hartuta, akzionalismoaren metodologiarekin aztertean datza obraren originaltasun nagusia. Obraren aurkibidea, ondoko hau da: Lehen zatia: Foruetatik lehen euskal nazionalismoa deitzen da. Bere ataletan, ondoko gai hauek aipatzen dira: Foruak; erakundeak eta euskal gizarte tradizionala; aldaketaren soziologia; gizarte tradizionalen krisia eta gerra karlistak; bilakera kapitalista; Euskal Herrian industri gizartearen agerpena eta ezarpena; Nazionalaz; lehen euskal nazionalismoaz; aberria klaseekin borrokan; autonomi estatutua eta gerra zibila Euskal Herrian. Bigarren zatia: nazionalismo berritik euskal mugimendura izendatzen da. Osatzen duten gaiak hauek dira: Hogei urte; ETA edo nazionalismo iraultzailea; errebeldeen fabrikazioa (1960-1967); euskal nazionalismo berria; etorkinen integrazioa eta euskal mugimenduan parte hartzea; bideen gurutzatzeak: frankismoaren ondotiko Euskal Herria; arazo nazionala eta langile-mugimendua; arazo nazionala eta mugimendu sozial berriak; antinuklearren kasua. Ondorioetan, euskal mugimenduaren leherketa aipatzen da. Bibliografia. Dokumentu gehigarriak.

- 1984ean, Mikel Urkolak, *Hacia el triunfo de la Nación Vasca*, Ed. Haranburu, Donostia.

Psikologia sozialeko sailean irakurritako doktoratuko tesia da batezbeste. Gehigarririk badu, eta baita ezabatzerik ere. Aitzin-solasean zehaztasun osoz guzti horren berri ematen da. Gipuzkoako unibertsitarien artean 1982ko maiatzean eramanikako inkesta bat du oinarrian ikerketak. Obrak bost atal nagusi ditu. Lehenean, konstatazio sozial batekin hasten da aipamena, hots, Gipuzkoan bizi direnen artean nazio ezberdinetakoak dauzkagu, baldin eta "nazioarentzat" erizpide bezala, norbera jaio den lurra, eta "aberriarentzat", arbasoen jaioterriarena erabiltzen badira. Hizkuntzaren kriterioa neurritzat hartzen badugu, ez gara hobeto aterako. Erakunde politikoekin ere, ez gara elkartuko. Berehala subjektibitate nazionala aztertzea igarotzen da. Paradoxa bat badirudi ere, nazioaren elementu subjektiboak ditugu gaur egungo

egoeran objektiboena eta egiaztagarriena; hau horrela, nazioari buruzko aukera libre bat egiten ez uztea, giza eskubideen aurkako jokabide arbuigarria ageri dela esango zaigu. Ikerketaren xedeak aipatzen dira jarraian: Euskal Herrian gertatzen dena, Psikologia Sozialaren ikuspegitik aztertzea izan da lehenik, horretarako oinarriko bezala fenomeno abertzalearen ezagutza lehentasunez hautatu da. Bigarrenean, kontzeptuen ikasketa burutzen da: etniazko lotura, eta nazio-erreferentzia, alegia. Hirugarrenean, inkestaren emaitzak aurkeztu eta gero analisatzen dira. Horretarako erabilitako metodoa seinatzen da. Laugarrenean, ideologiazko interpretazioa aipatzen da. Bostgarrenean, ikerketaren aportunazioak nabarmentzen dira. Apendizean lau mezu seinatzen dira. Amaiera, bibliografia aberats batek jartzen dio lanari.

- 1984ean, Jesus Azconak, *Etnia y nacionalismo vasco, una aproximación desde la antropología*, Ed. Anthropos, Barcelona.

Terminologi arazoak aztertuz hasten du autoreak bere obra. Antropologian muga bat jartzen hasirik, 1970eko urteen inguruan ezartzen du etniko eta etnizitate terminoei berritasun-usaina eman zaionekoa. Orainez gero, etnikoa eta etnizitatea, talde batek bestekiko duen diferentziazioa eta oposaketaren aldaketazko historia adieraztera igaro omen da. Ez lehenago bezala kultura baten berdintasunezko historia agertzera. Azken hau omen da J.M. Barandiaranek egin duena. Halere, lehengo eta oraingo antropologoak elkartzen dituen zerbait ba omen dago: arlo politikoan konprometitzeko duten aurreritzi zaharra, alegia. Obraren atal nagusiak honela taxutuak daude: herriak eta antropologiarekin hasten da. Diferentzialitate nazionalaren eraikuntza dator ondotik. Hirugarrenik, Jorge de Oteiza eta estetika nazionalaren elaborazio-proiektuari ekiten zaio. Gibel-solasean, gizartea eta boterea gaiaz dihardu, zapalkuntzaren antropologia ireki nahirik, autoreak dioenez. Bibliografiarekin ixten da obra.

- 1984ean, Alfonso Perez Agotek, *La reproducción del nacionalismo. El caso vasco*. Siglo XXI, Madrid.

Izendaturiko obraren komentarioa egin aurretik, esan dezagun, autoreak beste zenbait obra ere eskaini diola gai berari. Besteak beste, *El nacionalismo vasco a la hora del franquismo*, Ed. Siglo XXI, Madrid, gogoratuko dugu. Aipaturiko lanari dagokionean, beharbada, autoreak gaiari eskainitakoen artean garrantzikoena dena, soziologiazko metodologiaz buruturik egoteak ematen dio

berezitasun larriena. Hitzaurrea, ezagutzaren zientziatzko kontsiderazio zenbaitez gauzatu, xede baten formulatzaile ere bada, hots: Nazioaren fenomeno eta nazionalismoarena funtsezko diren bi une metodologikotan zatikatzen direla, fenomenologikoan eta genetikoan. Nazioa gaur-gaurkoz fenomeno sozialen alorrean kokatu behar omen da, inola ere ez, ordea, kontzeptu zientifikoen. Baieztapen honek osagarri gisa beste kontsiderazio bat darma, hots: Durkheimek inspiraturiko "kontzientzia kolektiboarena", hain zuen. Identitate kolektiboak bere proiektio bezala Nazioa omen dakar, eta nola batak hala besteak objektibazioaren bi forma ahalezko funtzionamenduan ezartzen omen ditu: elkarrekiko ezagutzarena (nabartasun sozialean gauzatzen dena) eta objektibazio politikoarena (bortxaren monopolioan itzulikatzen dena). Forma bien ez-egokitzeak Estatuaren zilegitasunezko krisia ekar dezake.

Lehen atalean, identitate kolektiboa definitzen da, nazionalismoaren eredu soziologiko bat eraiki nahirik. Bigarrenean, Euskal Herrian Estatuak edukiriko zilegitasuna aztertzen da. Estatu frankistak adierazpen publiko oro isiltzean, klandestinitate kolektibo bat sortu omen zuen. Eta bere adierazpen bakarra bortxa itzulikatu omen zen. Hirugarrenean, kontzientzia nazionalistaren erreproduktzio prozesu sozialean agertzen zaigu: sendia, eliza, elkarte-mundua eta bereziki lagun-taldea seinatzen dira. Bi appendizek burutzen dute lana.

Soziologiako terminologian usuario gabe irakurketara doanari zail gertatuko zaio ulermen osora ailegatzea. Bi ideia nagusi daude nazioari dagokionean: batetik, nazioa ez dela kontzeptu zientifikoa, baina hau bera esan liteke autoreak normalizatutzat ematen dituen beste hainbat kontzeptu sozio-politiko ez; besteak beste, Estatuaz. Bestetik, Euskal Herrian bortxa politikoak ihardespen sozial bezala funtzionatu badu, frankismoak ezarritako adierazpen-inguraketagatik izan dela dioenean, adibidez, gogoratu behar litzaioke, gaur oraino ere, adierazpen-murrizketak baduela presentziarik independentismoarekiko. Hori ote da bortxaren iraupenaren arrazoi soila?

- 1985ean, Ander Gurruchagak, *El código nacionalista vasco durante el franquismo*, Ed. Anthropos, Barcelona.

Doktoratutzako tesia, soziologiako giroan umoturiko obra dugu. Hitzaurrea, Alfonso Perez Agotek egiten dio: soziologiaren espresio sakonenetariko bezala aurkezten du nazionalismoari bu-

ruzko ikerketen arloa, batetik, eta bestetik, metodologiazko zenbait ohar egiten du, oraingoan Max Weber bereziki parafraseatuz. Obra honen autoreak, bere aldetik, sarrerako hitzetan, Euskal Herrian, gatazka nazionala, soziabilitatearen gainean ari den gatazka dela diosku. Bere lanean zehar presente ageri den galdera nagusia, berriz, frankismo-aroan kontzientzia nazionalistak eskualde berriak zergatik bereganatzen dituen eta bere adierazpenetan gogortzen den, galdera dugu. Bere maisu den A. Perez Agoteren antzeko ondorioetara ailegatzen da: isileko gizarte bihurtzeak nazionalismoaren berritze hori esplikatuko omen luke. Eta bera produzitzen den mekanismoen zerrenda, sendiak, lagun-taldeak, elkarte-bizitzak eta Elizak egiten omen dute. Obraren atal nagusiak honela izenburuturik daude: Lehena, nazionalismo periferikoa eta diferentzialitatearen logika. Bigarrena, euskal nazionalismoaren kapitalismo sinbolikoa. Hirugarrena, isileko euskal gizartea. Laugarrena, aldaketa sozio-ekonomiko eta politiko-kulturalen adierazpena. Bostgarrena, uko ofiziala eta bere ondorio sozialak: zigorra. Seigarrena, frankismoan zehar Euskal Herriko komunikazioaren egitura. Ondorio orokorrak. Bibliografia.

- 1985ean, Jokin Apalategi, *Los vascos de la autonomía a la independencia*, Ed. Txertoa, Donostia.

Soziologia politikoaren alorrean kokatzen den ikerketa dugu. Liburuak bigarren mailako izenburutzat duena barne-funtsaren adierazle dugu: euskal nazioaren eraketa eta bilakaera, alegia. Euskal Herrian, nazionalismoa, jokabide politiko sistematizatu bezala hemeretzigarren mendearen azken urteetan zutitzen bada ere, euskal nazioaren kontzientziak eta aipamenak mende ugari ditu. Hitzaurrean, nazio kontzeptuaz dauzkagun ezagutzen berri emanez, euskal kultur munduan beren korrespondentziak non dauden seinalatzen zaigu. Gaur egun, soziologoaren artean modan badago ere, euskal mugimendu nazionalaren kausatzat frankismoaren jokabide itsua ezartzea, liburuan argi uzten da, euskal nazionalismoa politika liberalaren egunetan sortzen dela, eta diktadurez aparte, politika errepublikazaleetan, sozialistetan, etab., beti aurrera egiten ari dela bere bilakaeran eta onarpen sozialean. Euskal nazioaren defentsan, nazionalismoaz beste sistemarik eman izan da, adibidez, foralismo-mota bat (ez foralismo guztiak). Areago, euskal nazioaren defentsa hori, garaian garaiko beharrei ihardesteko ideologia eta errepresentazio sozial ugari jantzirik egin izan da. Azken finean, nazionalismoaren aroan, alderdi, organismo, elkarte eta kolektibo-mota ugari eratu izan da euskal nazioaren

defentsa bilakatzeko. Guzti honen berri ematen zaigu obran zehar. Obra, ondoko ataletan egitaraturik dago. Lehenean, euskal nazioaren ikuspegi politikoak hamazortzigarren mendetik frankismorainokoa agertzen zaizkigu. Erro historikoak eta oinarritze zientifikoak bereizten direlarik. Bigarrenean, Nazio-Askapenerako euskal mugimendu iraultzailean gauzatzen diren euskal nazioaren ikuspegi politikoak aipatzen dira. Amaitzeko, euskal nazionalismoaz bibliografia aberatsa ematen da.

- 1989an Alfonso Perez Agote (Ed.), *Sociología del nacionalismo vasco*, Ed. Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

II. Euskal Mundu-Biltzarraren gertaldian, soziologiako departamentuak nazionalismoaren gaiaz eraturako ponentzia eta komunikazioen bilduma ematen zaigu. Lana bi zati nagusitan banaturik dator. Lehenean, Biltzarrean aurkezturiko ponentziak datoz, eta bigarrenean, idatzita Biltzarreko batzordeari igorritako komunikazioak. Lehen zatia da nagusia eta hirutan berezi dute: lehenean, nazionalismoaren dimentsio mikrosoziala aztertzen da. Bigarrenean, nazio-arazoan dagoen oinarri etnikoaz ari direnak datoz. Hirugarrenean, maila makrosoziala duten ikerketen saila dator. Bigarren zatia, aldi berean, hiru ataletan banatzen da. Lehenean, teoriarako arazoak aipamenak daude. Bigarrenean, Espainiar Estatuari buruzkoak. Hirugarrenean, euskal kasura mugatzen direnak. Orokorki baloratu nahirik, esan dezakegu, oso gauza gutxi dagoela ikerketa-sailean berritasunik duenik. Biltzar hauetan gertatu ohi denez, lan anitz eta anitz beren autoreek gaiari buruz duten ikuspegi sintetikoa izatetik ez dira igarotzen. Beste batzuetan, berriz, presentzia zuritzeko idatziriko ohar desalbanduak dirateke.

Abertzaltasunaz eginiko bibliografiako ikasbide honen amaieran, beste bi iturritara luzatu nahi genuke gure behatz seinaltzailea. Batetik, aldizkari nazionalista historikoen bildumazko argitarapen berriak gogoratu behar ditugu. Eta bestetik, abertzale historiko batzuen obra osoen bildumen argitalpenak gomendatu behar ditugu.

Lehenari dagokionean, aipatzekoak dira:

- 1977an, *Galeuzka*, aldizkaria, Leopoldo Zugaza, Durango. 1945ean sortu zen erbesteraturik zeuden euskaldun, galiziar eta katalanen elkartetik. Buenos Airesen argitaratu zen.

- 1977an, *Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa*, 3 aletan, Arg. Leopoldo Zugaza, Durango.
- 1979an, *Branka* aldizkari abertzale sozialista, 2 aletan, Ediciones Vascas, Donostia.
- 1979 eta hurrengoetan, *Documentos*, ETAREN idatziak, 18 aletan, Hordago, Donostia.
- 1986an, *Gudari*, Euzkadiko Gobernuaren Defentsako Departamentuaren aldizkaria, Eguzki, Bilbo.

Abertzale historiko batzuen obren bildumak:

- 1976an, Arturo Campion, *Discursos políticos y literarios*, Ed. G.E.V., Bilbo.
- 1980an, eta hurrengoetan, Sabino Arana Goiri, *Obras completas*, 3 aletan, Sendoa, Donostia.
- 1982an eta hurr., Manuel de Irujo, *Obras completas*, 7 aletan, Idatz-Ekintza, Bilbo.
- 1982an eta hurr., Javier Landaburu, *Obras completas*, 6 aletan, Idatz-Ekintza, Bilbo.
- 1982an eta hurr., *Biografía de José Antonio de Aguirre*, 4 aletan, Idatz-Ekintza, Bilbo.
- 1986an, Telesforo Monzon, *Hitzak eta idazkiak*, 6 aletan, Jaizkibel, Zarautz.

J. A.

Aipatutako bibliografia

- AGIRRE, J.A. (1978): *Veinte años de gestión del Gobierno Vasco (1936-1956-*
Durango: Ed. Leopoldo Zugaza.
- APALATEGI, J. (1977): *Nationalisme et question nationale au Pays Basque*. Baiona: Ed. Elkar.
- APALATEGI, J. (1985): *Los vascos de la autonomía a la independencia*. Donostia: Ed. Txertoa.
- APALATEGI, J. (1987): *Gatazka eta bortxa, Euskal Herriaren eredu*. Donostia: Kriselu.
- APALATEGI, J. (1988): *Herria: sistema eta teoriak*. Donostia: Kriselu.
- ARANA GOIRI, S. (1980 eta hur.): *Obras Completas*, 3 aletan. Donostia: Sendoa.
- ARANZADI, J. (1981): *Milenarismo vasco*. Madrid: Taurus.
- ARTOLA, M. (1974): *Partidos y programas políticos*. Madrid: Ed. Aguilar.
- AZCONA, J. (1984): *Etnia y nacionalismo vasco. Una aproximación desde la antropología*. Barcelona: Ed. Anthropos.
- AZURMENDI, J. (1971): *Hizkuntza, etnia eta marxismoa*. Baiona: Euskal Elkargoa.
- AZURMENDI, J. (1979): *PSOE eta euskal abertzaletasuna*. Donostia: Hordago.
- AZURMENDI, J. (1979): *Arana Goiriren pentsakera politikoa*. Donostia: Hordago.
- BELTZA (1974): *El nacionalismo vasco (de 1876 a 1936)*. Hendaia: Mugalde.
- BELTZA (1976): *Nacionalismo vasco y clases sociales*. Donostia: Ed. Txertoa.
- BELTZA (1978): *Del Carlismo al Nacionalismo burgués*. Donostia: Ed. Txertoa.
- BEURKO, S. de (1977): *Gudarvis. Recuerdos de la guerra*. Bilbo: Ed. Gran Enciclopedia Vasca.
- BIDART, P. (1977): *Le pouvoir politique à Baigorri*. Baiona: Editions Ipar.
- Biografía de José Antonio de Aguirre*. 4 aletan. Bilbo: Idatz-Ekintza, (1982 eta hur.).
- Branka*. 2 aletan. Donostia: Ediciones Vascas.
- BUSQUET, P.; VIDAL, C. (1980): *Le Pays Basque et sa liberté*. París: Ed. Sycomore.
- CAMPION, A. (1976): *Discursos políticos y literarios*. Bilbo: Ed. G.E.V.
- CILLAN APALATEGUI, A. (1975): *Sociología electoral de Guipúzcoa, (1900-1936)*. Donostia: Ed. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S.A.
- CORCUERA ATIENZA, J. (1979): *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)*. Madrid: Ed. Siglo XXI.
- CUZACQ, R. (1948-1973): *Les élections législatives à Bayonne et au Pays Basque (de 1948 à 1969)*. Bayonne et Mont de Marsan, 7 vol.
- DAVANT, J.L. (1977): *Aberrri eta klase-burruka euskal mugimenduan*. Baiona: Elkar.
- Documentos*, 18 aletan. Donostia: Hordago.

- ELIZONDO, M. (1981): *Sagino Arana, padre de las nacionalidades*. Bilbo: Ed. Gran Enciclopedia.
- ELORZA, A. (1978): *Ideologías del nacionalismo vasco*. Donostia: Ed. Haranburu.
- ESTORNES ZUBIZARRETA, I. (1977): *¿Qué son los partidos abertzales?* Donostia: Itxaropena.
- Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa*, 3 aletan, Leopoldo Zugaza, Durango, 1977.
- FUSI, J.P. (1975): *Política obrera en el País Vasco (1880-1923)*. Madrid: Ed. Turner. *Galeuzka*, Leopoldo Zugaza, Durango, 1977.
- GARATE, G.M. (1972): *Marx eta nazioa*. Bilbo: Etor.
- GARMENDIA, J.M. (1979-1980): *Historia de ETA*. Donostia: Ed. Haranburu. *Gudari*, Euskadiko Gobernuaren Defentsako Departamentuaren aldizkaria. Bilbo: Eguzki, 1986.
- GURRUCHAGA, A. (1985): *El código nacionalista vasco durante el franquismo*. Barcelona: Ed. Anthropos.
- HUICI URMENETA, V. (1981): "Ideología y política de Arturo Campión", in: *Príncipe de Viana*, XLII, n.º 163, 1981eko Maiatza-Abuztua.
- IBARRA GÜELL, P. (1987): *La evolución estratégica de ETA (1963-1987)*. Donostia: Kriselu.
- IBARRURI, D. (1962): *El único camino*. París: Ed. Sociales.
- IBARZABAL, E. (1978): *50 años de nacionalismo vasco, (1928-1978)*. Donostia: Ed. Vascas.
- IRUJO, M. de (1982 eta hur.): *Obras Completas*, 7 aletan. Bilbo: Idatz-Ekintza.
- IZTUETA, P.; APALATEGI, J. (1974): *Marxismoa eta nazional arazoa Euskal Herrian*. Baiona: Zabal.
- JAUREGUI, G. (1981): *Ideología y estrategia política de ETA. Análisis de su evolución entre 1959 y 1968*. Madrid: Ed. Siglo XXI.
- JAUREGUI, G. (1988): *Contra el estado-nación*. Madrid: Ed. Siglo XXI.
- JAUREGUIBERRI, F. (1983): *Question nationale et mouvements sociaux en Pays Basque Sud*. París: E.H.E.S.S.
- JIMENEZ DE ABERASTURI, L. (1985): *Casilda miliciana. Historia de un sentimiento*. Donostia: Ed. Txertoa.
- JIMENEZ DE ABERASTURI CORTA, J.C.; LOPEZ ADAN, E. (1989): *Organizaciones, sindicatos y partidos políticos ante la transición: Euskadi 1976*. Donostia: Ed. Eusko Ikaskuntza.
- LANDABURU, J. (1982 eta hur.): *Obras Completas*. 6 aletan. Bilbo: Idatz-Ekintza.
- LARRAMENDI, M. (1983): *Sobre los fueros de Guipúzcoa*. Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.
- LARRONDE, J.C. (1977): *El nacionalismo vasco. Su origen y su ideología en la obra de Sabino Arana Goiri*. Donostia: Ed. Txertoa.
- LETAMENDIA, P. (1987): *Nationalismes au Pays Basque*. Bordele: Ed. Presses Universitaires de Bordeaux.

- LINZ, J. (1986): *Conflicto en Euskadi*. Madrid: Ed. Espasa-Calpe.
- MALIMI, G. (1971): *Le procès de Burgos*. París: Ed. Gallimard.
- MARTINEZ-PEÑUELA VISERDA, A. (1989): *Antecedentes y primeros pasos del nacionalismo vasco en Navarra*. Iruñea: Ed. Gobierno de Navarra.
- MINA APAT, M.C. (1981): *Fueros y Revolución liberal en Navarra*. Madrid: Ed. Alianza Editorial, S.A.
- MONZON, T. (1986): *Hitzak eta idazkiak*. 6 aletan. Zarautz: Ed. Jaizkibel.
- NUÑEZ, L. (1980): *Euskadi Sur Electoral*. Donostia: Ed. Vascas.
- ONAINDIA, M. (1979): *La lucha de clases en Euskadi*. Donostia: Ed. Hordago.
- ORTIZ DE ZARATE, R.K. (1972): *El problema revolucionario vasco*. Buenos Aires: Ed. La Pléyade.
- ORTZI (1975): *Historia de Euskadi: el nacionalismo vasco y ETA*. París: Ed. Ruedo Ibérico.
- OTAZU Y LLANA, A. de (1973): *El "igualitarismo" vasco: mito y realidad*. Donostia: Ed. Txertoa.
- PEREZ AGOTE, A. (1984): *La reproducción del nacionalismo. El caso vasco*. Madrid: Ed. Siglo XXI.
- PEREZ AGOTE, A. (1989): *Sociología del nacionalismo vasco*. Gasteiz: Ed. Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco, Eusko Jaurlaritza.
- PEREZ AGOTE, A. eta beste (1982): *Abertzales y vascos*, Madrid: Ed. Akal.
- PEREZ CALVO, A. (1977): *Los partidos políticos en el País Vasco*. Donostia: Ed. Haranburu.
- RECALDE, J.R. (1983): *La construcción de las naciones*. Madrid: Ed. Siglo XXI.
- RUIZ OLABUENAGA, J.I. eta beste (1985): *Violencia y ansiedad en el País Vasco*. Bilbo: Ed. Txartalo, S.A.
- SAN SEBASTIAN, K. (1982): *Crónicas de postguerra*. Bilbo: Ed. Ekin.
- SARRAILH DE IHARTZA, F. (1962): *Vasconia*. Buenos Aires: Ed. Norbait.
- SOLOZABAL, J.J. (1975): *El primer nacionalismo vasco*. Madrid: Ed. Tucur.
- STANLEY G., P. (1974): *El nacionalismo vasco. De sus orígenes a ETA*. Madrid: Ed. Dopesa.
- URKOLA, M. (1984): *Hacia el triunfo de la Nación Vasca*. Donostia: Ed. Haranburu.
-

HISTORIA DE LA POLITICA Y EL NACIONALISMO VASCOS

HISTOIRE DE LA POLITIQUE ET DU NATIONALISME BASQUES

Se trata de presentar ordenadamente y con cierto criterio de racionalidad la bibliografía básica publicada entre 1960 y 1988 en los temas de vida política y nacionalismo vasco. En el inicio procedemos a señalar y más tarde justificar el criterio de racionalidad elaborado para el presente trabajo. Hemos constatado la existencia de actitudes contrastadas entre los investigadores de la cuestión vasca en el momento analítico y valorativo de los datos. De un lado están aquellos que parten de la acepción incuestionable del statu quo institucional de cada momento histórico, sin preocuparse del por qué de esa situación, de su libre elección y de su representatividad real para la conciencia colectiva vasca. Por el contrario, otros investigadores consideran imprescindible constatar que incluso en Europa Occidental, la conciencia colectiva de ciertos pueblos (es el caso del pueblo vasco) se halla distorsionada respecto a la institucionalización impuesta desde los Estados, en nombre de la razón de Estado. Solamente a partir de esta distinción resultan apreciables los análisis del nacionalismo vasco abordados a veces, sobre todo por el primer grupo de investigadores, desde el prisma de innumerables variables sociales combinadas, que se exhiben como prueba y garantía de su empresa científica.

En lo que concierne a la vida política, la bibliografía ha sido distribuida en los siguientes apartados: 1) aquella que aborda la problemática y la diferenciación entre partidos y movimientos abertzales, y los estatales; 2) la específica que estudia el origen y la evolución de los partidos, organismos e instituciones del País Vasco; 3) la que recoge los testimonios de autores-actores privilegiados de la vida política vasca; 4) la que concibe y analiza la vida política a partir de los resultados electorales; 5) la que se centra en la investigación del poder político desde su formación social; 6) la que privilegia el estudio de la vida política a través de sus conflictos sociales.

En lo que atañe al tema del nacionalismo (hemos tratado de discernir previamente sus diversas acepciones semánticas e históricas) los capítulos abiertos han sido en base a los siguientes epígrafes: 1) la dimensión nacionalista existente en acontecimientos y manifestaciones históricas anteriores a la formulación del primer nacionalismo vasco; 2) presentación y análisis del primer nacionalismo vasco; 3) ruptura y paso del primer nacionalismo al abertzalismo de ETA; 4) nacionalismo y marxismo; 5) nacionalismo y lucha de clases; 6) las investigaciones emprendidas desde las ciencias humanas y sociales en torno al problema nacional vasco; 7) edición de recopilaciones de revistas y documentos nacionalistas de la época clandestina del nacionalismo vasco; 8) reseña de las ediciones de obras completas de los grandes personajes del nacionalismo vasco.

Il s'agit de présenter de façon ordonnée et avec un certain critère de nationalité la bibliographie de base des thèmes de vie politique et nationalisme basque publiée entre 1960 et 1988. Nous commencerons par signaler, puis nous justifierons par la suite, le critère de rationalité élaboré pour ce travail. Nous avons remarqué l'existence d'attitudes contrastées chez les chercheurs de la question basque au moment d'analyser et de valoriser les données. D'un côté, nous avons ceux qui partent de l'acceptation indiscutable du status quo institutionnel de chaque moment historique, sans se préoccuper du pourquoi de cette situation, de sa libre élection et de sa représentativité réelle pour la conscience collective basque. Par contre d'autres chercheurs considèrent comme indispensable le fait de constater que même en Europe Occidentale, la conscience collective de certains peuples (ce qui est le cas du peuple basque) s'est altérée par rapport à "l'institutionnalisation" imposée pour les Etats au nom de la raison d'Etat. Les analyses du nationalisme basque, abordées parfois, surtout par le premier groupe de chercheurs avec le prisme d'innombrables variantes sociales combinées, qui apparaissent comme une preuve et une garantie de leur entreprise scientifique, ne sont appréciables qu'à partir de cette distinction.

En ce qui concerne la vie politique, la bibliographie a été divisée selon les sections suivantes: 1) celle qui aborde "la problématique et la différenciation" entre les partis et les mouvements abertzales (patriotiques); 2) celle qui n'étudie que l'origine et l'évolution des partis, des organismes et des institutions du Pays Basque; 3) celle qui rassemble les témoignages d'auteurs-acteurs privilégiés de la vie politique basque; 4) celle qui conçoit et analyse la vie politique à partir de résultats électoraux; 5) celle qui concentre ses efforts sur la recherche du pouvoir politique depuis sa formation sociale; 6) celle qui privilégie l'étude de la vie politique à travers ses conflits sociaux.

En ce qui concerne le thème du nationalisme, nous avons essayé de discerner tout d'abord ses diverses acceptations sémantiques et historiques. Les chapitres étudiés sont issus des épigraphes suivants: 1) la dimension nationaliste existante dans les événements et manifestations historiques antérieurs à la formulation du premier nationalisme basque; 2) présentation et analyse du premier nationalisme basque; 3) rupture et passage du premier nationalisme au patriotisme de l'ETA; 4) nationalisme et marxisme; 5) nationalisme et lutte des classes; 6) les recherches entreprises dans les sciences humaines et sociales en regard au problème national basque; 7) édition d'extraits de revues et de documents nationalistes de l'époque clandestine du nationalisme basque; 8) index des éditions d'oeuvres complètes des grands personnages du nationalisme basque.

GAIK

LIBURUAK



Toponimiaren erabilera praktikoaz

Nerea Mujika Ulazia

Toponimiaren erabilera praktikoaz dihardu artikulu honek, eta izendegiaren gestioaren diziplinartekotasuna azpimarratu nahiko luke, batipat.

Sarritan, leku-izenak tartekatzerako orduan, bai mapa batean, zein txosten batean, zein artikulu batean, zailtasunak izaten ditugu. Zalantzak, grafia-mota erabakitzerakoan sortzen zaizkigu; ez dakigu hitzak batzeko partikularik sartu behar dugun eta lekuaren izen zehatza zein den ere, kolokan jartzen dugu.

Erantzuna non eta nola aurki dezakegun galdetzen diogu geure buruari, baina ez zaigu batere lan samurra bilakatzen. Lana nekeza da eta astiro doa, gainera, ez dagokio pertsona bati ez zientzia bati osotasunean. Guzti honek zera dakar, gure herrian ere toponimisten beharra izatea eta diziplina ezberdinetan jantzi-takoak gainera.

Hemen bezala kanpoan ere, ekintza franko antolatzen da arazo hau bideratzeko. Helburua lortzeko instituzio ezberdinek egiten diharduten ahalegina koordinatzea nahitaezkoa dugu eta era

berean hemendik kanpoko batzorde toponimikoek aurreratu duten esperientzia eta metodologia erabiltzen jakitea ere, derrigorezkoa da.

Alor ezberdinetan da erabilgarria toponimia: gure herrietako kaleen izenetan, errepideetako seinaleetan, kartografian, telefono-gidatan, komunikabideetan... Guztiek behar dute informazio hau. Bi proposamen ezberdinak, eztabaidatu eta kontrajarri egiten dira... Prozesu osoa, beraz, luze samarra egiten da. Batzutan erabakiak aholku teknikorik gabe finkatzen dira eta kontrolik-eza nagusi da eurretan.

Artikulu honetan zehar, toponimiaren erabilera praktikoaren eremura hurreratzen ahaleginduko gara. Lehenengo eta behin terminologiari dagozkion xehetasun nagusiak azalduko ditugu. Bigarren urratsa erakunde ofizialek gai honen inguruan duten funtzioa eta kompetentziak aztertzea izango da. Ondoren, Euskal Herriko Autonomi Elkartean toponimiak dituen gorabeherak ikusiko ditugu. Amaitzeko, toponimiaren erabilera praktikoaren esparru horretan lan egiteko bideak proposatuko ditugu.

Termino nagusien definizioa¹

Jarraian definituko ditugun hitzak, batzutan, nahastu, erratu, edo eta ahaztu egiten ditugu, baita toponimiaren atal ezberdinak jorratzerakoan ere².

Toponimia: Leku-izenen gestioa eta azterketa helburutzat duen zientzia. Eskualde batek duen leku-izen multzoari ere termino hau dagokio.

Toponimoa: Tradizionalki leku-izen eta izen geografikoei deitura emateko erabiltzen den terminoa. Toponimia izen berezia da eta hitz espezifiko batek eta, ia beti, hitz generiko batek osatzen dute. Hauek dira toponimoek dituzten lau maila ezberdinak: izaki geografiko naturalen izenak, izaki geografiko artifizialen izenak, izaki administratiboen izenak eta odonimoak edo hiribideei ezartzen zaizkien izenak.

Espezifikoa den zatiak izaki geografikoa zehazten du bereziki. Zati generikoak, ostera, orokortasunez zehazten du aipatutako izaki geografikoaren izatea.

Adibidez:

Oiz mendia
Oiz: zati espezifikoa
Mendia: zati generikoa

Izaki geografikoa (entidad geográfica): Izena emandako lekua edo izendagarria dena. Izakia (entitatea) espazioaren zati jakina da, bere inguruari begira, bakartasunean, izateko gaitasuna duen objektua.

Izaki geografiko mota: izena emandako lekuaren izakia edo izan daitekeena. Paisaia geografiko natural, administratibo edo eraikitakoaren maila. Izaki geografiko motaren bidez espezie berekoak diren lekuen kontzeptuak finkatzen dira.

Adibidez:

Izaki-mota: Haitza	Anbotoko atxa
Izaki-mota: Golkoa	Bizkaiko golkoa
Izaki-mota: Plaza	Plaza Barria

Kasurik gehienetan izaki geografikoak eta zati generikoak bat egiten dute. Bien arteko ezberdintasuna hauex da: generikoa, tradizioz edo familiaz emandako deitura izan daiteke; baina izaki-motak aipatutako objektu geografikoaren izate zehatza markatzen du.

Adibidez:

Izaki-mota: Lepoa	Urkuluko gana
Izaki-mota: Gana	Dudoleta gana

“Lepoa” eta “Gana” adibide bi hauetan: Dudoleta gana beneretan da “gana” baina Urkuluko “gana”, ostera, “lepoa” da.

Erakunde ofizialak eta toponimia

Izen geografikoen normalizazioari buruzko Nazio Batuen Ihardunaldiak³

Nazio Batuetan partaide diren Estatuon ordezkartzen bost urteroko batzarreak dira, NBERen giza- eta ekonomi kontseiluak antolatutak. Ihardunaldi hauen helburua izen geografikoen nor-

malizazioa aplikatzea da, bai nazio-mailan eta baita nazioarte-mailan ere.

Ihardunaldiok gaur arte, Génèven (1967an), London-en (1972an), Athenas-en (1977an), Génèven (1982an) eta, azkena, Montreal-en (1987an)⁴ ospatu dira.

Ihardunaldien langaiak, nazio barneko normalizazioan, nazioartekoan, izen geografikoen normalizazioaren hitz-mugaketan, exonimoen tratamenduan, alfabetoen eta latindarrak ez diren idazkeren erromanizazioan, nondik-norakoak finkatzean eta prestaketa-ikastaroen antolaketan oinarritzen dira batipat. Ihardunaldiok, aholku bezala ematen dituzte ebazpenak, giza- eta ekonomi kontseilupean eta Nazio Batuetan partaide diren Estatu babesean.

Erabakitako akordio-puntu nagusiak jarraikoak dira:

- 1.- *Erabilera arruntak* finkatzen dituen leku-izenei errespetua.
- 2.- Toki bakoitzak, bere izena, eta *bakarra* du.
- 3.- Tarteko diren herrialdeek duten *borondateari* errespetua.
- 4.- Izen bereziak *ez itzultzea*.
- 5.- Lekuan lekuko izenei *errespetua*.

Autonomi Elkarteko kompetentziak

Euskal Herriko Autonomi Elkarteko toponimiaren inguruan kompetentziak dituzten erakunde ezberdinen historia laburra eman nahi dugu hemen.

Estatu-mailan

1982arte, Barne-Ministeritzak finkatzen zituen dekretuz herri-izenak eta hauek, Estatuko Buletin Ofizialean argitaratzen zituen. "Instituto Nacional de Estadística" delakoa herrietako beste populazio-izakien izenez arduratzen zen. Azkenik, bizilagunik ez zuten geografi izenen ardura "Comisión Española de Nombres Geográficos" zelakoak hartzen zuen.

Oraintsuago, izen geografikoak ezartzeko ardura, estatu-erakundeetatik erakunde autonomikoetara etorri da, baina oraindik ere, erantzunkizun toponimiko hauek guztiz banatu gabe daude⁵.

Euskal Lurralde Autonomo-mailan

1982ko Azaroaren 24ean Eusko Legebiltzarrak 10/1982 "Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legea" onartu zuen. Horren helburua, euskaldun herritarrek Estatutuari esker erabil ditzaketen hizkuntz eskubideak erregulatzea da.

Euskal Lurralde Autonomoari dagozkion izen geografikoen normalizazioari buruz lege honen 10. artikulua, bere lehen le-roaldian, lurralde, udalen..., izendegi ofizialaren aipamena egiten du eta zera dio:

Autonomia Elkarteko lurralde, udal, herri, geografia-gorabehera, hiribide eta, orohar, toki-izen guztien izen ofizialak Jaurlaritzak, Kondaira-Lurraldeetako Foru-Erakundeek edo Toki-Erakundeek finkatuko dituzte, bakoitzak berari dagokion aginte-eremuaren barruan eta, beti ere, jatorrizko izen euskaldun, erromantzeko edo gaztelaniazkoari, hizkuntza bakoitzari dagokion idazkeraz men eginez.

Toki-erakundean eta Eusko Jaurlaritzaren artean aurreko atalean esandako izen ofizialei buruzko auziren bat gertatuz gero, Eusko Jaurlaritzak ebatziko du, aurrez Euskaltzaindiari bere iritzia eskatu ondoren.

Artikulu beraren bigarren leerroaldiak errotulazio publikoaren aipamena egiten du:

Kale-bidetango seinale eta iragarpenak bi hizkuntzetan egongo dira, nolana ere nazioarteko arauari eta baliatzaileekiko ulergarritasunari eta segurantzari atxikiz.

Hirugarren leerroaldian azkenez zera irakur dezakegu:

Izen hauek oso ezberdinak izanez gero, bide-seinaleei buruzkoetarako, biak ofizialtzat joko dira.

Lege honen ostean, Abenduaren 12ko 271/1983 Dekretuak, Euskal Herriko Udal-izenak aldatzeari buruz eman beharreko urratsak ezartzen ditu.

1971ko urrian, Aita Villasante Euskaltzainburuak, izendegi ofizial baten beharra ikusi zuen. Beranduxeago Onomastika-saila sortzen da⁶, bere helburua, nagusiki, toponimia nagusia eta ze-

hatzago udal-izenak eta populazio-izakiak izendatzea delarik. Lan horren emaitza, "Euskal Herriko Udalen izendegia" liburuaren argitalpena dugu⁷.

Urte batzuk beranduago eta Eusko Jaurlaritzaren Estatistika-Zuzendaritzak eskatuta "Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herrien izenak"⁸ argitaratzen da.

Onomastika-batzordeak lan anitz burutu du eta baita erabakiak hartu ere, erakunde ezberdinek eskatu ondoren. Bestalde, lan ezberdinak argitaratu ditu, "Onomasticon Vasconiae" sailaren barruan. Azkenez, Onomastika-Ihardunaldiak antolatzekeo ardura hartu du (Gasteizen, 1986an eta Urduñan 1988an). Hurrengoak, Lizarran ospatuko dira 1990. urtean.

Duela gutxi Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, Foru Aldundiek eta Euskaltzaindiak sinatutako akordioaren arabera eta V. atalaren barruan, non 1989rako Onomastika-Batzordearen eginbeharrak zehazten diren, zera irakur daiteke:

V.8. Onomastika:

- a) Nafarroako toponomastika lana amaitu.
- b) Eusko Jaurlaritzaren Toponomastika alorreko lanak aztertu eta bere eritzia eman.
- c) Erdi Aroko toponomastika lanarekin jarraitu.
- d) Euskal Herriko udal mailako toponimia txikiaren bilketa.

Euskaltzaindia burutzen ari den lanekin batera, hainbat ikerlarik, bakarka edo eta taldean, gai honek izan behar dituen atal ezberdinetan (metodologia, datu-bilketa sortzean, hizkuntz eta geografi normalizazioan, inbentario toponimikoetan...) lan izugarria egiten dihardu. Honelako ikerketa batzuk, herri-erakundeek beraiek, agindu izan dituzte: (Eusko Jaurlaritzak, Aldundiek, Udal batzuk...)⁹.

EKAko toponimi arazoa

Euskal Herriko Autonomi Elkartean toponimiaren arazoa egun, nola ageri den, laburki bada ere, agertzea komeni da.

Euskararen erabilpena Arauzkotzeko legea (10. artikulua)

Positibotzat jotzen dugu lehenengo zatian izaki geografiko-mota ezberdinak zehaztea (lurralde, udal, herri, geografia gora-behera, hiribide...) eta bereziki hiribideei dagokiena sar dezatela¹⁰. *Terminologia geografikoaren* arlo ezberdinetan, sakondu beharra dakusagu. Ardurā hau, dena den, egun, ez da ez Foru-Aldundi ez eta Jaurlaritzaren konpetentzia ere... Legeak lege, agintarick, ziurraski, beren itzultzaileen eskuetan utzi beharko dute, adibidez, herriko planoan erabiltzerakoan "ibaia" edo "erreka" agertzea egokiagoa den termino geografikoaren esanahi zehatza planteiatu ere egin gabe.

Grafiaren nondik-norakoetan, legea hizkuntza bakoitzaren grafia errespetatzearen alde agertzen zaigu. Gure eritziz, puntu hau da interpretatzerako orduan okerrenetarikoa, bigarren atalean dioenarekin nahasten bait da: "Kale-bidetango seinale eta iragarpenak bi hizkuntzetan egongo dira...". "Bi hizkuntzetan" hori oker interpretatu dugu, Arkaute bezalako izen berezi batek ezin onar ditzake bi grafia.

Honela, gure kaleetako, plazetako, errotulazio askok izen berezi bati bi generiko gehitzen diote, bata gazteleraz eta bestea euskaraz, honela, errotulazio elebiduna egiten dutela uste bait dute. Adibidez, *Calle Autonomia Kalea*.

Nazioarteko arauetara jotzea ona da, gure ustez, baina zuzen interpretatzeko behar adinako garapena behar duela uste dugu. Zein arauz ari gara?

Bestalde, aipatutako ihardunaldiek onartutako printzipioen artean (erabilerrari errespetua eta tokiko izen bakarra) ez dira betetzen legearen 3. atalean esaten denarekin: "Izen hauek oso ezberdinak izanez gero, bide-seinaleei buruzkoetarako, *biak ofizialtzat* joko dira"¹¹.

Azkenik, legeak aipaturiko erakundeen artean *konpetentziak* mugatu egin beharko lirateke.

Laburtuz, lege praktikoa izan dadin *garapen sakonagoa* behar du.

Heziketa-arloa

Heziketak ere behar du, dudarik ez, tratamendu berezia. Ez da batere harritzekoa gure karrera batzuk eskaintzen duten etor-

kizuna (“Letretakoak” direlakoak batez ere) nahikoa beltza dela esatea.

Ikasgeletan, ia egunero, “karrera irekiak” esaldia darabilgu hitzetik hortzera, zientziaren adar ezberdinen artean “diziplinartekotasuna” behar dugula. Baina, ostera, oso karrera gutxi, oso gai gutxi, oso irakasle gutxi dago prest lokarri horiek josteko, beste zientzia batzutan behar diren euskarriak jartzeko; erakusten dutenaren osagarri dira, gainera, batzutan. Gaur, inoiz izatekotan, erabilera praktikoa aurkitu behar zaio edozeri eta “letra” munduari ere bai.

Toponimista baten oinarritzko prestakuntza adar ezberdinetatik etor daiteke eta horrek zehaztuko du bere geroko espezializazio-eremua. Nahitaezkoa da, aldiz, prestakuntza osagarria eta espezifikoa; honek ondorengo diziplinak bilduko lituzke: geografia, zuzenbidea, hizkuntza, informatika, kartografia, historia, paleografia... Guztia, toponimista, diziplina ezberdinetako taldean sartu ahal izateko bideratuta; taldeotan, teknikari bakoitzak lanaren fase ezberdin batetaz arduratu ahal izateko moduan prestatuta egon behar du, eta gainera, ikerketa osoaren ezagupena izan.

Toponimiaren normalizazio-prozesua: premiazko beharrezana

Izen geografiko baten normalizazio-prozesua, inbentariotik hasi eta ofizialtasunera iritsi arte, toponimia nagusian gelditu da, hots, udalei dagozkien leku-izenetan eta populazio-izaki ofizialean.

Maila honetan ere, errealitate geografiko berdina adierazteko, izen ofizialaren “aldagaiak” erabiltzen dira. Iluntasun hau esparru desberdinetan ematen da: komunikabideek bata zein bestea erabiltzen dute (Donosti edo Donostia) nahiz eta ofizialki hau zehaztuta egon. Gure erreepideetako errotulazioa batzutan nahasgarria da, hizki-mota desberdinez agertzen direlarik lehenengo eta bigarren toponimia (VITORIA/Gasteiz, izen ofiziala Vitoria-Gasteiz denean). Badago udalik izen ofiziala inoiz erabiltzen ez duenik: esate baterako Euskal Herriko Buletin Ofizialean agertzen den izen ofiziala “Anteiglesia de San Esteban de Etxebarri-Etxebarri-Donetztebeko Elizatea” da eta ohizko erabilpenean Etxebarri aipatzen da.

Mapa elebidunetan normalean itzultzaileengan, beraiengan ere, azaltzen da errakuntzarik, izen generiko bi, edo batzutan hiru ere, lotu izan bait dizkiote izen espezifikoko bakar bati: gaztelarazko batean Río Ibaizabal agertuko litzateke; euskarazko batean Ibaizabal eta elebidun batean Ibaizabal/Río Ibaizabal edo Ibaizabal hutsa agertu beharko lukeen eztabaidatuko litzateke. Sekula ere ez genuke Río Ibaizabal ibaia idatziko (3 generiko).

Azkenik, terminologia geografikoari dagokionez ere errakuntzak daude, izaki geografiko desberdinei izen generiko bera ezarri bait zaie: esate baterako "Avenida del Ejército" eta "Avenida Ramón y Cajal", bi hauei izen generiko bera ezarri zaie eta berez errealitate desberdinak dira. Lehena joan-etorri bikoitza, eta zirkulazio arina duen etorbidea dugu; bigarrena, aldiz, joan-etorri bakar bateko eta zirkulazio moteleko kalea.

Arazo honen aurrean galdera bakar baina zail bat datorkigu: nork eta nola eraman dezake aurrera Euskal Herriko Autonomi Elkarteko izen geografikoen normalizazioaren prozesua?

Toponimiaren gestioa, diziplina ezberdinetako lana

Izen geografikoen normalizazioa premiazko, beharrezko eta esparru desberdinen laguntza (onomastika, terminologia geografikoa eta izen geografikoen gestioa bera ere) beharko duen lana da. Prozesu guzti honek sistematizazioa eskatzen du.

Izen geografikoen *corpus* baten gestio egokiak bost zati desberdin izan behar ditu¹²:

Inbentarioa

Inkestan aztertuko den espazioari dagokion iturrien bilketa egin ondoren, leku-izen-mota guztiak zerrendatzeari ekiten zaio: izaki geografiko naturalen izenak, artifizialenak, administratiboak eta hiribideen izenak. Zerrendatutako toponimoak bi baldintza bete behar ditu: kokapen zehatza eta transkripzio zuzena.

Inkesten emaitzek sarritan, inkoherentziak, erabilera paraleloak eta akatsak erakusten dituztenez, inkestan bildutako izen guztiek bigarren zatian burutuko den tratamendu linguistiko-geografikoa jaso beharko dute.

Tratamendu linguistiko eta geografikoa

Tratamendu linguistikoak oinarritzat, aldez aurretik landutako printzipio eta nondik-norako batzuren ezarpena dauka. Aipaturiko araudi honen erredakzioa, kanpoko lanean kontu handiz jasotako izenak eta dokumentazio aberats baten emaitzetan oinarrituko da.

Tratamendu geografikoak, terminologia geografikoari dagozkion aspektuak sakonduko ditu, jasotako informazioa aukeratu eta izaki geografiko mota egiaztatuko du.

Kontuan izan behar da, antzerako egoera linguistikoa duten nazioetako toponimi batzorde desberdinek ontzat emaniko eta duela urte batzuk onartutako printzipio orokorrak egon badaudela. Hau dela eta beharrezkotzat jotzen dugu batzorde hauen esperientziak probetxatzea, beren nondik-norakoak aztertzea eta gure egoera konkretura moldatzea.

Ofizialtasuna

Zerrendatutako leku-izenak landu ondoren, dagokien erakunde ofizialeko kideei emango litzaizkieke onar ditzaten. Hartutako erabakiak, Euskal Herriko Buletin Ofizialean argitaratuko lirarteke, Batzordeak onarturiko izenek eta ondorengo argitalpenek, izen ofizial bihurtuko lituzketelarik.

Hedapena

Onarturiko izenak, jendartera, zein gai honetaz interesaturik dauden erakundeetara zabalduko dira. Jendeari eskainiko zaizkion kontsulta- eta informazio-zerbitzuek izen geografikoen finkapen egoki eta zuzena erraztuko dute.

Kontrola

Hartutako ebazpenak, toponimoak darabiltzatenek onartu egin behar dituzte: bai kartografi ekoizpenarekin, garraioekin zein lurraldeen ordenazioarekin zerikusia duten erakundeek eta baita testu-liburu, komunikabide, eta abarren egile eta argitaletxeek ere.

Aldi berean, informazio guzti hau, datu-base batean sartu beharko litzateke.

Sail desberdinetako (hizkuntza, geografia, soziologia...) ki-deez eta zenbait erakundez (Jaurlaritza, Aldundiak, Udalak, Unibertsitateak...) osaturiko *toponimi-batzordea* sortu beharko litzateke aipaturiko eginbehar guzti horiek aurrera eramateko. Batzorde honen asmo nagusia, ondare kulturalaren zati bizi baten mantenu eta aberastasuna izango litzateke. Bestalde, batzorde honek, honako betebeharrak izango lituzke¹³:

- leku-izenetan onartuko diren idaztarauen finkapena.
- terminologia geografikoaren normalizazio eta ezarpena.
- leku-izenen ofizialtasuna.
- Euskal Herriko Autonomi Elkarteko edo Euskal Herriko izendegiaren hedapena.
- Gobernuan toponimiaren inguruan sor daitekeen edozein arazori erantzuna ematea.

¹ Québec-eko toponimi batzordeak burututako aparteko gidan oinarritu gara.

QUEBEC (Gouvernement) Commission de toponymie (1987): *Guide toponymique du Québec. Politiques, principes et directives*. Québec.

² Toponimiari buruzko terminologia sakonki ezagutzeko honako liburu hau erabil daiteke: DORION, H.; POIRIEK, J. (1975): *Lexique des termes utiles à l'étude des noms de lieux*. Québec: Les presses de l'Université de Laval.

³ QUEBEC (Gouvernement). Commission de toponymie: *Guide toponymique du Québec...* 20 orr.

⁴ Montreal-en ospatutako azken ihardunaldian X. Aizpurua eta N. Mujikak "Euskal Elkarte Autonomoko toponimi antolaketa buruzko proiektuaren aurkezpena" aurkeztu zuten. NACIONES UNIDAS (1987): *Quinta Conferencia de las Naciones Unidas sobre la normalización de nombres geográficos*. Montreal (prentsan).

- ⁵ NACIONES UNIDAS (1982): *Cuarta Conferencia de las Naciones Unidas sobre la normalización de nombres geográficos*. Espainiako ordezkariak aurkeztutakoa. Génève, II. tomoa, 207 orr.
- ⁶ Egun 12 kidez osatutako batzorde iraunkorra da; E. Knörr (lehendakaria), J.L. Lizundia (idazkaria), R. Cierbide, J.L. Davant, E. Goihenetche, J.A. Gonzalez Salazar, Andrés Iñigo, A. Irigoyen, J.M. Jimeno Jurio, J.B. Orpustan, P. Salaberri, J. San Martin, J.M. Satrustegi.
- ⁷ EUSKALTZAINDIA (1979): *Euskal Herriko Udalen Izendegia / Nomenclator de los Municipios del País Vasco / Nomenclature des Communes du Pays Basque*. Bilbao.
- ⁸ GOBIERNO VASCO (Secretaría de Política Lingüística) y EUSKALTZAINDIA (1986): *Euskal Herriko Autonomi Elkartearen izenak / Relación de las poblaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco*. Gasteiz.
- ⁹ Gehiegi luzatuko ginenez eta bestalde artikuluko honen xedea gaiari buruzko bibliografia ematea ez denez, ez da ikerlan horien berririk emango.
- ¹⁰ Izen geografikoki buruzko Nazio Batuetako aditu-taldeko eta Québec-eko toponimi batzordeko Lehendakari den Henri Dorion jauna, pozik agertu zen legeak hiribideen izendegia barne zuelarik ikusterakoan. Toponimiaren orokortasunean hauek, hiribideak, normalizazio-prozesu berezia jarraitzen dute.
- Sakontasun gehiago behar izanez gero, kontsultatu honako lan hau: Commission de toponymie (1987): *Guide odonymique du Québec*, Québec.
- ¹¹ Kontu interesgarria da baina era berean zaila, bi izen desberdin hartzen dituzten lekuekin (bata euskaraz eta bestea gazteleraz) zein tratamendu linguistikoa erabili behar den ikustea. Dena den, oso antzeko arazoak dituzten gizarteek, Québec-ek esate baterako, arazo honi irtenbide egokia eman diote. Beren ebazpenetan, Nazio Batuek antolatutako ihardunaldietan hartutako erabakiak jarraitu dituzte eta espezifikoak erabilera bi baditu, bata frantsesa eta bestea beste edozein hizkuntzatan, batzordeak frantsesera joko du, leku hartan erabilera dexteoa badu behintzat. (*Guide toponymique...* 25 orr.).
- ¹² QUEBEC (Gouvernement). Commission de toponymie: *Guide toponymique...* 33-35 orr.
- ¹³ Toponimi batzordearen eginbeharrak zehazten diren "Charte de la langue française" izeneko dokumentuko 125. artikuluan oinarritu gara osoki.

Irakaslearen *rol*-eko gatazkak Konponbide-proposamenak

I. Albistur, K. Ortigosa, L. Oihartzabal

Irakaslearen rol-ean sortzen diren gatazkak dira lantxo honen aztergaia: hau da, irakaslearen eginkizuna gauzatzeak berez duen izakera arazotsua; izan ere gutxienez bi jokabide-joera ezberdinek hartzen bait dute horretan parte aldi berean: irakaslearen beraren jokabide-moduak eta bera inguratzen dutenenak, hauen uste eta itxaropen zehatzekin. Hemen, arazoa bere ikuspegi psikosozialetik eta psikopedagogikotik begiratuko dugu.

Horrelako gatazken kausa-tokiguneak bitara muga daitezke: irakaslearen egoera sozialera eta honek, egunero, irakaskuntzari eskaintzen dion ardura pertsonalera.

Bi tokigune horietan sortzen diren gatazkentzako aukerako irtenbide-estrategiak aztertzen saiatu diren ikerketen ondorioak aurkeztuko ditugu hemen jarraian. Irtenbideak ez du esan nahi gatazka horiek erabat desagertu edo konponduko direnik, ez, arazoaren garapen gatazkatsuaren sentipenezko eta arrazoizko biderapen bat baino ez da izango askotan, edo berorren sublimatze bat edo desindartzea, izan ditzakeen erasokortasun eta ondazte-gaitasunak gutxiagotuz eta deuseztatuz.

Lanean diharduen maisua da hemen protagonista: bere bizitza eskolabidezko irakaskuntzari eskaini dioena. Irakasle-izateak zer suposatzen duen eta irakaslearen nortasuna zein den argitzea garrantzi handikotzat jotzen dugu. Lantxo honetan zehar maisu eta irakasle kontzeptuak erabiliko ditugu, baina inolako bereizketarik egin gabe: irakaskuntzaren edozein mailatan lanean diharduen profesionala adierazten da bi hitz ezberdin horiez.

Rol hitzak, hemen, irakasleak hori den neurrian izan ditzakeen gatazkekin du zerikusia: bere irakasle-rolagatik izan ditzakeen alegia, eta ez dute zergatik rol-jabeenekin berdinak izan beharrik. Rol hori onartuz gero, ingurukoek beraiekiko dituzten eskabideen indarpera makurtuak sumatzen dira irakasleak; aldi berean baita beren taldekideekikoenera eta elkarren artean sortuko diren harreman-modukoenera ere. Norbanako batengandik espero diren jokabide-modu bezala zehazten du rol-a psikologia sozialak. Esan beharrik ez, espero diren jokabide-modu horietan oinarritzen direla taldeko beste kideen jokamoduak. Ikuspegi hau, irakasleari atxekiz gero, garrantzi handiagokoa bilakatzen da, baldin eta horrela irakaslearen iharduera guztia, hezkuntz taldeko beste kideekiko duen harreman-giroan ikuskatu nahi bada. Hezkuntz elkartearrekiko eta gizartearekiko harreman kontestuan duen posizioari dagokionez, jokabide-eredu moduan agertzen da bere rol-a, eta honek ondorio modura, itxaropen batzuk sortuko ditu bere inguruan, irakasle bezala, bere nortasuna bera ere baldintzatzen iritxiko diren itxaropenak.

Irakaslearen nortasuna pedagogiaren idealean eta errealtatean

Lanbidezko gatazka horiek irakaslearen nortasuna baldintzatzen dutela egia den bezalaxe da egia, nortasun-izakera horrek haiek baldintza ditzakeelakoa ere. Bestalde, irakaslearen nortasunak ikasleen prestakuntzarako duen garrantzian aurki daiteke gatazka horietako askoren sorburua; eta nortasun-izakera horri lotu nahi zaizkion faktore erabakitzaileetan. Heziketa-gertakizunetan irakaslearen nortasunak izan dezakeen garrantziari buruzko ikerketa pedagogikoak honako ondorio hauetara iritsi dira:

– Beren balio pertsonalak, jakinaren gainean bezalaxe konurtatzeke ere, ikasleei transmititzen dizkiete irakasleek.

– Ikasleak hezkuntz helburuei eta edukinei buruz egiten duen baloraketa baldintzatzen du hezitzailearen nortasunak.

– Bere nortasun bereziaren faktoreek erabakiko dute irakasleak aukeratuko duen metodologia eta hezkuntzako jokabide-modua.

– Ikasketetan jarraitzeko edo aldatzeko gomendio-oharrei eta eskola-motei buruzko erabaki garantzitsuak, irakaslearen nortasunaren baldintzapean daude.

Psiko-pedagogiak deskribatzen digun irakaslearen nortasun idealetik eskoletan aurkitzen dugun irakaslearenera —berak eta bere kideek duten eritziaren arabera— alde handia dagoela ere azpimarratu beharra dago, ESTEVEk begibistan jartzen duenez.

Irakaslearen nortasun ideala psikopedagogi idazkietan

Gaiari buruzko literatura orotarako baliagarri diren lau alderdi aurkitu ditu A. KUPFERek maisuaren nortasun-idealari dagokionez alemanezko idazkietan:

– *Motibazio kultural-kritikoa*: munduari buruzko ikuspegi berri bat, gizakiarekiko jarrera berri bat, eta funtsean, galbidean aurkitzen den garai honentzat irtenbidea ekarri behar ditu irakasleak.

– *Berriztatze-motibazioa*: toki eta aldi guztietan onartutako balioen babesle eta hedatzaile izan behar du hezitzaileak. Kulturaren iraupena ziurtatuko litzateke honela.

– *Hierarki motibazioa*: adineko edonor bezala, besteen gaitetik dagoen norbait bezalakotzat jotzen da irakaslea: besteak baino jakintsuagotzat, indar moral eta errealitatearen ezagupen handiagoaren jabe.

– *Motibazio mitikoa*: gaitzetik askatutako mundu batean aparteko ordezkaria da irakaslea; gaitz guztien gaitetik dagoena eta apaiz baten antzekoa; berari dagokio esku artean duen gaiteria bere helmugara gidatzeko garrantzizko erantzukizuna.

Honako era honetan laburbil genezake, era modernoago batean, maisuaren rol-a eta nortasuna: nortasun berritzailea eta politikoki konprometitua eskatzen zaio hezitzaileari. Gizarteare-

kiko jarrera askea eta kulturarekiko kritikoa. Kontzientziaren erabateko intsumisioa sistemarekiko menpekotasunaren orde. Eskola-sistema bera gaindituko duen nortasunaren jabe den maisu bilakatuko da: haurrek agintez eta abantailez osatutako gizarte-modu bakar bat onartzera ohituko dituen eskola-egitura gaindituko duena alegia, REIMERek dionez.

Maisuaren benetako ala ohizko nortasuna

Aurrez adierazitako eredu horrekin, ia erabat kontrajarririk dauden ondorioak eskuratu dizkigute maisuaren ohizko nortasunaz burututako ikerketek. Ezaugarri neurotikoak eta berezitasun oso ezkorak aipatzen dituzten bi azterlan dakartzagu hona. SCHMITZ-ZCHERZERek "Psikologia pedagogikora sarrera" izeneko liburuan jasotzen dituen galdekizunen ondorioen arabera, hauek lirateke maisu batzuen nortasunaren ezaugarriak:

- Lanbidearen gatazka-pisutik eta gehiegizko lanetik eta erantzukizunetik era guztietako beldurrak, ni-aren ahultzea eta gutxiagotasun-komplexua sortzen zaizkio; aldi berean jokabide gogorak, erasokortasuna eta harropuzkeria dira bere ezaugarriak.

- Haur eta gazteekin duen etengabeko harremanak beraieki-gogaitasuna sortuko lioke, ala gehiegizko zaletasuna, eta honen sexu-okerkieretan amaitzera eraman lezake.

- Funtzionari izakerak ideia berriekiko itxitasuna eta gogo kritikoa-eza eragiten dizkio.

- Gizartean eta gizartearekiko duen jarrera ez-argiak, pertsona berekoia eta gizaixoa izatera darama.

- Moldakortasun psikiko gutxikoa da eta dituen interesak ez dira argiak eta zehatzak.

"Nolakoak dira benetan maisuak? Idealak, aurreritziak eta gertakariak" izeneko bere liburuan beste zehaztapen hauek eskaintzen dizkigu MULLER-FOHRTBRODTek.

- Balio intelektualei dagokienean ez dago ezberdintasun handirik maisuen eta bestelako lanbidetakoeren artean.

- Besteekiko gertutasuna eta segurtasuna bilatzen dute maisuek beren lanbidean; gizarte- eta arte-kontuetan bestelako lan-

bideetakoek baino puntuazio hobea lortzen dute; politika gaie-
tan, alderantziz, azpitik dabilta.

– Agintekeria, kanporakoitasuna edo neurotikotasunari da-
gokionez, emaitzak ez datoz bat.

– Joera neurotikoetan eta herabetasunean gizonetzkoen gai-
netik dabilta emakumeak; alderantziz agintekeria eta eraso-
kortasunean. Izakera gizakoiagoa eta gizartekoiagoa adierazten
dute emakumeek.

– Pedagogiak irakasleaz moldatu duen irudi ideala aurreri-
zientzian ondorio da eta ez datu objektibo errealea.

Adierazi ditugun zehaztapen guzti hauek ezin orokortuko di-
tugu; baina laburbilduz, ondorio hauetara bidea irekitzen digute:

– Zehaztapen bereizgarri erreala batzuetan oinarritzen da, za-
lantzarik gabe, gizarteak maisuez duen irudia; baina ohizko psi-
kopedagogiak eskatzen zuen irakaslearen nortasun idealetik gero
eta urrunago dago. Gertakari honetan izan lezake jatorria gataz-
ka askok.

– Irakaskuntza ihardunbidean sortu ohi den gatazka askok,
irakaslearen nortasunarekin lotura esanahikorrek ditu.

– Gatazka-sorburu bezala, konponbide edo ihespide izan
daiteke irakaslearen nortasuna. Arrazoi eman behar zaio A. VE-
GARi zera diotenean: bere nortasunaren heldutasunetik konpro-
mezu jatorreraino iristen dela maisuaren eginkizun emankorra.

Maisuaren lanbidean gatazkak bideratzen dituzten faktoreak

Maisuaren iharduera pertsonala eta bere lanbide-egoera bal-
dintzatzen duten pertsonaz kanpoko faktore estrukturalak ditugu
hemen aztergai, gatazkentzako baldintza objektiboak sorteraz-
ten dituzten haietxek hain zuzen ere.

Maisuaren egoera soziala

Maisuaren eguneroko eginkizunetan hainbesteko eraginik
izango ez balu, pedagogiaz kanpoko faktore bat litzatekeela,

esan genezake. Bere arazoak arrazoizko erreforma demokrati-koen bidez zuzendu nahian dabilen gizarte dinamiko batean, erreformetarako baliabide egokia da hezkuntz egitura guztia, baita, bide batez, hezkuntz egitura horretaz dauden gizarte-itxaropen aldakorretarako ere; ondorioz irakasleari eginkizun erabat berriak eskatuko ez bazaizkio ere, eginkizun ezberdinei aurre eman beharrean aurkituko da. Gertakari honetaz egokia benetan GONZALEZ MONTEAGUDOren lan labur baina sakona.

Maisuaren gizarte-egoeraz ari garenean zera adierazi nahi dugu: irakaslearekiko inolako loturarik gabe sortzen diren antolamenduzko eta erakunde-zko baldintzapen sozialen multzoa; baina bere lanbide-rola erantzukizunez hartzen duelako, hezitzailearen erabakietan eta ihardueran eragina izango duten baldintzapenak dira ordea.

Maisuaren rol berri honen garrantziaz benetan jabetzeko ezinbestekoa da bere egoeraren azterketa egoki bat; Reinhard TAUSCH eta A.M. TAUSCHen eritziz beharrezkoa bait da hori gizarte-arloan dauden baldintza eta ahalbide errealak ezagutzeko, eta ondorioz irakaskuntza baldintzatzen duen ingurugiroa zehazteko eta interpretatzeko.

Gizarte-egoeraren azterketaren funtzioa

Oinarrizko lau galdera hauek egitera garamatza irakaslearen eginkizuna kokatzen den gizarte-egoeraren azterketa emankor batek:

– Bere eginkizunean zein eratako jokabide-moduak eskatzen zaizkio maisuari?

– Ahalbideratzen ote dizkio jokabide-modu horiek gizarte-egoerak?

– Bere iharduerarako beharrezko dituen arauak, ahalmenak eta aukerabideak gauzatzeko bezain garbia ote da egoera?

– Gizarte-egoera horretan eskuhartzerik izateko aukerarik ba ote du berak?

Gizarte-egoerak ez luke zanpatzailea eta gogorra izan behar; alderantziz, maisuari gatazkak deuseztatzen lagunduko dioten jokabideak ahalbideratzeko bakoitzari bere aukerabideak, identifikatze-moduak, arrakasta eta poza eskuratzeko bitarteko bai-

zik. Gure eskoletan eta gure gizarte-egoeran egoera hori lortzeko oso urruti gaudela uste dugu, VILLAREN gidaritzapean moldatutako lanean hainbeste aldiz gogoratzen zaigunez.

Gatazkak sorteraizten dizkion maisuaren gizarte-egoera ulergarri egiteko asmotan, azter ditzagun egoera horietako kontzeptu oinarritzkoenak.

Egoeraren azterketarako kontzepturik oinarritzkoenak

– *Maisua*: gizarte-harremanen sare konplexua moldatzen duten eskubide eta zerbitzu-prestakuntzen gizarte-antolaketan erreferentzi puntu iraunkor eta ez-aldakor moduan *gizarte-posizio* bat adierazten duen lanbide bat.

– Gizarte-posizio hori onartzerakoan bazterrezinezko *itxaropenen* iturri bilakatzen da maisua; bere jokabidearekiko ezinbesteko erreferentzia bilakatzen diren taldeek beren posizioari lotzen dizkieten itxaropenak, alegia.

– Maisuarekiko ohizko diren itxaropenen multzo iraunkor horrek (erakunde araupeututako eginbehar eta eskubideak) osatzen du *maisua*ren *gizarte-rola*.

– Hainbeste gatazka bereziren sorburu eta *rol horren zehaztapen-ezaren* kausa den gizarte-eginkizun anitzkorra kontraesan ugariz kutsaturik aurkitzen da.

Oinarri kontzeptual honetatik abiatuz, oinarritzko hiru gatazka-modu ezberdin bereziko ditugu:

– Rol-barneko gatazkak: rol-barruko osagaien artean dauden kontraesanen ondorio. Talde ezberdinetatik jartzen diren elkarrezinezko itxaropenetatik ere sortzen direnak.

– Rol-en arteko gatazkak: pertsona berberak hartzen dituen rol ezberdinetatik datozenak.

– *Emititzaileen* arteko gatazkak: *emititzaile* ezberdinen artean dauden kontraesanetatik, sortzen direnak, edo *emititzaile*-talde berdin batean leudekeen itxaropen ezberdinetako subjektuetatik sortutakoak.

– Izakera zehatza damaien gizarte-balorazioen menpean daude rol ezberdinak beren modu erakundezkotuan. Posizio baten berezitasunen kopuruak osatzen du bere *gizarte-statusa*.

Gizarte-egoerari dagokionez edozein pertsona taldeka daiteke adierazitako posizio, rol eta status kontzeptuon bitartez. Puntu honetara iritsiz gero, maisuaren egoera soziala erabakitzen duten egiturazko arazoak eskola-arauketan biltzen direla esan behar da, eta laburbilduz hauek lirajtekeela:

– *Posizio-arazoak*: dagozkion eginkizun eta atribuzioen banaketa arazoizkoago baten eskakizunetatik datozkionak.

– *Rol-arazoak*: itxaropen ezberdinen arteko kontraesanetatik sortutakoak; interes zehatz ezberdinen arabera moldatu beharrezko jokabideetatik, alegia.

– *Gizarte-statusari dagozkion arazoak*: onarpen egoki eta ireki bati eta iharduera-askatasun ezinbesteko bati dagozkionak.

Maisuaren gizarte-egoeraren problematikaz tesiak

Hezitzailearen gizarte-egoerako arazo posibleen hiru multzo horietatik abiatuz, maisuaren lana, nortasuna eta bizitza joera-moduan baldintzatzen duen hainbat problema zehatz daiteke:

– *Hezkuntzaren gizarte-balorazioaren arazoa*.

Hezkuntzaren munduan eman den birmoldaketa ugariren ondoren, oraindik ere pertsona gehienak heziketa-lanetarako berez prestaturik daudela pentsatzen da. Edozein heldu legoke, beraz, haurren hezkuntzarako gaiturik.

Bestalde, hezkuntz trebetasun frogatu eta emankor batzuen edo kulturazko tekniken eta, zehaztuz, ikaslearen gizarte-disziplinazko egokitze baterako arauen transmisio huts bezala hartzen du hezkuntza gure gizarteak.

Dena dela, maisua gizartearen aldaketarako eragile moduan ulertzetik eta gatazken ardura hartzeko gai dela onartzetik oso urruti dago gure gizarteak hezkuntzaz egiten duen balorazioa.

– *Maisuaren rolaren arazoa*.

Ideologietatik askatutako gizarte batean ondorengo bizitzaldiek eskatuko dituzten irtenbideak ahalbideratzeko jarrerak transmititu behar dituela eskolak eta ikasleak gizarte-aldaketarako aurrelari izateko prestatu behar dituela badiote ere ikuspegi pedagogiko gaurkoenak, gure gaurko gizarte honetan ez dago eritzi bateraturik etorkizuneko gizarteaz, ez eta beharrezko diren

gizarte-aldakuntzez ere; horrela irakaslea elkarrekiko kontraesanezko diren itxaropenei erantzun beharraren arazoaren aurrean aurkitzen da. Ondorioz, sor daitezkeen gatazketatik ihesbidea aurkitzen saia daiteke edo moral bikoitz baten arabera jokatzen.

– *Maisuaren izaeraren arazoa.*

Lanbiderako prestakuntza zientifikoari ez zaio erantzun, dirudienez, maila bereko gizarte-onarpenarekin eta eskola-burokrazian legokiokeen posizioarekin. Honekin batera eginkizunari dagokion gizarte-soldataren arazoa ere hortxe dago. Eta OERTERek gogoratzen digun bezala, Ni propioaren iharduera pedagogikoaren finkapenerako beharrezko gertatzen dira kanpotikako errefortzu horiek.

Irakaskuntzako langile askori, antza denez, era horretako errefortzuak falta zaizkio oraindik. Eta ikusi ere, hementxe ikusi behar da maisuaren jokabidean nabarmena den segurtasunik ezaren jatorria.

– *Eskola-antolaketaren arazoa.*

Administrazio Publikoak eta honen burokraziak, gero eta kontrol handiagoa jarri nahi dio irakaskuntz munduari, eta ondorioz, gero eta mugatuagoa da maisua ere erabaki askearen bidez iruditzen zaizkion erizpide pedagogiko haiek aukeratzeko. Eta orain bapatean, badirudi, gobernua beste muturreko jarrera hartu nahi duela. Irakaskuntzaren berrantolaketarako lege-egitasmoak dioenez, eskola bakoitzeko irakasle-taldeak erabaki behar du zer, noiz eta nola irakatsi. Irakasle-talde bakoitzaren ardurapean eta erantzukizunpean jarri nahi da eskolan gertatu behar duen guztia. Oraingo egoeratik eginkizun berrietarako prestakuntza jasotzeko betarik eta aukerarik gabe geratuko ote den beldur da egungo maisua. Rol bat utzi eta bestea hartu behar, beldurra eta ondoeza sortzen dizkio. GONZALEZ MONTEAGUDOREn lana dakargu berriro gogora.

– *Irakaskuntzaren profesionalizazioaren arazoa.*

Profesionalizazio-maila nahikoa garatua lor dezanean baka-rrik aurkituko da gaiturik maisua, gaurko irakaskuntzak bere orokortasunean dituen egitura-arazo larriak eta orientabidezkoak konpotzeko, eta bere gizarte-egoeratik sortzen zaizkion gatazka pertsonalei modu baikor batean aurre egiteko. Irakaslegoari asko falta zaio oraindik maila hori lortzeko, GABLE eta PORTER irakasleen hitzetan.

Eskolako eguneroko lan-arazoak

Maisuaren gizarte-egoeraren berezitasun diren kontraesan eta gatazka guzti horiek, bere eguneroko eskol-lana bera ere arazotsua izango dela pentsa erazten dute.

Eguneroko esperientziak baieztatu baino ez digu egiten, eskol-irakaskuntza gaurko bere antolamenduan dituen gatazkek ezkutatu edo arinkeriaz konpondu nahian saiatzzen dela, argi eta garbi eztabaidatu beharrean edo elkarlanean irtenbideak aurkitzeaz kezkatu ordez.

Eskol gatazken sorburu-mailak

– *Maisu bakoitzaren adimen-antolaketa*

Duen balio-hierarkiaren eraginez, errealitateaz moldatutako pertzepzio zehatz indibidualen ondorio da bakoitzaren jokabidea. Jokabidearen ikuspegi kognitibo honek, baditu bere ondorio ezkorrak elaborazio indibidualik ez duten eta hezkuntz lan orok eskatzen dituen adimen-moldaketetara egokitu ezin diren maisuen jokamoduetan; horrelakoak gehienetan, kritika antzuetara edo etsipenera makurtzen dira.

– *Komunikazioaren barne-egitura.*

Barne-gatazken eta ulertezinen sorburu diren jokabide-estrategia arraroenak bideratzen dituzten eritzi ezberdin eta kontrajarririk hementxe dute sorrera maizenik.

– *Maisu, zuzendari eta ikasleen arteko gatazka.*

Eskola bakoitzaren mugen barnean sortzen diren gatazkek dira, askotan muga horiek gaindituz eskola-elkarte bereko beste talde eta instantzietara iristen direnak.

– *Eskolaren eta gizarte-giroaren arteko gatazka.*

Gaitasun zientifiko eta profesionalaren aurka agintaritza duen burokraziaren gorengo zuzendaritzarekiko tentsioak agertzen dira. Ikasleen gurasoekiko, eritzi publikoarekiko eta elkar-go profesionalakiko harremanak ere, izan daitezke gatazketetarako jatorri.

Gatazka-erak eskolan

Hezitzailearen gatazkak osatzen dituzten osagai pertsonal eta sozialez gain, badira eguneroko eskola-lanarekiko zerikusia duten beste gatazka batzuk ere.

Horien sortze-arrazoiak kontutan hartuz sailkapen bat egite-rakoan, LUDTKEk Alemanian eta Austrian burutu zuen ikerlan batean oinarrituko gara. WESTWOODek Ipar Ameriketako eskola-giroan 1971n bideratu zuen beste azterketa bat hartu zuen LUDTKEk gidaritzat. Bi lan horien emaitzak, gure egoerako gatazkak argitzeko ere baliagarri direla deritzogu.

1.- Gizarte-giro dinamiko batean eskola-sistemaren *moldakortasunik-eza*. Ondorioz gizarte-itxaropenek ez dute tokirik eskoletan.

2.- Gizarte-giroaren *tradiziozaletasuna* eskolaren *berrikuntz ahaleginen aurka*.

3.- Ikasleen eta maisuen arteko, nahiz maisu berorien arteko *adin-ezberdintasun* handiegia. Agintaritzaren adinari lotua doanean, arazoa handiagotu baino ez da egiten.

4.- Eskolci ezartzen zaizkien eginkizunetarako *baliabideen urritasuna*, asko eta askotan.

5.- *Sari material* (soldatak) eta *ez-material* (autonomia, izen ona, erabakietarako ahalmena) oso eskasak beste lanbideetakoekin alderatuz gero.

6.- Eskola-antolaketaren *hazitze handia* eta *konplexutasuna*, irakasleengan noraeza eta zalantza ugari sortuz.

7.- Irakaskuntz agintari politikoetatik maisuek sumatzen duten *babes-falta*.

8.- Irakaslearen sentipen-emoziozko eta disziplinazko eginkizunen arteko *aurkakotasuna*: irakaskuntz emankortasuna laguntza pertsonalaren aurka.

9.- *Zehaztapenik gabeko rol lainotsu baten indarra*, maisuari rol-barneko arazoak sortzen zaizkiolarik.

10.- Pedagogian gaituaren rol-aren eta burokrazi rol-aren artean dagoen *aurkakotasuna*.

11.- Balioen eta helburuen arteko *kontraesana*: egizkotasuna eta maitagarritasuna, eskola-noten eta aukeraketen aurka.

12.- Hezitzaile-rola "karrera egitearekin" *elkartuezina*: eskola-agintaritzan edo administraritzan goratzeak ikasleekiko leialtasuna ezinezten du.

13.- Eskola-barneko maisuaren rol-a gizarte-antolaketa anizkorrearekin *elkartzeko zailtasuna*.

14.- Taldearen arauak onartu nahi ez dituen maisuak *beregatnatu* beharra duen *baztertuaren rola*.

Irakasle-lanbideak bere dituen gatazkentzako konponbideak

Eskola-munduko gatazkentzako irtenbideak aipatzen hasi aurretik, zera gogora erazi nahi dugu: giza harremanetara beharturik dagoen giza jokabidean gatazkak sortuko direla, gizakiok errealitatea ikuspegi ezberdinetatik eta helburuak bide bereiztuetatik jarraitzeko ahalmena bait dugu.

Gizarte-harremanen dinamikari dario, batetik, bakoitzaren eta taldearen eskubideen eta, bestetik, gizarte-gatazken arteko oreka moldatzea.

"Gatazkak ala pakea eskolan" planteatzeak, ez du, beraz, zentzurik. Benetako konponbidea beste bat da: gatazka ez-arrazoizkoek, zanpatzaileek irabazi behar duten, ala ezinbesteko ez diren, baztergarri edo orokor diren gatazkak deuseztatu eta arrazoipean har daitezkeen, erabaki behar da.

Azken hau gerta dadin, ezinbestekoak dira erakunde bidezko baldintza batzuk.

Gatazken konponbiderako erakunde bidezko baldintzak

Errealismoa: gatazkak eman daitezkeela eta, beroriei aurre segurtasunez egiteko jarrera baloratzailea eskatzen du, norbanakoei eta taldeei dagokien autonomia onartzen zaielako eta gatazka eguneroko eskola-bizitzako osagai direla jakina delako.

Harremanak eta argitasuna: gatazken benetako arrazoiak bilatzeko borondatea auresuposatzen da, itxuretan geratu gabe.

Irekitasunez eta aurreritziarik gabe elkar ulertzeko moduak izan beharko luke eskolan ohizko, NICKELek dioen bezala, horixe bait da heziketa-ihardueran benetan ardurazkoa.

Guztien onerako dena argumentazio nagusia: egoera gatazkatsuan parte hartzen duen gehiengoaren interesetan joango diren konponbideen alde jokatzuz eztabaidatu eta argitu behar dira eskolan sor daitezten arazoaren arrazoi eta eraginak.

Erakunde bidezko arauketa: argi utzi behar da zein erakundetara, elkargo erabakitzailetara, espertorengana jo behar den horrelakoetan eta zeintzuk diren joko-arauak; hau da, legezko eta zuzentasunezko konponbideak ziurtatu behar dira, kasualitateari eta tratu-ezberdintasunari tokirik utzi gabe.

Demokrazia: dagokien guztien ordezkapena eramango duten erakunde eta pertsonak ahalbideratu behar dira, askatasun eta konfidantza osoz aukeratu ahal izango direlarik horretarakoak.

Baldintza guzti horiek eratuak eta ziurtatuak daudenean bakarrik hitz egin ahal izango da konponbide-aukeraz: eskolaren eta bertako guztien ondareaz alegia.

Irakasle-rolaren eta eskolako gatazken konponbiderako hainbat erizpide.

Arazoaren konponbidea ez da arazoaren erabateko deuseztapena, eskolari dagokion edozein egoera pertsonal edo sozialen garapen gatazkatsuen kontrol onargarria baizik, gatazkaren erasokortasun-gaitasuna edo gaitasun kaltegarria gutxiagotu edo ezereztu asmoz.

Norbanakoa sentiberatzea prestakuntza egoki baten ondorio moduan.

Sentiberatze hori adierazteko, kontzeptu didaktiko berri bat sortu dute KELLER eta NEUMANNek. Bai adimenez eta baita gizarte-harreman mailan ere, gatazkentzako konponbideak prestatzeko oinarrizko gaitasun batzuk lortzea da arazoa. Hona hemen batzuk: arazoak ulertzeko eta artikulatzeko gaitasuna, harremanetarako erraztasuna, sentipen-kontrola, autobehaketa eta egoeraren azterketa objektiboa, edozein egoera gatazkatsutarako egoki diren jarrera razional eta politikoak ikastea,...

Honako hauek lirateke sentiberatzearen ondorioak: bere jokatubidea egoera gatazkatsura egokitzeko gauza izango litzateke irakaslea, baita posizio ezberdinetan leudekeen pertsonak ulertzeko ere, era berean edozein motatako eskabideak aurrera eramateko gaituko lukeen talde-elkartasuna garatzeko, etab.

Konponbidea gatazka sortu orduko bilatu

Inplikatuena erantzukizunaren zentzua azpimarratzen du jarrera honek, edozein arazo sortzen denean goragoko instantzietara jotzen ibili gabe.

Arazoen alferrikako hedapena edo konpondu beharrean berorien burokratizazioa —arazoak okertzeko bideak biok— saihestu nahi dira printzipio honen bitartez. COMBEk dioenez, zentzurik gabeko eztabaidetatik babesturik geratzen da horrela eskola eta partaideen arteko ezberdintasunak ez dira bukatzen erabaki eskematiko, ofizial eta urrutikoen bidez: interesatuei erantzun egoki bat emango ez lieken erabaki burokratiko baten bidez, alegia.

Goragoko instantzia batera aldatu gatazka

Eman ohi dira jarrera hau eskatzen duten egoera gatazka-tsuak, batez ere arau juridikoak eta hauen ulertze-moduak tartekatzen direnean. Horrela, gatazka berrietarako bide liratekeen interpretazio subjektiboetatik aske geratzen da eskola-erakunde guztia. Irtenbide hau, ordea, garestia eta luzea izateaz gain, ez da ongi ikusia irakasleen artean; erakutsi, ordea, beste zerbait erakusten digu eguneroko esperientziak, lege-hutsuneek eta interpretazio interesatuek, egoera askotan arazoak konpondu ordez okerragotu baino ez dutela egiten.

Erakundebidezko aldaketak

Eskolak sortzen dituen gizarte-egoera askori ez dio irtenbide egokiegirik aurrakusten berehalako lege-moldaketa berriak. Ertz ugaritatik irten dira ahotsak lege-egitasmo berriaren eta irakas-kuntzaren funtzioak arautuko dituen legeria berriaren aurka. Bidea, beraz, ez dago behar lukeen bezain argi; eman diren urrats guztiak, gure ustez, ez dira zuzen eman, eta adierazirik geratu denez, kezka eta larritasun handiegiak sumatzen dira, oraindik ere, irakaslegoaren artean.

Eta hemen gure zalantza bat: irakaskuntzaren birmoldaketarako arrazoiak ikuspegi eta behar pedagogikoetan ala erakunde-aldaketen eta interes politikoen ondorioetan oinarritzen dira? Galdera hor geratzen da.

Eta LUDTKeri jarraituz, konponbide orokorrek psikologiki asko erretzen duten gatazka pertsonalen emaitzak eskatzen dituzte.

Irakaslegoaren etengabeko prestakuntza egokia

Gure ustez, etengabeko prestakuntza honek, hiru alderdi ditu eta hirurak ere garrantzi handikoak.

Maisuen lanbide-posizioaren zehaztapen handiago bat ahalbidertzen duen irakaslearen espezializaziorako balio du etengabeko prestakuntzak. Era honetan, norgehiagoka-gatazkak gutxiagotu, elkar-ulertzea erraztu eta eskola-barruko elkarlana eta plangintza ahalbidetzen ditu.

Jadanik, iraganeko hezkuntz eskemei loturik jarraitzen duten hainbeste irakasleen prestakuntza atzeratuan sorburua duen gatazka ugari aurrez jarriko litzaioke konponbidea.

Gizartean txertatutako profesionalen etengabeko prestakuntzarako garrantzitsu diren eskolaz kanpoko beste erakunde eta taldeekiko harremanetara behartzen du horrelako prestabeharrak.

Azken oharrak

Bereziki hedapen psikosoziala duten hezkuntz munduko gatazken arrazoiak agertzen saiatu gara lerro hauetan zehar, egoerak izan daitezkeen irtenbideak ere proposatuz.

Baina gure aldetik sineskeria teknokratiko bat baino ez litzaiteke, horrela gatazkak behin-betirako konponduko edo berorien kausak deuseztaturik geratuko liratekeela pentsatzea, eskola-erakunde eta antolaketa hain konplexua eta dinamikoa dela jakinik.

Irakaskuntz lanbidean gatazkek stresa sortzen dutela baieztatu ondoren, zera ere adierazi nahi dugu, aldi berean aldakuntzarako, berrikuntzarako eta gizarte-aurrerakuntzarako ere, aukera egokiak eskaintzen dituztela.

Honetaz, gainera, ez litzateke zuzena izango geldi-geldi gertzea eskolari dagozkion gizarte-kontraesan sakonak konpondu zain, eskola-esparru mugatuko arazoei irtenbideak bilatzen saiatu gabe. Irakaslearen rolari dagozkion gatazkek hortxe daude, eta hor badaude aurre egiteko eta konpontzeko daude. Hau ere adierazi nahi genuen.

Aipatutako bibliografia

- COMBE, A. (1971): *Kritik der Lehrerrolle*, List Verlag, Munich.
- DAHRENDORF, R. (1972): *Konflikt und Freiheit*, Munich.
- ESFEVE ZARAZAGA, J.M. (1984): *Profesores en conflicto*, Madrid.
- (1987): El malestar docente, in: ETXEBERRIA, Felix: *El fracaso de la Escuela*, Erein, Donostia.
- GOBLE, N.N.; PORTER, J.F. (1980): *La cambiante función del profesor*, Narcea, Madrid.
- GONZALEZ MONTEAGUDO, J. (1988): "El deterioro de la salud y del malestar de los profesores. Su incidencia en las reformas curriculares", in: *El profesor y la experimentación curricular*. Actas VI Jornadas de estudio sobre la investigación en la Escuela. Sevilla.
- HABERMAS, J. (1973): *Hermeneutik und Ideologiekritik*, Frankfurt a M.
- KELLER, U.; NEUMANN, G. (1972): *Kritische Erziehung*, I. Opladen.
- KRÜGER, H. (1974): *Die Konfrontation des Lehrers mit dem sozialen Hintergrund der Schüler*, Bonn.
- KUPFER, A. (1975): *Frankfurter Hefte*, II, Frankfurt a M.
- LÜDTKE, H. (1974): en Krüger H. & Ludtke, H.: *Konflikte im Lehrerberuf*. Akademie Sauckelmark, 20/21, Bonn.
- MINISTERIO DE EDUCACION Y CIENCIA. (1987): *Proyecto para la reforma de la enseñanza*, Madrid.
- NICKEL, H. (1981): *Psicología de la conducta del maestro*. Herder, Barcelona.
- OERTER, R. (1975): *Moderna psicología del desarrollo*, Herder, Barcelona.
- REIMER, E. (1974): *La escuela ha muerto*. Barral, Barcelona.
- TAUSCH, R.; TAUSCH, A. (1981): *Psicología de la educación*. Herder, Barcelona.
- STRUNZ, K. (1979): *Pädagogische Psychologie für Höhere Schulen*. Reinhardt, Munich.
- VEGA FUENTE, A. (1974): *La formación del maestro ante las drogas: teoría y práctica*. La Escuela Española, Madrid.
- VILLA, A. (1988): *Perspectivas y problemas de la función docente*. Narcea, Madrid.
- WELLENDORF, F. (1974): "Soziale Konflikte in der Schule", in: WEINWERT: *Pädagogische Psychologie*, Frankfurt.

Euskararen erabilera, herritarren arteko harreman juridikoetan

Andres Urrutia

Gune juridiko-pribatua eta hizkuntza

Orokorrean*, "juridiko" hitzak berez, publikoa eta pribatua zer den ez badu bereizten ere, ordenamendu juridikoaren batasuna bat delako, nabaria da biotan, aldiz, hizkuntza, beste harreman sozialetan bezalaxe, zuzenbidean ere, gizakien arteko komunikaziorako ezinbesteko tresna dela.

Eta ez nolanhiko lanabesa, baizik eta zehatza eta ondorio aniztuna. Hizkuntza, zuzenbidearen (edozein giza ekintza legez) muinean bait datza eta muin horretan ondo errotua bait dago.

Hortaz, hizkuntzaren tresnatasun juridikoa ezin ahanzi, ezin uka. Alderdi honetatik, guri dagokigun aldetik, euskara hizkuntza dugu aztergai eta euskararen esparru konkretuan ematen diren hainbat egoera eta arazo juridiko, euskarari buruzkoak eta euskaraz moldatuak, euskararen bizia arautzen dutenak eta euskara baliabidetzat erabiltzen dutenak; hitz bitan esateko, zu-

zenbide-munduan euskararen statusa (kokagunea) eta corpora (barne-tankera) adierazten dutenak.

Ez dugu ordea, Administrazio publiko edo eta agintedun erakundeen sokatik tenk egingo; baizik eta pertsona pribatuaren arteko tirabiretan eta ekintzetan miatuko. Honela, gure ustez, bi helburu lortuko ditugu; batetik euskara eta zuzenbide pribatua lotzen dituen katea kontzeptuala gotortzea, hauxe bait dago, hain zuzen ere, gure artean gutxi ikertua, eta bestetik argi eta garbi azaltzea, euskarari buruzko legeria berriak "publiko" izenlaguna duen oroz kanpo, "pribatua" dena ere bere juridikotasunean hartzen duela.

Xedeak xede, helmuga jakin baten zehaztapena inposatzen da, larregizko joranak urrutiegi eraman ez gaitzan eta horrexegatik zuzenbide pribatuaren abagune zabalean, gure helburutzat, harreman zibil eta merkatal arlokoak hartu ditugu, "negozio juridiko" kontzeptuaren ildotik, aukerapen honek lan-harremanak kanpoan uzten dituela (hala nahita noski), ausaz, beste lan oso baterako gai izan daitezkeenak izaki, eguneroko bizimoduan duten eragina ikusirik batipat.

Xedeari heltzeko, alabaina, beharrezkoa zaigu nolabaiteko tresneria kontzeptuala, gai honen inguruan indarrean dagoen legeria eta ingurugiroa ikertzeko. Gure ahalak eta leherrenak jarri ditugu horretan, lortu ala ez gerokoak jujatzekotan.

Bestalde ere, euskal juristok ohi dugunez, honetan ere ezin betiko leloa baztertu; hemen agertzen dena Hego Euskal Herriko egoerari bait dagokio, Ipar Euskal Herriaren gorabeheretan aritzeko, ez bait gara gai. Dena dela, Euskal Komunitate Autonomoa eta Nafarroa abiapuntutzat harturik, geldi bedi horietan, oraingoz bederen, gure zeregina.

Zeregin honetan halako bizpahiru marka nagusi ditugu betegarri:

- a) Harreman juridiko pribatuetan nagusi den askatasun linguistikoaren printzipioaren azalpena.
- b) Gai honi buruz Konstituzioak, Autonomi Estatutuek eta Hizkuntza Normaltzeko Legeek duten eragina.
- c) Zuzenbide zibileko zein merkatal arloko zenbait arazo puntualen azterketa, erregulazio berri honen argitan.
- d) Euskara eskubide legez, harreman juridiko pribatuetan.

Hemendik eta ondorioz, nahiko genuke gogoeta batzuk egitea, ez soilki euskararen egoera zein den argitzeko, baizik eta zein izan daitekeenaren bila joateko, euskararen presentzia bermatu beharko lukeen erregulazioaren ustean, honetan zuzenbidearen adar honek erakar ditzakeen fruituak kanporatzeko, gizartearen (eta gizartean diren pertsona partikularren) akuilua euskararen normalkuntzan oso garrantzitsua delako.

Beraz, gure eginkizuna, aldez aurretik, ez da neutrala izango, interesatua baino, biziki interesatua gainera, Euskal Administrazio Publikoaren aldetik egiten ari diren euskara zuzpertzeko aha-legendetan, gizartean bertan osatuak izan bait daitezke, harreman juridiko pribatuetan euskarari ere bere lekua emanez geroz.

Eta ez dugu uste honek zientifikotasunik ukatuko digunik; azken finean, euskarak, hizkuntza gutxitua eta gutxiengotarra izatetik hizkuntza normal baten statusera igaroteko bidean, Administrazioarena ezezik, gizarte osoaren laguntza ere beharko bait du.

Harreman juridiko pribatuetan nagusi den askatasun linguistikoaren printzipioa

Harreman juridiko pribatuetan, batez ere negozio juridikoe-tan, nagusi den borondate-askatasunaren ondorio zuzena dugu askatasun linguistikoarena. Guretik hain urrunekoak ez diren beste testuinguruetan zehaztu denez¹ pribatutasuna duten edo gune pribatuan diren pertsonak, fisikoez zein juridikoez, askatasun osoa dute beren harremanak antolatzerakoan, eta ondorioz haiek burutzerakoan, beratuetan hizkuntza batez zein bestez baliatzeko.

Bestelakoak dira, jakina, hizkuntza batez moldaturiko harreman juridiko horiei ordenamendu juridikoak ezartzen dizkien mugak eta ukangaiak (esaterako hizkuntzazkoak), harreman horiek beren ondorio juridikoak sortzea nahi izanez geroz.

Beraz, eta klasiko bihurtu den harreman juridiko baten zehaztapena honaxe alderatuz² harreman juridikoak, "pertsonak bizi duten egoera juridikoa, ordena juridiko orokorraren menpean antolatua, printzipio juridiko berezi batez" eta ondorengo,

honako harreman juridiko pribatu hauek berezi ahal izatea suposatzen duela esan genezake:

- 1) Egoerari buruzko harremanak, hots, pertsonaren egoerari buruzkoak.
- 2) Famili harreman juridikoak.
- 3) Gizarte-kooperaziozko harremanak; elkartzeko-prozesuetan zein lan-harremanetan.
- 4) Trafiko-harreman juridikoak, oinarrian ondasunen gaineko xedapenak eta eskualdaketak hartzen dituztenak³.

Beraz, harreman juridiko hauetan hizkuntzak jokatzeko duen zeregina, bere jatorrian datza. Sortzez ezin hizkuntzaz posibletan izan arren, ordenamendu juridikoak gero nolabait estutu egiten ditu, bere ondorio juridikoak efektiboak egiterakoan, azken finean, ordenamendu juridikoak bere magalean kokatzekotan.

Problematika hori euskarak egun bizi duen egoerara alderatzen badugu, argi ikusten dan, gazteleraz/euskaraz bizi den/dugun bikoiztasunak, aurreko harreman juridiko pribatuetan ere bere eragina duela.

Geroxeago eta konkretuago sakontzeko gogoaren kalterik gabe, esan dezagun bidenabar, euskarak gaur duen "status" ofizialak, hala nola, bere zeresana duela honetan. Izan ere, (bestelakoa defendatzea zentzugabekeria bait litzateke) euskarak gozatzeko duen "ofizialtasun" horrek arlo publikoan (hots, Administrazio-motek parte hartzen duten eremuan) ezezik, bai bait ditu ondorioak "statusa"aren aldetik harreman juridiko pribatuetan ere, eta ez Administrazioak, beste ezin subjektuk bezala, horietan parte hartzen duenean bakarrik.

Honi buruz esan beharra dago gaurko marko konstituzionalan, hizkuntza bat "ofiziala" izateak zer esan nahi duen, ongixko azaldu duela Auzitegi Konstituzionalak, Euskararen legeari buruz eman zuen Epaian, non, beste gauza askoren artean, honela zioskun:

"Aunque la Constitución no define, sino que da por supuesto lo que sea una lengua oficial, la regulación que hace de la materia permite afirmar que es oficial una lengua, independientemente de su realidad y peso como fenómeno social, cuando es reconocida por los poderes públicos como medio normal de comunicación

entre ellos y su relación con los sujetos privados, con plena validez y efectos jurídicos..." (A.K.ren 82/86 Epaia 2. Oinarria)

Hala ere, ofizialtasun honek, noski, ez du ukatzen harreman juridiko pribatuetan euskara erabiltzeko eskubidea, botere publikoek parte hartzen ez duten harreman juridikoetan batez ere. Bestelakoetan ofiziala bada, pribatuetan ere erabilgarria, bi zioz: batetik, sortzez hizkuntza ofizial batez buruturiko jatorrizko harremanak baliodunak direlako (beraz, euskara hutsezkoak ere bai) eta bestetik ordenamendu juridikoak harreman juridiko honen zenbait ondorio sortzeko galdatzen dituen osagaiak hizkuntzari dagokionean bederen, bete-betean, Legearen meneko eremuan sartzen direlako.

Oinarrizko askatasun linguistikoaren printzipioaren nondik norakoa erakutsi eta gero, goazen orain, gai honen kokapen juridikoa azaltzera.

Gai zibilak eta merkatal arlokoak, gure aztergaiak, XIX. mendean lehenengoetarikoak izan ziren Kodegintzaren prozesuan, eta konkretuki Espainiar Estatuaren Kodegintzan, non joera nagusiak, Savigny-ren eskola historikoaren eta liberalismoaren jokaera uniformizatzailearen tartean ibili ziren luzaroan⁴.

Estatu baten xedez, merkatu, lege eta hizkuntza baten jomugaz, Espainiako Kode Zibil berantiarrak ez zuen gaztelari buruzko inolako xedapen konkreturik ezarri, gai hori, betidanik eta inplizituki, gaztelaren nagusitasunaren aldetik auresuposatzen bait zen, Kodegintz prozesu abstraktuan hizkuntza baino erakunde juridikoen edukin abstraktu eta razionala begiraturaz. Guk dakigula, Kodearen hizkuntzazko xedapen bakarra, hizkuntza arrotzez testamentu egiteari dagokio, hain zuzen ere dokumentu hori onartzen duenari⁵.

Ohargarri da, alabaina, Alonso Martinez Espainiako Kode Zibilaren eragile eta aitaponteko nagusiak idatzitakoa, kode honen argitalpenak zeuzkan oztupoak argitzerakoan (Zuzenbide Foralen aldetik batipat) Kodea eta gaztelera nola lotzen zituen bala-bala frogatzeko. Kodearen hedakuntza eta gaztelaren zabalakundea elkarrekin erlazionaturaz⁶.

Merkatal kodeak, ordea, bere harreman bereziak zirela medio, zabalago jokatu zuen eta gaur indarrean dagoen bere 51. artikuluan ezin hizkuntzaren aldekoa denik ezin aitziz, askatasun erabatekoaren izenean:

“Artículo 51. Serán válidos y producirán obligación y acción en juicio los contratos mercantiles, cualesquiera que sean la forma y el idioma en que se celebren... con tal de que conste su existencia por alguno de los medios que el Derecho Civil tenga establecidos”

Bistan da, dena den, harreman juridiko pribatuetan kontrako xedapenik ez egon arren kodeetan, oztopo franko izan direla euskararen erabilera bermatzeko⁷ eta orokorrean mundu honetan ez duela ezelako sarrerarik izan. Beraz ez dugu zertan harriturik, egunotan, lege berrien haize-bolada honetan, euskararen esparru juridikoa zabaltzen den ber, arlo honetako gaiak eta aurreratzeko gogoak hedatzen badoaz. Horretarako azter ditzagun egungo marko erreferentzialak hizkuntzari dagokionean behintzat.

Erregulazio Konstituzionala: Hizkuntz Normalkuntzarako Legeak eta harreman juridiko pribatuak

Kelsen-ek ezarritako doktrina juridiko ezagunari jarraituz⁸ arau-piramidea garatzekotan begibistakoa dugu, euskarari dagokionez, Espainiako Konstituzioa dela “Grund Norm” edo arau nagusia eta oinarrizko araua bere hirugarren artikuluan, zeinak eskualdeetarako bere erregulazio konkretua, eskualdeetako Estatutueta igortzen duen; hizkuntzei buruz behinik behin, gaztelararen eta “beste Hizkuntzen” ofizialtasuna deklaratu eta gero, azkenenean gaztelera ezagutzeko betebeharra ere ahanzten ez duelarik.

“Artículo 3.

1. El castellano es la lengua oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerla y el derecho a usarla.
2. Las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con sus Estatutos”

Konstituzioaren barne, gai honek halako teinkadura batetan dihardu, jardun ere, gaiz eta hizkuntzazko eskuduntzak desberdinak gertatzen bait dira, hala nola:

Gaiz eskuduna dena, ezpairik gabe Estatu da, argiro irakurtzen denez Konstituzioaren 149. artikuluan, 6. eta 8. ahapaldietan:

“Artículo 149:

1. El Estado tiene competencia exclusiva sobre las siguientes materias:

6º Legislación mercantil...

8º Legislación civil, sin perjuicio de la conservación, modificación y desarrollo por las Comunidades Autónomas de los derechos civiles, forales o especiales, allí donde existan...”.

Hizkuntzaz, ordea, gai hauen aldarte linguistikoak Komunitate Autonomoen menekoak izan daitezke, hain zuzen ere, aurrekoarekin askotan kontrajartzen dena, Auzitegi Konstituzionalak eskritura publikoei buruzko epaian gogoratu digunez, Katalunyako Generalitateak, bere hizkuntzaren normalkuntzarako ekintzetan barne, jarritako Dekretuari buruz aritzerakoan⁹.

Salbuespen gisa, agian, Zuzenbide Foralaren patua har daiteke. *Gaiz* zein hizkuntzaz, Euskal Komunitate Autonomoaren nahiz Nafarroaren eskuduntzen artean egonik, ez du bere historia luzean zehar euskara dela eta berarizko aipamenik ezagutu.

Nafarroako Foru Berriaren euskaraz testatzeko ahalmenez at¹⁰, ez dago beste zerarik lege-testu foraletan. Komunitate Autonomoan, Zuzenbide honen berriztapena gertatzen ari den une honetan, oso ohargarri bilakatu da zenbait proiektuk biltzen duten arlo honetako egintzetan euskara erabiltzeko aukera¹¹. Oстера eta legeria linguistikoaren kontraesanen bitxitasun bezala, hizkuntzari buruz bederen, Zuzenbide Foral gunean beti “pertsonalitate”-printzipioaren arabera jokaten da, egungo legeria linguistikoaren “lurraldetasun” hutsaren aldamenean.

Mailaz maila, hizkuntzari buruzko legerian, euskararen alde tik Euskal Komunitate Autonomoaren Estatutua eta Nafarroako Hobekuntz Legea datoz hurrengo pausoan, hemendik eta “ofizialtasun”-deklarazioa egin eta gero, hauetxek igortzen gaituzte eta Hizkuntz Normalkuntzarako Legeetarantz.

Ohar bedi, arau-piramidean hauetxek direla azken mailaren kokalekuak eta Euskararen aldetik bi testu ditugula: “Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea” edo Euskararen Normalkuntzarako Legea eta Nafarroako “Ley Foral del

Vascuence". Helmuga desberdinak deiturretatik beretatik ekarri arren, argi dago batean "normalkuntza"-rako desioa dena, bestean "uso" soila bihurtzen dela, lurralde-mugatasun gogor batekin.

Hala ere, euskarari buruzko lege bi hauek, Estatuan argitaratu diren beste guztiak legez, gutxi ala franko hizkuntzaren erabilera pribatuaz mintzatzen dira. Guztiak konparatuz eta erkatuz, badugu multzoketa batera iristerik, lege hauek hizkuntzaren erabilera pribatuari ematen dioten garrantziaren arabera. Horrela bereiz genitzake:

a) Lehen mailan, eta harreman pribatuei buruzko aipamen berezirik ezean, alderatu beharra daukagu "Lei de normalizacion linguistica do galego" non hizkuntzaren barneko normalizazio-kontuetan, "partikularrei" buruzko xedapenak bakarrik aipatzen diren¹². Antzeko zerbait gertatzen da Nafarroako "Ley Foral del Vascuence" rekin, non bere lehen artikuluan, nafartarrek euskara erabiltzeko duten eskubidea eta, era mugagabe batez gainera aipatzen den, gerokoan nafartarrek euskara ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea dutela aitortuz azkenean, hizkuntza dela eta, inor diskriminatua izan ez dadin botere publikoek neurriak hartuko dituztela deklaratu arte¹³.

b) Bigarren multzoan kokatuko litzateke, ezpairik gabe, Euskarari buruzko Normalkuntzarako Legea, non helburuez at, euskara harreman pribatuetan erabiltzeko eskubidea ere baden (5. artikulua, 1. zenbakia, 2 b eta d letrak) eta gainera hizkuntza dela eta diskriminazioa ezabatu eta gero (4. artikulua), halako xedapen berezirik ere baden, euskararen erabilera sozialari buruz, nahikoa zabala den kapitulu oso batean zehar (IV. kapitulu) ¹⁴.

c) Hirugarren multzoan kokatuko lirateke, katalanaren inguruko legeak (Catalunya, Baleares, Valencia). Hemen Catalunyak legea abiapuntutzat harturik, erregulazio zabala egiten da katalanaren erabilera pribatuari buruz. Honela hasieratik (2. artikulua) katalana "bertako hizkuntza propioa" dela azpimarratu eta gero, berau erabiltzeko eskubidea onartzen da "relacions i actes publiques, oficials i no oficials". "Aquest dret suposa... poder adreçar-se... a les empreses publiques i privades..." eta gerokoan hizkuntza dela eta diskriminaziorik eza arautu eta gero (2.3 artikulua) diskriminazio-ez hori egintza pribatuetara ere hedatzen da, azkenean, pertsona fisikoei ez ezik, pertsona juridiki-

koei buruz ere xedapen linguistiko hauek zabalduz. Balearsko Lege linguistikoaren bigarren artikulua eta Valenziako lege linguistikoaren hirugarren eta laugarren artikulua ere antzekoak dira.

Hemen gaude beraz, Pizzorru-k¹⁵ adierazi digunez, ondorio juridikoak dituzten harreman juridikoak xedatzeko unean, eta zuzenbide pribatuzko erregulazioan, kodegintza abstraktu haren izenean, ez da izan oso ohizkoa arau juridiko-linguistiko batzuk ezartzea izan ere, betidanik gelditu bait da bere aiurri hori arautzeko, lehen esandako eskema doktrinalaren bidez uler daitekeenez.

Honetara dator, doi-doi, lehen aipaturiko kodegintzaren prozesuan xedapen linguistikoak hain eskasak izatea.

Baina hori horrela bada ere, ez da gutxiagokoa, normalkuntza honek, bestelako ondorioak ekar ditzakeela, nabaria denez, gaiak baino arago hizkuntzaz. Izan ere legeria zibila eta merkatal arlokoa, eskuduntzaz estatukoak badira ere, hizkuntzaz mintzaira ofiziala duten Komunitate Autonomoen menekoak izan bait daitezke.

Hortaz, zenbait kasutan bederen, harreman juridiko pribatu hauek beren ondorioak sortzeko, forma berezi batez hornituak izan behar dutenean, forma horien hizkuntzari buruzko gatazkak eta istiluak izatea jarraitzen da, kasurik gehienetan, Estatuak ez bait du betetzen hizkuntz eskakizunei dagokien betebeharra.

Honi buruz jardungo dugu jarraian, pausoz pauso eta denbora laburra hala eskatuta, legislazio zibil zein merkatalak eskaintzen dizkiguten erakunde juridiko batzuk deskribatzerakoan, hori bai, gaia agortzeko inolako asmorik gabe.

Zuzenbide zibil zein merkatal arlokoaren zenbait arazo puntualen azterketa, euskararen ofizialtasunaren eskutik

Arlo honetan eta aurrera segi ahal izateko, honela banatu dugu egingizuna: 1. Zuzenbide zibileko arloa. 2. Merkatal negozioak. 3. Kontsumoaren Zuzenbidea. 4. Interpretazioaren bideak.

Zuzenbide zibileko arloa

Zuzenbide zibilean, errealitatearen multzoa adieraztean, egitate juridikoen aldamenen negozio juridikoa dugu eta berak hizkuntzarekin duen lotura hertsia da gure xedea.

Jakina eta ezaguna denez, negozio juridikoaren kontzeptu klasikoaren barne, borondatearen azalpena dagoen aldetik, borondate honen kanporatzean, badu zerikusirik hizkuntzak.

Borondatea kanporatzeko moduez ari garelarik, teoria juridikoan behinik behin, formez ari gara. Eta formari dagokionez, Espainiako zuzenbide pribatuan, kontratueta bereziki, printzipio orokorra formaren askatasuna dugu, Kode Zibilaren 1278. artikuluan argiro adierazia:

“Los contratos serán obligatorios, cualquiera que sea la forma en que se hayan celebrado, siempre que en ellos concurren las condiciones esenciales para su validez”.

Hori horrela esanda, eta besterik gabe, formaren askatasunetik hizkuntzaren askatasunera doan bide luzea/laburra egina genukeela pentsa genezake.

Ez da horrela. Eta bere sorkuntzan negozio juridiko mota hauen oinarrian hizkuntz askatasuna badago ere, forma honen ukanbeharrek estukiro mugatzen dute aipaturiko askatasun hori.

Honela eta klasikoa bihurtu den mailakatze bati jarraituz, argi dago honako hau zuzenbide zibilean¹⁶:

– Printzipio orokorra forma-askatasuna izanik, alderdi baten prestazioa 1500 pezetakoa baino gehiagokoa bada, kontratuek idatzizkoak izan behar dutela (1280, 6. artikulua), bestelakoetan ahozkoa izan daiteke. Honek ordea, ez du beste hizkuntz araurik jartzen eta beraz euskara/gaztelarazko kontratuak posibleak lirajteke besterik gabe.

– Badira idatzizko forma baino gehiago, idatzizko forma bereziak eskatzen dituzten negozio juridikoak, Kode Zibilak 1280. artikuluan adierazten duenez. Beraz, hemen, dokumentu publikoen eremuan gaude. Eta kodeari bagagozkio, dokumentu publiko hauek notari zein funtzionari eskudunen aurrekoak ditugu. Kontratu honen eraentza linguistikoa beraz, dokumentu publikoarena dugu eta hauetxen artean, nabaria denez, dokumentu notarialena.

Azken hauetan, esaterako, bistan dago indarreango Notari Lege eta Erregelamenduaren esana:

“Artículo 25. Los instrumentos públicos se redactarán en lengua castellana y se escribirán con letra clara, sin abreviaturas y sin blancos” (Legea)

“Artículo 149. Cuando el documento se otorgue en territorio español en el que se hable lengua o dialecto peculiar del mismo y todos o alguno de los otorgantes sean naturales de aquel territorio sometidos a su derecho foral, el Notario, siempre que entienda suficientemente, declarándolo así, el idioma o dialecto de la región, a solicitud del interesado, redactará el instrumento público en idioma español y en la lengua o dialecto de que se trate, a doble columna, para que simultáneamente puedan leerse y apreciarse ambas redacciones, procurando que gráficamente se correspondan en cuanto sea posible, a cuyo efecto deberá tachar las líneas que por ello queden en blanco a la terminación de la columna que resulte menor” (Erregelamendua)^{16 bis}.

Arau hauek, gaur egun, ez dira salbagarriak, konstituzioaren erregimenean, erregelamenduaren artikuluan ageri den “lengua peculiar” hori zabal ulertzen ez bada eta “edozein hizkuntza espainola” dela onartuz (beraz, euskara ere bai).

Bigarrena, aldiz, indarge gelditu da, Konstituzioak, Estatuak eta gainerako hizkuntz Legeek ekarritako sistemarekin. Ohar bedi, haatik, Euskal Komunitate Autonomaren euskararekiko Legeak ez duela dokumentu publikoari buruzko inolako xedapenik garatzen eta 9. artikuluan egiten den aipamen soila (“escritos y documentos presentados en euskera”) dokumentu judizialen aldetik dabilela eta arazoak ekar ditzakeela, euskararen aldetik, horren erabilera dokumentu publikoetan, (eta notarialetan ere) arautzerakoan. Oso bestelakoa, agian, Nafarroako Hizkuntz Legearen irtenbidea non, gune geografiko mugatuan, izan arren, dokumentu publikoen erregimen linguistikoa erregulatua izan den, Estatuaren beste Komunitate Autonomoen Hizkuntz Legeek ezarritako eredia jarraituz.

Beraz, eta Komunitate Autonomoan euskarazko dokumentu publikoak, harreman juridiko pribatuak biltzen dituztenak, baliokoak direla baieztatzeko ofizialtasuna batetik eta Kode Zibilaren 11. artikulua bestetik ditugu oinarriak honetan bertan, bere lehen ahapaldian kontratuen forma eta solemnitateak egilesten diren lekuko legeak agindutakoak direla arautzen denez. Beraz, euskara ofiziala den lurraldeotan, nabaria da dokumentu publiko hauek euskaraz egiteko posibilitatea.

Falta dena, ausaz, azken pausoa da, hots, dokumentu publikoak euskaraz egiteko posibilitatearen esanbidezko onarpenarekin batera, kontrakarreko xedapenen ezabapena (kasurako dokumentu notarialena), honela forma-askatasun hori egiazko hizkuntz askatasuna izan dadin.

– Azkenez, badira beste negozio batzuk, zeinetan dokumentu publikoaz at, beste legezko elementuak ere beharrezkoak diren, dela:

1. Autoritate administratibo baten baimena, Erregistro batean egindako inskripzioaren bidez.

Honek zuzenean eramaten gaitu eta negozio juridiko pribatuekiko duten harremanarengatik, Erregistro Publikoetako erregimen linguistikoa zehaztera:

A) Euskal Komunitate Autonomoaren menpean ez diren erregistro publikoetan (erregistro "juridikoak" deituak izan direnak)¹⁷ euskararen sarrera desberdina da:

Erregistro Zibilean esaterako, erreforma erabat kafkiar baten ondorioz (1917/1986 eta 628/1987 Erret-dekretuen bidez, euskara lehenean onartu ez zelarik, bigarreanean aintzat hartzeko, aurkezpenari dagokionez bederen) gaur egun onartzen da euskarazko dokumentazioaren aurkezpena, onartuko ez balitz ere inskripzioa gaztelera ez den beste hizkuntza ofizialaz, aurten Barzelonako Lurralde Entzutegiak, Strubell jaunaren kasu ospetsuan, bere 1989-1-30eko epaian esan duenez.

Jabetza, Merkatal eta Epeakako Salerosketen erregistroetan, euskarazko dokumentazioa aurkezteko erderazko itzulpenaren beharraz at, inskripzioa ere erderaz egin beharra dago, indarrean dagoen Erregelamendu Hipotekarioaren 36. artikulua aurrekonstituzionalaren arabera¹⁸.

B) Komunitate Autonomoaren menpean diren Erregistroetan, teorikoki bederen, euskarazko negozio juridikoen dokumentazioa eta horren inskripzioa onargarriak lirateke euskaraz ere (pentsa dezagun kasurako kooperatiba baten eraketan edo eta elkarte baten eraketa-aktan eta estatutuetan) (7.1 Artikulua -Euskararen Normalkuntzarako Legea)

C) Nafarroan aldiz, ez da bereizketarik egiten eta beraz (13. artikuluan) onartzen da edozein erregistrotan euskarazko doku-

mentuen aurkezpena eta inskribaketa, honek beti, aldamenean, gaztelerazko inskripzioa eduki behar duelarik.

2. Baimen judiziala

Zenbait kasutan, negozio juridiko batzuk galdatzen dute baimen judiziala. Honek, bistan dagoenez, soka luzatzen digu harreman juridiko pribatuak, Epaitegietan euskaraz aurkezteko:

Bi aldarte:

-Ukanbearra judiziala bada eta ebazpena honelakoa bada (kasuz semealabaordetza) dokumentazioa euskaraz aurkezteko eskubidea izateaz gain, prozeduraren barne-itzultzailea erabiltzeko eskubidea argi dago.

-Auzi baten kasuan, dokumentua euskaraz aurkeztua bada, euskarazko testu horren interpretazioan jarduterakoan, Epaitegiak kontuan eduki behar ditu hizkuntzazko erizpideak, eta ez soilik gaztelerazko itzulpena. Erizpide horiek, interpretazioari buruzko arloan azalduko ditugu.

Agerian da beraz, zuzenbide zibileko gaien aldetik, hizkuntz erregulazioa (salbuespenak albuespen noski) ez dela sobera ona euskararentzat.

Aurre eta kontrakonstituzionalak diren arau batzuren aldamenean, albuespen gisa eta kasu batzuetarako euskara bete-betean onartzen duten xedapenak ditugu.

Honek ere merezi du beraz, garapen eta egokitzapen legegile bat, hizkuntzari buruzko eskuduntza Euskal Komunitate Autonomoan/Nafarroan bitartean batipat. Ezin ahaztu bestalde, gai honetan Estatuaren Administrazioak duen erantzunkizun maiz frogatua. Hor legoke, agian, Euskararen Normalkuntzarako Legeari buruzko Epaian (1986-6-26) Auzitegi Konstituzionalaren esana, alegia, Estatuak gazteleraz besteko hizkuntzen ofizialtasuna ere, beren eremuetan "sine die" luzatzeke, aitzinera eramateko eta gauzatzeko duen obligazioaz.

Merkatal negozioak

Merkatal Zuzenbidearen objektuaren berezitasunak haintzat hartuz, eta era berean bere harreman juridikoen espezifikitate ere (merkatariak, arintasuna eta segurtasuna trafikoan),

Espainiako Merkatal Kodeak nabaro onartu zuen hizkuntz askatasuna, haiek burutzerakoan, lehen aipaturiko 51. artikuluan.

Baita, forma-askatasuna ere noski, hizkuntz askatasuna, haren ondorioa bait da eta berau ere gero eta mugatuagoa agertzen dela ezin bait da ukatu. Honela eta arlo zibilean ikusitakoa errepikatuz, legeak forma berezi bat eskatzen duenean (eskritura publikoa, idatzizko dokumentu pribatu eta abar) forma horren osagaiak ere moldatu beharra dago merkatal zuzenbidean, hala nola merkatal sozietateen kasuan, aseguruan, fidantzamenduan edo eta ganbio-azalpenetan.

Beraz, eta kontratu merkantilen aldetik gauzak zuzenbide zibilaren ildotik joan arren, ezin dira ahanzi, oraintsuko gaiak direlako, ganbio-letra, txeke eta ordaindukoen erregimen linguistiko berria¹⁹, zeren eta ganbio-letraren kasuan, eredu ofizialaren gaineko eskuduntza fiskala edukiz, posible —eta legezkoa gainera— izango bait litzateke dokumentu hauen euskaralpena, merkatuan eta garraio juridikoan duten garrantziarekin.

Zenbait kasutan, Erregistro Merkantilean inskribatzea derri-gorrezkoa izanik, arazoa zertan legokeen ikustea ez da zaila: euskarazko dokumentuen onarpenik ezean, itzulpenik gabe aurkezten direnean, alegia. Arestian, zuzenbide zibilari buruz esandakoa ez dugu hemen errepikatuko.

Aipamen berezia merezi du, gure artean duen garrantzia ikusirik, Aseguru-Kontratuak. Lege Berriaren arabera (1986) idatzizkoa izan beharra badu ere (hizkuntzaren inposapenik gabe) beste zertxobait ere jartzen du lege honek, beste toki askotan eman diren esperientziak (gogoratu "plain english"aren fenomeno) bertaratuz: "las condiciones generales y particulares (del contrato) se redactarán de forma clara y precisa" (3. artikulua) honela, gure ustez Turi batek esandakoa "qualité de la langue juridique"ri buruz²⁰ era batez zein bestez ekarriz gure eremura.

Kontsumoaren Zuzenbidea

Zuzenbidea esan dugu eta ez eskubide soila, sail honetan ere hizkuntzak zeresanik badu eta.

Ezaguna denez, kontsumoaren zuzenbidea egunotan zuzenbide pribatuan bidea irekitzen ari den diziplina dugu. Zenbait kasu

eta kontratutan, kontsumorako kontratazioa masiboa den aldetik, zuzenbide zibilaren eskema klasikoak erabat zabalduz, erregulazio berri batera heldu nahi da²¹.

Eremu hau dugu, ezpairik gabe, hornidura —edo suministro— kontratuena eta beste askorena, non, alderdien borondatearen autonomia ahaztuz, alderdi batek bere indar ekonomikoaz baliaturik, besteari bere baldintzak inposatzen dizkion; azkenean, atxekimenduzko kontratuez ari gara.

Erreakzioz sorturiko joerek, hots, kontratu horiek sinatu beharra duten kontsumitzaileen babeserako emandako soluzioek, harreman hauen hizkuntza ere ezin dute hala-hola alboratu.

Nabaria da bestalde ere, hizkuntz aldarre honetako merkaturaren duen garrantzia. Egun, eta lehen esan dugunez, Estatu espainolean gaztelera ez diren beste hizkuntza ofizialak sarriago erabiliak ikusten bait ditugu merkaturaren eta publikitatearen²². Oraintsu katalanari buruz egin den azterketaren ondorioak²³ euskararentzat oso ekargarriak ez badira ere, agian eta larregi luzatzeko, salgai jartzen diren produktuen etiketaiari buruz jardun dezakegula, uste dugu etiketaia horrek produktu horiei buruzko oinarriko informazioa ematen duen aldetik.

Gai honetako bere erregulazio nagusia du, euskararen aldetik, batetik “Ley 10/1981 de 18 de Noviembre-Estatuto Vasco del Consumidor” delakoan bere 20. artikuluan, etiketaiaz diharduela, ondorengoa esaten du:

“Se propiciarán normas bilingües —eusquera y castellano— a todos estos efectos”

Hau etiketaiari buruz Estatuak emandako xedapenekin, uztartzen da, non, derrigorrez gaztelaren etiketaia inposatzen bait da, bestelako hizkuntzak ere onargarriak izan arren²⁴.

Hemendik ateratzen denez, euskara hutsezko etiketaia posible ez den heinean (ikus bestela Font i Bas-en iritzia²⁵) berau bultzatzeko ahaleginak sustatu beharrean gaude.

Kontsumitzaileek informazioa bere hizkuntzaz hartzeko eskubideaz aparte (“Ley General del Consumo” eta “Estatuto Vasco Del Consumidor-ek onartutakoa”) botere publikoek euskara zuzpertzeko betebeharrean sartzen da eginkizun hau, eta beraz, etorkizun hurbil batean eduki dezakeen garrantzia dela medio, arazo hau sakontze baten premian aurkitzen delakoan gaude.

Harreman juridiko pribatuak, interpretazioaren bidetik

Hasieran esan dugunez, erabat garrantzizkoa bihurtu zaigu, mundu honetan, hitzen esanahia, zentzua eta esateko era; hizkuntza bera, berba batez zehaztekoan.

Eta harreman juridiko pribatuak (publikoak bezalaxe) hizkuntza baten bidez gauzatzen diren neurria, hizkuntza horren bidez adierazitakoak berebiziko garrantzia du mundu juridikoan, hots, ari garen interpretazio juridikoan.

Zuzenbide zibilean eta merkatal arlokoan interpretazio kon-tuak eite beretsuko izanik. Zuzenbide arruntaren aldetik erregu-latzen dira (Merkatal kodearen 50. artikulua eta Kode Zibilaren artikulua, arau juridiko, kontratuen eta testamentuaren inter-pretaziorako).

Berauen bidez, gogoaren kanporaketen emaitzak aztertzen dira. Guztietan gainera, interpretazioaren objektua (beste batzu-ren artean), hitzak, hizkuntza ditugu.

Honela, negozio juridikoetan osagaia den borondatearen in-terpretazioan, egun, euskara/gaztelera sistemaren bidez bi posi-bilitate ditugu:

-Negozioa idatziz eta euskara edo gaztelera soilez burutua izan bada, kodearen interpretaziorako arauak abstraktuki har-tuz, hizkuntzaren berezitasunik gabe hartu beharko dira, hizkun-tza horren testuinguruan. Aparteko kasua litzateke, noski, itzul-penaren beharra dagoenetan, itzulpena dela eta, borondatearen mezua zuzen hartzen ez bada, ezen horrela, alderdien benetako nahien kontra jokatu bait litzateke.

-Bestelakoa legoke, negozio juridikoa bi hizkuntzetan buru-tzen bada. Orduan hizkuntzen arteko parekotasun eta lehentasu-naren arteko gatazka sor daiteke, harreman juridiko pribatueta eta interpretazioaren bidez nagusitzat zein hartu beharko litzate-keen zehaztu beharko litzateke.

Euskararen kasuan aplikagarri dira bi egitate desberdinok: Alde batetik Auzitegi Konstituzionalak, katalana normaltzeko legeri buruzko epaian esandakoa, legeen argitalpenean katala-nezko testuaren lehentasuna antikonstituzionaltzat joaz, segurtas-un juridikoa, babes judiziala eta estatuaren eskuduntza esklesi-boak zirela zio horretarako²⁶.

Bestetik begibistakoa da harreman juridiko pribatuetan alderdi bien arteko borondateak inposa dezakeela testu bien arteko ezein parekotasun/lehentasun juridikoa. Are gehiago, Auzitegi Konstituzionalak esan duenez, eskritura publikoetan katalanaren erabileraren ondotik, alderdien akordiorik ezean, onargarria dela lehentasun hori:

“en todo caso se trata de reglas basadas en la prioridad de la autonomía de la voluntad y circunscritas al ámbito relacional de los otorgantes a los que proporciona una vía de solución... pero en nada determinan tales reglas la autenticidad e incontrovertibilidad de la interpretación que con arreglo al texto por ellas seleccionado se efectúe ya que queda expedita la formación de una eventual discrepancia en sede jurisdiccional” (1989-Apirilak-24-4. Oinarria).

Hori horrela izanda ere, ez du haatik, problematika osoa agortzen. Pizzorruko-k esplikatu duenez, posible bait da egungo kontratazio masiboa dela medio, alderdi batek besteari bere hizkuntza inposatzea. Horrela gure artean hasten diren hainbat kontraturen euskal testuak interpretatzerakoan zernolako erizpide, hizkuntza eta testua hartu behar genukeen kontu horrek, etorkizunerako dema dirudi. Beraz lehia hau eta bere garrantzia areagotuko denaz, ez dago duda-izpirik ere, euskarak arlo honean aurrera egiten baldin badu behintzat.

Harreman juridiko pribatuetan euskara eskubide ote?

Tolivar-ek arestian azaldu duenez, harreman juridiko pribatuetan, publikoetan ez bezalaxe, hauxe gertatzen da:

“Por lo que se refiere al campo de la contratación privada y a las hipotéticas exigencias de conocimiento de una lengua distinta del castellano (edo gaztelerarena ere gehituko genuke guk)... volvemos a encontrarnos con el espinoso tema de la vinculación del derecho privado al principio de igualdad. Es evidente que la autonomía de la voluntad no está sometida en el mundo civil, mercantil e incluso laboral, a la positive Bindung que la actuación objetiva de la Administración debe guardar respecto de la ley²⁷”.

Alde honetatik, beraz, ezinbestekoa zaigu arau erregulatzailearen beste aldea ere badela onartzea, alegia, euskara hizkuntza ere erabiltzeko eskubidearena.

Zaila da harreman juridiko pribatueta nagusi den borondate autonomiaren printzipioa hizkuntza bat erabiltzeko eskubidearekin lotzea. Are gehiago oraintsu arte "ofiziala" izan ez den hizkuntza batez mintzo bagara.

Dena den, badirudi doktrina ere ohartu dela hortaz eta irtenbidea "berdintasun-printzipioa"ren eskutik etor daitekeela. Izan ere "Drittwirkung der Grundrechte" izeneko eraikuntza kontzeptualak²⁸ agerian utzi digu eskubide honek eremu honetan eduki dezakeen eragina.

Hizkuntza dela eta, diskriminazio-eza espreski ez bada nabarmentzen Konstituzioan²⁹, bere 14. artikuluan aldiz, argi dago hizkuntza ere ezin dela diskriminazioaren kausa izan. Nazioarteko Zuzenbidearen argumentuez at, Hizkuntz Normalkuntzarako Legeen deiak amaigabekoak dira. Testuinguru honetan, harreman juridiko pribatueta ere, alderdi batek besteari hizkuntza baten inposaketaren aurrean beste bat erabiltzeko eskubidea defendea daiteke.

Eta oinarrizko eskubidea ez bada ere, beste oinarrizko eskubideen baliabide eta tresna den aldetik, bere erabilerako eskubideari bidea zabalduko lioke Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua eta berak eratorri duen jurisprudentzia ugariak, beti ere honako hauek alboratzeke:

"La extensión de los derechos fundamentales a las relaciones entre particulares, dependerá: i) de qué enunciados de los contenidos en los citados preceptos se consideren portadores de derechos subjetivos; ii) de cuáles entre ellos se estimen más o menos adecuados para esa extensión"³⁰.

Ondorio antzeko zerbait

Aurrekoa ikusita, ondorioak ateratzerakoan, eta euskara bezalako hizkuntza gutxitu eta gutxiengotar baten aurrean, zuzenbideak ere bere zeresana baduela dugu lehena. Guri dagokigun aldetik, pertsona pribatueta arteko harremanetan ere euskararen normalkuntza lortu nahi izanez gero bere garrantzia baduela azaltzen saiatu gara.

Horretarako, hein handi batean, jaio berri den Soziolinguistikaren gurdian uztartu behar ditugu gure idiak, denon artean plangintza egokia aurrera eramateko.

Zuzenbidea dugu askotan horren giltzarria. Berau bait da gizarte baten (eta gizarte horren) lege, arau eta mekanismo juridikoak biltzen dituen eta beraren bidez, esaterako, gizarte honek euskara berreskuratzeko ahaleginei forma eta edukina ematen dizkie. Halere, askotan asaldatzen gaituen galdera hau da: Euskara bezalako hizkuntza batez arduratzeak merezi al du? Ez ote gabiltza alferrik zuzenbide mundu itxi eta bereziak euskaratzeko nahi honetan, beste beharrezkoagoko bideak baztertzen eta zokoratzen?

Berrikitan Soziolinguistikaren aitapontekotzat har genezakeen judegu unibertsal batek esan digunez:

“at the outset before they acquire a dynamic of their own all language policies must be sensitively harmonized with the functional profiles and the most crucial functional prospects of the languages on whose behalf they are formulated³¹”.

Era berean, duela bi urte, beste batek igarri zuena, Unibertsitatean euskararen presentzia jujatzerakoan:

“nosotros no pretendemos hacer del euskera una lengua internacional... Lo que si me parece absolutamente esencial para nuestra lengua es la creación de una Universidad en lengua vasca³²”.

Hemen datza beraz dema latza: zuzenbidearen mundua euskaratzen zerenolako abantaila lor dezake euskarak eta euskal gizarteak? Helburutzat gizartea euskalduntzea hartzen bada, dudarik gabe harreman juridiko pribatuen euskaratze-prozesuak berebiziko xedea suposatzen duela, eguneroko egiten diren/ditugun hainbat ekintzen euskalduntzea eta Administrazioak darman euskalduntze-prozesuarekin batera biltzea, aurrerapauso erraldoia izango bait litzateke. Bestela, badirudi pertsona partikularren artean bete ez dena, Administrazioari ere galdatzerik ez dagoela.

Horratio eta besteak beste, hemen esandakoaren arabera eginkizun liriateke:

1) Legeri mailan ditugun mugak gaintitzea, agian beste Lurralde Autonomo hizkuntzadunen ordezkariekin batera jokatzekoa dena, bi aldetatik: bata Estatuaren legeria egokitzea, eskakizun linguistikoko berrienen arabera eta bestea hizkuntz eremuan Euskal Komunitate Autonomoak/Nafarroak dituzten eskuduntzak profitatzea.

2) "Osoa eta Deuseza"ren arteko orekaren bila joatea, hots, dena bapatean egitearen eta ezer ez egitearen arteko ekilibria. Horretarako inposatzen da akordioa, bai euskara erabiltzeko eskubidean, bai bere ñabarduretan eta aplikaziotan eta baita ere bere irakaskuntz prozesuan. Hori lor al daiteke "kanpaina soilekin"? Ezetxean gaude. Beharrezkoak izanik ere, jarraitasunik eta jarraipenik eskatzen dutelako hauek, batipat bultzatzaileen artean, epe luzerako emaitzak lortzeko eta gau bateko suziri erretan ez bukatzeko.

3) Gure buruarekiko konfidantza ere eduki behar dugula bistatan da. Gure arteko harreman juridiko pribatueta euskara erabili behar dugu: profesionalek berarizko ahala eginez, Fakultateek berau irakatsiz, partikularrek erabiliz eta Administrazioak horretarako baliabideak eta gogoia jarritz.

Amaitzeko, azkeneko kontsiderazioa egin nahi genuke, aurreko hau erabat doktrinala eta teorikoa izanik (utopikoa esango luke norbaitek) azterketa juridiko soiletik desbideratzen dela uste dutenentzat. Honela izatea ere posible da, eta honela bada ere, apropos egina da, zeren eta arauak azken finean, onak eta orbangabeak izan arren, ez badituzte arazoak eta gatazkak askatu eta konpontzen, zuzendurik dauden gizarteak ez ditu onartzen eta erabiltzen ere.

Estatu Espainoleko Lurralde euskaldunetan harreman juridiko pribatuen munduan dagoen edukin linguistikoaren azterketak argilunak ekarri badizkigu ere, nabarmena denez eta ikusi dugunez, horrek, hain zuzen ere, ohargarriagoa egiten digu eginbeharrekoa.

Eginbehar hau, gure ustez, gizarte euskaldunak bakarrik borobil dezake, mota guztietako zekenkeriarik gabe, berez duen clebitasuna benetako errealitate (eta juridikoa ere bai, zuzenbidezko ondorioen sortzaile) egin nahi badu.

* Lan hau, Ponentzi gisa irakurri izan zen "Euskararen Lege-Araubideari Buruzko Jardunaldietan", Donostian (Urriak 3, 4 eta 5, 1989), Zuzenbide-Fakultatean.

¹ Ikus (1987) *Language Rights in Canada*. Les Editions Yvon Blais Inc. Montreal. 317.or. Zuzenbide pribatuari buruzko sailean hauxe irakurtzen da, Emmanuel Didier-ek idatzia: «The fundamental principle of the private law is freedom of expression though the law seeks to regulate private language situa-

tions in the workplace, in consumer affairs, in bussiness, in the media, in private legal documents and in dealings between professionals, as well as the status of persons and access to personal information»

- ² CASTRO, F de (1984): *Derecho Civil de España*. Madrid: Civitas. I, 556.or.
- ³ Ib., 559. or.
- ⁴ Espainiako Kodegintzari buruz, gomendagarria da arestian Vallet de Goytisolo-k idatzi duena: *Metología Jurídica* Madrid: Civitas, 1988; bereziki «El método de la escuela histórica alemana y el de los foralistas españoles» eta baita «Influjo de la Revolución francesa en el Derecho Civil» ere in *Anuario de Derecho Civil* XLII; Fascículo II, Abril-Junio, MCMLXXXIX, Madrid.
- ⁵ Ikus Kode Zibilaren 684. artikulua.
- ⁶ Hona hemen bere hitzak,berak eginiko «El Código Civil en sus relaciones con las legislaciones forales» (Madrid, 1947, Bigarren argitalpena) liburuan agertzen direnak: «¿Se ha pensado seriamente en las inmensas ventajas de una ley idéntica en todos estas materias, aplicable por igual a todos los ciudadanos españoles..., redactada con exquisita concisión y claridad y en el idioma patrio... difundándose así a la par que el conocimiento jurídico, el del idioma nacional por todos los ambitos de la Monarquía? (35. or.)
- ⁷ Batez ere, urte batzuk direla, Joan Mari Torrealdai-k bere «Euskararen Zapalkuntza (1936-1939)-an agerian utzi duenez, in: *Jakin*, 24 1982, Donostia.
- ⁸ KELSEN H. (1973): *Teoría Pura del Derecho*. Buenos Aires: Eudeba. Ik. bereziki 140 orrialdea eta jarraikoak.
- ⁹ Ikus, besteak beste, Euskara, Katalana eta Galegoari buruzko Epaiaik (82, 83 eta 84 Epaiaik, 1986. urteko Ekainaren 26koak). Eskritura publikoci buruz, aldiz,ikus Kataluniako Generalitatearen 125/1984 Apirilaren 17ko Dekretua eta Auzitegi Konstituzionalaren Epaia, 1989. apirilaren 21ekoa.
- ¹⁰ Ikus Andres Urrutiaren «Testamentu irekirako ereduaren bidean», in *Euskera* 1988, 2, 33. Bilbo.
- ¹¹ Ikus esaterako Arzanegi jaunaren Proiektua bere 13. artikuluan: «Los vizcaínos podrán formalizar en lengua vasca toda clase de actos y contratos, tanto en forma oral como escrita, por documento público o privado».Gauza bera RSBAP elkarteak buruturiko proiektuaren13. artikuluan.
- ¹² Ikus «Lei de normalización lingüística» (3/1983 do 15 de Xuño). Publicacions do Parlamento de Galicia-Santiago, 1983.
- ¹³ Ikus «Ley Foral 18/1986 de 15 de Diciembre del Vascuence».
- ¹⁴ Ikus «Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea», 10/1982 Azaroaren 24ekoa.
- ¹⁵ Ikus PIZZORUSSO, (1988): «Libertad de lengua y derechos lingüísticos: Un estudio comparado», in: *Symposium sobre el Estatuto Vasco de 1936*. Oñati HAAE-IVAP 1988 bereziki 159. orrialdea eta jarraikoak.
- ¹⁶ Ikus CASTAN (1971): *Derecho Civil Español, Común y Foral*. Madrid. Ik. bereziki 701. orrialdea eta jarraikoak.
- ¹⁷ Ikus URRUTIA, A. (1987): «Euskara eta dokumentu notarialak», in: *Revista Vasca de Administración Pública*: 19. zenbakia. Oñati: IVAP.

- ¹⁸ Ikus URRUTIA, A. (1986/87): «Euskara eta erregistro publikoak» in: *Administrazioa Euskaraz*. 5. zenbakia, gazteiz: IVAP. Ohargarria da, gainera, Justizi Ministraritzaren Ordena, 1989. urteko Uztailaren 20koa, non azkenez Erregistro Zibilaren agiriak euskaraz ere emateko ereduak azaltzen diren (BOE 1989-9-13) inskripzioa bera euskaraz egiteko eskubideari buruz isilean gelditu arren.
- ¹⁹ Ikus «Ley 19/1985 de 16 de julio, cambiaria y del cheque» eta konkretuago, euskararen ikuspegitik, URRUTIA, A. (1988): «Truke-letra eta euskara» artikulua, in: *Karmel*, 1988-1, 184. zenbakia (Larrea, Amorebieta).
- ²⁰ Ikus TURI, J.G. (1988): «La «qualité» de la langue est-elle juridiquement appropriable?», in: *Euskara Biltzarra. (II Congreso Mundial Vasco)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia.
- ²¹ Ikus, orokorrean BERCOVITZ, A. eta R. (1987): «Estudios jurídicos sobre protección de los consumidores». Madrid: Tecnos.
- ²² Ikus, FONT, A. (1986) «L'estatut lingüístic en el marc de las relaciones comerciales», in: *Revista de Llengua i Dret* 8. zenbakia, Desembre de 1986, Barcelona: Generalitat de Catalunya.
- ²³ Ikus «La llengua en el mon del comerç»-«L'actitud dels catalans davant l'ús comercial del català». Barcelona: Generalitat de Catalunya, 1988.
- ²⁴ Ikus, esaterako, «ALIMENTOS: Norma General de etiquetado, presentación y publicidad de los productos envasados». Real Decreto 23 de Septiembre de 1988 número 1122/1988 bere 19. artikuluan: «Los datos obligatorios del etiquetado de los productos alimenticios que se comercialicen en España se expresarán necesariamente al menos en la lengua española oficial del Estado».
- ²⁵ Ik. Font, A. (1986), ut supra: 22. oharra.
- ²⁶ Ikus FERNANDEZ ESPINAR, L.C. (1987): «La doctrina constitucional sobre el multilingüismo», in: *Poder Judicial*. 7. zenbakia, Septiembre.
- ²⁷ Ikus TOLIVAR ALAS, L. (1987): «Las libertades Lingüísticas», INAP 1987, 51 orrialdea.
- ²⁸ Gai honi buruz dagoen literaturaren artean hauxe aukeratu dugu, agian bere edukin zehatzarengatik: GARCIA TORRES, J.; JIMENEZ BLANCO, A. (1986): «Derechos Fundamentales y relaciones entre particulares», *Cuadernos Civitas*. Madrid.
- ²⁹ Espainiako Konstituziogintzan hizkuntza diskriminazio-arrazoietan ez sarzearen istorioa ikus daiteke, in: TOLIVAR ALAS, L. (1987): *Ib.*, 39. or. eta jarr. -Ikus 26. oharra.
- ³⁰ Ikus 27. oharra. Liburu berean ikus 26. orrialdea.
- ³¹ Ikus FISHMAN, J. (1989). *Language & Ethnicity in minority sociolinguistic perspective*. Philadelphia: Multilingual Papers Ltd. Ik. bereziki «Language spread and language policy for endangered languages» 389. orrialdea eta jarraikoak.
- ³² ARZALLUS, X. (1987): «La lengua y el futuro», in: *Deia*, Domingo 13 de Diciembre.

Beste Latinamerika

Kolombian egindako egonaldi bat tarteko dela

Esteban Agirre

Latinamerikan egin dudan sei hilabeteko egonaldi batek, ematen du oinarririk bertako hainbat arazoz neurri on batean behintzat, jabetzeko. Eta hori are eta gehiago oraindik, denboraldi horren zatirik nagusiena (ia bost hilabete) nazio bat berean igaro izanez gero.

Bada hori izan da neroni gertatua; izan ere otsailaren lehen egunetik abuzturarte, Dominikar Errepublikatik hasi, eta Puerto Ricon, Kolombian, Bolivian, Brasilen eta Paraguayan zehar ibiltzeko eta herri horietako eguneroko errealitatea gertutik ezagutzeko aukera ezin hobea izan bait dut. Denbora horren zatirik handiena gainera, ez haruntz-honuntz edozein turista arrunt bezala, Bogota-ko hirian eta, *dena*, turismo-zirkuituetatik kanpo igaro dut. Honi esker, Latinamerikako egoera —eta Kolombiakoa, era berezian— ohizko klitxeetatik kanpo ikusi, ukitu, bizi, ezagutu eta aztertu ahal izan dudala esan nezake ziurtasun osoz.

Izan ere Latinamerikako notizia guztiak, eta Kolombiakoak azken hilabeteetan konkretuki, Estatu Batuek eta Europako notizi agentziek ezarriak dituzten iragazki guztietatik pasa ondoren iristen zaizkigu gureganaino. Iragazkiok direla eta, notizia hauek lehen mundua deitzen dugun Estatu hauetako interes arabera, interes hauek eskatzen duten une konkretu egokian eta interes hauen garapenak behar duten ikuspegi berezitik datoz gure esku, belarri eta begi-bistara.

Honen froga nabarmena Euskal Herrira itzuli eta aste gutxitara jaso nuen.

Abuztuaren 18an, Kolombiako lehendakaritzarako hautagaiaurrekoa, Luis Carlos Galán, crahila izan ondoren, Virgilio Barco-k, Kolombiako lehendakariak, erabateko gerra hasten du narkotrafikoaren erantzule diren Caliko eta Medellingo kartelen aurka.

Aurreko martxoan Kolombiako alderdi komunistako idazkari nagusia eta UPko (Unión Patriótica) senatari bat zazpi egunen tartean erahilak izan zirenean (azken atentatuan gainera, alderdi liberaleko beste hautagaiaurreko batek, Ernesto Samper Pizanak alegia, bizitza oso gutxigatik ez zuen galdu), Gobernuak —uda honetan hasi duen ekitaldian adinako propaganda-efasirik gabe bazen ere— erasoaldi gogor bati ekin zion narkotrafikatzaileen aurka. Ekitaldi honen ondorioz, kokaren prozesamendu kimikorako antolatuta zeuden hainbat laborategi desegin ziren; era berean, sikarioen irakaspen eta entrenurako “unibertsitate” bat berderen (sic: hala deitu zituen Kolombiako prentsak) argitara aterea izan zen, honek eskaini ahal izan zituen argibide eta zehaztasun eta guzti (hainbat desagertuen gorpuak, armak, atzerriko —Israelgoak eta Britainia Haundikoak, bereziki— asesore militarren presentzia, etab.); eta noski, ehundaka atxiloketa burutu ziren (hauen artean, aipatzekoa, Rodríguez Gachas, “El Mexicano”ren semearena bera). Bada, dakidanez, mendebaldeko agentziek ezer gutxi, ezer ez dute esan guzti honetaz... abuzturarte!

Agentziak kartelen aurkako gerraren berri zehatzak hain berandu (lau hilabete beranduago) ematen hastera, zerk bultzatu ote dituen hori beraiek jakingo dute. Baina, irakurlearen interpretazio zuzenago baterako nahikoa adierazgarri daiteke datu hau: tarteko hilabeteetan KEIren (Kafearen Erakunde Internazionala) barnean indarrean zegoen *Kafearen Ituna* bertan behera

erori da Estatu Batuen eragin etengabea dela eta. Horren ondorioz, berehala nabari izan dute nazio kafegileek beren produktaren bapateko beherakada eta beren ekonomia ahulen oraindik ere ahultze handiagoa (Kolombiari gagozkionez, 500 milioi dolarretako galerak espero dituzte aurtengo, urte erdian alegia, arlo honetan soilik; eta kafea da Kolombiaren esportazio nagusia, guztiaren % 50arekin!). Une hau zen, noski, egokiena narkotrafikoaren aurkako gerra Estatu Batuek nahi zuten era eramateko.

Koordenada hauetan koka daiteke, azken batean, nire ustez, Latinamerikari buruz datorkigun informazio ia osoa; eta koordenada horietatik, hain zuzen, irten nahi dut nik hemen eskain dezakedan informazioan. Latinamerikarrekin eta beren interesekin bat eginda, beren borrokekin (ekonomi, kultur, informazio-, teknologi eta beste hainbat mailatakoekin) bat eginda, beren ikuspegiarekin bat eginda eskaini nahi dut haiekin batera han ikusi ditudan gauza batzuren informazio hau.

Nazio menperatuak

Menpekotasun ekonomikoa

Herrialdeon egoera tamalgarriaz dihardugunez, berehalako batean sortzen zaigun ateraldia edo, sakonago begiratuta, interpretazio-klabea honelakoren bat izan ohi da gehienetan behintzat: "Hirugarren mundua! Ez zegok azpiegiturarik, ez teknika egokirik, ez baliabide ekonomikorik..." eta normaltzat jo ohi dira, besterik gabe, hango eskasia guztiak.

Errealitateak azaletik begiratuta hala badirudi ere, errealitate erreala oso bestelakoa da, bere egia betean: herri pobreak ezetik, oso aberatsak dira, errekurtsio naturalak oso ugariak eta anitzak dituztela.

Hala nola, lehen sektoreak Latinamerika osoan izan ditzakeen posibilitateak neurtu ezinezkoak dira, baina bere menderabide eta hondamendi bihurtzen zaizkion monokultiboa edo latifundioa edo merkatal antolaketa direla eta. Hondamendia, gainera, ekonomikoa ezetik, politikoa, kulturala, etab. ere gertatzen ari

da. Honen lekuko, gogoan hartzea besterik ez dugu Latinamerikako zenbait nazio deitzeko erabili ohi den "*República bananera*" esakera arrunta; edo gogoan har Amazonia zabal guztian egur-enpresek (ez ahaztu: lehen munduaren probetxurako eta lehen munduko kapitalaren plangintzaren eta eragintzaren arabera), dagiten desoi hanketa; edo gogoan har, azkenik, zerrenda hau luzeegi gerta ez dakigun, hainbat nekazal produktorekin (kautxo, kafe, azukre, ...) gertaturiko bapateko gorakada eta era bereko beherakada¹.

Lehen sektore honetako menpekotasunaz esandakoari, eta lehen sektoretik atera gabe, oraindik ere meatzaritzaren alorrekoa erantsi beharko genioke, borobiltasun eta egokitasun handiagoz hitz egitekotan: Kolombiak dituen eta ezagunak diren ikatz-erreserbak Latinamerika guztiko % 40a dira eta mundu osoko produkzioaren % 10a iristera heldu daitezke; Kolombia bera da esmeralda-produktorerik handiena mundu osoan, baina ezkutuko (eta hala ere edonoren begibistan Bogota-ko kale jakinetan) eta kontrolik gabeko merkatuetan saldu eta erosi egiten direnez, inork ezagutu ez dezakeen diru beltzetan galtzen da harribitxiok eman zezaketen irabazi guztia. Eta zer esan petrolioaz? Mexico eta Venezuela, bakoitza bere ekonomi arazo larriekin: kanpo-zorra, inflazioa (Mexicok % 144ekoa, adibidez), nahikoa eredu argiak dira menpekotasun honetaz.

Latinamerikaren menpekotasun ekonomiko honetaz ez noa gehiago ezer esatera, jakin badakidan arren liburuak egin daitezkeela: hainbat dago oraindik ere lehen sektore honetan bertan!

Ez noa bigarren eta hirugarren sektoreetan jasaten diren menpekotasunez hitz egitera, ez noa Latinamerika guztian somatzen den teknologiararen obsoleszentziaz, hitz egitera...² Ez noa guzti horietaz eta besteetaz hitz egitera, baina ez noa ezta bukatzer ere, nire susmo hau adierazi gabe: Latinamerikako merkaturua, lehen munduaren soberakin hauei etekin bat atereaz desegitekoko eremu bilakatzen ari dela, alegia, teknologia elektronikoa-
ren eremuan batipat.

Menpekotasun politikoa

Latinamerikako egoeraren analisi edo erradiografia bete bat izan nahi ez duten orriotan, ezin dut, gaia bera agortu gabe,

arrasto batzuk bota baino egin, informazio honen bidez informazio-egarrria esnatzeko asmoa eta gogoia dudan bitartean.

Hori horrela, gogo bizia dut politikaren munduan herrialde haiek jasaten duten menpekotasun-mota erabatekoa bezain be-
rezia eta ezezaguna aidatzeko. Izan ere, gehienbatez behintzat, guretzat ezaguna egiten den menpekotasuna, diktaduretara, edo blokeen eraginetara, edo Iparraldeko bizilagun handiaren jendarme-lanetara mugatzen dena da. Eta hori guztia egia biribila da agentzien despatxuek zabaltzen dutenetik hasi eta Amerikako edozein etxekoandrek edo laborarik bizi eta esan diezazuketean anekdotaraino.

Nik, ordea, hau aitatzera, neure buruarekiko jarri dudan helburura mugatu nahirik, berriro ere inongo agentziek eta informazio-iturriek inoiz aitatzten ez duten tresna menderatzaile bat eman nahi nuke ezagutzera³; Latinamerikarako espreski sortua izan den tresna menderatzailea, hain zuzen ere. "Santa Fe II" deituraz ezaguna den informez ari naiz⁴.

Bigarren agiria denez, honen historia orain urte batzuk has-
ten da: 1980ko maiatzean, hau da Jimmy Carter-en agintea amaiz-
tear zegoenean eta Ronald Reagan Estatu Batuetako lehenda-
kari berri bezala aurrez ikusten zenean, *Amerikarteko Segurtasu-
nerako Kontseiluaren* eraginez, Santa Fe hirian bildu zen (hortik
izena) batzordeak, aro berriaren atarian lehendakari berriari egi-
ten zizkion gomendioek osatzen dute hala deituriko "Santa Fe I"
Informe⁵. Orain, paralelismo bete-betean, Reagan-en aroa be-
tetzeko une berean, eta G. Bush-en agintaritzaren atarian, "San-
ta Fe I" haren zuzen-zuzeneko jarraipen gisa egina dago, 1988
urtean, honako "Santa Fe II" Informe hau.

Zer eragin izan dezake txosten honek Bush presidentearen-
gan? Egia da azterketa batzuren ondoren idazle-taldeak Bush-i
aurkezten dizkion gomendio baino ez direla eta honek nahi duen
neurrian jarraituko dituela... edo ez. Baina ez da ahaztu behar
txostenaren atzetik Estatu Batuetako sektore sozial ekonomiko,
ideologiko eta militar oso indartsuak daudela. Eta ez da ahaztu
behar ezta "Santa Fe I"en ondoren gertatutako zenbait gauza
ere. Han, adibidez, *Roldós doktrina* gaitzetsi beharrekoa zela
esaten zen; eta hilabete batzuk geroago Ecuadorko Roldós presi-
dentea hegazkineko istripuz hil zen. Han, adibidez, Panamako
Kanalaz Torrijos-ek eta Carter-ek sinatu zuten hitzarmena Esta-
tu Batuentzat ez zela egokia adierazten zen; eta Omar Torrijos

handik gutxira hil zen, hau ere hegazkineko istripuz. Han, adibidez, Nikaraguako erregimen-aldaketa gaitzesten zen; eta gerrak bizirik dirau oraindik ere...

Dena den, irakurlearen argibiderako, ez dago hala deitzen dudan tresna menderatzaile honen eredu batzuk ekartzea baino gauza egokiagorik. Hona adibidez, Nikaraguari buruz "Santa Fe II" Informeak ematen duen gomendioa⁶:

Una política de democratización de Nicaragua requerirá de un desarrollo sofisticado de la doctrina del conflicto de baja intensidad. El aspecto más importante de este desarrollo estará en la *educación de los medios de comunicación y del público norteamericano para que comprendan la tendencia de los regímenes comunistas nacionales de Latinoamérica a subvertir a sus vecinos* con el apoyo velado de la Unión Soviética⁷.

Panamari buruz, berriz, hona beste gomendio hautatu batzuk, luzeegi, gerta ez dadin:

El derrocamiento de Noriega y la celebración de elecciones no serán suficientes para crear un régimen democrático en Panamá... La reforma de las Fuerzas de Defensa, el apoyo a un poder judicial independiente y la restauración de la economía será lo más esencial⁸.

"Santa Fe I" eta "Santa Fe II"ren arteko jarraipena eta Carter-en aroari eman nahi zaion buelta-erdia eta zuzenketa, ordea, era ezin hobean ikus daiteke beste zati honetan, datozen urteetako notiziek ematen dutenaren zain gauden bitartean (oraindik orain gertatuak ahaztu gabe):

La administración Carter centró todos sus esfuerzos en tratar de forjar una alianza con un régimen corrupto, que se creía estable, al firmar los dos tratados del Canal de Panamá que garantizan el control panameño de esa vía acuática vital para fines de siglo.

Es ahora evidente para todos que Carter se equivocó. Sin embargo, la administración Reagan sólo ha sido capaz de hacer una política panameña a punta de tanteos e improvisaciones, centrada casi exclusivamente en deshacer al país de un individuo, su hombre fuerte, el General Manuel Antonio Noriega.

Pero el derrocamiento del dictador no resuelve los problemas panameños ni prepara el camino para una sólida relación panameño-norteamericana.

En la década de los noventa, la nueva administración tendrá que resolver serios problemas que no han sido enfrentados todavía. *Las leyes bancarias tienen que ser revisadas* para prevenir que el país se hunda una vez más en la corrupción del narcotráfico. *La constitución panameña debe ser reformada* para permitir la extradición de ciudadanos panameños culpables de delitos en terceros países, aunque esto debería ser preferiblemente tarea de un poder judicial panameño libre de corrupción.

Más allá de esto, los *Estados Unidos y Panamá*, una vez que se haya instaurado un régimen democrático, *deben comenzar a planear seriamente una apropiada administración* del Canal, que pronto requerirá de una reparación general y costosa. Al mismo tiempo, se debe comenzar a discutir sobre una defensa realista del Canal después del año 2000. Estas conversaciones deberán incluir la *permanencia de los Estados Unidos* en algunas instalaciones en Panamá (principalmente el aeropuerto Howard y la base naval Rodman), para una adecuada proyección de fuerza en el hemisferio occidental.

Estas interrogantes no han sido enfrentadas y tendrán que serlo en los inicios de la década de los 90 si los intereses nacionales de Panamá como los de los Estados Unidos tienen que estar asegurados en el próximo siglo⁹.

Egoera honek eskain diezagukeen irudia osotua geratuko litzateke alboan sortzen zaizkion beste adar batzuetako zehaztapenak erantsiko bagenizkio: Estatuaren eta Gobernuaren presentzia erabatekoa eta autoritarismoz egina, Segurtasun nazionalaren doktrinaren aplikazio zabala, giza-eskubideen eta bizitzaren ukapen praktikoa, Estatu Batuen politika militarren pisua... alde batetik, eta herri-mugimenduen eragina bestetik, hiri handietako erakundeetan gauzatua edo nekazal erakundeetan edo langileen erakunde sindikaletan. Nire asmoa, egoera guzti horren luze-zabala bere sakontasunean eta betetasunean eskaintzea ez denez gero —ez ahaztu: nire bidaia bateko inpresioak eman inolaz ere jaso ohi ez diren datu batzuk eskaini besterik ez dut egin nahi—, beste pauso bat eman nahi nuke orain eta beste gauza batera pasa; egoera politiko honekin oso korapilatua da goena, bestalde.

Narkotrafikoaren “gerrak”

Aurtengo udaz gero ia eguneroko notizia bihurtu zaigu hau. Notizia horiek jaso ondoren, badirudi zeharo aldatu dela gober-

nu batzuek zeramaten drogei buruzko politika. Eta egia esan, narkotrafikoaren aurkako politikan gertatu da, bai, taktika-aldaketa handirik. Baina, hots, gertatu den hori Iparraldeko bizilagun handiaren zerbitzuan gertatu da. Latinamerikako Gobernuak, esateko —Kolombiakoa aurretik dutela—, soluzio polizialak besterik martxan ez jartzera markutzen ari dira gero eta gehiago, oraintsu esan dugun menpekotasunaren argibide bat gehiago eman ez.

Zer adierazten digu honek? Bada izenburuan adierazten duena, besteak beste: “gerra” honen azpian beste gerra batzuk dagoela, mafia-talde batzuen aurkako ekintza baino askoz gauza zabalagoa dagoela jokoan, agentziek eta gobernuek adierazten dituzten fronte polizial hori baino gehiago dagoela, dagoeneko, martxan. Zeintzu dira, orduan, narkotrafikoaren aurkako beste gerra horiek? Zein frontetan ari dira planteatzen? Zein estrategiatatik doaz? Zeinen interesetan?

Narkotrafikoaren aurkako gerra honetako fronte ezezagun horietako bat: *ekonomikoa* dugu. Latinamerikako ekonomia osoa produkzio-sistema obsoletuetan oinarrituta egoteaz gain orokorki, lehen sektorekoa, eta nekazal alorrekoa batipat, atzerriko interesen zerbitzura dago (United Fruit...) edo iraupeneko da. Honen eraginez eta gerrila dela eta, mendi eta soroetan bizi den segurtasunik ezagatik, nekazal alor hau, lur jota aurkitzen da Latinamerikako ia nazio gehienetan, eta nazio andetarretan bereziki.

Hiri handietarako migrazio-mugimendua sortu da honenbestez, eta lehendik ere bere premiei erantzuteko teknologiarik gabe zeuden soroak indarrez hustu dira, lehengo miseria hura oraindik ere haundiagoa eginez. Nekazari-multzo handi honi sortu zaion salbazio-bidea kokarena izan da. Estatuak eta “mamita Yunai”k (United Fruit) eman ez dieten diru-iturri nahikoa segurua eman diete kokaren “kapo” berriek. Nekazari guzti hauen begietan, Escobar Gaviria, Rodríguez Gachas, Suárez, etab. ez dira legez-kanpoko gaizkileak, ogibidea ziurtatu dieten uzazabak baino. Gehi diezaiozun honi kokaren prozesamendu kimikoak eta trafikoak sortzen duten diruak, nazio hauen ekonomia lur joari nolabaiteko sostengua ematen diola gainera¹⁰.

Bada, harrigarria badirudi ere, “gerra” honetan interesik handiena (!) duten Estatu Batuen aldetik, hauxe izan da nazio batzuei egin zaien eskaintza: kanpo-zorrenaren kitapena koka-sai-

len "defoliazioaren" truke Boliviari; 65 milioi dolarretako laguntza armatan Kolombiari¹¹ (baina kafearen prezio-erorketarik bakarrik galduko duenarekin konparaturik, oso merkea ateratzen zaie operazio guzti hau Estatu Batuei): narkotrafikoaren sustrai ekonomikoetara jo gabe, hego hemisferioak jasaten duen menpekotasun ekonomikoari soluzio biderik eskaini gabe azken batean.

Narkotrafikoaren aurkako gerra honetako beste fronte bat *politiko-ideologikoa* da. Inork gutxik komentatzen duen fronte honetan, gobernuek dagiten ahalegina erabatekoa da lege berezien eta polizi errepresioaren bidez.

Ahalegin guzti hau sektore herritarren gain erortzen da bati-pat: auzokideen, langileen, giza eskubideen, zuzenbidearen, sektore konkretuen garapenaren (nekazari, indigena, emigratu...) alde lanean diharduten mugimenduen gain. Sektore herritar hauek mesfidantzaz ikusiak dira boterea beren artean banatzen duten alderdi politikoen aldetik, orain artean eduki izan duten agintearen monopoloia galdu ote lezaketen errezeloz.

Eta mugimendu herritar hauen aurka eraman ohi duten estrategia, zaharra bezain ezaguna da. Herriaren garapenaren bila dabilzan taldeok, komunistatzat eta, beraz, subertsibotzat aita-tzen dira publikoki komunikabideetan, politikoen argot-ean eta hizkuntzan eta gero, bigarren une batean, errepresio-neurriak ezartzen zaizkie publikoki herriaren ezinaren erdian eta honen eskarmenturako. Herriaren esnakunde-mugimenduei bizkarrezurra eten egiten zaie eta gauzek, horrela, bere hartan jarrai dezaketec: betikoen kontrolpean, betiko erara, betikoen onurarako.

Guzti honetaz iristen zaigun apurra, giza eskubideen aldeko erakundeek zabal dezaketena da: oso urria eta noizbehinkakoa, agentziek egunero zabaltzen digutenaren aldean.

Hala ere, informazio-iturri hauek damaigutena —giza eskubideen aldekoena ere— zenbaki eta deskribapen hotz bihur daki-gukeelako, nahiago nuke guzti hau zuzen-zuzeneko testigantza baten bidez argitzea.

JTC (Juventud Trabajadora Colombiana) izeneko herritar mugimendu batean lan egiten duen adiskide batek, hain zuzen, berri hauek ematen zizkidan oraindik orain jaso ditudan bere gutun pare batean:

La guerra sucia que vive el país —no se sabe quiénes contra quiénes— ante la opinión pública es el gobierno contra el narco, pero en realidad están arremetiendo contra el movimiento popular, con tres medios represivos: estado de sitio, Estatuto Antiterrorista y las últimas medidas que ha impuesto el Gobierno: no hay libertad para hacer reuniones, marchas o eventos públicos... La guerra que ha desatado el Gobierno es muy grande. No se sabe qué es mejor: que salga adelante el Gobierno a costa de la represión del pueblo (ante los otros países Barco [gaur egun Kolombiako lehendakaria, alegia] es lo mejor: ahora no creen que hay represión; y aunque hicieron comentarios los de Amnistía Internacional, el general Ministro de Defensa desmintió sus afirmaciones —entonces me acordé de ti—) o que sigan los narcos (ellos tienen el poder económico y ahora político con el grupo fascista MORENA) [hau da: Movimiento de Renovación Nacional]. Pero de cualquier modo, el pueblo siempre pierde.

Hitzon aurrean, dardaraz eta errespetuz, ez noa gehiago esatera. Izan ere adiskide honek mehatxu ugari jaso ditu eta ondorioz, etxe batetik bestera aldatuz bizitzera behartua aurkitzen da, bere burua zaintzeko; eta berak ondo daki, jakin, mehatxuok ez direla hitz hutsak: bere izeña mehatxaturik agertzen zen zerrenda bateko sei lagun erahilak izan dira dagoeneko.

Kristauak giro honen erdian

Latinamerikako herritar mugimendu hauek jasotzen duten sostengurik eta bultzadarik funtsezkoenetako bat —aitortu beharra dago— kristau-militanteen aldetik dator. Mugimendu hauek ez lukete orain azaltzen duten antolaketa-maila tinkorik izango, baldin eta, nolabait, elizarekin uztartuak ez baleude; ez lukete orain agertzen duten oinarri teorikorik eta ideologikorik izango, baldin eta beren artean Oinarrizko Eliz Elkarteetako teologoak eta pentsalariak ez baleude. Dena den, lehen baieztapen global honek zehaztapen batzuk egitea eskatzen du.

Oinarrizko kristau-militanteak

Nik somatu dudan neurrian behintzat, harridura sortzeko moduan ikusi ditut kristau-militanteak beren fedeari eta elizari atxekiak. Prest izango dituzu gehienbatean elizako lanetan esku

bat luzatzeko, ordu batzuk sartzeko, guzti horietan beste fededunekin batera lankide izateko. Ezagutu ditut, horrela, eliz lan horietarako prestatu nahirik, beren lanak edo eta emazte-senar-umeak utzi eta hilabetetako ikasketak egiten ihardun diren gizon eta emakumeak. Gehiago oraindik: ezagutu ditut baita eliz lan horietara buru-belarri ematearren, beren lanbideak utzi eta horretara liberatu diren pertsonak ere.

Baina besterik gabe ere harrigarria bada norberaren emate hau, oraindik ere harrigarriagoa egin zitzaidan kristau-fedea eliz esparrutik kanpora nola luzatzen duten ziurtatu ahal izan nuen. Oinarritzko Eliz Elkarteetan bilduta ala beste talderen batean ala inolako antolaketa-rik gabe, baina esku artean daramaten arazoan edo borrokan, hor txertatuko dizute beren fede-ikuspegiak: fededun bezala eramango dizute aurrera beren giza duintasunaren aldeko borroka; edo, bizi ahal izateko, beharrezkoak dituzten lur-sail batzuk eskuratzeko eginahalak.

Harrigarriak gertatzen dira puntu honetan Brasilgo kristau-elkarteak, lortu duten antolaketa- eta koordinazio-mailagatik. Gai dira, adibidez, asteetan zehar milaka pertsona mobilizatzen dituzten martxak (Brasildar Kristauen artean hain ezagunak eta hain esanguratsuak diren "caminada"k) eratzeko. Era oraindik harrigarriagoan, gai izan dira azken egun hauetan, Brasilgo 80.000 kristau-elkartetako partaideen bultzadari esker, Errepublikak hartako lehendakari-azarako hautagai bat aurkezteko: Luis Da Silva, "Lula", PTko (Langileen Alderdiko) hautagaia, alegia.

Eta hori gutxi bait litzan, Collor de Mello, aparatoren beste hautagaiarekin eskuz eskuko hauteskundera erabakiko den bigarren errondan berena ere sar erazi egin dute. Ale hau kaleratzen den egunerako izango ditugu hauteskunde hauen azken emaitzak.

Guzti hau halako aurpegi indartsuz ageri bazaigu ere Brasilgo gizartean, argi esan behar da, ez dela hango fenomeno soil bat: bizkorrago ala ahulago, baina Mexiko eta Ertamerikatik hasi eta Txileko azken herriraino zabaltzen dela, nazio guzti horietan dituzten egoera eta sistema politiko nahiz ekonomiko anitzen erdian.

Erlijosos-erlijiosak

Ez genuke elizaren kokagunea egoera honen erdian argi zehaztuko, kristau talde hauek kontutan hartuko ez bagenu. Ko-

lektibo honek erakusten digun kopurua ez da handia, kontinente osoaren biztanlegoarekin konparatuz, baina, hala ere, nabarmena da bere pisua, bai hor dauden izenengatik (Leonardo eta Clodovis Boff, Carlos Mesters, Jon Sobrino, etab.), bai talde osoak hartu dituen hautapenengatik eta herritar mugimendu osoan duten eraginagatik.

Ez da nire asmoa —orrion xedetik kanpo gelditzen bait da, gainera— itzal handiena dagiten pertsonen azalpen bat egitea. Hasieran aipatu dudan nire asmo nagusiari jarraiki —gure artean ezaguna ez den Latinamerikari buruzko informazio bat eskaintzea, alegia—, nahiago dut puntu globalago batzuk, eta, neurri berean, esanguratsuago batzuk eskaintzea.

Puntu horien artean, lehenik, duela 20 urtez gero, eta talde bezala, aurrera daramaten pobreen aldeko hautapena aipatu behar. Pobreen multzoa Latinamerika guztian ere hain zabala delarik, erlijiosoen talde osoak, beren izanari eta lanari baterakuntza ematen dien erakundea dela medio (CLAR = Confederación Latino Americana de Religiosos, alegia), hautapen hori egiaztatze-ko pauso oso serioak ematen dihardu.

Hori dela eta, beren lanak, etxebizitzak, ez pobreen zerbitzuan bakarrik, pobreen artean kokaturik, txertaturik jartzen ari dira, haien txabola-auzoetan eta indigenen artean.

Ezer ez duten familia hauetako seme-alabak hezitzeke, eskola-konfederakunde bat ere sortu dute eta iparretik hegoraino hedatua dago jadanik Latinamerika osoan.

Talde honetatik hartzen dute, gehienbatez behintzat, bultzadarik handiena Oinarrizko Kristau-Elkarteek beren fedezko interpretazio-tresna bezala erabiltzen duten askapen-teologiarako. Izan ere, askapen-teologia dela medio, kristauok egiten dituzten azterketok jartzen dituzte gero martxan inguru soziala zuzenago, senidekorrago, askeago egin nahi duten ahalegin eta konpromezuak.

Honela, Latinamerikan elkarrekin aurrez aurre topatzen diren interesen, ideologiaren, estrategien, indarren koordenada ezagunen arabera, Estatu Batuek (bera bait da kontinente osoaren ordenu orokor eta 'egokiaren' ardura daramana) eliz talde honekiko hartu duten estrategia, beste herritar mugimenduekiko hartu dutena, eta gorago aipatu dudan ezagun hura, berbera da; baina oraingo honetan, disimulurik gabe:

Es en este contexto en el que se debe entender la teología de la liberación como una *doctrina política* disfrazada de creencia religiosa con un significado anti-Papal y anti-libre-empresa, destinada a debilitar la independencia de la sociedad frente al control estatista... De esta forma, vemos la innovación de la *doctrina marxista* injertada en un antiguo fenómeno cultural y religioso¹².

Arazoa honela planteaturik, "Santa Fe II" Informeak Bush-igitegin dion proposamena, nahikoa erraz asma genezake. Beste testuinguru batean badator ere, zati honen aplikazioa, askapen-teologiari ere egin dakioke:

Las instituciones públicas y privadas de los Estados Unidos deben de empeñarse en educar a los líderes comunitarios y de los medios de comunicación sobre la naturaleza de la estrategia marxista-leninista *adaptada por los nacionalistas a temas del subdesarrollo*. El matrimonio del comunismo con el nacionalismo en América Latina proporciona el mayor peligro enfrentado hasta ahora por la región y por los intereses norteamericanos¹³.

Esaten nuenez, proposamen hau askapen-teologiari aplikadakioke. Baina aplikatzen ote? Nire eritzian, bai, eta bete-betean. Eta honen frogantza nabarmenena eta ezagunena, izan ere azkeneraino eramana izan bait da, oraindik orain El Salvador-eko lurretan egin den I. Ellakuriaren erahilketa da.

Baina gertaera solte bat ez denez eta gehiago ere edozein momentutan gerta daitezkeenez, lerro hauetatik aurrez adierazi nahi dut ozenki, Kolombiako lurraldean *edozein momentutan erahila izan daitekeela Alberto Parra, apaiz jesuita*. Aurrez eman beharreko pauso guztiak emanak daude: askapen-teologiaren pentsalari bezala ezaguna da, eta Bogota-ko egunkarietan, honenbestez, komunistatzat salatua izan da artikuluetan eta, grabego oraindik, editorialetan. Estrategia osoa borobiltzeko falta den gauza bakarra, beraz, honen erahilketa da; eta arriskua ez da imajinarioaren fruitua besterik gabe.

Eliz hierarkia

Azkenik jarri dut atal honetan apezpikuen multzoa; eta hori, azperraz egin dut. Zergatik? Bada elizaren zati direlako eta txiki-ena, gainera, nabarmenena diren arren. Sarritan ezagutu egin ohi da hauen jokabidea, eta eliza osoarena bailitzan ulertu. Elizaren gidaritza hauen esku dago, eta batzutan elizako partaide

guztiek in batera joango dira hauen jokabideak ere, baina beste batzutan dikotomia bat ere nabari da. Eta Latinamerika pobretu eta menderatuan, dikotomia hori oraindik ere nabarmenagoa egiten da.

Honela, badago gotzain-multzo bat herriaren pozekin, itxaropenekin, borrokekin, minekin fedez bat egiten duena eta ondorioz, ekintzaz ere bat egiten duena. Mundu guztian ezagunak dira San Salvador-eko Rivera y Damas gotzaina, edo Sao Felix do Araguaia-koa: P. Casaldáliga, edo Sao Paulo-ko, C.E. Arns, Kardinala, edo Recife gozain izandako Helder Camara.

Hauen artean ere badira erahilak; Oscar Romero, San Salvador-eko eliza batean meza ematen ari zenean guztien aurrean erahila da ezagunena. Baina badira gehiago ere, hain sonatuak ez izan arren: Angelelli, Argentinan; Beizamako semea zen Alejandro Labaka, Ekuadorren; Jaramillo, Kolombian, etab.

Baina bada, hauen parean, beste gotzain-multzo bat, herritar mugimenduetatik aparte, edo aurka dagoena ere, eta elizako buruan bizi den joera kontserbadore, hiperortodoxoaren ildotik abiatzen dena. Nahikoa adierazten du, adibidez, talde honen eraginez CELAMek (Confederacion Episcopal Latinoamericana) erlijiosoen konfederakundearekin —hau da CLAREkin— dituen eztabaidak Amerikaren deskubrimenduaren V. mendeurrenerako azken honek prestatu dituen materialak direla eta; edo CELAMek erlijiosoen Konfederakunde honekin berarekin maiz izan dituen tirabirek, azken honek hainbat liburu argitaratzeko orduan.

Hala ere, gatazkarik luzeena eta handiena, azken sei hilabeteetan eraman duena da, dudarik gabe, Erromako Erlijioso-Bizitzako Kongregazioarekin, CLAREN barneko izendapen batzuk direla eta ez direla¹⁴.

Honaino, lau arrastotan, eman nahi nituen notizia nagusienak. Guzti honetatik, zein inpresiorekin gelditu naiz? Hango gizartea, hango politika, hango kultura, hango gizon-emakumeak... dena irakiten dagoela, dena borborka ari dela. Nolabait esateko, ezegonkortasun handia somatzen da: dena egiteko dago (garraioak, bideak, industria, eskola, medikuntza...). Estatua bera ere oso gutxitara iristen da, horregatik, dena etorkizun da, dena gazte da, dena bizi-bizi, puri-purian agertzen da.

Europara itzuli orduko, berriro ere mundu zahar batean, zaharren munduan sartu nintzela sentitu nuen: dena egina dago, dena egituratuta dago, dena ziurta dezakezu edo, bestela, erreklamatu... baina era berean, dena mantsoago doa. Ilusioa ere ahulagoa da, badirudi etsipenduen artean bizi garela.

Horregatik, bidaia hau amaitu ondoren, eta orri hauei ere amaiera emateko, nik gonbite bat luzatuko nioke irakurleari gure lehen mundatar klitxeek, notizi nahiz bidai agentziek, estatu garatuetako gobernuak... eskaintzen diguten Latinamerikako irudia gaudituz, beste Amerika bat "aurkitzera", ezagutzera, bizitzera eta maitatzera abia dadin: gure egitura guzti horietatik kanpo, norberaren bizi-nahia eta beste pertsonak beraiengandik, beren barnetik, ezagutzeko asmoa soilik motxilan hartuta.

Eskema hauetatik planteatuz, bakarrik, ez da izango beste bigarren kolonizazio bat gainean dugun —eta ildo horretatik prestatzen ari den— V. mendeurrenaren ospakizun ofiziala.

¹ Latinamerika guztiaren aberastasuna, bere gaurko pobretasunaren eta menpekotasunaren iturri bezala ikusteko, zilegi bekit liburu ezin hobe bat gomen-datzea: GALEANO, E. *Las venas abiertas de América Latina*, Siglo Veintiuno, México, 1987⁽⁵³⁾. Bi ataletan zatitua dago eta lehen atalak izenburu hau du, hain zuzen: "La pobreza del hombre como resultado de la riqueza de la Tierra". Arestian diodana argitzeko, berriz, hona aipatu liburuak dioen zati bat, aski luzexka bada ere. (Azpimarrak nireak dira, kontrakoa adierazten ez den bitartean): «De la plantación colonial, subordinada a las necesidades extranjeras y financiada, en muchos casos, desde el extranjero, proviene en línea recta el latifundio de nuestros días. Este es uno de los cuellos de botella que estrangulan el desarrollo económico de América Latina y uno de los factores primordiales de la marginación y la pobreza de las masas latinoamericanas. El latifundio actual, mecanizado en medida suficiente para multiplicar los excedentes de mano de obra, dispone de abundantes reservas de brazos baratos... Al latifundio le basta con el pago de jornales irrisorios, la retribución de servicios en especies o el trabajo gratuito a cambio del usufructo de un pedacito de tierra; se nutre de la proliferación de los minifundios, resultado de su propia expansión, y de la continua migración interna de legiones de trabajadores que se desplazan, empujados por el hambre, al ritmo de las zafras sucesivas.

La estructura combinada de la plantación funcionaba, y así funciona también el latifundio, como un colador armado para la *evasión de las riquezas naturales*. Al integrarse al mercado mundial, cada área conoció un *ciclo dinámico*; luego, por la competencia de otros productos sustitutos, por el agotamiento de la tierra o por la aparición de otras zonas con mejores condiciones, sobrevino la *decadencia*. La *cultura de la pobreza*, la *economía de subsistencia* y el *letargo* son los precios que cobra, con el transcurso de los años, el impulso

productivo original. El nordeste era la zona más rica de Brasil y hoy es la más pobre; en Barbados y Haití habitan hormigueros humanos condenados a la miseria; el azúcar se convirtió en la llave maestra del *dominio* de Cuba por los Estados Unidos, al precio del monocultivo y del empobrecimiento implacable del suelo. No sólo el azúcar. Esta es también la historia del cacao, que alumbró la fortuna de la oligarquía de Caracas; del algodón de Maranhão, de súbito esplendor y súbita caída; de las plantaciones de caucho en el Amazonas, convertidas en cementerios para los obreros nordestinos reclutados a cambio de moneditas; de los arrasados bosques de quebracho del norte argentino y del Paraguay; de las fincas de henequén, en Yucatán, donde los indios yaquis fueron enviados al exterminio. Es también la historia del café, que avanza, abandonando desiertos a sus espaldas, y de las plantaciones de frutas en Brasil, en Colombia, en Ecuador y en los desdichados países centroamericanos. Con mejor o peor suerte, cada producto se ha ido convirtiendo en un destino, muchas veces fugaz, para los países, las regiones y los hombres... *Cuanto más codiciado por el mercado mundial, mayor es la desgracia que un producto trae consigo al pueblo latinoamericano que, con su sacrificio lo crea*» (azpimarra hau egilearena da). Ib., 92-94.

- 2 Informazio eta ikuspegi zabalago eta sakonago baterako, ik. GALENO, E. o.c. Bere osotasunean arras egokia da eta, bereziki, "La estructura contemporánea del despojo" kapitulua.
- 3 Inoiz ere ez esatea, gehiegizkoa da; egia. Behin, behintzat, ikusi dut aipatua: Egin egunkariak A. Pérez Esquivel Bakearen Nobel sari-irabazleari egiten zion elkarrizketa batean, honek egiten zuen aipua.
- 4 BOUCHEY, F.; FONTAINE, R.; JORDAN, D.; SUMMER, G. Jr.; TAMBS, L. (argitaratzailea) *Una estrategia para América Latina en los 90* (pro manuscrito).
- 5 BOUCHEY, F.; FONTAINE, R.; JORDAN, S.; SUMMER, G. Jr.; TAMBS, L. (argitaratzailea) *Una nueva política interamericana para los ochenta*.
- 6 Gaztelerazko itzulpena kolonbiar argitaratzaileak ematen duena da.
- 7 Ibid. III Parte, Propuesta nº 4.
- 8 Ibid. IV Parte, Propuesta nº 10.
- 9 Ibid.
- 10 Kolombian, esaterako, gauza jakina da kartelen inguruan —hauen zuzen-zuzeneko gidaritzapean nahiz hauen diru-injekzioei esker— sortu diren "holding"ak. Dirutza honi esker, hain zuzen, mentatzen da Medellinen eta Kaliren gorakada. Azken udaberriko datuen arabera, Kolombian *milioi batean* kalkulatu zen kokaren zuzen-zuzeneko edo era bateko nahiz besteko lanetan zebiltzan lagunen kopurua; eta guzti honi, kokari esker bizi diren beste ekonomi alorretako langileak eta hauen familiak erantsi behar, noski, kokaren munduak Latinamerikako nazio hauetako ekonomian duen pisu nabarmena ondo neurtzeko.
- 11 Laguntza hau, ordea, hobeki uler daitekeelakoan oraindik, hona "Santa Fe II" Informearen xehetasun batzuk: ... "El Gobierno colombiano ha montado, a lo más, una débil campaña en contra de estas dos amenazas. *Las fuerzas de seguridad son muy reducidas y no están muy bien equipadas*"... "El papel norteamericano no ha sido de mucha ayuda... La administración Reagan...

redujo recientemente el *programa de asistencia de seguridad* para Colombia. Esta decisión fue un grave error porque ha socavado la capacidad de Colombia de tomar medidas drásticas en contra de sus dos amenazas" (gerrila eta kokainaren kartelak, alegia) (*o.c.* IV Parte, Propuesta nº 5).

¹² *O.c.*, X Parte, "La ofensiva cultural marxista".

¹³ *O.c.*, III Parte, Propuesta nº 5.

¹⁴ Honen berri zehatzagorik jakin nahi izanez gero, Ik. *Clar*, número especial (medida excepcional del Secretariado de la *Clar*), Bogotá, oct. 1989; *Vida Nueva*, nº 1711, 11 nov. 1989, 25-32.

Jaso ditugu

- AGIRRE SORONDO, Antxon: **Guía de fiestas populares de Guipúzcoa**, GK. Kultur Fundazioaren Argitalpenak, Donostia, 1988. 28,7 × 24 cm. 271 or.
- AIZPURUA, Joxerra; ANGULO, Patxi; RODRIGUEZ, Iñaki: **Matematika. U.B.I. (II) C eta D aukerak**, Elhuyar / Elkar, Donostia, 1989. 24 × 17 cm. 437 or.
- AIZPURUA, Martxel: **Erleen bizitza ezkutua**, Gaiak, Donostia, 1989. 21,5 × 17 cm. 220 or.
- ASKOREN ARTEAN: **475 Aniversario Conquista de Navarra**. Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989. 24 × 17 cm. 120 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Colección Documental del Archivo Municipal de Durango. Pleitos. Tomo IV**, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989. 23 × 16 cm. 469 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Ele 5**, AEK, Bilbo, 1989. 21 × 15 cm. 212 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Euskara Biltzarra. I. Atala: Hizkuntz deskribapena. I. Alea / Congreso de la Lengua Vasca. Area I: Descripción de la Lengua. Tomo I**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988. 29,5 × 20,5 cm. 425 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Euskara Biltzarra. II. Atala: Hizkuntza eta Gizartea. II. Alea / Congreso de la Lengua Vasca. Area II: Lengua y**

- Sociedad. Tomo II**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988. 29,5 × 20,5 cm. 468 or.
- ASKOREN ARTEAN: Euskara Biltzarra. III. Atala: Euskara eta Hizkuntza naturalak eskuratu eta irakastea. III. Alea / Congreso de la Lengua Vasca. Area III: Adquisición y enseñanza del euskara y lenguas naturales. Tomo III**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988. 29,5 × 20,5 cm. 364 or.
- ASKOREN ARTEAN: Jornadas sobre Cortes, Juntas y Parlamentos del Pueblo Vasco**. Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989. 24 × 16,5 cm. 438 or.
- AZKUNE, I.; IRAZABALBEITIA, I.: Inguratzen gaituen mundua 1. OHO. Fisika**, Elkar / Elhuyar, Donostia, 1989. 24 × 17 cm. 133 or.
- AZKUNE, I.; IRAZABALBEITIA, I.: Inguratzen gaituen mundua 2. OHO. Natur Zientziak**, Elkar / Elhuyar, Donostia, 1989. 24 × 17 cm. 140 or.
- BEREZIARTU, Karlos; LIZEAGA, Mikel; Elhuyar Fisika- eta Kimika-taldeak: Fisika eta Kimikazko ariketak. 12. Lana eta potentzia energia**, Elkar, Donostia, 1989. 24 × 17 cm. 102 or.
- CARO BAROJA, Julio: Euskal jainko eta jainkosak, olentzero eta sorginak** (euskaratzailea: AGIRRE, Edorta), Gaiak, Donostia, 1989. 21,5 × 17 cm. 223 or.
- COSTAS, Jose Manuel: Ladis**, GK, Donostia, 1988. 21 × 13,5 cm. 16 or.
- EK, Jan A. van: Hizkuntza arrotzen ikaskuntzarako helburuak** (euskaratzailea: IÑURRIETA, Iñaki), Habe, Donostia, 1989. 21,5 × 14,5 cm. 99 or.
- EK, Jan A. van: Hizkuntza arrotzen ikaskuntzarako helburuak. I. liburukia: Nondik-norakoak**, Habe, Donostia, 1989. 21,5 × 15 cm. 103 or.
- ETXEBARRIA, Jon Gotzon: De vita exemplarium presbyterorum vasconum**, Egile editore, Gernika, 1989. 21,5 × 15,5 cm. 59 or.
- ETXEBARRIA, Jon Gotzon: In nomine tuo, domine**, Egile editore, Gernika, 1989. 16,5 × 11,5 cm. 61 or.
- ETXEBARRIA, Jon Gotzon: Platonen Politeia**, Egile editore, Gernika, 1989. 21,5 × 15,5 cm. 84 or.

- ETXEBARRIA, Jon Gotzon: **Plinio Gaztea eskutitzak**, Egile editore, Gernika, 1989. 16,5 × 11,5 cm. 36 or.
- ETXEBARRIA, Jon Gotzon: **Syn póno**, Egile editore, Gernika, 1989. 21,5 × 15,5 cm. 32 or.
- ETXEBARRIA, Jon Gotzon: **Tertulian: Martiriei**, Egile editore, Gernika, 1989. 16,5 × 11,5 cm. 80 or.
- EUSKO IKASKUNTZA: **Memoria 1987-1988**, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989. 24 × 17 cm. 227 or.
- GARMENDIA ARRUEBARRENA, José: **Diccionario Biográfico vasco. "Méritos, servicios y bienes de los vascos en el Archivo General de Indias"**. Historia-Geografía 12, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989. 24 × 17 cm. 332 or.
- GARRAIO ETA HERRILAN SAILA (E.J.): **Euskal Herriko Errepideen Egitamu Nagusiaren Aintzin-Adierazpena / Avance del Plan General de Carreteras del País Vasco**, E.J. Garraio eta Herrilan Saila, Gasteiz, 1989. 29,5 × 21 cm. 95 or.
- HABE; UZEI: **Euskara-irakaslearen eskuliburua**, Habe, Donostia, 1989. 25 × 17 cm. 428 or.
- HABEren Glotodidaktika Zerbitzua: **Euskaldunak euskaran jazen**, Habe, Donostia, 1988. 27,5 × 20 cm. 382 or.
- KULTURA ETA TURISMO SAILA (E.J.): **Zer egin dezaket atzerrian**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1989. 21 × 15 cm. 173 or.
- KULTURA ETA TURISMO SAILA. GAZTERIA ETA KOMUNITATE-EKINTZARAKO ZUZENDARITZA (E.J.): **Zer egin dezaket uda hone tan Euskal-Herrian. 1989**, E.J. Argitalpen Zerbitzu, Nagusia, Gasteiz, 1989. 22 × 22 cm. 311 or.
- LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA (E.J.): **La percepción social en el adolescente inadaptado**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988. 24 × 17 cm. 94 or.
- LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA (E.J.): **Primeras Jornadas sobre adopción y acogimiento familiar**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1989. 24 × 17 cm. 173 or.
- MENDIZABAL, Xabier; ZOZAIA, Simon; Elhuyar Matematika-Taldea: **Matematikazko ariketak. 5. Zenbakiak. Erroketa eta berreketak**, Elkar, Donostia, 1989. 24 × 17 cm. 103 or.

MENDIZABAL, Xabier; ZOZAIA, Simon; Elhuyar Matematika-Taldea: **Matematikazko ariketak. 7. Progresio aritmetiko eta geometrikoak**, Elkar, Donostia, 1989. 24 × 17 cm. 76 or.

MORGAN, John; RINVOLUCRI, Mario: **Hiztegia lantzen** (euskara-tzailea: INURRIETA, Iñaki), Habe, Donostia, 1989. 21,5 × 15 cm. 186 or.

SARRIEGI, Andoni; Elhuyar Teknologi Taldea: **Materialen erresistentzia (I) Injinerutza ta Arkitektura. (Teoria)**, Elhuyar, Donostia, 1989. 24 × 17 cm. 685 or.

SARRIEGI, Andoni; Elhuyar Teknologi Taldea: **Materialen erresistentzia (II). Injinerutza eta Arkitektura. (Ariketa-liburua)**, Elhuyar, Donostia, 1989. 24 × 17 cm. 349 or.

SOROZABAL, Pablo: **La calle es mentira**, GK, Donostia, 1988. 21 × 13,5 cm. 109 or.

JAKIN

EUSKAL HISTORIOGRAFIA

**Toponimiaz
Irakasle-rol-a
Euskara juridikoa
Beste Latinamerika**

Azaroa
Abendua

55

1989



JAKIN

Ategorrieta hiribidea, 23, 1. esk. – 20013 Donostia
Tel.: (943) 27 17 13